

euskara
institutua

**ESPEZIALITATE HIZKERAK ETA
TERMINOLOGIA III:**

**ESPEZIALITATE HIZKEREN DIDAKTIKA
ETA KOMUNIKAZIOA**

**Pello Salaburu Etxeberria
Iñaki Ugarteburu Gastañares
(argit.)**

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

ESPEZIALITATEKO HIZKERAK ETA TERMINOLOGIA III

ESPEZIALITATE HIZKEREN DIDAKTIKA ETA KOMUNIKAZIOA

**Pello Salaburu Etxeberria eta Iñaki Ugarteburu Gastañares
(argit.)**

EUSKARA INSTITUTUA – EHU

eman ta zabal zazu



**Universidad
del País Vasco**

**Euskal Herriko
Unibertsitatea**

**A R G I T A L P E N
Z E R B I T Z U A
SERVICIO EDITORIAL**

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-691-6424-2

2008ko abenduaren 22a

Aurkibidea

Aurkezpena: Axun Aierbe gogoan 5

HITZALDI NAGUSIAK

- “Una propuesta de metodología para trabajar con los géneros discursivos de cada disciplina o licenciatura”. Daniel Cassany, Pompeu Fabra Unibertsitatea (Bartzelona) 9
- “Espezialitate hizkeren didaktika Europako Unibertsitate Eremuan: gaitasunetara zuzendutako irakasbidea”. Joseba Ezeiza, EHU 25
- “Hiztegi Batua zertan den”. Pello Salaburu, EHU 55

KOMUNIKAZIOAK

- “Definizioen idazkera: hizkuntza-moldeak eta diskurtso-estrategiak azalpenezko testu espezializatueta”. Xabier Alberdi, EHU 77
- “Txontak eta txolarreak: gogoeta bat ereduzko prosa zientifikoaren gainean”. Kepa Altonaga, EHU 93
- “Esku-pilotako hiztegia: hitz teknikoak eta adierazpideak”. Xabier Altzibar, EHU 113
- “Administrazio hizkera. Prestakuntza on line”. Xabier Amatria, IVAP-HAEE 121
- “*Orekatzen*, laneko euskaraz aritzeko baliabide lagungarriak eta jarrerak”. Imanol Azkue, Elhuyar Fundazioa 131
- “Dibulgazio mailako dokumentalen itzulpena ikus-entzunezko itzulpen espezializatuan”. Josu Barambones, EHU 137
- “Arauen erabileraz eta erabileraren araez: gogoeta linguistikoaren lekua unibertsitate-irakaskuntzan”. Agurtzane Elordui, EHU 145
- “Hizkera bereiztuen didaktika eta plataforma telematikoak: PREST proiektua”. Ainhoa Ezeiza, EHU 159
- “Zientzietako hizkeraren erabilmenduan, hamar mandamendu betekizun”. Jazinto Iturbe, EHU 171
- “Terminologi kudeaketa Euskal Irrati Telebistan”. Asier Larrinaga, EITB 179
- “Euskara zientifiko-teknikoko terminologia homologatuaren beharra”. Jesus Maria Txurruka, EHU 183
- “Negoziazioa eta elkarlana, testugintzaren oinarri”. Iñaki Ugarteburu, EHU 193

“Especialitate hizkerak itzulpengintza berezituko eskoletan”. Ibon Uribarri eta Josu Barambones, EHU 199

“Kontzeptu mapak, tresna didaktiko gisa, euskaraz erabiltzeko ere”. Txomin Villarroel, EHU, eta Alfredo Tifi, Divini (ITIS) 205

“GARATERM: Diskurtso akademiko-profesionalaren didaktika eta garapena uztartzeko tresna informatikoen diseinu eta integrazioa helburu duen proiektua”. Igone Zabala, EHU 211

MAHAI INGURUKOAK

Aurkezpena: Iñaki Ugarteburu Gastañares (EHU) 223

EIMA programa (Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila): Andres Alberdi 225

HAEE-IVAP (Duda-Muda Zerbitzua): Mertxe Olaizola eta Xabier Amatria 227

Elhuyar Fundazioa (Elhuyar Hizkuntza Zerbitzuak): Alfontso Mujika 229

AHOZKO AURKEZPENA

“Birformulazio-estrategiak eta komunikagarritasuna administrazio testuetan”. Axun Aierbe, EHU 239

AXUN AIERBE GOGOAN

(1968-2008)

Liburu hau ezin has zitekeen beste era batera, irakurle. Axun Aierbe, itzultzaile, irakasle eta hizkuntzalaria lankide izan dugu jardunaldi honetan, eta baita aurrekoetan ere. EHUko Euskara Institutuak dituen helburuetako bat da espezialitateko hizkuntza eta adierazpideak aztertzea eta ikertzea. Eta horretan aritu izan da Axun Aierbe zenbait urtetan, bereziki administrazioko hizkerari begira. Zeregin horretan aztergai izan ditu azken urteetan administrazio-hizkera, esparru horretako testuen azterketa (sintaxi baliabideak, fraseologia, terminologia), administrazio arloko testu itzulien analisisa edo, oro har, itzulpen lanaren ikerketa.

EHUko Euskara Institutuak antolatu zuen jardunaldian erabili zuen gaia honako hau izan zen: “Birformulazio-estrategiak eta komunikagarritasuna administrazioko testuetan”. Baita maisuki azaldu ere, tesia laburki honako hiru ideia edo ondoriotan laburbilduz:

- Administrazioko gaztelaniazko testuetan gehien baliatzen diren birformulatzaileak azalpenezkoak eta urruntzea adierazten dutenak dira, baina oso leku urria dute bai zuzenketak sartzeko baliatzen direnek baita laburbiltzeko erabiltzen direnek ere.
- Euskaratzerakoan aldakortasun handia dago testu batetik bestera: batzuetan, itzultzaileak baliokide jakin bat edo beste bat hautatzen duelako; baina, beste batzuetan, testu berean ere ikus daiteke aldakortasuna.
- Euskarazko testuan, batzuetan birformulatzailea eransten da, jatorrizko testuan birformulatzaile espliziturik ez agertu arren; eta esaldi luzeak ulerterrazago izaten laguntzen duenez, komunikaziorako lagungarri gerta daiteke.

Ikerketaren emaitza ohiko eredura (artikulu itxurara, alegia) ekartzen ari zela iritsi zitzaion azken ordua. Gutako batzuek Axunekin egoteko aukera izan genuen Almerian izan zen AESLA elkartearen azken biltzarrean eta han eman zigun hitza lehenbailehen lana txukundu eta helaraziko zigula. Ezin, ordea. Eta besterik ezean, urtarrilean EHUko jardunaldian azalpenerako erabili zuen euskarria argitaratzea erabaki dugu, Axunen omenez, beste lan guztiekin batera. Ez adiorik, Axun, lankide eta adiskide.

Batzorde Antolatzailea
Euskara Institutua
EHU

HITZALDI NAGUSIAK

The logo for Euskara Institutua features a stylized speech bubble containing the letter 'e', followed by the words 'uskara' and 'institutua' in a clean, sans-serif font.

euskara
institutua

METODOLOGÍA PARA TRABAJAR CON GÉNEROS DISCURSIVOS

Daniel Cassany
Universitat Pompeu Fabra

PRESENTACIÓN

Vamos a esbozar las líneas didácticas y los conceptos teóricos más importantes de una metodología de aprendizaje de los lenguajes de especialidad a partir de la lectura y la escritura de los géneros discursivos propios de las disciplinas o los campos del saber que han generado dicho lenguaje de especialidad. En el primer apartado presentamos los conceptos de *comunidad discursiva*, *comunidad de práctica* y *géneros discurso*, que fundamentan nuestra propuesta, además de ejemplificarlos con la descripción de uno de los géneros escritos más investigados y útiles en el aprendizaje de segundas lenguas para fines específicos (el artículo científico), y con la presentación de otra investigación sobre los géneros discursivos del campo de la Odontología.

El segundo apartado, centrado en cuestiones estrictamente metodológicas, expone algunas orientaciones para diseñar un programa de aprendizaje basado en géneros, para fomentar la lectura y el comentario de textos en el aula, y para facilitar el desarrollo de los procesos de escritura en la producción de textos. El tercer apartado presenta un par de ejemplos de géneros de diferentes ámbitos con prácticas de reformulación y simplificación de la prosa, para ver como la enseñanza de los géneros puede complementarse con acciones dirigidas hacia la estandarización, la simplificación y la mejora de la calidad en la comunicación. Finalmente, unas breves conclusiones destacan los puntos más relevantes de esta metodología.

1. COMUNIDAD DISCURSIVA Y DE PRÁCTICA Y GÉNERO DISCURSIVO

Entenderemos de manera más global, objetiva y práctica los lenguajes de especialidad si atendemos a los textos —orales y escritos, pero sobre todo escritos— que se intercambian los especialistas entre sí, para desarrollar su actividad profesional, en vez de centrarnos solo en los vocabularios terminológicos o fraseológicos, en las características sintácticas de la prosa especializada o en el formato y en la estructura que tienen los formularios de documentos. Para cumplir con su trabajo, los profesionales suelen desarrollar varias prácticas letradas sofisticadas, de lectura, escritura y conversación o comentario oral, que requieren el uso de

esos lenguajes de especialidad. Cada grupo de profesionales, dentro de su disciplina, ha desarrollado sus propias prácticas sociales y lingüísticas, por lo que es relevante atender a los conceptos de *comunidad discursiva* y *comunidad de práctica*, para entender el contexto en el que surgen esas formas particulares de comunicación, y al concepto de *género discursivo* para dar cuenta de cada una de esas maneras específicas de usar el lenguaje.

1.1. Comunidad discursiva y de práctica

Una *comunidad discursiva* es un grupo humano que comparte unas prácticas comunicativas particulares, usando unos textos particulares, para conseguir unas finalidades específicas, entre autores y lectores que asumen roles predeterminados. A través de esas prácticas y de sus textos, los miembros de la comunidad llegan a compartir conocimientos específicos, unas habilidades cognitivas para procesarlos, unas actitudes y una determinada mirada sobre la realidad, que son exclusivas del grupo y que acaban constituyéndose como una marca de identidad frente a profesionales de otros ámbitos y frente a comunidades de otros ámbitos. Como sugiere el siguiente esquema, ser miembro de una comunidad implica conocer los mecanismos de producción, transmisión y recepción del conocimiento que manejan sus miembros; dominar los géneros discursivos con que se materializa la comunicación entre si y la construcción de dicho conocimiento; poder (des)codificar los diferentes sistemas de representación del conocimiento empleados; asumir los roles, el estatus y la identidad que se adopta, además de haber adquirido los recursos lingüísticos específicos (terminología, fraseología, estructura del texto, etc.):



Desde esta perspectiva, aprender un ‘lenguaje de especialidad’ significa bastante más que adquirir unos conocimientos lingüísticos sofisticados: significa acceder a una comunidad discursiva única, que es la que usa bajo unas determinadas condiciones el lenguaje de especialidad correspondiente. Además de los contenidos gramaticales y léxicos, hay que aprender los aspectos socioculturales, pragmáticos y retóricos propios de cada práctica comunicativa: qué se comunica, cómo, de qué manera, para qué y con quién.

Otro concepto afín y útil para nuestra propuesta metodológica es el de *comunidad de práctica*, de Etienne Wenger (ver Wenger, 2008, y Barton y Tusting, 2005, para una aplicación del concepto al campo de la literacidad, de la lectura y la escritura). Una comunidad de práctica es una agrupación de personas que: a) comparte unos propósitos y un contexto cognitivo; b) interactúa entre sí con cierto compromiso, y c) desarrolla unas rutinas comunicativas y un repertorio propio de géneros discursivos —con el que construyen su identidad. Sin duda, esas “rutinas comunicativas” incluyen los géneros discursivos propios del ámbito, que los miembros de la comunidad aprenden al:

1. implicarse en la comunidad con compromiso;
2. participar activamente en sus prácticas letradas, leyéndolas, escribiéndolas, hablando de ellas y usándolas en contextos auténticos para finalidades reales, y
3. construir una identidad a partir del uso de los recursos.

Wenger (2008) nos avisa de que no cualquier “agrupación” o “comunidad” es una comunidad de práctica: una asociación de vecinos o los usuarios de un gimnasio no cumplen las condiciones anteriores. Por otro lado, el aprendizaje no siempre desarrolla las mismas funciones en las comunidades de práctica: a veces es la “causa” de la constitución de una comunidad (un grupo que quiere aprender tai-chi, inglés, ajedrez) y otras veces es la consecuencia de la misma (una pandilla de amigos que decide empezar a jugar a videoconsolas y aprende así a hacerlo).

El concepto de “comunidad de práctica” ha merecido el interés de diferentes ámbitos y colectivos (empresas, educación, etc.) como marco y herramienta para formar a las personas. En este sentido, se revela sumamente poderosa y sugerente la idea de plantear el aprendizaje de los lenguajes de especialidad —o de los géneros discursivos y de las prácticas letradas propias del ámbito— a través de la creación de “comunidades de práctica” auténticas o simuladas, que fomenten interacciones auténticas entre sus miembros.

1.2. Género discursivo

Sin duda, el concepto lingüístico más operativo para plantear la enseñanza-aprendizaje de la lectura y la escritura de los textos propios de una comunidad de práctica es el de *género discursivo*. El género es visto como una forma de comunicación particular, generada en un contexto social, histórico y espacio-temporal concretos:

Un género abarca una clase de actos comunicativos (*events*) que comparte un mismo grupo de propósitos. Los expertos de la comunidad discursiva reconocen estos propósitos que constituyen la base (*rationale*) del género. Esta base conforma la estructura esquemática del discurso e influencia y restringe la elección del contenido y del estilo. [...] Los ejemplares de un mismo género exhiben grados variados de similitud en la estructura, el estilo, el contenido y la audiencia. Los ejemplares que poseen las opciones más probables son vistos como prototípicos por la comunidad discursiva. John Swales (1990: 58)

El género se refiere a las diversas formas abstractas y sociales de usar el lenguaje. Asume que las características de un grupo similar de textos [o género] dependen del contexto social en que se ha creado y en que se usa, y que podemos describir estas características para agrupar los textos parecidos entre si y para determinar las elecciones y las restricciones que debe afrontar el autor al escribirlos. De este modo, se concibe el lenguaje como algo incrustado en la realidad social y como algo constitutivo de la misma. Es a través del uso recurrente de formas convencionalizadas de lenguaje que los individuos desarrollan sus relaciones, se establecen las comunidades y se realizan las cosas. Ken Hyland (2003: 21)

Hay muchos ejemplos de géneros según la disciplina: los géneros periodísticos de información (noticia, reportaje) y de opinión (columna, editorial), los géneros académicos (apuntes, examen, manual), los jurídicos (ley, norma) y judiciales (demanda, sentencia), los administrativos (instancia, certificado), los comerciales (factura, catálogo), los científicos de investigación (artículo, reseña), etc. Entre los géneros orales o escritos para ser oralizados, podemos citar el sermón religioso, el panfleto político, el pregón en una fiesta mayor o el boletín informativo de radio o televisión.

En Cassany (2006) se describe de manera más detallada y ejemplificada el concepto de género discursivo, para su uso en la enseñanza-aprendizaje de la escritura profesional. Entre otros aspectos, los géneros discursivos (siguiendo Berkenkotter y Huckin, 1995):

- **son dinámicos**; son formas retóricas desarrolladas con el tiempo que estabilizan la experiencia y dan coherencia y significado a la acción del individuo;
- **están situados**; tienen un punto de vista situado en un ámbito cultural, idiomático, contextual, etc.
- **están organizados en forma y contenido**; conocer un género exige dominar su contenido y su forma;
- **construyen y reproducen estructuras sociales**; conforman grupos profesionales, estatus, etc.

- **delimitan comunidades discursivas**, con sus normas, epistemología, ideología, etc.
Dentro de una comunidad discursiva, el género discursivo ejerce tres funciones diferentes:
- **Cognitiva**. Construye y formaliza el conocimiento de una disciplina. Lo que sabemos de un determinado campo es la suma del contenido de lo que se ha publicado o dicho en el conjunto de sus géneros discursivos básicos: por ejemplo, la jurisprudencia, como el compendio de sentencias e historia judicial; la ciencia como el conjunto de los artículos de investigación publicados.
- **Interpersonal**. Construye la identidad (la imagen o *face*) del autor, miembro de la comunidad. El estatus social (entendido en términos de valor, poder, reconocimiento) de un determinado miembro de la comunidad depende del uso que hace de los géneros de su campo: así, en la universidad, se dice coloquialmente *publish or perish* para significar que un académico acaba siendo valorado por lo que ha publicado.
- **Social y gremial**. Contribuye a establecer el estatus de los miembros de la comunidad discursiva en la sociedad, con relación a otras comunidades discursivas. Así, el estatus social que pueden tener determinadas disciplinas y profesiones (médico, economista, maestro, etc.) depende en buena parte de factores socioculturales e históricos, en los que desempeñan un papel fundamental los géneros discursivos.

En conjunto, vemos como el género discursivo constituye que abarca tanto cuestiones formales (estructura del texto, terminología propia, etc.) como de contenido (qué se dice, cómo, por qué y para qué). De esta manera, aprender a leer, escribir y utilizar un determinado género constituye un aprendizaje profesional completo, que va mucho más allá de lo gramatical o verbal: se aprende a desarrollar una actividad laboral de manera completa. Vamos a ver dos ejemplos que muestran este punto con cierto detalle.

1.3. El artículo científico

En Cassany (2005) sintetizamos lo que sabemos de uno de los géneros escritos que más personas aprenden a escribir en una L2 en el mundo, probablemente, y que ha merecido más atención por parte de los investigadores: el artículo científico (AC a partir de ahora). Sin entrar en detalles, el AC nace en el siglo XVII a partir de las cartas personales breves con que los científicos europeos se comunicaban sus hallazgos, para evitar la censura política y religiosa y para prescindir del lento y costoso proceso editorial. El estudio longitudinal de boletines de la época (*Philosophic Transactions of the Royal Society of London* desde 1665 o *Physical Review* desde 1893; Bazerman, 1988) muestra que en el ámbito concreto de las ciencias físicas:

- a) el concepto de “experimento” evoluciona desde cualquier tipo de experiencia hasta el actual diseño de “investigación intencional”, situada en un campo específico, con unos objetivos y unas hipótesis que deben comprobarse;
- b) con el tiempo aumenta la importancia y la extensión del apartado de *Metodología*, de modo que los lectores del artículo puedan reproducir y validar la experiencia reseñada,
- c) también se incrementa el número y la especificidad de las citaciones de referencias bibliográficas, centradas cada vez más en los datos que se comentan.

Del mismo modo, el estudio comparativo de las formas de cortesía usadas para discrepar (Salager-Meyer, Alcaraz Ariza y Zambrano, 2003) muestra la preferencia contemporánea en los artículos de medicina por el estilo más neutro e indirecto (como en 3, en los siguientes ejemplos), a diferencia de las modalizaciones (halagos: *autorizada, maestro y eminente*) y de las personalizaciones habituales en 1 y 2:

- (1) Permítanos el Sr. Ponte que, hoy por hoy, apoyados en el estado actual de nuestros conocimientos, no participemos de su autorizada opinión. [1885]
- (2) Terminantemente y sin vacilación alguna, no podemos estar de acuerdo con los resultados del maestro y eminente práctico Sr. Ribas Pujol. [1880]
- (3) Así, nuestros resultados no confirman la opinión de que la aparición de la neuropatía diabética no se relaciona exclusivamente con la edad del paciente, sino también con la duración de la enfermedad. [1994].

En conjunto, estos estudios diacrónicos prueban la existencia de un proceso histórico-social de desarrollo paulatino del género AC, en contra la percepción más popular de que se trata de una estructura ‘natural’ e inmutable. También plantean el hecho de que su formato y estructura varían en parte según las ciencias y las épocas particulares y, además, reflejan en cada momento la epistemología particular de la ciencia correspondiente. El AC es un género discursivo como el libro de caballerías, el sermón de misa o la sentencia judicial, con sus propias características epistemológicas.


En un plano sincrónico, varios estudios describen los rasgos discursivos y léxico-gramaticales del artículo científico, conocido por su estructura estándar de *IMRD*: *Introducción, Metodología, Resultados y Discusión*, que Hill et al. (citado por Swales, 1990) representan con este esquema. Como indican las figuras geométricas, el artículo empieza de modo general para cerrarse paulatinamente con los objetivos, el procedimiento y los resultados (marcados con un rectángulo más estrecho) y abrirse nuevamente a la generalidad.

La *Introducción* de este género suele contener las siguientes *secuencias (moves)* principales (Swales, 1990: 141), que a su vez constan de varios pasos o componentes:

- 1) el autor establece un territorio o campo de estudio (pide atención, generaliza, revisa investigaciones previas, etc.);
- 2) el autor identifica un agujero o nicho (formula preguntas, sigue la tradición, etc.), y
- 3) el autor ocupa el nicho con el trabajo que presenta (plantea objetivos, avanza resultados, muestra la estructura del texto, etc.).

No resultan menos sugerentes las investigaciones sobre cómo los lectores de artículos científicos lidian estratégicamente con la estructura IMRD. Muchos científicos siguen el recorrido *Título* → *Abstract* → *Gráficos y tablas visuales* → *Resultados* → *Discusión o Introducción* (según los casos), pero si leen sobre un tema desconocido tienden a seguir más fielmente la estructura IMRD. En cambio, los científicos que leen un artículo para usarlo y citarlo leen primero la *Introducción* y después la *Conclusión*, saltándose el resto. Burrough-Boenisch (1999) muestra que el orden de lectura de estos apartados, incluyendo la *Bibliografía*, varía para un mismo lector según esté leyendo como científico que quiere enterarse del contenido (ámbito privado) o como revisor anónimo o editor de la revista en la que pretende publicar el artículo (ámbito público); así, algunos científicos se fijan primero en la *Bibliografía* citada para formarse una opinión sobre el enfoque y la tradición del estudio, otros dejan la *Metodología* para el final por ser el apartado con menos novedades.

Sin duda estos estudios permiten organizar el aprendizaje de este género de modo mucho más eficaz. En vez de aprender a todo el lenguaje de especialidad de la ciencia (o de una determinada disciplina), podemos plantearnos enseñar y aprender a leer y escribir “artículos de investigación”. Al conocer su estructura exacta, los recursos verbales que emplea, la forma como suelen leerlo los usuarios, podemos crear programas formativos, materiales y tareas de escritura mucho más eficaces para los aprendices de científico.



1.4. Un estudio de campo: la Odontología

Otro ejemplo de utilización de los conceptos de comunidad y género discursivos constituye la propuesta que está desarrollando el profesor de español, inglés e investigación de la Universidad de Odontología de la ULA-Mérida (Venezuela), Óscar Morales. En su tesis doctoral en proceso (ver Cassany y Morales, en prensa), ha identificado los principales géneros discursivos de la comunidad científica de la Odontología, ha elegido los tres principales (destacados con negrita en el esquema siguiente), y está estudiando su estructura global y los recursos de atenuación y mitigación que usan los autores odontólogos para elaborar sus textos:



El Caso Clínico es el género con el que los odontólogos describen las enfermedades nuevas, las particularidades novedosas o especiales de un tratamiento, de un paciente o de algún aspecto de la práctica odontológica. El Artículo de Revisión sirve para presentar resúmenes actualizados del estado del conocimiento en las diferentes áreas de una disciplina que evoluciona muy rápidamente. Finalmente, el Artículo de Investigación tiene funciones y estructura parecida a las que presenta el mismo género en la Medicina. A título de ejemplo, el Caso Clínico consta de las siguientes secuencias (Morales, 2008):

Secciones	Movimientos
Introducción	Definición del tema
	Antecedentes del caso, casos previos
	Revisión de la literatura
	Justificación del caso
	Objetivos
Descripción del caso	Descripción del paciente
	Historia clínica
	Examen físico
	Descripción de los estudios diagnósticos
	identificación del diagnóstico definitivo
	Descripción de los procedimientos terapéuticos
	Pronóstico
	Seguimiento
Discusión	(Re)definición del tema
	Revisión de la literatura
	Confrontación de los resultados con la literatura
	Confirmación del diagnóstico
	Justificación y actualización del caso
	Discusión e interpretación del caso
	Conclusiones y recomendaciones

El propósito del trabajo de Morales es identificar las características discursivas propias de los estos tres géneros básicos de la Odontología, para integrarlos en el currículum formativo de grado y contribuir de este modo a formar a los futuros odontólogos con los conocimientos lingüísticos y discursivos específicos de la disciplina.

2. METODOLOGÍA

En este apartado presentaremos algunas orientaciones para implementar esta propuesta metodológica de trabajo con géneros en cualquier área de especialidad (a partir de Cassany, 2006). Destacamos tres tipos de comentarios, sobre el diseño de programas, las tareas prácticas en el aula y el fomento de las habilidades de escritura.

2.1. Diseño de un programa de aprendizaje

Para diseñar un programa de aprendizaje de un lenguaje de especialidad centrado en los géneros y las prácticas discursivas de una disciplina determinada, podemos seguir los siguientes pasos:

- 1. Identificar y describir lingüísticamente los géneros nucleares.** Como en el ejemplo de la Odontología, del apartado anterior, debemos identificar las principales prácticas discursivas de la disciplina, con los textos que se utilizan en ellas. También es conveniente disponer de un corpus mínimamente variado de ejemplos de los mismos para poder extraer sus características lingüísticas: la terminología y la fraseología que se usa, pero

también su estructura, las formas de cortesía propias, los roles de autor y lector que presuponen o las funciones que ejercen. En las disciplinas más importantes (Medicina, Ingeniería) y en las lenguas dominantes (inglés) existen estudios previos que permiten avanzar en este punto, pero en otras áreas y lenguas la investigación previa es escasa; Hyland (2000) presenta un listado bastante completo de corpus y estudios para la lengua inglesa.

2. **Organizar los contenidos lingüísticos alrededor de los géneros identificados, a partir de documentos reales.** Esto significa seleccionar de entre los contenidos lingüísticos potenciales aquellos que están más estrechamente relacionados con los géneros previamente identificados.
3. **Organizar el trabajo del curso en proyectos prácticos,** contextualizados, que exijan leer ejemplos auténticos de los géneros identificados y que exijan escribir textos equivalentes. Algunas propuestas metodológicas idóneas son las *simulaciones, estudios de caso, solución de problemas, presentaciones orales, etc.*

En conjunto, el trabajo en clase se basa en la lectura, el comentario analítico y la escritura de ejemplos o secuencias de estos géneros. Veamos ahora con más detalle algunas cuestiones didácticas sobre la lectura y la escritura de textos de especialidad.

2.2. Lectura y comentario de textos

Una de las presuposiciones que subyace a esta propuesta metodológica es que “leer y escribir son verbos transitivos”: se lee y escribe de manera diferente en cada contexto, en cada disciplina, porque los textos usan recursos lingüísticos particulares y porque cada disciplina construye conocimientos a través su metodología correspondiente y de sus propios procedimientos retóricos específicos. Esto explica que los estudiantes que llegan del Instituto no sepan ‘leer’ ni ‘escribir’ los textos propios de la disciplina que empiezan a estudiar, precisamente porque son distintos de los que leyeron hasta entonces. Eso también explica que el aprendizaje de la lectura y la escritura en la universidad sea un objetivo real y relevante, y no solo algo ‘remedial’ o ‘supletorio’, causado por un supuesto déficit del alumnado y destinado solo a los estudiantes con dificultades.


El tratamiento de la lectura y del comentario de textos en el aula sigue las pautas generales de la didáctica de la comprensión lectora, adaptadas al nivel universitario. Estas sugieren que hay que dedicar tiempo en clase a leer y comentar cooperativamente los ejemplos de género discursivo. Puede resumirse en estos pasos:

1. **Prelectura:** contextualización, anticipación, preparación, orientación. Antes de iniciar la lectura, es conveniente preparar el alumnado con unas breves indicaciones sobre la naturaleza y la importancia del género discursivo, de sus temas, de su función, etc. Estos datos deben permitir al estudiante ‘activar’ su conocimiento previo sobre la lectura, además de generar una primera motivación para la tarea.
2. **Formulación de objetivos.** Cuando ya se conoce el texto, se puede plantear la tarea de comprensión central, que variará según la disciplina y el tipo de texto. A título de ejemplo, algunas instrucciones de lectura son: “¿cuál es la hipótesis de este artículo?”, “¿qué métodos cuantitativos usa?”, “¿qué actualidad tiene este artículo de revisión?”, etc.
3. **Procesamiento del texto.** Los estudiantes pueden leer el texto en silencio y por su cuenta, resolviendo las tareas planteadas previamente. Se lee para resolver la tarea, saltando de un fragmento a otro, releyendo los puntos importantes y comentando su interpretación con los pares. Hay un trabajo con colectores (parejas de estudiantes que colaboran leyendo conjuntamente), tríos o grupos de estudiantes, para construir interpretación.
4. **Evaluación cooperativa de la comprensión.** Se ponen en común las opiniones de cada grupo y se construyen interpretaciones sociales, legitimadas y situadas en contexto. En este punto, el docente actúa como un dinamizador que gestiona las intervenciones y guía la elaboración de significados.

En conjunto, el objetivo de las tareas de lectura y comentario de géneros discursivos es avanzar en el conocimiento de los rasgos del género, tanto en lo formal como en su contenido, para pasar posteriormente a plantear la elaboración de textos equivalentes. En otro lugar hemos desarrollado con más detalle este trabajo cooperativo en clase (Cassany, 1999 y 2006).

2.3.Los procesos de escritura

La práctica de la producción de textos puede seguir los pasos establecidos por los estudios sobre la composición escrita, que conciben el acto de escritura como una actividad compleja en la que el autor desarrolla varios procesos cognitivos para resolver las exigencias del discurso escrito. El siguiente ejemplo muestra de manera gráfica estos pasos:



En la *planificación*, el autor aplica varias técnicas (torbellino de ideas, mapas mentales, esquemas, etc.) para elaborar un proyecto de texto, que puede materializarse en un esquema, una lista de ideas o un conjunto mental de propuestas. En la *redacción*, dicho proyecto se convierte en un borrador del escrito, y en la *revisión* se corrigen y mejoran el borrador y el proyecto subyacente (utilizando también técnicas como la búsqueda de legibilidad, la transformación de la prosa en un estilo verbal, etc.). Sin duda, estos tres procesos no suceden de manera lineal y en un mismo orden, como sugieren las flechas rojas del esquema.

En la práctica no es necesario desarrollar el proceso completo de composición en clase, pero sí que conviene guiarlo y ofrecer pautas al estudiante. Por ejemplo, podemos dedicar una parte de una clase a planificar una tarea de escritura, de modo que los estudiantes tengan directrices e ideas sobre lo que tienen que escribir. Todavía más importante es dedicar algo de tiempo a la revisión: a la lectura, el análisis y la reformulación de los textos de los estudiantes. Esto puede hacerse de manera selectiva, eligiendo algunos fragmentos representativos, trabajando en grupos o parejas, etc.

3. EJEMPLOS

Veamos para terminar un par de ejemplos de fragmentos de géneros especializados (procedentes de Cassany, 2003), en los que se ha procedido a revisar algunas cuestiones discursivas. Ambos ejemplos muestran algunas de las técnicas de lectura analítica y reformulación que se pueden emplear en la práctica didáctica en clase. El primer ejemplo procede del ámbito económico y consiste en un fragmento de un informe de auditoría de una entidad financiera. Además de ser un ejemplo auténtico, lo utilizamos en una presentación

magistral con el colectivo de auditores de la entidad financiera para mostrar las características que debe tener la redacción llana y simplificada:

Original	Reformulación
<p>[...] El día 11-00-00 <u>se realiza</u> análisis de los movimientos pertenecientes al depósito mencionado con anterioridad durante el período 22-00-00/33-00-00. <u>Observándose un elevado número de</u> abonos por anulaciones de comisiones correspondientes a la negociación de efectos sobre otras plazas.</p> <p><i>Continuando con la investigación, se ha descubierto</i> la concesión, <u>nivel oficina</u>, de dos préstamos con garantía personal por un total de 4,5 MM, <i>siendo</i> el destino de dicho importe la adquisición de productos agrícolas para su transformación y venta, <i>figurando</i> en uno de ellos el mencionado cliente y en el otro un familiar. [...]. [“la Caixa”, 1995]</p>	<p>El análisis del depósito mencionado (del 00-00-00 al 00-00-00) descubre 00 abonos por anulaciones de comisiones, que corresponden a la negociación de efectos sobre otras plazas.</p> <p>La oficina concedió 2 préstamos con garantía personal por 4,5 MPTA, destinados a adquirir productos agrícolas para su transformación y venta. Son sus titulares el cliente mencionado en uno y un familiar en el otro.</p>

En el original, las tachaduras indican las expresiones eliminadas. El subrayado simple marca los verbos impersonales que esconden al sujeto y que en algún contexto podrían inducir a confusión. El doble subrayado indica las expresiones imprecisas que un estudio científico sobre unos hechos, como es una auditoría, debería aclarar: la reformulación marca en negrita la solución propuesta, a la derecha. Finalmente, la cursiva identifica cuatro gerundios en 91 palabras: destaca el *observándose*, que constituye una oración completa y anómala sin verbo en forma personal o los *siendo* y *figurando* finales, que se encadenan uno a otro —y que la reformulación corta en varias oraciones breves.

El segundo ejemplo procede de la ingeniería y muestra cuestiones de tipo discursivo. Muchos documentos técnicos presentan dificultades en la estructuración del contenido: apartados excesivamente extensos, párrafos unioracionales que convierten la exposición en una lista de hechos sin interrelación, ausencia de “ayudas” para al lector (resúmenes iniciales, índices, conclusiones y recomendaciones vinculadas con los resultados obtenidos, etc.). En el proyecto de intervención en tanques de petróleo, el autor inicia su texto con una introducción y expone con detalle su contenido a lo largo de 4 páginas, que el lector debe leer pacientemente para poder comprender la propuesta.

La reformulación de la izquierda propone incluir un resumen de 80 palabras —que corresponde en parte a la introducción—, que permite al lector captar el propósito, el tema y los datos más relevantes en escasos segundos. El resumen es una herramienta muy útil para

manejar documentación especializada (Cassany, 2007). Como podemos ver, el resumen no reduce proporcionalmente los diferentes apartados de documento original, sino que elige estratégicamente los datos más ilustradores para el lector, de acuerdo con lo que este tenga que hacer con el contenido.

Original

Introducción

El objeto del presente informe es analizar la posibilidad de efectuar una prueba de tratamiento antifouling con tren de intercambio limpio. Los intercambiadores 627-E-7C/C1 (crudo / reflujo circulante de 2ª extrac.) de la Unidad de Crudo han alcanzado un elevado grado de ensuciamiento, que está provocando unas pérdidas económicas considerables.

Con el fin de recuperar el intercambio de calor, se ha realizado una prueba de tratamiento antifouling en uno de estos intercambiadores (627 E-7C). [...]

Con esta experiencia y teniendo en cuenta las pruebas positivas realizadas en otros Complejos, consideramos que el aditivo podría ser eficaz para retardar el ensuciamiento, si partimos de intercambiador limpio. [Repsolypf, 2002]

Reformulación

Resumen: Una prueba de tratamiento antifouling realizada en uno de los intercambiadores (627 E-7C) de la unidad de crudo muestra ciertos efectos de limpieza que provocan una disminución significativa de la pérdida de carga. El cálculo de la mejora energética de la unidad y del aumento de destilados medios en contraposición con el coste anual de este tratamiento ofrece un beneficio neto de más de 500.000 €. Recomendamos realizar esta prueba inmediatamente después de la puesta en marcha de la unidad.

En otros lugares (Cassany, 2007) hemos presentado con más detalle una relación completa de los recursos lingüísticos empleados en la elaboración de los géneros discursivos escritos.

4. CONCLUSIONES

Terminamos con unas breves conclusiones, que recuerdan los puntos más relevantes de nuestra propuesta metodológica:

1. En cada disciplina, los géneros discursivos construyen el conocimiento, las identidades de los profesionales y el poder que ejerce cada uno; constituyen uno de los ejes a través de los que se desarrolla la actividad profesional, académica y científica en la disciplina. Para formar parte de una comunidad de conocimiento (de una disciplina) hay que aprender a participar en sus prácticas letradas, que se basan en los géneros discursivos correspondientes.
2. El género discursivo es un elemento mediador entre la forma y el contenido. Aprender a leer y escribir un género discursivo es aprender a emplearlo en la vida real y, también, a dominar la parte de la actividad que se desarrolla con este género.
3. Podemos articular programas de aprendizaje efectivo y práctico de un lenguaje de especialidad a partir de los géneros discursivos correspondientes, relacionando los contenidos lingüísticos con ejemplos de cada género y con tareas prácticas de lectura y escritura de los mismos.
4. La metodología más efectiva de aprendizaje de géneros discursivos consiste en la lectura, el comentario y la escritura cooperativa en clase. La instrucción gramatical constituye solo un apoyo de la práctica en situaciones auténticas o simuladas.

BIBLIOGRAFÍA

- BARTON, David y Karin TUSTING. (2005) *Beyond Communities of Practice: Language, Power and Social Context* Londres: Cambridge University Press.
- BAZERMAN, Charles. (1988) *Shaping Written Knowledge: The Genre and Activity of the Experimental Article in Science*, Madison, University of Wisconsin Press.
- BERKENKOTTER, Carol. y HUCKIN, Thomas N. (1995) *Genre knowledge in disciplinary communication*. Hillsdale: Erlbaum.
- BURROUGH-BOENISCH, Joy. (1999) "International Reading Strategies for IMRD Articles", *Written Communication*, 16: 3, 296-316.
- CASSANY, Daniel. (1999) *Construir l'escriptura*. Barcelona: Empúries. Versión castellana: *Construir la escritura*. Barcelona: Paidós. 1999.
- (2003) "La lectura y escritura de géneros profesionales", en *Español para Fines Específicos. Actas del II CIEFE*. Ministerio de Educación y Ciencia / Instituto Cervantes. p. 40-64. www.ciefe.com
- (2005) *Expresión escrita para ELE/L2*, Arco-Libros.
- (2006) *Taller de textos. Leer, escribir y comentar en el aula*. Barcelona: Paidós.
- (2007) *Esmolar l'eina. Guia de redacció per a professionals*. Barcelona: Empúries. Versión castellana: *Afilar el lapicero. Guía de redacción para profesionales*. Barcelona: Anagrama. 2007.
- CASSANY, Daniel y Óscar Alberto MORALES. (en prensa) "Leer y escribir en la universidad: Hacia la lectura y la escritura crítica de géneros científicos" en D. Cassany ed. *Para ser letrados*. Barcelona: Paidós, en prensa (previsto 2009).
- HYLAND, Ken. (2000) *Disciplinary discourses. Social Interaction in Academic Writing*. Londres: Longman.

- (2003) “Genre-Based Pedagogies: A Social Response to Process.” *Journal of Second Language Writing*, 12, 17-29.
- MORALES, Óscar Alberto. (2008) “Aproximación discursiva a la Escritura Académica de Odontología: Estructura Retórica y Estrategias de Atenuación en Casos Clínicos Publicados en Revistas Hispanoamericanas (1999-2005)”, Trabajo de investigación para DEA, Departament de Traducció i Filologia, Universitat Pompeu Fabra, marzo.
- SALAGER-MEYER, Françoise; ALCARAZ ARIZA, María Ángeles y Nahirana ZAMBRANO (2003) “The scimitar, the dagger and the glove: intercultural differences in the rhetoric of criticism in Spanish, French and English Medical Discourse (1930–1995)” *English for Specific Purposes*, 22 223-247.
- SWALES, John M. (1990) *Genre Analysis*. Cambridge: Cambridge University Press.
- WENGER, Etienne. (2008) “Communities of practice. A brief introduction.”, *Web personal*. <http://www.ewenger.com/theory/index.htm> <29-1-2008>

Espezialitate hizkeren didaktika Europako Unibertsitate Eremuan

Gaitasunetara zuzendutako irakasbidea¹

Joseba Ezeiza Ramos (UPV/EHU, Euskal Filologia Saila)

¹ Lan hau bi ikerketa proiekturi atxikitzen zaie: PREST ikerketa egitasmoa (EHU-GFA/O7) eta GARATERM (EJIE07/07).

Duela bi urte inguru, “Espezialitate-hizkeren eta terminologiaren II. jardunaldietan” aurkeztu nuen jada gai honi buruzko komunikazio bat (Ik. Ezeiza, 2007-a). Harako hartan gainbegiratu bat eman nahi izan nion espezialitate hizkeren didaktikak azken urteotan egindako ibilbideari. Berrikuspen hartan saiatu nintzen azaltzen zein irizpide linguistiko, psikolinguistiko eta metodologikok ematen dioten funtsa azken urteotan espezialitate-hizkeren irakaskuntzan indarra hartuz joan den eredu didaktikoari.

Idea eta proposamen horiek oso lausoak ziruditen orain oso gutxira arte; alabaina, gorputz didaktiko sendoa josi dute Europako Unibertsitate Eremuan. Hori dela eta, egokia iruditu zait gaiari berriro heldu eta beste astindu bat ematea artikulua honetan. Oraingoan, goi mailako unibertsitateko ikasketen marko berriak ezartzen duen testuinguruan egingo dut espezialitate-hizkeren didaktikaren azterketa.

Ildo horretatik, hiru dira hurrengo orrialdeotan jorratuko ditudan kontuak.

- Lehenik eta behin, argibide batzuk emango ditut Europako Unibertsitate Eremuak dakartzan berrikuntzei buruz.
- Ondoren, saiaturako naiz azaltzen zein diren Europako Unibertsitate Eremuak berak aldarrikatzen duen eredu didaktikoaren gakoak
- Azkenik, gaingiroki aurkeztuko dut EHUren Euskal Filologia Sailak esku artean duen proiektu bat, Europako Unibertsitate Eremuak (EUE) zabaldu duen bide horretatik abiatzea bilatzen duena.

1. KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNEN GARRANTZIA EUEan

Jakina denez, Europako Unibertsitate Eremuak goi mailako ikasketen konbergentzia bilatzen du Europako Batasunaren barrutian (González, 2007). Eta konbergentzia horrek hainbat aldaketa ekarri ditu unibertsitateari. Izan ere, goi mailako ikasketen jomugak norabide berriak jartzea eskatzen du. Eredu honen arabera, unibertsitatearen helburua da ikasleak gaitzea eraginkortasunez egin ahal izan ditzaten aurrez finkaturik etorriko diren eginkizun akademiko, profesional eta sozialak; beti ere, tituludun horientzat gizarateak aurreikusten dituen ardurak gogoan, eta gizarateak berak arlo bakoitzean dituen lehenetsiak kontuan hartuta. Horrexegatik atxikitzen zaio hain estu EUEari “gaitasunetara zuzendutako irakasbidea” izena hartu duen jokabide metodologikoa².

Hurbilpen didaktiko honek dezente nahastu ditu unibertsitatearen bazterrak azken hilabeteotan, eta hauts hainbat ere harrotu ditu bertan. Baina, beharbada, komeni da argitzea gaitasunetara zuzendutako irakasbidea ez dela, berez, hurbilpen metodologiko berria. Izan ere, aspaldi bota zituen erroak gure inguruan lan giroko Etengabeko Prestakuntza³ edota Lanbide Heziketan⁴. Derrigorrezko Hezkuntza ere oraintsu sartu da jokabide hau curriculum berriaren eskutik⁵. Bestalde, eta komunikaziorako gaitasunez ari garelarik, esan beharra dago EUEak ekarritako haizeak onuragarriak izan direla. Izan ere, marko berri honek unibertsitatearen jomugen eta lehenetsien lehen lerroan jarri ditu komunikaziorako gaitasunak. Hori egiaztatzeke EUEari begira argitaratu diren dokumentuetara jo besterik ez dugu.

² Ik. Le Boterf (2000), Barnett (2001), Europako Batzordea (2002), Alberici eta Serreri (2005), Goñi (2005), Navío (2005), Fenner eta Newby (2006), Rodríguez (2006), Zabalza (2006), Europako Kontseilua (2007), Zabala eta Arnau (2007), Ezeiza et al. (2007)...


³ Ik. <http://europass.cedefop.europa.eu/europass/home/vernav/Europass+Documents/Europass+CV/navigate.action>

⁴ Ik. <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-805/eu/>


⁵ Ik. http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/f10_e.html eta <http://www.euskalcurriculum.com>

Lehenik eta behin titulazio berriak diseinatzeko argitaratu diren Liburu Zurieta⁶ jotzen badugu, hantxe aurkituko ditugu galdeketa zabal baten emaitzak. Datu horiek ikasleen, irakasleen, egresatuen eta enplegu-emaitzen iritziak jasotzen dituzte. Emaitzek oso argi iradokitzen dute zein den komunikaziorako gaitasunek ikaskuntza planetan izan beharreko tokia. Jarraian txertatu ditugun bi irudietan ikus daitekeenez (Ik. 1. eta 2. irudiak), komunikaziorako gaitasunei 8,2ko garrantzia aitortzen zaie, batez beste, eta lehenetasun osokoak edota lehenetasun handikoak dira titulazio gehienek kasuan.

1. irudia. Komunikaziorako gaitasunen batez besteko balorazioa



2. irudia. Komunikaziorako gaitasunen lehenetasun-maila



⁶ Ik. http://www.aneca.es/activin/activin_conver_LLBB.asp

Xehetasun gehiago: <http://www.euskaraztrebatzen.org>

Titulazio berriak garatzeko UPV/EHUk eman dituen gida-lerroen dokumentuan ere oso argi ikusten da aintzatespen horren isla. Izan ere, jarraian txertatu dugun pasartean ikus daitekeenez, titulazio berrietarako bost helburu orokor ezartzen dira. Bada, bost horietatik lautan, komunikaziorako gaitasunak ezinbesteko aldagai dira.

Graduko ikasketen helburua ikasleek prestakuntza orokorra jasotzea, diziplina batean edo gehiagotan, eta lanean aritzeko prestatzea da. Horrela, bada, ikasleek ikasketetan zehar bereganatu beharreko gaitasun orokorrak eta espezifikoak eta titulua emateko exijitu daitezkeenak zehaztu egin behar dira. Gaitasun horiek ebaluatzeko modukoak izan behar dira eta, gutxienez, oinarritzko gaitasun hauek bermatu beharko dituzte:

a) Ikasleek, bigarren hezkuntza orokorretik abiatuta, ikasketa alor jakin bati buruzko ezaguerak izan eta horiek ulertzen dituztela frogatzea. Testuliburu aurreratuetan oinarritzen bada ere, ikasketa alor horren abangoardiari buruzko ezaguerekin loturiko zenbait alderdi barne hartzen ditu.

b) Ikasleak gai izatea beren ezaguerak lan-jardunean aplikatzeko, era profesionalean, eta beren ikasketa alorarekin zerikusia duten argudioak emanaz eta defendatuz eta arazoak ebatziz egiaztatu ohi diren gaitasunak bereganatzea.

c) Ikasleak gai izatea datu garrantzitsuak bildu eta interpretatzeko, gizarteari, zientziei edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman ahal izateko.

d) Ikasleek informazioa, ideiak, arazoak eta konponbideak azaldu ahal izatea, adituei nahiz adituak ez direnei.

e) Ikasleek ondorengo ikasketei autonomia handiz ekiteko beharrezko trebetasunak garatu izana (2008ko otsailaren 6ko EHAA)⁷

Hain zuzen ere, horrexegatik, UPV/EHUren Euskararen Plan Gidariak⁸ bermatu nahi izan du ikasle guztiek aukera izan dezatela gaitasun horiek berariaz lantzeko euskaraz, eta, beste neurri batzuen artean, 12 irakas-kreditu gorde ditu helburu horri begira titulazio guztietan. Kreditu horiek bi irakasgaitan mamituko dira.

Ikasgai horietako bat zehatzagoa izango da, eta titulazio bakoitzaren eduki eta beharretatik sortutako premia linguistiko eta terminologikoetara egokituko da. Ikasgaien izenean islatuko da dagokien titulazioarekin duten lotura; izan ere, ez dute «Euskara teknikoa» izena hartuko, baizik eta «Euskara juridikoa», «Kazetaritzaren euskara», «Medikuntzaren euskara», eta abar. Izen horiek titulazioaren curriculumaren eta lan-arloen berri emango digute.

⁷ Jatorrizko testuak ez du azpimarririk.

⁸ Ik. http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/p076-11752/eu/contenidos/informacion/plan_informa/eu_plan/adjuntos/plan_gidaria.pdf

Bigarren hautazko ikasgaia zeharkakoa izango da; izan ere, bertan ikasiko diren trebetasunak beharrezkoak izango dira euskaraz ikasten duen edozein ikaslerentzat, hautatu duen ikasketa edozein izanik ere. Ikasgai horretan ikasleek estandarizazio- prozesuko arauak landu eta hobeto ezagutuko dituzte, eta komunikazio-egoera desberdinetan nola erabili behar diren ikasiko dute. Ikasgai horrek izen orokorragoa izango du; adibidez, «Euskararen araua eta erabilera». Zeharkakoa izango denez, ikasgai hori ez da egongo titulazio zehatz bati loturik. Titulazio desberdinetako ikasleek ikasi ahal izango dute, baina komenigarria da berdinak ez izanik ere, antzekoak diren titulazioak izatea (Euskararen Plan Gidaria, 2007: 68-69)

Ageriko denez, testuinguru berriak aukera paregabeak zabaltzen dizkio espezialitate hizkeren irakaskuntzari unibertsitatean. Baina, modu berean, erronka hainbaten aurrean ere jartzen du espezialitate hizkeren didaktika.

- Hasteko, Europako Unibertsitate Eremuak eskatzen du espezialitate hizkerak lantzea titulazio bakoitzerako aurreikusten diren helburuei estu-estu atxikita; hau da, titulazio bakoitzean aurreikusten diren eginkizun akademiko, profesional eta sozialei begira. Horrek azterketa- eta planifikazio-lan arretatsua eskatzen du, noski (Ik. García eta Troyano, 2006; Gangaram et al., 2007; López eta Edwards, 2007; Sanz, 2007; Pérez eta Zayas, 2007...).
- Bestalde, Europako Unibertsitate Eremuak eskatzen digu espezialitate hizkerak gizarte-proiektzioan lantzea. Hau da, kontuan hartuta zein diren kasu bakoitzean jomugan hartu behar dugun jardun-eremu akademiko zein profesionalak biltzen dituen diskurtso-komunitateen praktikak, eta euren dinamika eta dimentsio sozialak. Aldagai horiek bereziki garrantzitsuak dira euskararen kasuan, zeren, dakigunez, euskarak ez baitu arlo guztietan hedadura bera, eta ez normalizazio maila berbera ere (Ik. Zabala & Elordui .2006; Elordui, 2007).
- Horrez gain, Europako Unibertsitate Eremuak irakasteko modua aldatzeko ere eskatzen digu. Orain helburu nagusia ez da mugatzen ikasleei espezialitate-hizkeren ezaugarriak eta gakoak zein diren “erakustera”. Orain, erronka nagusia da baldintza egokiak sortzea ikasgelan, ahalbidetzeko ikasleek urrats esanguratsuak eman ditzaten jomugan duen jardun-eremu akademiko eta profesionalean integratze aldera (Ik. Cassany, 2006; Alcaraz et al., 2007; Castelló et al., 2007 eta Sanz, 2007.)

Ikusten denez, ez dira nolana hikoak testuinguru berrian kontuan hartu beharreko baldintzak eta aldagaiak. Espezialitateko hizkeren didaktikak oso aintzat hartu behar ditu, ezinbestean, baldintza horiek. Eta horixe da, hain zuzen ere, “gaitasunetara zuzendutako irakasbideak” bilatzen duena; alegia, erantzun koherentea ematea Europako Unibertsitate Eremuak aurrean jartzen dizkigun erronka horiei guztiei. Ikus dezagun, bada, zertan diren hurbilpen metodologiko horren oinarriak eta aldarrikapenak.

2. GAITASUNETARA ZUZENDUTAKO IRAKASBIDEAREN OINARRIAK

Gaitasunetara zuzendutako irakasbideak hiru iturritan bilatzen ditu bere funtsak: a) kualifikazio profesionalen marko zabala; b) komunikazioaren paradigma; eta c) hizkuntzalaritza aplikatua.

- Kualifikazio profesionalen markoak⁹ estalpea ematen die azken boladan hain entzutetsuak egin diren gaitasunen ingeniartzari, bikaintasunaren eta kalitatearen erduei, estandarretan oinarritutako ebaluazio-sistemei edota bizitza osoko ikaskuntzaren ikuspegiari, besteak beste.
- Komunikazioaren paradigmatari¹⁰ ere hainbat ikuspetagik egiten dizkiote ekarpenak: ekintza komunikatiboaren teoriak, hurbilpen soziokritikoak, eta konplexutasunaren ikuspegiak, beste batzuen artean.
- Hizkuntzalaritza aplikatua, bestalde, espezialitate-hizkeren ikerketa eta didaktikarako funtsezkoak diren hainbat diziplinaren bilgune da¹¹: soziolinguistika, pragmatika, diskurtsoaren analisia, estilistika, terminologia, hizkuntzalaritza konputazionala eta abar.

Zertan datza, bada, hiru iturri horietatik gaitasunetara zuzendutako irakasbideari egiten zaion ekarpena?

- Kualifikazioen markoak tresna eta irizpide egokiak eskaintzen dizkigu finkatu ahal izateko zein eginkizunetarako prestatu behar ditugun berriaz eta lehenetsunez unibertsitateko ikasleak.
- Komunikazioaren paradigmatik, bere aldetik, tresna eta irizpide egokiak eskaintzen dizkigu zehaztu ahal izateko zein diren eginkizun horien eskakizun komunikatiboak.
- Hizkuntzalaritza Aplikatuak, azkenik, tresna eta irizpide egokiak eskaintzen dizkigu aztertu eta sistematizatu ahal izateko jomugan dugun diskurtso-komunitateak baliatzen dituen praktika komunikatiboaren dimentsio sozial, funtzional, diskurtsibo, estilistiko eta terminologikoak.

Ildo horretatik, hiru dira gaitasunetara zuzendutako irakasbideari funtsa ematen dioten ideiak:

- Gaitasunaren beraren kontzeptua.
- Komunikazioa ekintza gisa aldarrikatzen duen ikuspegia.
- Komunikazioak jokoan jartzen dituen ahalbideak zein diren argitzen duten ereduak. Bereziki, gaitasun komunikatiboaren teoriaren arian proposatutakoak.

Gaitasunaren kontzeptua ondo argituta dator UPV/EHUREN Irakaskuntza Berritzeko Planaren dokumentazioan proposatzen den definizioan. Hona hemen zer dioen:

⁹ Ik. AGERCEL (2000), Le Boterf (2000), Barnett (2001), Alberici eta Serreri (2005), Knight (2005), Navío (2005), Fenner eta Newby (2006), Rodríguez (2006), Europako Kontseilua (2007), Rué (2007)...

¹⁰ Ik. Bronckart (1996); Noguero (1998); Habermas (1999-a eta b); Lantolf (2000); Gutiérrez (2002); López eta Encabo (2002); Bastardas (2003); Unamuno (2003), Santos eta Guillaumín (2006)...

¹¹ Ik. Díaz Rojo (2000), Álvarez (2001), Cabré eta Gómez de Enterría (2006), Alcaraz et al. (2007), Castelló et al. (2007), Giovanni (2007), Sanz (2007), Zabala (2008)...

Gaitasunek beren barruan hartzen dituzte ezagupenak, trebetasunak (intelektualak, eskuzkoak, sozialak, etab.), jarrerak eta baloreak. Horien bidez titulatuak bermeekin egingo dio aurre arazoek konponketari edo testuinguru akademiko, profesional edo sozial jakin batean gai batean esku hartzeari. [...] (Gaitasunek) arazoak konpontzeko baliabideak eman behar dituzte, hau da, gaitasunak edukitzeak “ezagupenak, trebetasunak... konbinatzea” dakar. Bestalde, gaitasunak testuinguru jakin batean garatu behar dira: akademikoa, profesionala eta soziala (Iturria: UPV/EHUren titulazio gidan erabilitako terminoen zerrenda).

Definizio horretan gaitasunetara zuzendutako eredu guztiek gaitasunei aitortzen dizkieten ezaugarriak azpimarratzen dira. Horrenbestez:

- Lehenik eta behin, gaitasunak ezagutzen, trebetasunen eta jarrearen konbinazioaren emaitza dira.
- Gaitasunak, bestalde, arazo eta erronkei aurre egiteko ditugun baliabideen bitartez azaleratzen dira.
- Eta, azken batean, gaitasunek eskumena ematen dute testuinguru jakin batean eginkizun jakin batzuk egiteko.

Horiexek dira, hain zuzen, gaitasunetara zuzendutako irakasbideak abiapuntutzat hartzen dituen oinarritzko ideiak. Komunikazioaren kontzeptua, bestalde, Europako Erreferentzi Markoak (Europako Kontseilua, 2001) aldarrikatzen duen “ekintzara bideratutako ikuspegiaren” hatsarreak argitzen digu:

*Hizkuntzaren erabilerak –ikaskuntza ere barne hartzen du–, erabiltzaileak gizabanako eta gizarte-eragile diren aldetik, **gaitasun orokor** zein **komunikazio-gaitasun** batzuk garatzen dituzten pertsonen jarduerak hartzen ditu bere baitan. Pertsonak, **hizkuntz jarduerak** gauzatzeko, **testuinguru** desberdinetan eta **baldintza** eta **muga** desberdinen mende erabiltzen dituzte eskuragarri dituzten gaitasunak. Jarduera horiek gauzatzeko **prozesu** batzuk abiarazi behar dituzte, **arlo** espezifikotik **gai** jakin batzuei buruzko **testuak** ekoizteko eta jasotzeko, eta egin beharreko **atazak** gauzatzeko egokien irizten dieten **estrategiak** erabili behar dituzte. Jarduera horien gainean duten kontrolaren bidez, parte-hartzaileek beren gaitasunak sendotu edo aldatu dituzte.(Europako Kontseilua, 2001:19).*

Ageriko denez, ekintzara bideratutako ikuspegiaren hatsarrea komunikazioaren paradigmaten oinordeko zuzena da. Eta horrexegatik, hain zuzen ere:

- Hizkuntzaren beregaintasuna aldarrikatzen du gizarte-jardueraren funtsezko osagai gisa.
- Ildo beretik, komunikazioaren berariazkotasuna gizarte-jardueraren lau aldagairekin lotzen du: a) testuinguruko baldintzak eta mugak; b) komunikazioa egituratzen duten prozesuak eta eragiketak; c) praktika komunikatiboak barne hartzen dituen hizkuntza-jarduerak; eta d) diskurtso-komunitate bakoitzak berezko dituen testu-generoak eta erregistroak.
- Horrez gain, gogorarazten digu komunikazioak askotariko ahalbideak jartzen dituela jokoan, eta arrakasta komunikatiboa ez datzala soilik eta bakarrik ahalbide linguistikoetan.

Alde horretarik, “ekintzara bideratutako ikuspegia” guztiz bat dator Bachman eta Palmerrek (1996) komunikazio-gaitasunaren egitura azaltzeko proposatutako ereduarekin.

Hona hemen Bachman eta Palmerren (1996) ereduaren osagai nagusien zirimarra:

-Ahalbide orokorrak: gaitasun existentzialak / gaitasun instrumentalak.

-Ahalbide linguistikoak:

-Osagai pragmatikoa: soziolinguistikoa eta funtzionala

-Egiturazko osagaia: diskurtsibo-testuala eta gramatikal-estilistikoa

-Osagai lexiko-semantikoa

-Ahalbide estrategikoak: egiten jakin / ikasten jakin.

Eredu honen arabera komunikazioan hiru ahalbide mota jartzen ditugu jokoan: ahalbide orokorrak, ahalbide linguistikoak, eta ahalbide estrategikoak.

-Lehen multzoan bi dira espezialitate hizkeren kasuan bereziki kontuan hartu beharreko ahalbide motak: existentzialak eta instrumentalak. Ahalbide existentzialek zerikusia dute unibertsitateko egonaldian ikasleek bizi behar duten nortasun-identitate aldaketarekin (Ricento, 2005: 904), beti ere, jomugan dutela komunitate akademiko eta profesionalean integratzea (Cassany, 2006: 30-31). Ahalbide instrumentalak ildo berekoak dira, baina zerikusia dute jardun-eremu akademiko eta profesionalean baliatzen diren praktika komunikatiboen moldeekin. Adibidez, aurkezpen akademikoetan “Power Point” eta antzeko programak erabiltzen jakitearekin.

-Bigarren multzoan hiru ahalbide-mota bereizten dira: hizkuntzaren osagai pragmatikoarekin lotutakoak, hizkuntzaren egiturazko alderdiarekin lotutakoak eta ahalbide lexiko-semantikoa. Denak dira garrantzitsu komunikazio akademi

eta profesionalen, baina, zalantzarik gabe osagai terminologikoa da lehenetsun handienekoa. Izan ere, terminologia da espezialitateko diskurtsoen hizkuntza-baliabide adierazgarrienetako bat (Cabré, 1999).

-Azken multzoak ahalbide estrategikoak biltzen ditu. Ahalbide hauek kontrola ematen diote ikasleari bere buruaren, bere jardunaren eta komunikazio-egoeraren gainean, oro har. Izan ere, gaitasun estrategikoei esker, ikaslea gai izango da berezko dituen orotariko ahalbideak norabide egokian lerratu, eta testuinguruaren eskakizunen aurrean modu eraginkorrean erantzuteko. Bestalde, ahalbide estrategikoak funtsezkoak dira esperientziatik bertatik modu autonomoan etengabe ikasteko bizitza osoan zehar (Kolb, 1984 eta Kohonen 1992, 1999 eta 2001).

Horiek dira, bada, gaitasunetara zuzendutako irakasbideari euskarria ematen dioten ideiak. Ondorengo irudian jasotzen da horiek guztiek egituratzen dituen marko metodologikoaren eskema (Ik. 3. irudia). Bertan laburbiltzen dira gaitasunetara zuzendutako irakasbidearen aldarrikapen nagusiak. Hona hemen, labur-labur adieraziak:


1. Gaitasunetara zuzendutako irakasbidearen arabera, **eginkizun akademiko, profesional eta sozialek** izan behar dute esku-hartze didaktikoaren sorburu, bitarteko eta jomuga. Horrexegatik azaltzen dira eginkizun horiek irudiaren erdigunean.
2. Izan ere, esku-hartze didaktikoaren helburua da **ikasleari laguntzea** urrats esanguratsuak ematen **komunitate akademiko eta profesionalen integratu ahal izateko**. 3. irudian, ikaslearen unibertso hori obalo gorriaren bidez irudikatzen da; jardun-eremu akademiko eta profesionala, aldiz, obalo urdinaren bidez.
3. Baina prozesu hori ez da berez eta besterik gabe gertatuko. Hainbat ahalegin eskatuko dizkio ikasleari:
 - Lehenik eta behin, ikasleak **kontzientzia hartu** beharko du **testuinguru akademiko eta profesionalak** komunikazioari ezartzen dizkion baldintza eta mugez.
 - Bestalde, ikasleak gutxieneko **trebetasuna eskuratu** beharko du jardun-eremu horretan komunikazioa egituratzen duten **prozesu eta eragiketei** aurre egiteko.
 - Ildo beretik, hain bateko **autonomia garatu** beharko du jardun-eremu horretan ohikoak diren **praktika komunikatiboetan** esku hartzeko.
 - Horrez gain, ondo **ezagutu eta baliatu beharko** ditu diskurtso-komunitate akademiko edo profesionalaren adierazgarri diren **testu-generoak eta erregistroak**.
4. Horrek esan nahi du unibertsitateko egonaldian hainbat ahalbide esnatu, piztu eta suspertu beharko dituztela ikasleek. Eta, beharrezkoa bada, ahalbide horiek zorrotzu, sendotu, zabaldu edota aberastu ere egin beharko dituzte. Zein dira ahalbide horiek? Bada lehen esandakoaren ildotik:

- Ahalbide soziopertsonalak eta ahalbide instrumentalak
- Hizkuntzaren osagai pragmatikoarekin zerikusia dutenak
- Hizkuntzaren egiturazko osagaiarekin zerikusia dutenak
- Ahalbide lexiko-semanticok / ahalbide estrategikoak.

Ahalbide soziopertsonalak (existentzialak) ikaslearen eremuan kokatzen dira eredu honetan (obalo gorrian). Ahalbide instrumentalak, aldiz, diskurtso-komunitatearen eremuan (obalo urdinean). Ahalbide linguistikoak (hau da, hizkuntzaren osagai pragmatiko eta egiturazkoekin zerikusia dutenak) ezker-eskuin zabaltzen den ardatz zurian daude jasota. Ahalbide lexiko-semanticok, beren aldetik, ahalbide linguistikoak josi egiten dituzte; beraz, zeharkako ardatzari ematen diote euskarria. Eta ahalbide estrategikok, azkenik, hesia jartzen diote komunikazioak berezko duen ezegonkortasun eta dinamikotasunari; horregatik, azaltzen dira irudi honetan sistema osoaren inguruan.

Horiexek dira, bada, “gaitasunetara zuzendutako irakasbideak” egituratzen duen eredu didaktikoaren osagai nagusiak.

3. irudia. Komunikaziorako gaitasunak garatzeko marko orokorra (Ezeiza, 2007-b)



3. LAN-ILDO BERRIAK

Ikusten dugunez, ez dira nolanhikoak Europako Unibertsitate Eremuak espezialitateko hizkeren didaktikari aurrez aurre jartzen dizkion erronkak. Erronka horiei modu egokian erantzun ahal izateko ikerketa-, berrikuntza- eta garapen-proiektu bat jarri genuen martxan duela urte bete inguru Euskal Filologia Saileko irakasle batzuek: PREST proiektua, alegia. Proiektu honek EHUren Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan du lehen fasean. Baina, ondoren, beste proiektu batzuekin egin du bat, eta eskuratu du, halaber, hainbat enpresaren babesa ere. PREST proiektuak hiru helburu orokor ditu.

-Ikerketaren ardatzean, PREST proiektuaren helburua da finkatzea zein eginkizunetarako prestatu behar ditugun unibertsitateko ikasleak, zein diren eginkizun horiek dituzten eskakizun komunikatiboak eta horrenbestez, zein ahalbide landu behar diren eskakizun horiei eraginkortasunez erantzun ahal izateko.

-Garapenaren ardatzean, egitasmoaren helburua da tresna, baliabide eta eduki egokiak prestatzea gaitasun akademiko eta profesional horiek euskaraz landu ahal izateko.

-Berrikuntzaren ardatzean, azkenik, helburua da tresna, baliabide eta eduki horien diseinuan txertatzea informazioaren, komunikazioaren eta jakintzaren gizartearen irizpideak eta estandarrak.

3.1. PREST ikerketa

PREST egitasmoaren lehen helburuari erantzuteko titulazio berrien Liburu Zurieta jo genuen. Eta lehenik eta behin, hirurogei titulaziotarako proposatu diren **gaitasun espezifiko**en zerrendak arakatu genituen komunikazioa berezko eta mugatzaile zutenen bila. Tankera horretako 500 bat gaitasun aurkitu genituen Liburu Zurietan. Zerrendak aztertu, eta ikusi genuen, gutxi-asko, zortzi eginkizuni atxikitzen zitzaizkiela gaitasun espezifiko horiek. Hona hemen gaitasun-atal horien zerrenda.

1. **Gaitasun atala:** Dokumentazio-lanerako gaitasunak
2. **Gaitasun atala:** Eginkizun akademikoekin lotutako gaitasunak
3. **Gaitasun atala:** Eginkizun teknikoei atxikitako gaitasunak
4. **Gaitasun atala:** Jakintzaren zabalkundearekin eta hezkuntzarekin lotutako gaitasunak
5. **Gaitasun atala:** Gizarte-komunikazioarekin lotutako gaitasunak
6. **Gaitasun atala:** Berariazko jardun profesionalari atxikitako gaitasunak
7. **Gaitasun atala:** Pertsonarteko komunikazioarekin /talde-lanarekin lotutako gaitasunak
8. **Gaitasun atala:** Eginkizun juridiko eta administratiboei lotutakoak

Lan honen amaieran dauden eranskinetan ikus daitezke, adibide modura, hirugarren eta bosgarren multzoa osatzen duten eginkizun akademiko, profesional eta sozialak,

jakintza-arloen arabera zerrendatuta (**Ik.** 1a eta 1b eranskinak). Zerrenda horietan argi ikusten da zein den gaitasun-atal horien dimentsioak goi mailako titulatuaren zereginen markoan.

Zerrenda horiek esku artean genituela, lanaren bigarren etapari ekin genion. Etapa horretan aztertu genuen zer nolako **eskakizun komunikatiboak** dituzten jakintza-arlo bakoitzean jomugan hartu beharreko eginkizunek. Eskakizun horiek identifikatzeko lau alderdi hauek aztertu genituen:

- a) Zer nolako **testuingurutan** esku hartzeko trebatu beharko duten jakintza-arlo bakoitzeko ikasleek: komunikazio-eremuak, komunikazioaren xedeak, gaiak, gaien trataera...
- b) Zer **komunikazio-molde** nagusitzen den testuinguru horietan: baldintza fisikoak, solaskidetzaren ereduak; euskarriak.
- c) Zein diren funtsezko **komunikazio-jarduerak** jardun-eremu bakoitzean: ulermen-jarduerak, ekoizpen-jarduerak, ahozko komunikazioa, komunikazio idatzia, bitartekotza, elkarreragina...
- d) Zein **testu-genero eta erregistro** baliatzen diren jakintza-arlo bakoitzean: genero akademikoak, genero profesionalak...

Lan horren emaitzak eranskinetan jasota dauden moduko hamar taulatan antolatu eta sistematizatu genituen (**Ik.** 2a eta 2b eranskinak).

Azkenik, aztertu genuen nolako **ahalmen komunikatiboak** garatu behar dituzten jakintza-arlo bakoitzeko ikasleek unibertsitateko egonaldian, beti ere, aurreikusten diren eginkizun akademiko, profesional eta sozialak bete ahal izateko. Kontu hau argitzeko, Liburu Zurieta jo genuen berriro ere eta arretaz aztertu genituen titulazio berrien helburuen zerrendak, eta titulazio bakoitzerako aurreikusten diren profil profesionalen deskribapenak. Dokumentu horien azterketa Bachman eta Palmerren (1996) komunikazio-gaitasunaren ereduari jarraiki egin genuen, eta eskuratutako deskriptoreak sei kategoria hauen arabera sailkatu genituen:

- 1. multzoa.** Komunikazio akademiko eta profesionalerako trebetasun pertsonal eta sozialak
- 2. multzoa.** Komunikazio akademiko eta profesionalerako trebetasun instrumentalak
- 3. multzoa.** Testuinguruko eskakizunetara makurtzeko trebetasun funtzionalak
- 4. multzoa.** Diskurtso akademiko eta profesionalaren gakoaren ezagutza eta erabilerarekin lotutakoak
- 5. multzoa.** Estilo-arau akademiko eta profesionalen ezagutza eta erabilerarekin lotutakoak
- 6. multzoa.** Berariazko baliabide lexikoen ezagutza eta erabilerarekin lotutakoak

Lehen bi multzoetan ahalbide orokorrak biltzen dira, eta beste lauretan ahalbide linguistikoak (ahalbide pragmatikoak, hizkuntzaren egituraren ezagutzarekin lotutakoak eta ahalbide lexiko-semantikoak). Lan honen amaieran erantsi ditugu, adibide modura, dokumentatutako deskriptoreen lagin batzuk (**Ik.** 3a eta 3b eranskinak).

Ahalbide estrategikoak albo batera utzi genituen azterketa honetan, alde batetik, beste kategorietan integratuta datozelako nolabait eta, bestetik, estrategien garapena ez dagokiolako soilik komunikazioaren alorrari. Ahalbide estrategikoen garapenak lotura zuzena du unibertsitatearen eredu pedagogiko orokorrarekin.

3.2. PREST garapena

Ikusi berri dugunez, PREST ikerketak oso emaitza jakingarriak eskaini zituen, besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitatearen Euskararen Plan Gidaritik eratorzen diren irakasgai berriak diseinatzeko balio izan zutenak. Lan honen amaieran txertatu dugu, adibide gisa, PREST proiektuan oinarrituta garatu dugun irakasgai baten programa (Ik. 4. eranskina). Programa horiek garatze aldera, beste ekimen batzuk jarri ditugu abian:

- Irizpen tekniko eta didaktiko bat eskatu genion arlo honetan aditua den Ainhoa Ezeizari (A. Ezeiza, 2008), baliabide telematikoak diseinatzeko hasi ahal izateko.

- PREST eskuliburua idazten hasi gara Euskara Errektoreordetzaren laguntzaz.

- Ildo honetan lanean ari diren beste zenbait erakunderekin hitzarmenak egiteko aukerak aztertzen hasi gara: Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Bartzelonako Unibertsitatea, Pompeu Fabra unibertsitatea....

Gure helburua da hiru urteko epealdian Euskal Filologia Sailaren irakaskuntza-eskaintzaren berritze-lana amaitua izatea: edukiak, baliabideak, metodologia...

3.3. PREST berrikuntza

Esan dugunagatik, irakaskuntzaren berrikuntza ezin da mugatu programak moldatu eta egokitzea. Izan ere, Europako Unibertsitate Ereemuak dakartzan erronkei aurre egin ahal izateko baliabide tekniko egokiak ere behar dira. Horrexegatik, PREST proiektuak hainbat lan-ildo zabaldu ditu IKTen erabilera eta aplikazio didaktikoa aztertu eta lantze aldera.


Alde batetik, plataforma birtual bat sortu dugu Moodle erabiliz, proiektu honen ingurura biltzen diren ekimen eta lanak modu egokian kudeatu ahal izateko (Ik. <http://www.euskaraztrebatzen.org/lanean>).

Bestetik, “Espezialitate Hizkeren Lantegia” izeneko aplikazioa garatzen hasi gara Euskal Herriko Unibertsitatean I-Ametza talde teknologikoarekin egin duen lankidetzahitzarmen bat baliatuta. Lantegi hau hainbat web aplikaziok osatuko dute: corpus erremintak izango dituen datu-base dokumentala, erabiltzaileen beharren arabera glosategiak egitea ahalbidetuko duen datu-base terminologikoa, estilo-auziak lantzeko eta sistematizatzeke beste trena bat, eta abar. Probetarako prototipoa 2008ko amaiera aldera egongo da amaituta.

Azkenik, eta ekimen honi dimentsio zabalagoa emate aldera, GARATERM proiektua jarri dugu oraintxe abian. Proiektu hau Igone Zabala irakasleak zuzentzen du, eta espezialitateko hizkeren garapen lexiko-diskurtsiboaren inguruko ekimenen bilgune izan nahi du (Ik. Zabala, 2008). Aurrerantzean, bada, PREST proiektuak GARATERM egitasmoaren estalpean egingo du bere bidea. Helburua da komunikazio eta diskurtso akademiko eta profesionalaren esparruan abian jarriko diren beste proiektuekin osagarritasuna bilatzea, eta arlo honetan lanean ari garenon koordinazioa erraztea.

Ildo honetatik, hain zuzen, plaza ireki bat sortu dugu <http://www.euskaraztrebatzen.org> helbide elektronikoa. Bertan daude eskuragarri PREST ikerketaren txosten eta emaitza guztiak. Bertan du ostatu hartua PREST plataforma ere. Atari honi daude atxikita lehen aipatutako beste proiektuak ere. Hurrengo irudietan ikus daitezke web-atari horren egituraren ezaugarri nagusiak:

4. irudia. PREST proiektuaren orrialdea (<http://www.euskaraztrebatzen.org>)



5. irudia. PREST plataforma telematikoa (<http://www.euskaraztrebatzen.org/lanean>)



BIBLIOGRAFIA

AGERCEL (2000). "QUALITY: Quality guide for the evaluation and design of language learning and teaching programmes and materials" [CD-ROM]. Brusela: EUROCENTRES.

Alberici, A. & P. Serreri (2005): "Competencias y formación en la edad adulta. El balance de competencias", Bartzelona: Laertes Educación

Alcaraz, E., J. M. Martínez. & F. Yus (arg.) (2007): "Las lenguas profesionales y académicas" Bartzelona: Ariel.

Álvarez de Mon, I. (2001): "Problemas en torno a la denominación del lenguaje científico-técnico: ciencia, técnica, tecnología e ingeniería", *IBÉRICA*, 3. zenbakia, 31-42.

Bachman, L. eta A. Palmer. (1996): "Language testing in practice", Oxford: Oxford University Press.

- Barnett, R. (2001): “Los límites de la competencia. El conocimiento, la educación superior y la sociedad”, Bartzelona: Gedisa.
- Bastardas, A. (2003): “Lingüística general: elementos para un paradigma integrador desde la perspectiva de la complejidad”, *LinRed*, 1. URL: http://www.linred.com/numero1_articulo_1.htm.
- Bronckart, J. P. (1996): “Activité langagiere, texts et discourse. Pour un interactionisme socio-discoursif” [Gaztelaniazko argitalpena (2004)], Madril: Fundación Infancia y Aprendizaje.
- Cabré, M^a T. eta J. Gómez de Enterría (2006): “La enseñanza de los lenguajes de especialidad. La simulación global”, Madril: Gredos.
- Cabré, M^a. T. (1999): “La terminología: representación y comunicación. Elementos para una teoría de base comunicativa y otros artículos”, Bartzelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada- Universitat Pompeu Fabra.
- Cassany, D. (2006): “Taller de textos”, Bartzelona: Paidós.
- Castelló M. (koord.) (2007): “Escribir y comunicarse en contextos científicos y académicos. Conocimientos y estrategias”, Bartzelona: Graó.
- Díaz, J. A. (2000): “El modelo ecolingüístico de comunicación especializada: investigación y divulgación”, *IBÉRICA*, 2. zenbakia, 69-84.
- Elordui, A. (2007): “Espezialitate-hizkeren garapen lexiko-diskurtsiboa: aldakortasun terminologikoa tratatzeko zenbait irizpide”, in I. Ugarteburu eta P. Salaburu (arg.): *Espezialitate Hizkerak eta terminologia II. Euskara estandarra eta espezialitate hizkerak*, Bilbo: UPV-EHUren argitalpen zerbitzua, 81-94.
- Europako Batzordea (2002): “Competencias clave. Un concepto en expansión dentro de la educación general obligatoria”, Eurydice. URL: <http://www.euskalcurriculum.net/data/documents/1/2/5/11/eurydice.pdf>
- Europako Kontseilua (2001): “Europako Erreferentzi Markoa”, [euskarazko bertsioa, 2005] Donostia: HABE.
- Europako Kontseilua (2007): “Qualifications. Introduction to a concept”, Estrasburgo: Council of Europe.

Ezeiza, A. (2008): “Hizkera berezituen didaktika eta plataforma telematikoak: PREST proiektua”, in Ugarteburu, I. eta P. Salaburu. (arg.): *Espezialitate hizkerak eta terminologia jardunaldiak II*, Bilbo: Euskara Institutua-EHU.

Ezeiza, J. (2007-a): “Espezialitateko hizkeren irakaskuntza. Ikuspegi didaktikoa”, in Ugarteburu, I. eta P. Salaburu. (arg.): *Espezialitate hizkerak eta terminologia jardunaldiak II*, Bilbo: Euskara Institutua-EHU.

Ezeiza, J. (2007-b): “Analizar y comprender la topografía configuracional de los materiales para la enseñanza de lenguas”. Doktoretza-tesia (CDrom). Madril: Antonio de Nebrija Unibertsitatea.

Ezeiza, J. (zuz.), I. Aldezabal, M^a J. Aranzabe, X. Bilbao, A. Elordui, A. Elozegi, K. Elozegui, A. Ezeiza, eta I. Zabala (2007): “PREST. Profesionalen berriazko komunikazio-gaitasunaren garapenari etengabe laguntzeko baliabide telematikoak”. Ikerketa-txostena. URL: <http://www.euskaraztrebatzen.org/>.

Fenner, A. eta D. Newby (2006): “Coherence of principles, cohesion of competencies. Exploring theories and designing materials for teacher education”, Estrasburgo: Europako Kontseilua.

Gangaram, R., J. Beijer eta M. Hajer (2007): “Challenges in integrating academic and professional language competencies in the curriculum in Higher Education”. URL: <http://www.edia.nl/cats/resources/>

García, A. eta Y. Troyano (2006): “Competencias comunicativas en el EEES”, URL: <http://observatoriodosmedios.org/foros/viewtopic.php?p=336&sid=eb26e708de93d31355be05960d340091>

Giovanni, P. (2007): “El discurso especializado escrito en el ámbito universitario y profesional: Constitución de un corpus de estudio”, *Revista Signos*, 40. zenbakia, 147-178

Goñi, J. M. (2005): “El espacio europeo de educación superior, un reto para la universidad. Competencias, tareas y evaluación, los ejes del currículum universitario”, Bartzelona: Octaedro.

González, J. (2007): “Proyecto TUNING. Informe final”. URL: <http://tuning.unideusto.org/tuningeu/>

Gutiérrez, S. (2002): “De pragmática y semántica”, Madril: Arco/Libros.

- Habermas, J. (1999-a): “Teoría de la acción comunicativa I. Racionalidad de la acción y racionalización social”, Madril: Taurus.
- Habermas, J. (1999-b): “Teoría de la acción comunicativa II. Crítica de la razón funcionalista”, Madril: Taurus.
- Knight, P. (2005): “El profesorado de Educación Superior. Formación para la excelencia”, Madril: Nancea.
- Kohonen, V. (1992): “Experiential language learning: second language learning as cooperative learner education”, in D. Nunan (arg.) *Collaborative language learning and teaching*, Cambridge: Cambridge University Press.
- Kohonen, V. (1999): “La evaluación auténtica en la educación afectiva de lenguas extranjeras”, in J. Arnold (ed.) *La dimensión afectiva en el aprendizaje de idiomas*, Madril: Cambridge University Press, 295-314.
- Kohonen, V. (2001): “Towards experiential foreign language education”, in V. Kohonen (arg.) *Experiential learning in foreign language education*, Harlow: Pearson Education
- Kolb, D. (1984): “Experiential learning: experience as the source of learning and development”, Englewood Cliffs, N.J.: Prentice-Hall
- Lantolf, J., (arg.) (2000): “*Sociocultural Theory and second language learning*”, Oxford: Oxford University Press.
- Le Boterf, G. (2000): “Ingeniería de las competencias”, Bartzelona: Gestión 2000.
- López, A. eta E. Encabo (2002): “Introducción a la didáctica de la lengua y la literatura. Un enfoque sociocrítico”, Bartzelona: Octaedro.
- López, M. eta M. Edwads (2007): “Las competencias comunicativas en el diseño de títulos universitarios en España”, URL: <http://www.eduonline.ua.es/jornadas2007/comunicaciones>.
- Navío, A. (2005): “Las competencias profesionales del formador. Una visión desde la formación continua”, Bartzelona: Octaedro.

- Noguerol, A. (1998): "Investigación y didáctica de lengua y literatura" in A. Mendoza (koord.): *Conceptos clave en didáctica de la lengua y la literatura*, Barcelona: SEDLL/ICE de la UB / Horsori, 61-74.
- Pérez, P. eta F. Zayas, F. (2007): "Competencia en comunicación lingüística", Madrid: Alianza Editorial.
- Ricento, T. (2005): "Considerations of identity in L2 learning", in E. Hinkel (arg.) *Handbook of research in second language teaching and learning*, Mahwah, N.J.: Lawrence Erlbaum Associates, 895-910.
- Rodríguez, M^a L. (2006): "Evaluación, balance y formación de competencias laborales transversales", Barcelona: Laertes Educación.
- Rué, J. (2007): "Enseñar en la universidad. El EEES como reto para la Educación Superior", Madrid: Nancea.
- Santos, M. eta A. Guillaumín (arg.) (2006): "Avances en complejidad y educación: teoría y práctica", Barcelona: Octaedro.
- Sanz, M^a I. (2007): "El español profesional y académico en el aula universitaria. El discurso oral y escrito", Valencia: Tirant Lo Blanch.
- Unamuno, V. (2003): "Lengua, escuela y diversidad sociocultural. Hacia una educación lingüística crítica", Barcelona: Graó.
- UPV/EHU (2007): "Euskararen Plan Gidaria". URL: http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/p076-11752/eu/contenidos/informacion/plan_informa/eu_plan/adjuntos/plan_gidaria.pdf
- Zabala, A. eta L. Arnau (2007): "Cómo aprender y enseñar competencias", Barcelona: Graó.
- Zabala, I. et al. (2008): "GARATERM: diskurtso akademiko-profesionalaren didaktika eta garapena uztartzeko tresna informatikoen diseinua eta integrazioa helburu duen proiektua", in Ugarteburu, I. eta P. Salaburu. (arg.): *Espezialitate hizkerak eta terminologia jardunaldiak II*, Bilbao: Euskara Institutua-EHU.
- Zabala, I. eta Elordui, A. (2006): "Specialised Discourse and the Linguistic System of Basque", in B. Fernández eta I. Laka (arg.) (2006): *Andolin Gogoan: Essays in Honour of Professor Eguzkitza*. Bilbao: UPV-EHUren argitalpen zerbitzua, 895-915.

Zabalza, M. (2006): “Competencias docentes del profesorado universitario. Calidad y desarrollo profesional”, Madril: Nancea.

1a. eranskina. Eginkizun teknikoei atxikitako gaitasunak arloz arlo.

ZIENTZIAK	ARKITEKTURA ETA IKASKETA TEKNIKOAK	OSASUN ZIENTZIAK	GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZIENTZIA JURIDIKOAK	ARTE EDERRAK ETA GIZA ZIENTZIAK
<ul style="list-style-type: none"> • Baliabideak, materialak, produktuak eta abar katalogatu, ebaluatu eta kudeatu • Ikerkuntza lanen oinarriak, hipotesiak, prozedurak eta ondorioak idatziz nahiz ahoz azaldu • Dokumentazio-txosten konplexuak egin, ongi egituratu eta idatziak • Azterketa, txosten, aurreproiektu eta proiektu teknikoak egin, ikerkuntza-, garapen-, kudeaketa- eta ekoizpen-lanen inguruan • Saiakuntzen proiektu eta txostenak egin • Proiektu edo proposamen bat ahoz defendatu • Norberaren lanak diziplinarteko profesional edo aditu talde bati aurkeztu • Ahoz erantzun proiektu, txosten eta abarren inguruko galderei • Zalantzak argitu bezero, enpresa, erakunde eta abarrei argibideak emanaz • Norberaren ikuspegiari tinko eutsi, ondo oinarritutako ezagutza zientifikoak baliatuz • Argudiaketa logikoa erabili erabakiak hartzerakoan • Publizitate eta marketin arloko lanetan aholkua eskaini, bai eta produktuen etiketatze eta aurkezpen arlokoetan ere • Aholku zientifikoa, teknikoa nahiz lege arlokoa eskaini, industriari edo administrazioari • Irizpenak, txostenak eta peritazio teknikoak egin 	<ul style="list-style-type: none"> • Espezialitatearekin loturiko proiektuak diseinatu, erredaktatu, sinatu eta zuzendu • Plan teknikoak prestatu, idatzi eta aurkeztu • Bideragarritasun- eta aholkularitza- txostenak prestatu, idatzi eta aurkeztu • Proiektu, aplikazio eta tresna teknikoak jaiotzari, produktioari eta eraginkortasunari buruzko dokumentazio deskribatzaile prestatu eta mantendu • Proiektu, aplikazio eta tresna teknikoak erabiltzaile edo bezeroei entzun eta aholkuak eman • Dokumentazio teknikoa idatzi eta interpretatu • Jarraiera-arloan, bizitza baliagarriko zirkloen, energia-ebaluzioaren eta jasagarritasunaren azterlanak idatzi • Segurtasuneko azterlanak eta planak idatzi • Jarraieketa-eremuari dagokionean, ekonomia- eta ekologia-balioztapenerako txostenak egin • Balioztapen-txostenak egin onura publiko edo gizarte-interesagatik desjabetzetan, okupazioetan eta zortasunetan • Proiektu sortzailei buruzko txostenak egin • Irtenbide estandarrek edo neurriak eginak ekar ditzaketen proposamen komertzialak idatzi • Publizitate-agentzientzako brief-ak idatzi eta defendatu • Proiektuak jarraitzeko behar diren txostenak idatzi enpresaren zuzendaritzarentzat edo dagokion erakundearentzat 	<ul style="list-style-type: none"> • Fitxa kliniko bat bete eta eguneratuta eduki • Mediki-konsulta bat idatziz eskatu • Epidemiologia fitxak bete • Agindu-medikuen orriak dietetika-preskripzioaren fitxa bete • Miaketa-, diagnosi-, jarraipen-, amaiera- eta bideratze-txostenak egin • Gaixoei dituzten arazoei buruzko informazio egokia laburbildu • Lagin eta analisi buruzko txostenak egin • Alta-txostenak egin • Esku-hartze terapeutikoen prozesuak txostena egin, erregistratu, dokumentatu, eta hala badagokio, bideratu • Historia klinikoak eta beste erregistro medikoak, hirugarrenek ulertzeko hizkera egokia erabiliaz, paperean edo euskarri informatikoan idatzi • Lanbide-txostenak idatzi eta zabaldu, betiere behar den isilekotasuna gordeta • Eremuko profesionaleko arau zein legeak, eta baita dagokien erregelamenduak ere, interpretatu • Lege-medikuntzako dokumentuak zuzenki idatzi 	<ul style="list-style-type: none"> • Kalitate-eskuliburua sortu eta idaztea, dagokion lanbide-esparruko instituzio, enpresa edo zerbitzu batentzat • Historiak eta txosten teknikoak kudeatu, aurkeztea eta partekatu, beti ere oso, egiazko, eskuragarri eta eguneratuz mantenduz, lanbideko erabaki eta balorazioak hartzerakoan berme ona izate aldera • Baliabide, ondasun, lan, dokumentu eta abarren inbentarioak eta katalogoak egin • Bezeroak eskaturiko zerbitzuak ematearekin loturiko dokumentazioa sortu eta interpretatu • Esku-hartze plangintza prestatu eta haren xedeak definitu, ezarritako helburuaren baitan • Baliabide material publiko eta pribatuak, giza baliabideen, ondare baliabideen, kultur baliabideen eta gainerakoak erabilerak eta ustiatetarako proiektu bat diseinatu • Edukiak hezkuntzako, ekonomikoak edo soziolaborala izan daitekeen gidoi tekniko bat diseinatu. • Merkatu-azterketak egitea, zeinetan ustiatu nahi den baliabidearen edo garatu nahi den zerbitzuaren eta demandaren arteko erlazioak zehaztuko diren. • Enpresen, erakundearen edo instituzio publikoen zuzendaritzarako programak prestatu. • Zerbitzu eta enpresentzako marketin- eta merkataritza-plana prestatu, kontuan hartuta inguruaren analisia, helburuen definizioa, eta merkataritza-, erakunde-gizarte- eta hezkuntza-estrategiak 	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzeko eta irudizko komunikazio materialak sortu azoketarako, erakusketetarako, museoetarako, webguneetarako, etab. • Kultura-gertakarien kudeaketarekin loturiko komunikazio eta marketin proiektuak garatu. • Izaera tekniko eta kulturaleko proiektuak idatzi eta aurkeztu agentzia turistiko, hotel, aisia-gune eta abarretarako • Kultura- eta natura-ondarearen komunikazio eta marketin programak sortu eta kudeatu • Planifikazio interpretatiboa egin (helburuak ezarri, balizko erabiltzaileen analisia egin, mezuak bereizi, interpretaziorako bitartekoak aukeratu, hornidurak zehaztu) • Proposamen sozial, kultural eta zientifikoak bilduko dituzten proiektuak idatzi • Kudeaketa eta hedakuntza proiektuak Artearen eta Giza Zientzien arlo guztietan aurkeztu eta azaldu ahoz nahiz idatziz • Kanpo-harremanak kudeatu: erakunde eta enpresekiko komunikazioa, lan-taldeen koordinazioa, edizioaren koordinazioa, bileren antolaketa eta kudeaketa, etab. • Multimedia sistematan txertaturiko proiektuak garatu • Testugintza-mota eta tipologia ezberdinak testuak sortu, hainbat espezializazio mailatan • Mota eta espezializazio maila ezberdinak testuak itzuli • Testu dibulgatzaile, berezitu eta literarioak editatu euskarri arruntetan (liburuak, aldizkariak, entziklopediak,) eta euskarri berrietan (kulturazko orri elektronikoak, kultura-arloko aplikazio informatikoak, etab) • Komunikabideetan laguntza eta aholku linguistiko edo literarioa eskaini, hainbat arlotan: estilo-zuzenketa, aholku literarioa edo kulturala, nazio barmeko nahiz nazioarteko gaiez, kultura-gehiarren prestaketa, etab. • Testu baten estiloa ikuspegi kritikoz ebaluatu eta ordeko proposamenak egin • Testuak eta dokumentuak, komentatu, oharrez hornitu edo editatu, diziplinako kanon kritikoek eskatzen dutenaren arabera • Dokumentuak orraztu eta batasuna eman: erregistro bakoitzean hizkuntzaren idazkera arauarekin bat ez datorrena zuzendu; pasarte zalantzarik edo ilunak saihesti; itzulpen hutsak ezagutu eta zuzendu; akatsak konpondu • Glosario berezituak osatu, termino berriak sortzeko gaitasunaz

1b. eranskina: Gizarte-komunikazioarekin lotutako gaitasunak arloz arlo

ZIENTZIAK	ARKITEKTURA ETA IKASKETA TEKNIKOAK	OSASUN ZIENTZIAK	GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZIENTZIA JURIDIKOAK	ARTE EDERRAK ETA GIZA ZIENTZIAK
<ul style="list-style-type: none"> • Gizarteak zientziaz duen pertzepzioa modu kritikoan interpretatu eta ebaluatu • Jakin-mina eta interesa piztu gai zientifikoaren inguruan • Zientziaren alderdi ludikoa ezagutarazi. • Gizartean oihartzuna duten gai zientifikoaren irakaskuntzarako eta komunikaziorako programak diseinatu eta gauzatu • Gizartean zientziak duen hedapen eta garapenaren inguruko ikuspegi etikoen eztabaidetan parte hartu 	<ul style="list-style-type: none"> • Arkitekturaren eta ingeniartzaren gizarteratzearekin zerikusia duten ekimenetan parte hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrerakuntza profesionalak hedatu gizarteko komunikabideetan 	<ul style="list-style-type: none"> • Testu eta dokumentu berezituak laburtu eta egokitu, jendearen gehiengoarentzat ulergarria den hizkera eta hiztegia erabiliz. • Testuak eta beste komunikazio-ekoizpenak egokiro komentatu eta editatu ohiko hedabide bakoitzaren hizkuntza propioan eta haien forma konbinatuetan eta euskarri berrietan. • Web orriak diseinatzea eta egitea: testuen eta irudien muntatze errazak egitea; orrialdeetan banatzea; askotariko iturrietako informazioak berrerrabili, dokumentuetan txertatu eta lortutako emaitzak egiaztatzea; etab • Eguneroko prentsa baliabide gisa erabili gai jakin batzuei buruz eta haien gizarte-eraginari buruz informazioa eskuratzeko • Publizitate-mezuak sortzea eta lantzea, hainbat euskarri eta hedabide erabiliz • Aholkuak ematea irrati, telebista, prentsa, internet, eta komunikatzeko eta informatzeko gainerako bide eta sareetatik • Estilo-liburu bat sortu eta erredaktatu • Masa-hedabideenak diren informazioko, publizitateko eta aisialdiko elementuak ikuspegi kritiko batetik integratu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Arlo turistikoarekin loturiko material kultural eta informatiboak (esku-orriak, gidak etab.) sortu • Euskarri ezberdinetako (kartelak, erakusketa-aulak, museoetako errotulazioa eta informazioa, ikus-entzunezko dokumentuak, etab.) materialak ekoiztea • Hitzezko eta irudizko komunikazio materialak sortu azoketarako, erakusketetarako, museoetarako, webguneetarako, etab. • Erakusketen, artisten eta abarren katalogoak prestatu • Teknologia berriak eta multimedia sistemak baliatzea edukien, dokumentuen, baliabideen, ondare historiko edo kulturalaren eta abarren aurkezpena eta interpretazioa egiteko • Elkarrizketa espezializatuak egin musikariei, musikako profesionalari, adituei etab. eta emaitzak aurkeztu kasuan kasuko argitalpenaren irizpideak behar bezala betez • Ekoizpen eta gertakari kultural eta artistikoen komentarioak, txosten kritikoak eta balorazioak egin komunikabide idatzietarako, ikus-entzunezkoetarako nahiz medio elektronikoetarako • Aipamen laburrak eta kritikak idatzi literaturaz, arteaz, zinemaz eta abar, argitaratuko dituen medioaren eta hartzaileen ezaugarrietara behar bezala moldaturik

2a. eranskina. Komunikazioaren xedea, arloz arlo.

ZIENTZIAK	ARKITEKTURA ETA IKASKETA TEKNIKOAK	OSASUN ZIENTZIAK	GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZIENTZIA JURIDIKOAK	ARTE EDERRAK ETA GIZA ZIENTZIAK
<p>-Kontaketa: gertaerak, esperientziak, biografiak...</p> <p>-Deskribapena: objektu bat, fenomeno bat, prozesu bat...</p> <p>-Informazio eskuratzea eta ematea: datuak edota informazio zientifikoa biltzea, laburtzea, zabaltzea...</p> <p>-Argibideak ematea eta justifikatzea: ikerketa-prozedurak; adibideak; kasu praktikoak; etab.</p> <p>-Jarraibideak ematea: laborategiko saioak; prozedura zientifikoak; etab.</p> <p>-Hipotesiak egitea: formulatzea; azaltzea; justifikatzea; eztabaidatzea; etab.</p> <p>-Argudioa: iritzia ematea, arrazoitzea, ondorioak ateratzea, kritikitzea...</p>	<p>-Deskribapena: tresneria eta baliabide teknologikoak...</p> <p>-Informazioa eskuratzea eta ematea: dokumentazio tekniko biltzea, antolatzea eta laburtzea, dokumentazio administratiboa osatzea....</p> <p>-Argibideak ematea eta justifikatzea: adibideak; prozedura teknikoak; kasu praktikoak; etab.</p> <p>-Jarraibideak ematea: laborategiko saioak; tresnak erabiltzeko prozedurak; etab.</p>	<p>-Deskribapena: tresneria, gaixotasunak, sintomak, tratamenduak...</p> <p>-Informazioaren eskuratzea eta ematea: Informazio kliniko biltzea; gaixoarengandik informazio kliniko eskuratzea; informazioa laburtzea eta komunikatzea; etab.</p> <p>-Argibideak ematea eta justifikatzea: diagnostikoak; prozedura klinikoak; tratamenduak; etab.</p> <p>-Jarraibideak ematea: botikak; osasun-aholkuak; tratamenduak eta zaintza; etab.</p> <p>-Elkarrekintza: gaixoengandik informazioa eskuratzea; jarraibideak ematea; gaixoen egoera emozionalean eragitea; etab.</p>	<p>-Kontaketa: gertaerak, esperientziak...</p> <p>-Deskribapena: baliabideak, zerbitzuak, prozedurak...</p> <p>-Informazioa eskuratzea eta ematea: galdeketak egitea; dokumentazio tekniko biltzea, antolatzea eta laburtzea; dokumentazio administratiboa osatzea; etab.</p> <p>-Argibideak ematea eta justifikatzea: zerbitzuak; prozedurak, kasu praktikoak; etab.</p> <p>-Jarraibideak ematea: orientazioa; aholkularitza; estrategiak; etab.</p> <p>-Hipotesiak egitea: formulatzea; azaltzea; justifikatzea; eztabaidatzea; etab.</p> <p>-Argudioa: iritzia ematea, arrazoitzea, ondorioak ateratzea, kritikitzea, marketina, publizitatea...</p> <p>-Elkarrekintza: informazio adierazgarria eskuratzea; egoera emozionalean eragitea; ekintzara bultzatzea; orientabideak ematea; etab.</p>	<p>-Kontaketa: gertakari eta bilakaera historikoak...</p> <p>-Deskribapena: arte-lanak...</p> <p>-Informazioa eskuratzea eta ematea: dokumentazio bibliografikoa biltzea, antolatzea eta laburtzea; baliabideak, zerbitzuak eta prozedurak azaltzea; etab.</p> <p>-Argibideak ematea eta justifikatzea: arte-lanei buruz; musika-lanei buruz; lan literarioei buruz; etab.</p> <p>-Jarraibideak ematea: arte-sorkuntzarako irizpideak; sorkuntza literarioarako irizpideak; artea, literatura eta musika interpretatzeko irizpideak; etab.</p> <p>-Hipotesiak egitea: formulatzea; azaltzea; justifikatzea; eztabaidatzea; etab.</p> <p>-Argudioa: iritzia ematea, arrazoitzea, ondorioak ateratzea, kritikitzea...</p>

2b. eranskina: Funtsezko komunikazio-eragiketak arloz arlo

ZIENTZIAK	ARKITEKTURA ETA IKASKETA TEKNIKOAK	OSASUN ZIENTZIAK	GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZIENTZIA JURIDIKOAK	ARTE EDERRAK ETA GIZA ZIENTZIAK
<p>E01. Dokumentazio-lana: informazioa bilatu, bildu, hautatu, oharrak hartu, informazioa antolatu, analizatu, kritikoki aztertu...</p> <p>E02. Testuen hustuketa: ideia nagusiak identifikatu, eskemak egin, hitz gakoak identifikatu, Informazioa laburbildu, informazioa zehaztu, hedatu, soildu, alderatu, moldatu, osatu...</p> <p>E03. Testugintza: testuinguratzea, planifikazioa, egituratzea, gidaritza, kontrola, zuzenketa...</p> <p>E04. Informazioaren komunikazioa: solaskideen beharretara egokitu, solaskidea gidatu, malgutasunez komunikatu, berbaldia kontrolatu eta zuzendu, hutsak konpentsatu...</p> <p>E05. Azalpena: gaia testuinguratu, gaia zehaztu, aurrekariak laburbildu tesia aurkeztu, hipotesiak garatu, ondorioak atera...</p> <p>E07. Argudioa: Nork bere ikuspuntua zehaztu, besteen ikuspegiak alderatu eta laburbildu, argudioak garatu, besteen iritziei erantzun...</p> <p>E09. Elkarlana: galdetu eta erantzun, parte hartzera bultzatu, jarraibide xeheak eman arazoak, auziak garbi azaldu, azalpenak eskatu, konponbideak proposatu eta negoziatu...</p>	<p>E01. Dokumentazio-lana: informazioa bilatu, bildu, hautatu, oharrak hartu, informazioa antolatu, analizatu, kritikoki aztertu...</p> <p>E05. Azalpena: egitasmoak testuinguratu, proiektua aurkeztu, tresneria deskribatu, ezaugarriak zehaztu, prozesua deskribatu, argibideak eman...</p>	<p>E01. Dokumentazio-lana: informazioa bilatu, bildu, hautatu, oharrak hartu, informazioa antolatu, analizatu, kritikoki aztertu...</p> <p>E03. Erregistro-lana: protokoloak ezagutu; fitxak eta historiak bete; txostenak egin...</p> <p>E04. Informazioaren komunikazioa: solaskideen beharretara egokitu, solaskidea gidatu, malgutasunez komunikatu, berbaldia kontrolatu eta zuzendu, hutsak konpentsatu...</p> <p>E05. Azalpena: aurrekariak, sintomak eta sendabideak azaldu, diagnostikoa egin,...</p> <p>E06. Instrukzioa: jarraibideak eman; justifikatu; argibideak erantsi; oharrak egin...</p> <p>E07. Argudioa: Hipotesiak egin, nork bere ikuspuntua zehaztu, besteen ikuspegiak alderatu eta laburbildu, argudioak garatu, besteen iritziei erantzun...</p>	<p>E01. Dokumentazio-lana: informazioa bilatu, bildu, hautatu, oharrak hartu, informazioa antolatu, analizatu, kritikoki aztertu...</p> <p>E03. Erregistro-lana: protokoloak ezagutu; fitxak eta inprimakiak bete; txostenak egin...</p> <p>E03. Testugintza: testuinguratzea, planifikazioa, egituratzea, gidaritza, estiloaren doikuntza, prozesuaren kontrola, zuzenketa, edizioa...</p> <p>E04. Informazioaren komunikazioa: solaskideen beharretara egokitu, solaskidea gidatu, malgutasunez komunikatu, berbaldia kontrolatu eta zuzendu, hutsak konpentsatu...</p> <p>E05. Azalpena: gaia testuinguratu, aurrekariak laburbildu, tesia aurkeztu, hipotesiak egin, ondorioak atera...</p> <p>E05. Azalpena II: egitasmoak testuinguratu, proiektua aurkeztu, tresneria deskribatu, ezaugarriak zehaztu, prozesua deskribatu, argibideak eman...</p> <p>E06. Instrukzioa: jarraibideak eman; justifikatu; argibideak erantsi; oharrak egin...</p> <p>E07. Argudioa: Nork bere ikuspuntua zehaztu, besteen ikuspegiak alderatu eta laburbildu, argudioak garatu, besteen iritziei erantzun; argudio juridikoa;...</p> <p>E08. Bitartekaritza: testuinguruaz jabetu; funtsezko datuak eskuratu eta eman; arazoak konpontzeko bitartekoak aztertu eta aurkeztu; informazioa laburbildu; beste solaskide eta erakundeekin harremanetan jarri; etab.</p> <p>E09. Elkarlana: galdetu eta erantzun, parte hartzera bultzatu, jarraibide xeheak eman arazoak, auziak garbi azaldu, azalpenak eskatu, konponbideak proposatu eta negoziatu...</p>	<p>E01. Dokumentazio-lana: informazioa bilatu, bildu, hautatu, oharrak hartu, informazioa antolatu, analizatu, kritikoki aztertu...</p> <p>E03. Erregistro-lana: fitxak egin; dokumentu biltegiak; artxiboak; etab.</p> <p>E03. Testugintza: testuinguratzea, planifikazioa, egituratzea, gidaritza, estiloaren doikuntza, prozesuaren kontrola, zuzenketa, edizioa...</p> <p>E04. Informazioaren komunikazioa: solaskideen beharretara egokitu, solaskidea gidatu, malgutasunez komunikatu, berbaldia kontrolatu eta zuzendu, hutsak konpentsatu...</p> <p>E05. Azalpena: egitasmoak testuinguratu, proiektua aurkeztu, tresneria deskribatu, ezaugarriak zehaztu, prozesua deskribatu, argibideak eman...</p> <p>E07. Argudioa: Nork bere ikuspuntua zehaztu, besteen ikuspegiak alderatu eta laburbildu, argudioak garatu, besteen iritziei erantzun; argudio juridikoa;...</p>

3a. eranskina: Testuinguru akademiko eta profesioaletan komunikatzeko oinarrizko ahalbide pragmatiko eta funtzionalak

ZIENTZIAK	ARKITEKTURA ETA IKASKETA TEKNIKOAK	OSASUN ZIENTZIAK	GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZIENTZIA JURIDIKOAK	ARTE EDERRAK ETA GIZA ZIENTZIAK
<ul style="list-style-type: none"> • Ekoizpen akademikoan ohiko konbentzio eta eskakizunak ezagutzea • Ekoizpen akademikoetan ohikoak diren azalpen moduen (irudiak, taulak, formulak, grafikoak etab.) oinarritzko erabilerak ezagutzea • Analisiaren eta sintesiaren oinarritzko estrategiak menderatzea, askotariko informazioak antolatu eta integratzeko mailan • Argudio eta ideiak azaltzeko orduan zehaztasuna • Beste espezialisten hizkera eta proposamenak ulertzeko gaitasuna • Idatzitako eta ahozko komunikaziorako gaitasun ona erakustea, ikerlan baten edo aplikazio baten emaitza aisetasunez eta konfiantzaz aurkeztu ahal izateko, ebaluazio kritikoa egingo duten lankideen edo aztertzaileen aurrean, testuinguru formalean nahiz informalean • Adituak ez direnei eta jendeari, oro har, zientzia azaltzeko gaitasuna • Adituak ez direnekin komunikatzeko gaitasuna, laneko hainbat eginkizunen testuinguruan: gida edo monitore-lanean; idazle, erredaktore edota kazetari espezializatuaren langintzan; dibulgazio-lanean; aholkulari zientifikoaren eginkizunean; etab. • Hezkuntza arloan gai zientifikoak azaltzeko gaitasuna • Gai zientifikoaren inguruan ikusmina eta interesa pizteko gaitasuna • Adituen nahiz adituak ez direnen galderei testuinguru ezberdinetan erantzuteko gaitasuna: proiektuez, produktuez, gai espezializatu baten inguruan, etab. • Bezeroei, enpresei, erakundeei eta besteri arreta egokia eskaintzeko behar diren ezagutzak eta trebetasunak • Gai zientifikoaren inguruko komunikazio egoeretan aise aritzeko gaitasuna, testuinguru komunikatiboan edozein delarik 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio teknikoa interpretatzeko gai izatea • Analisi eta sintesirako gaitasuna • Hitzaren eta irudiaren bidez komunikatzeko gai izatea • Gai izatea ideiak era konbentzigarrian komunikatzeko • Gai izatea txostenak egite eta aurkezte aldera, ahoz zein idatziz erraz komunikatzeko • Gai izatea lanaren irizpideak eta emaitzak ahoz azaltzeko eta defendatzeko • Gai izatea talde-laneko jardueretan komunikazio eraginkorra garatzeko • Gai izatea bezeroekin, administrazioarekin eta erabiltzaileekin elkarrekin aritzeko • Gai izatea jarraibide argiak emateko eta jasotzeko • Gai izatea arloko gaietan adituak ez direnekin komunikatzeko • Gai izatea proposamen bateko informazioa era trebetasunez eta teknikaz jasotzeko • Gai izatea gizarte osoari jardun tekniko konplexuei buruzko informazio eraginkorra emateko, txosten sendoak eta dokumentazioaren diseinua ondo ulertuz eta idatziz • . 	<ul style="list-style-type: none"> • Gai izatea aurrerakuntza profesionalak hainbat forotan komunikatzeko • Gai izatea gaixoari arretaz entzuteko, dituen arazoei buruzko informazio garrantzitsua jaso eta laburtu, eta informazio horren edukia ulertze aldera • Gai izatea modu eraginkor eta argian komunikatzeko, ahoz zein idatziz gaixoekin, senitartekoekin, hedabideekin eta beste profesionalekin • Gai izatea modu arinean ahoz eta idatziz komunikatzeko, pazienteekin, beste lankideekin, agintariekin edo gizarte zabalarekin, ezagutza eta informazio profesionala partekatze eta zabaltze aldera • iritzi klinikoak baliarazteko • Gai izatea pazienteei, zaintzaileei eta haien familiei informazioa emateko 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa biltzeko, hautatzeko, antolatzeko, irudikatze, zaintzeko, berreskuratze, hedatzeko, elkartrukatzeko eta hartara iristeko gaitasuna • Trebetasunak izatea erabiltzaileen beharren arabera informazioa antolatzeko eta igortze aldera informazioa analizatzeko, sintetizatze eta ahoz zein idatziz komunikatzeko • Komunikabideak eta haietako erregistro nagusiak ezagutzea, beti ere, mezuak, haien bidez hedatuko diren mezuak, kanpainak eta programak egiten lagundu ahal izateko eta horretarako aholkuak emateko • Trebetasunak izatea hedabideak analizatzeko eta hautatzeko, beti ere, komunikazio-mezuei eta kanpainiei egokituriko komunikazio-estrategien arabera • Gai izatea helburuen eta komunikabidearen arabera hainbat komunikazio-teknika hautatzeko eta erabiltzeko • Gai izatea beste eremu batzuetako eta hainbat testuingurutako adituekin komunikatu eta haien artean integratu ahal izateko, entzuketara eraginkorrerako • Gai izatea aholkularitza eta bitartekaritza prozesuetan ezinbestekoak diren komunikazio, elkarrizketarako eta entzuketara eraginkorrerako • Lanbide-jarduerako hainbat egoeratan eta hainbat hizkeratan eraginkorki moldatzeko behar diren komunikazio-trebetasunak izatea • Lanbideko esku-hartzearen testuinguruan (aholkularitza, bitartekaritza, salerosketa, eta abar) pertsonen arteko komunikaziorako trebetasunak izatea • Proiektuen kudeaketako, dokumentazio-laneko, giza baliabideko prozesu konplexuen kudeaketan negoziatzeko eta komunikatzeko trebetasunak izatea • Lanbidearen arloan hainbat entzuleriari dagozkion kontzeptuak, arazoak eta etorkizunerako aukerak komunikatzeko ezagutzak eta trebetasunak izatea • Gai izatea lanbide-gaietan hizkera erraza eta ulergarri batean jarraibideak emateko • Profesional eta enpresekiko komunikazioan egiten diren proposamen edo prozesuetan argudio argi eta sendoak egiteko gaitasuna izatea • Hainbat motatako hedabideei hobekien egokitzen zaizkien hizkuntza-baliabideak aukeratzeko trebetasuna izatea, ohiko hedabideetako bakoitzaren (prentsa, argazkia, irratia, telebista...) berariazko hizkeran komunikatze aldera • Hainbat motatako mezuak prestatzerakoan erabili behar diren elementu grafikoak, irudiak eta testuak sortzeko eta garatzeko gaitasuna eta trebetasuna izatea 	<ul style="list-style-type: none"> • Dokumentazio konplexuaren analisi eta sintesia egiteko gaitasuna izatea, horretaz baliaturik aipamenak, testu-iruzkinak, itzulpenak, txostenak, ikerkuntza memoriak eta abar osatzeko • Gaitasuna izatea iturri dokumentalak analizatzeko, interpretatzeko eta sintetizatze, arte-lanak, literatura- edo musika-ekoizpenak edo arkeologia-, historia- edo natur ondarea azaldu eta testuinguruan kokatzeko aldera • Gaitasuna izatea helburuak ezartzeko, balizko erabiltzaileak aztertze, mezuak aukeratzeko, interpretazio-bitartekoak hautatzeko eta ekipamendu-beharrak zehazteko, arte-, musika-, literatura-, arkeologia-, historia- edo natur ondarearen komunikazio eta marketin-programak sortu eta kudeatzeko aldera • Gaitasuna izatea arte-lanek, musika- edo literatura-ekoizpenek edo ondare arkeologiko, historiko edo naturalaren piezen ezaugarriei egokitzen zaizkien aurkezpen-sistemak hautatzeko, ezaugarriok modu eraginkorrean komunikatze aldera • Enpresa-komunikazioko trebetasunak izatea multimedia sistemak eta komunikabideen bitartez marketin- eta zabalkuntza- kanpainak antolatzeko • Trebetasuna izatea arte, musika, literatura, arkeologia, eta historia arloetako proiektuak edota natur ondarea sustatzeko komunikatzeko eta hedatzeko, askotariko testuinguruetan eta hainbat hartzailerekin motarentzat

3b. eranskina. Ahalbide lexiko eta semantikoak

ZIENTZIAK	ARKITEKTURA ETA IKASKETA TEKNIKOAK	OSASUN ZIENTZIAK	GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZIENTZIA JURIDIKOAK	ARTE EDERRAK ETA GIZA ZIENTZIAK
<ul style="list-style-type: none"> • Terminologia berezituaren alderdi nagusiak ezagutzea • Hiztegi zientifikoaren, nazioarteko konbentzio terminologikoen eta tokiko hizkuntzetarako egokitzapenen alderdi nagusiak ezagutzea • Kontzeptu, printzipio eta teoria zientifikoak ulertzeko eta adierazteko jakintza arlo bakoitzak bere dituen kontzeptuei dagokien hiztegia ezagutzea • Terminologia berezitua erabiltzeko eta kritikatzeko gaitasuna • Dagokion espezialitate zientifikoari atxikitako printzipio, termino eta kontzeptuak erabiliz egoki jardutea • Dagokion espezialitate zientifikoari atxikitako oinarritzko kontzeptuak zuzen definitzen jakitea, aldian-aldian egoerak eskatzen dituen harremanetan arloko gaiei buruz aise jardun ahal izateko moduan, komunikazio-testuingurua edozein delarik 	<ul style="list-style-type: none"> • Gai izatea proiektu teknikoan euskarri diren diziplinetako printzipio eta teorien terminologia eta nomenklaturak erabiltzeko • Lanbideko hizkeran modu eraginkorrean komunikatzeko gai izatea 	<ul style="list-style-type: none"> • Gai izatea beste profesionalakiko elkarrekintza eraginkorra izateko terminologia menderatzeko • Gai izatea medikuntzako terminoak beren osagai nagusietan banatzeko, eta haietatik abiatuz medikuntzako termino berriak osatzeko 	<ul style="list-style-type: none"> • Gai izatea lanbideko gai eta aferei buruz komunikatzeko eta mezuak igortzeko, ahoz zein idatziz, terminologia egokia erabiliz • Eginkizun akademikoetan, irakaskuntzaren zein ikerkuntzaren jardueran hizkera zientifikoa erabiltzeko gaitasuna izatea • Publizitate-mezuetan eta komunikazio-kanpainetan hizkuntzari molde sortzailea emateko gaitasuna izatea • Diskurtsoak hizkuntzaren erregistro jasoari egokitzeko gaitasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • Dokumentuak interpretatzeko gaitasuna izatea, bereziki menperatuz terminologia berezitua eta teknikoa, ahozko edo idatzizko aurkezpen akademiko edo profesionalak egiteko • Hiztegi teknikoa menperatzea, ikerkuntza eta dokumentazio lanetan parte diren espezialitateen hizkerak behar bezala ulertzeko • Arloko diziplinetako terminologia berezitua eta teknikoa menperatzea, kritika-, txosten-, ikerkuntza eta antzeko lanak egiteko eta lanok ahoz eta idatziz eta euskarri nahiz medio ezberdinetan egoki komunikatzeko • Teknika artistiko, musika mota edo literatura genero bakoitzak bere dituen lexikoa, kode eta kontzeptuak ondo ezagutzea, sorkuntza mota bakoitzaren sormen-hizkuntza berezia eta hari loturiko ideia artistiko eta estetikoak hitzez adierazteko

JUSTIFIKAZIOA

Bestela pentsa baliteke ere, komunikazio-gaitasunak funtsezkoak dira arteen arloko profesionalen jardunean; are gehiago, arteak XXI. mendean duen gizarte-testuinguruan. Izan ere, askotariko egoera komunikatiboei erantzun beharko diete jarduera artistikoen munduko eragileek beren ohiko zereginetan: erakundeekiko harremanetan, hezkuntzan, komunikabideekiko harremanetan, ikuskizunen eta arte-lanen azalpenetan eta kritikan, artearen zabalkundean, eta abar. Esan gabe doa arlo honetan orotariko espezialitate artistikoak sartzen direla: pintura, eskultura, musika, antzerkia, argazkigintza, eta abar. Arteen gizarte-dimentsioa, beraz, oso zabala da ikuskera honetan.

Alabaina, arteen gizarte-dimentsioa areagotzeak erronka berriak ekarri dizkio euskarari, bereganatu beharreko hainbat eremu zabaldu baitzaizkio aurrez aurre: jarduera artistikoaren sustapenaren esparrua, arte-sorkuntzaren mundua, artearen merkaturia, espezialitate artistikoen ikastegietakoa, erakusketa-aretoen eta museoen mundua, ikuskizun-aretoa, eta abar. Eremu horietan nabarmen-nabarmena da, jada, gizartearentzat erreferente izango diren profesional euskaldunen beharra; izan ere, ondo gaitutako profesionalik gabe nekez normalizatu eta garatuko baita euskara arlo berri hauetan.

Irakasgai honek, bada, jarduera artistikoen esparruan arituko diren profesional eta eragileen komunikazio-gaitasunen pizgarri izan nahi du. Horretarako, hainbat baliabide jarriko ditu haien esku, beren testuinguru profesionaletako eskakizunei egokiro erantzuteko gai izan daitezen.

HELBURUAK

Hauek dira irakasgai honek jomugan hartuko dituen bost gaitasunak:

- 1. gaitasuna.** Arteen historiaren eta sorkuntza artistikoaren iturri dokumentalen analisia, interpretazioa eta sintesia egitea.
- 2. gaitasuna.** Problema artistiko konplexuak, arte-lanen proiektuak eta sorkuntza-prozesuak, ahoz nahiz idatziz, modu argian aurkeztea
- 3. gaitasuna.** Ideia artistikoen, arte ekoizpenaren eta arte-lanen inguruko azalpenak, argibideak zein aholkuak ematea eta kritika formalak egitea, komunikazio-testuinguruaren eskakizunak aintzat hartuta
- 4. gaitasuna.** Sorkuntza-prozesuaren barruan ideiak eta proposamenak ekoiztea, aurkeztea eta argudiatzea, adostasunerako bideak eta elkarlana erraztuz.
- 5. gaitasuna.** Ikuskizunak, erakusketak, zabalkunde-ekitaldiak, hezkuntza-programak eta antzekoak antolatzeke, hedatzeko eta kudeatzeko erabiltzen diren komunikazio, dokumentu eta protokolo profesional ohikoenak ezagutzea eta aise baliatzea.

LANGAIK / EDUKIAK

Hauek dira irakasgai honek langai hartuko dituen alderdiak

-Arteen arloko komunikazio-eskakizunak: komunikazio-eremuak, helburuak, jorratu ohi diren gaiak, gaien trataera...

-Komunikazioaren moldea: baldintza fisikoen arabera, mintzaideen ezaugarrien arabera, euskarrien eta baliabideen arabera...

-Komunikazio-jarduerak: informazioa eskuratzeko irakurketa, jendaurreko azalpena, entzuketa arretatsua, ahozko elkarreragina, elkarreragin idatzia, idatzizko ekoizpena, bitartekotza...

-Testuak: testu akademikoak (artikulu espezializatuak, laburpenak, debate akademikoak, azterketa bibliografikoak, ekoizpen artistikoen iruzkinak...), testu teknikoak (katalogoak, gidak, adituen txostenak, egitasmoak, material didaktikoak...), komunikabideetako testuak (erreportajeak, elkarrizketak, kritikak...), zabalkunde testuak, literatur testuak, eta abar.

-Estilo eta terminologia espezializatua.

AMAIERAKO SOSLAIA / EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

Hauxe da ikasgai honek bilatzen duen amaierako soslaia

- Diziplinaren kanon kritikoak ekoizpen artistikoei, musikalei edota literarioei, aplikatzeko trebetasuna, lan edo proposamenak komentatzeko, oharrak eranstea, kritikatzeko eta ikerkuntza mota ezberdinen emaitzak azaltzekoan
- Musika-, arte- zein literatura-ekoizpenarekin zerikusia duen dokumentazioa edozein euskarritan eskuratzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko trebetasuna, analisisa, indukzioa, dedukzioa eta sintesia baliatuta.
- Arte-lanek, musika- edo literatura-ekoizpenen ezaugarriei egokitzen zaizkien aurkezpen-sistemak hautatzeko trebetasuna, ezaugarriok modu eraginkorrean komunikatze aldera
- Ahozko zein idatzizko berbaldiak prestatzeko eta gauzatzeko estrategia eraginkorrak.
- Lanbide-adierazpide den aldetik, hizkuntza estandarraren irizpideen ezagutza nahikoa.
- Artearen sormen-hizkuntza (lexikoa eta terminologia) aise baliatzea arte esparruak bere dituen kontzeptuak, pentsamenduak eta diskurtsoak adierazteko.

EBALUAZIO-PROZEDURA

Gaitasunak egiaztatzeko hiru bide erabiliko dira:

- Parte-hartzea:** talde-lanerako gaitasuna, jokabide autonomia, jarrera aktiboa, ekarpenen kalitatea, eta abar.
- Portafolioa:**
 - Jomugan hartutako gaitasunak egiaztatzen dituzten 5-10 lan (ahozkoak zein idatziak). Gutxienez gaitasun bakoitzeko bat.
 - Komunikazio eraginkorrerako irizpideak laburbiltzen dituen txostena.
 - Estilo eta terminologia zainduaren auzi adierazgarrien inguruko 20 fitxa.
- Azterketa-proba(k).**

Ikasturte hasieran jakinaraziko zaie ikasleei zein izango den ebaluazio-protokoloa: gainditzeko erakutsi beharreko maila, atalez ataleko puntuazio-baremoak, zuzenketarako irizpideak, eta abar. Ikasturte hasieran argituko da, halaber, zer aukera dituzten eskola-saiotara etortzen ez diren ikasleek. Edozein kasutan, beti hartuko dira aintzat UPV/EHUren arautegiak ebaluaziorako ematen dituen jarraibideak eta ezartzen dituen eskakizunak.

HIZTEGI BATUA ZERTAN DEN

Pello Salaburu
(Euskara Institutua, EHU)
salaburu@ehu.es

Sarrera

Hurrengo orrialdeetan azaldu nahi nuke zertan den, 2008ko urte honen hastean, Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua*, maizkara entzuten baitira hiztegi horri buruz egindako iruzkinak, nire ustez oso egokiak ez direnak. Ez naiz ari hemen hiztegiari egin dakizkiokeen kritikez, horiek beti izanen baitira ongi etorriak. Horretan ez dut deus esateko. Baina iruzkin batzuek erakusten dute, beldur naiz, ez dela sobera ongi ezagutzen hiztegia egiteko Euskaltzaindiak erabiltzen duen prozedura, jendeak ez dakiela, hala, nola egiten duen Euskaltzaindiak bere hiztegia. Horixe da, hain zuzen ere, hemen argitu nahi nukeena.

Jakina denez, Euskaltzaindiak 2000. urtean argitaratu zuen *Hiztegi Batua*. Baina ez zuen bat-batean argitaratu, pixkanaka-pixkanaka eta zatika emana baitzuen ezagutzera aitzineko urteetan erakundeak ateratzen dituen arauen bilduman. Zatikako argitaratze hori, esan bezala, 2000 urtean bukatu zen, hiztegia liburu gisa, bere osotasunean, argitaratu zenean¹.

Ez dira, ordea, han amaitu hiztegi horren inguruko lanak. Euskaltzaindiak baditu esku artean beste bi lan, haren osagarri direnak: batetik, euskara-euskara hiztegia, eta, bestetik, *Hiztegi Batua*-ren bigarren itzulia. Euskara-euskara hiztegiak osatu nahi du *Hiztegi Batua*, hango sarrera zerrenden esanahia azalduz, eta adibideak emanez. Horrekin batera, eta hau da bigarren lana, lehenbiziko itzuli hartako 20.000 inguruko sarreren kopurua handitzen ari da: bigarren itzulia bukatzen denean, hiztegiak 55.000 inguru sarrera izanen ditu. Hala ere, bi lan hauek urte batzuk beharko dituzte orainik behar bezala bukatu izateko. Gainera, bigarren itzulia akitzen denean, sarrera guztiak berriz ere aztertu beharko dira, elkarren arteko koherentzia ezak zuzenduz, eta gaur egun zalantzazko diruditen zenbait kontu berriz eztabaidatuz. Bigarren lan horri dagokionez, Euskaltzaindia argitaratzen ari da dagoeneko bere web gunean (<http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua>) 2000. urtean argitara emandako zerrendei egiten zaizkien eransketa berri guztiak². Hala ere, nahiz lehen itzuliko, 2000. urteko, sarrerekin batera -eta marka berezirik gabe- argitaratzen ari den, arau balio osoa lehenbiziko itzuliak bakarrik du, hau da, 2000. urtean euskaltzain guztiak sinaturik argitara eman zen liburuak. Kontuan izan behar da, orain lantzen ari den bigarren itzuliko sarrera zerrenda berriz ere aztertu beharko dela bere osotasunean, esan bezala.

Ez da dudarik *Hiztegi Batuak* eragina izan duela idazleen artean, 2000. urtea baino lehenagotik, jakina. Euskaltzaindiak zatika argitaratzen zituen erabakiek oihartzun handia zuten idazleetan, eta hauek zintzoki segitu dituzte erakundearen erabakiak, salbuespenak toki guztietan baldin badira ere, normala denez. Normalagoa, gainera, euskara bezalako hizkuntzaren kasuan, non, batasunari dagokionez, presaka egin behar izan baitira, aise epe laburragoan, beste tokietan hainbeste urte kostarik egin diren urratsak. Zernahi gisaz, esan daiteke XX. mendeko azkeneko urteetatik aitzinat idazleek erabiltzen duten hiztegiak batasun handiagoa duela, *Hiztegi Batua*-ri esker.

¹ Euskaltzaindia (2000), *Hiztegi Batua*. Bilbo: Euskaltzaindia

² Euskaltzaindia 2008an lantzen ari da E letra

Aurkezpenarekin aurrera segitu aurretik, hala ere, komenigarria litzateke, hala iruditzen zait niri bederen, konparatzea Euskaltzaindiak argitaratu duen hiztegia, eta gaur euskaraz ongi moldatzen diren idazleek egiaz erabiltzen dutena elkarren parean jartzea. Gerta bailiteke erakundea alde batetik joatea, eta hizkuntza egunero erabiltzen dutenak, berriz, bestetik, eta hori ez litzateke batere egokia izanen. Normalena da hau ez gertatzea, baina badira, duda gabe, erakundearen eta idazleen bideetan desberdintasunak gertatzeko arrazoi garbiak: *Hiztegi Batua* batez ere iturri historikoetan oinarritzen da. Ez haietan bakarrik, baina batez ere haietan eta, zehazkiago esateko, *Orotariko Euskal Hiztegia*-k (*OEH*, hemendik aurrera) eskaintzen dituen datuetan³. Hor ager daitezke gaur egun erdi hilik egon daitezkeen sarrerak, eta bestetik, idazleek behar dituzte eguneroko jardueran hiztegi berriak, egungo gizarte modernoa etengabe eskatzen dizkien hitz eta sarrera berriak esan nahi dut. Eta hitz horiek ez dauden *OEH*-n. Hortik etor daitezke desadostasun horiek.

EHUko Euskara Institutuak 2008ko ekainean argitaratu lan bat⁴ arazo hori aztertzeko asmoz, eta dagoeneko sarean kontsulta daiteke (<http://www.ehu.es/ehg/>). Han jartzen dira, pare-parean, *Hiztegi Batua*-ko sarrerak eta gaurko prosan gure idazleek erabiltzen dituzten sarrerak. Esan beharra da, *Hiztegi Batua*-ri dagokionez, lehenbiziko itzulia bakarrik (hau da, 2000. urteko liburua bakarrik) hartzen dela kontuan. Gaur egungo prosa *Ereduzko Prosa Gaur* izeneko EHUk bildu duen corpusean (<http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>) oinarritzen da. Komenigarria denez zertaz hitz egiten ari garen garbi izatea, esan beharra da corpus hau 2000-2006 urteetako epean argitaratu diren liburu eta prentsako artikuluetan oinarritzen dela. Corpus aukeratua da, txukun idatzitako testuak biltzen ditu, modernoa da, eta orotara 25 milioi inguru hitz biltzen ditu. Konparazioa, *OEH* egiteko erabili zen corpora testu zaharretan oinarritzen da, eta orotara 5 milioi inguru hitz ditu corpus horrek. Gaurkoak baino 5 aldiz gutxiago, alegia.

Baina, bistan denez, ez da lan honen helburua *Hiztegi Batua* eta egungo idazleek erabiltzen duten hiztegia elkarren artean konparatzea, baizik azaltzen saiatzea nola egiten ari den Euskaltzaindia bere *Hiztegi Batua*. Horretara mugatuko naiz ondoko lerroetan.

Esan dezadan, dena den, Euskaltzaindiak holako lanak hartzen dituenean bere eskuetan, beti izaten duela halako kontraesan baten inpresio gairitu ezina bezalako zerbait: batetik, idazleek eskertzen dute holako lana, horrek batasuna ematen baitio idazkerari, normalizatu egiten baitu idazteko sistema bera. Idazleak segurtasun puntu bat bereganatzen du horrekin. Baina, aldi berean, behin eta berriz galdetuko dio bere buruari: baina arau gehiago behar dugu? Gainera, egia da hitz asko falta direla, eta orduan, ez dituela arazo “guztiak” konpontzen. Aukera batzuekin, seguru, ez da konforme ageriko, eta koherentzia eza gertatzen da zenbait kasutan, behin eta berriz esan den gisan. Hori dela eta, jendeak pentsatzen ahal du erabakiak arinki hartzen direla, gehiegi pentsatu gabe bezala. Azkenik, badu inpresioa (inpresioa baino gehiago ere bada) hola ez dela amaituko inoiz ere lana. Ez dakit nik lan hauek askoz ere arinago egin daitezkeen, ez dakit Euskaltzaindia bezalako erakunde batek arinago egin ditzakeen, baina egia da bigarren itzuliak urte batzuk gehiago beharko dituela oraindik, non ez den sistema bera aldatzen.

Hurrengo lerroetan mintzatuko naiz kontu hauetaz.

***Hiztegi Batua*-ren iturriak**

Azkeneko urteetan ez du beti prozedura bera erabili Euskaltzaindiak hiztegia egiteko. Esan daiteke soilduz bezala joan dela, urteen arabera jendeak hasieran jartzen dituen indarrak ahulduz joango balira bezala. Azken urteetan erabiltzen duguna azalduko dut hemen. Beraz, prozedura hau, aski konplexua izanik ere, aurreko urteetakoa baino soilagoa da.

Hiztegi Batua bezalako lan bat egiteko ezinbestekoa da alde aurretik, eta hasiera-hasieratik, zer iturritan oinarrituko den ongi zehaztea. Eta iturri horiek ez aldatzea bilera bakoitzean, bestela ezingo bailitzateke hiztegi koherenterik egin. Lehenik iturri batzuk zehazten dira, eta iturri horietan

³ Michelena (1987-2005), *Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbo: Euskaltzaindia, Mensajero, Desclée de Brouwer

⁴ Sarasola, Salaburu, Ugarteburu eta Landa (2008): *Hiztegi Batua Euskal Prosan*, Leioa: EHU

egindako lana bukatu ondoren, beste iturri batzuk gaineratzen ahal dira hiztegia aberasteko. Euskararen kasuan hau ezinbestekoa da, kontuan izanik hiztun bakoitzak baduela golkoan hizkuntzalari bat ezkutuan, eta kontuan izanik euskaldun guztiak ditugula gure aitona, amona, amaxi, aitaxi, aitite eta amamak, denak eskura gure jakinduria hitz eta esamolde berriekin hornitzeko. Hitzen jatorrasuna heritik herrira eta mendiz mendi handiagotzen da, delako hitz hori azkenean gure birramonak bakarrik erabiltzen badu ere praktikan: behin bederen, guk koadernoan apuntatu genuenean, erabili zuen. Hori egia da. Horregatik da ezinbestekoa aitzinetik zehaztea zertan oinarrituko garen, ez aldatzeko gure irizpideak hile bakoitzean.

Egia da, horrekin batera, eta hau ere kontuan hartzekoa da, lana sobera luzatu daitekeela, eta luzatze hori urte luzeetako kontua bada, konturatzea aspaldi aukeratu ziren iturriak ez direla, beharbada, egokienak. Baina, hala ere, uste dut egokiena den iturriak definitu ondoren ahalik eta zintzoenak izatea egindako aukerarekin.

Lehenbiziko kontua, orduan, iturriak definitzea da. Berehala zehaztuko ditut zein izan diren 2000. urtean argitara emandako hiztegiaren iturri horiek.

Iturri horietan ageri diren sarrerak Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuko Lantaldeak* (HBL, hemendik aitzinat) aztertzen ditu. Lantalde⁵ horrek egiten du hasierako prestatze lana, aldeztatik zehaztutako irizpideen arabera, zer gertatzen den sarrera bakoitzarekin, eta jendeak zer iritzi duen hitz bakoitzari buruz. Prestatze lan horretan jende askok hartzen du, edo har dezake, hala nahi izanez gero, parte: hasierako-hasierako proposamenen inguruan euskaltzain oso guztiak eman dezakete iritzia, urgazleek ere, eta arlo horretan askatasun osoz interesa erakutsi dutenek. Badira, gainera, iritzi emaille bereziak ere.

Azkeneko fasean, HBL-ak azkenean dokumentu bat prestatzen du Euskaltzain osoei bidaltzen zaiena, haien bilkuran eztabaidatu eta azken proposamena egin dezaten. Euskaltzain osoen eskura iristen delarik, prozesua Pello Salaburuk koordinatzen du, Jose Antonio Aduriz jaunaren laguntzarekin.

2000. urtean argitara emandako *Hiztegi Batua*-ren iturrien zerrenda (hau da, “lehenbiziko itzuliko” iturrien zerrenda) hiru ekinalditan eztabaidatu zuen HL-ak, eta azkenean Euskaltzaindiak onartu zuen. Kontuan izan ziren, horretarako, Euskaltzaindiak modu batera edo bestera, zeharka nahiz zuzenean, hiztegi kontuetan emanak zituen arauak eta estatus “ofiziala” (neurri batean bederen) zuten zerrenda eta erabakiak. Honako hauek, hain zuzen ere:

Hiztegi Batua (2000), iturriak

- 1968ko *Batasunerako Hiztegia*
- 1979ko “H letraren ortografi arauak” izeneko dokumentuan ageri diren zerrendak
- *Zortzi urte arteko Ikastola Hiztegia* (1975)
- *Matematika-Hiztegia* (1978)
- *Merkatalgo Izendia* (1984)
- *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak* (1986)
- *EEBS* corpusa, gero *XX. mendeko corpusa* deitu izan duguna. Sarean dago (<http://www.euskaracorpora.net/XXmendea/index.html>). Maiztasun handieneko 5.200 lema bildu dira corpus honetatik, 20na agerralditik goitikoak.
- *OEH*-n “ongi bermaturiko” formak.

Horiek izan dira, hortaz, *Hiztegi Batua*-ren iturriak. Eta iturri horiei esker egin ahal izan da 20.000 sarrera inguruko hiztegia. Ikusten denez, maila desberdineko lanak dira betiere. Eta, batzuetan, ez dago argi batera irizpideen zehaztasuna ere. Konparazione, bistan da *OEH*-n harrapatzen ahal diren

⁵ HBL-ko kideak hauexek dira gaur egun: Jose Antonio Aduriz, Luis Baraiazarra, Jean-Louis Davant, Koro Navarro, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Miriam Urkia, Xarles Videgain

forma anitz aski ongi bermatuak direla. Baina bertze batzuetan nekez erranen dugu zerbait arras ongi bermatua, nahiko bermatua, bermatua bertzerik gabe, edo zer den. Hemen, bistan denez, intuizioak ere badu bere pisua.

XX. Mendeko corpus-ari dagokionez erran beharra da corpus hori ez dela erreferentziakoa, aleatorioa baita, estatistikoa, nahi bada. Ez da kontuan izan testuen kalitatea, erabiltzen den euskararen kalitatea, testuak beste irizpide batzuen arabera hautatu baitira. Horrek ere bere mugak ditu, nahiz holako corpusak egitea aski arrunta den bertze hizkuntzetan ere.

Azkenik, nik bederen zalantza handiak ditut horko bertze material batzuen gainean: *Zortzi urte arteko Ikastola Hiztegia* izeneko lanaz, konparazione. Ez dakit zenbateraino izan den eztabaidatua Euskaltzaindian. Behin baino maizago, historian zehar, Euskaltzaindiak bere burua ikusi du erantzunak presaka emateko beharrea, behar bezala prestatzeko astirik gabe, gizartetik etorri zaizkion eskaerak biziki handiak izan baitira. Holakoetan, bakoitzak ahal duena egiten du betiere. Hala ere, Euskaltzaindiak pentsatu zuen hiztegi berri hau egiteko orduan nahitaezkoa zela ordura arte hiztegi mailan errandakoak kontuan izatea eztabaidaren hastean.

Bigarren itzulian (oraintxe Euskaltzaindia eztabaidatzen ari den itzulian), jakina, iturriak zabaldu dira, eta hitzak aukeratzeko orduan ez dira lehenbizikoan bezain estuak:

Hiztegi Batua (bigarren itzulia, 2000-...), iturriak

- *OEH*-n (argitaratua, edo barne erabilerarako egin den CD-ko corpusean) 5 lekukotasun baino gehiagoko hitzak (denetara 12.000 inguru)
- *EEBS* corpora, gero *XX. mendeko corpus*-ean (<http://www.euskaracorpora.net/XXmendea/index.html>) 3 agerraldi edo gehiago dituzten hitzak (9.800 hitz inguru).
- *Euskal Hiztegia* (I. Sarasola) lanean ageri direnak, beste iturrietan ez badaude

Horrekin ari da une honetan Euskaltzaindia bigarren itzulia lantzen.

Egia da, zernahi gisaz, lanaren ondorioa ez dela gero automatikoa. Hau da, zehaztutako baldintzak betetzen dituzten hitzak ez dira besterik gabe zerrendara eramaten. Konparazione, Euskaltzaindiak erabaki zuen *arazi* osaerakoak modu sistematikoan biltzea, Euskaltzaindiaren 2. araua gidari dela, alde batera utzirik zehaztasunak nola betetzen zituzten. Eta hala jokatu zuen Euskaltzaindiak bertze forma batzuekin ere: hizkuntzen izenekin eta herritarren izenekin, adibidez. Hala, *muqdishoar* biltzen da 2000. urteko argitalpenean, baina ez *mauletar*, azterkizun baitzuen Euskaltzaindiak sarrera hori. Egia erran dezagun, orain lantzen ari den bigarren itzulian bertze erabaki bat hartu da: gaia aski nahasia delakoan, holako guztiak sistematikoki Onomastika Batzordera pasatzen dira, han denak eztabaida ditzaten eta azken proposamena egin dezaten, banaka-banaka eztabaidan egon beharrea.

Bertze batzuetan HBL-ak berak egiten ditu ongi funtsatuak ikusten dituen proposamenak: *adindun* eta *adingabe* sartzea proposatzen du. Espresuki dio ez direla tradizioan oinarritzen, baina adierazle egokien premiari erantzuten diote. Holako premiak anitz ditugu euskaraz, eta batzuetan erantzuna errazago eman daiteke, euskarak berak hitzak sortzeko gaitasunean oinarritua, bertze batzuetan baino. Konparazione, egia da hitz horiek premia bati erantzuten diotela, baina kasu horretan erabakia hartzea errazagoa da *entxufe* bezalako hitz baten kasuan baino, nahiz honen premia ere begien bistakoa den (bide batez, bigarren itzulian *Heg* markarekin sartu da hori ere).

HBL-ak *ekoiztu* proposatu zuen, aldaera hori, eta ez *ekoitzi*, baitzen gehien erabiltzen zena garai hartan. Euskaltzaindiak, hala ere, *ekoitzi* erabaki zuen, kontuan izanik ez hitzaren beraren tradizioa, baizik ongi funtsatuta diren *ekoizle*, *ekoizte* izenen tradizioa.

Taldeak zalantzakotzat jo zuen, bere proposamenean, *erabakior* hitza, berria eta gaizki eratur delakoan, nahiz bere bide edo bidetxoa egina zuen. Ordez, *erabakigarri* eta *erabakitzaille* proposatu zituen. Eta, ondorioz, Euskaltzaindiak saihesti zuen *erabakior* hitza, izartxoa jarriz.

Eskiatu edo *funtzionatu* bezalako aditz berriek *du* hartzen dute laguntzaile gisa. Baina *existitu* aditzaren kasuan *da* proposatu zuen HL-ak, bertze bide batetik dabilela pentsatuz (eta asmatuz: ezezkotan partitiboa onartzen baitu, *holakorik ez da existitzen* bezalako perpausetan, eta hori ezinezkoa litzateke subjektua absolutuan joango ez balitz).

Badira, izan, alderantzizko kasuak ere: iturrietan egon bai, baina hiztegi batuan bildu ez. Luze eztabaidatu zen *jaundone / jondoni* hitzen kasua, baina ezinezkoa izan zen adostasunik lortzea. Lantaldeak *jondoni* proposatzen zuen hasieran. Azkenean, 125. arauan *Jaun Done* erabaki du Euskaltzaindiak. *Kalumnia / kalomnia* bezalako erabakiak ere aski maiz erabili izan dira, baina oraingo premiak ezagutu eta bigarren itzulian aztertzeke utzi zituen Euskaltzaindiak. Ber gauza *ganderailu / kandelario* (vs. *argimutil*) bezalakoekin ere. Badira *kanfor / alkanfor* bezalako forma lehiakideak, tradizioak nekez erabaki ditzakeenak eta bertze nolabaiteko argibideak behar dituztenak. Eta holako zerbait gertatzen da hitz berriago batzuekin ere: ez da erraza zehaztea *keinukari / keinulari* bezalako kideekin zer egin.

Eztabaida prozedura

Zernahi gisaz, itzul gaitzean hasierako puntura: modu batera edo bestera, HBL-ak material horiek guztiak lantzen ditu, eztabaidatu, eta bertzeek ikus ditzaten dokumentuak prestatu. Horrekin egiten du zerrenda bat euskaltzain oso eta urgazleei, izena eman dutenei, eta abarrei igortzen diena. Dokumentu horrek itxura hau du:

Hasierako dokumentua

eaka | Z4:HBL | B3 | 1998-11-03

20.2: ik. oharra s.u. eiaka.

52.1: adlag.

51.1: Ipar.

53.1: galdezka.

45.51: -ka.

ebagi | Z4:HBL | E | 1998-10-07

20.80: HLEH-EuskHizt: Ik. ebaki / HiztEn: Ik. ebaki / LurE: ebaki / ElhHizt: - / EskolaHE: -

41.210: Ik. **ebaki**.

ebaingelari | Z4:HBL | E | 1998-10-07

20.80: HLEH-EuskHizt: + / HiztEn: - / LurE: + / ElhHizt: - / EskolaHE: -

41.210: Ik. **ebanjelari**.

ebaingeri | Z4:HBL | E | 1998-10-07

20.80: HLEH-EuskHizt: + / HiztEn: Ik. ebanjelio / LurE: + / ElhHizt: - / EskolaHE: -

41.210: Ik. **ebanjelio**.

ebakaitz | Z4:HBL | E | 1998-10-07

20.80: HLEH: + / EuskHizt: azalpen berritua / HiztEn: + / LurE: + / ElhHizt: - / EskolaHE: +

31.41: Ik. **ebakigaitz**.

Ikusten denez, sarrera dator lehenik, eta gero, segidan, hainbertze ohar. Ohar horien erranahia, hemengo batzuei dagokienez, ondoko laukian ikusten ahal da:

Hasierako dokumentua (oharren erranahia)

eaka | Z4:HBL (**Hiztegi Batuko lantaldeak gehitu du**) | B3 (**onartzekoa**) | 1998-11-03 (**noizko oharra den**)

20.2 (**txostenaren laburpena da**) : ik. oharra s.u. eiaka.

52.1 **Kategoria** : adlag.

51.1 **Erabileremu dialektala** : Ipar.

53.1 **Forma baten adierak** : galdezka.

45.51 **Erregulartasun sistematikoa** : -ka.

ebagi | Z4:HBL | E **zerrendatik baztertzea erabaki du lantaldeak** | 1998-10-07

20.80 **hiztegietako informazioa**: HLEH-EuskHizt: Ik. ebaki / HiztEn: Ik. ebaki / LurE: ebaki / ElhHizt: - / EskolaHE: -

41.210: **Batasuna egiteko bidea eskaintzen duen forma** Ik. **ebaki**.

ebaingelari | Z4:HBL | E **zerrendatik baztertzea erabaki du lantaldeak** | 1998-10-07

20.80: **hiztegietako informazioa** HLEH-EuskHizt: + / HiztEn: - / LurE: + / ElhHizt: - / EskolaHE: -

41.210 **Batasuna egiteko bidea eskaintzen duen forma** : Ik. **ebanjelari**.

ebaingeri | Z4:HBL | E **zerrendatik baztertzea erabaki du lantaldeak** | 1998-10-07

20.80: **hiztegietako informazioa** HLEH-EuskHizt: + / HiztEn: Ik. ebanjelio / LurE: + / ElhHizt: - / EskolaHE: -

41.210: Ik. **ebanjelio**.

ebakaitz | Z4:HBL | E **zerrendatik baztertzea erabaki du lantaldeak** | 1998-10-07

20.80: **hiztegietako informazioa** HLEH: + / EuskHizt: azalpen berritua / HiztEn: + / LurE: + / ElhHizt: - / EskolaHE: +

31.41 **forma garden-ulergarriak hobestekoak dira**: Ik. **ebakigaitz**.

Hola osatzen du HBL-ak dokumentu luze bat, bildutako hitz guztiak zerrendan jarritz, eta behar diren oharrak eginez. Dokumentu hau barreiatzen da, jendeak bere oharrak egin ditzan. Oharrak ez dira horretara mugatzen. Era anitzeko oharrak egiten ditu HBL-ak, eta maila desberdinekoak. Hona hemen adibide batzuk:

A Beste gabe onartu eta hobetsi du lantaldeak zerrendako forma, eta ez du, bere aldetik, gehiago esan beharrik ikusi.

B Zerrendako forma onartu du lantaldeak, baina informazio bat gehituz eskaini nahi du.

B2 Zerrendako forma bigarren mailan onartzekoa da, hobestekoa denarekin erlazionatuz.

B3 Zerrendako forma onartzekoa da, eta azpisarrera dagokio formatuz.

B4 Zerrendako forma onartzekoa da, eta azpisarrera dagokio formatuz.

E Zerrendako forma baztertu, eta beste batez ordezkatzera erabaki du lantaldeak.

F Zerrendako forma hurrengo urrats batean erabakitzeko utzi du lantaldeak, argibideen txostena eskatuz eta argitu beharrekoak zehaztuz.

H Zerrendako forma baztertzea erabaki du lantaldeak, ordezkorik eman gabe.

20.1. txosten osoa

20.111. corpusetako datuak

20.112. corpus eta hiztegi-tako datuak

20.113. hiztegi-tako datuak

20.2. txostenaren laburpena

20.20. bestelako erabileren informazioa: DFrec (Maiztasun Hiztegia), Irakasmunduko (AB38) eta Komunikabide-tako (AB50) hustuketak; Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa eta Lur Entziklopedia.

20.21. OEHko datuak

20.22. EEBSko datuak

20.23. Sektore jakin bateko informazioa (adib. Izendegi-arena, landare eta animalien izenetan, edo Administrazio-koa, dagozkionetan)

...

33.12. mailegu baztertze-koa da

33.120. beste bat da onartze-koa: a) nazio-arte-koa delako; b) euskaraz dagokion forma delako

33.121. ez dago jaso beharrik, inolako egokitzapenik gabeko denez, erabili nahi duenak jatorrizko forman erabiliko baitu (cf. *self-service*), edo pasakorra izan litekeelako (cf.), edo "erdal hitz / erdal esapide"

33.122. ez dago maileguaren premiarik, ba baitu (euskal) ordain egokia: cf. *bar / taberna* – cf. *Saih. / Bazt.* markak

33.123. ez du "baldintza minimoa" betetzen

33.123.1. erdare-tako batean bakarrik egiten den forma- nahiz adiera-bereizketari dagokio delako forma, eta bereizketa hori ez egitea erabaki da: cf. *fruta/fruitu, kontrata/kontratu*

33.123.2. ulertezina da Euskal Herriaren alde batean (gaztelaniatikoa izanik, ulertezina da Iparraldean; frantsesetikoa izanik, ulertezina da Hegoaldean)

33.124. onarpenik izan ez duen proposamena da; edo erabili da, baina ez da euskaldundu (cf. *ergaleio*: greko segitzen du, euskaraz erabili arren)

33.125. erdaraz ere adiera asko edo iluneko da, eta ez dagokio hiztegi honi hori(ek) argitzea (cf. *akonplexatu*)

33.13. erabakitze-ko dago onartu ala baztertu

33.130. Teknizismo mugakoa da.

... eta bertze ohar anitz: 500 baino gehiago

Ikusten denez, aski lan sistematikoa da, lan ordu anitzen ondorioa. Lan honen parte bat UZEIk egiten du, gero HBL-ak eztabaidatu eta onartzen duena. Edo ez.

Jakina: holako lan batek informazio handia ematen du sarrera bakoitzaren gaineran. Konparazione, E letrak baditu 6.203 paragrafo. HBL-ak bere iritzia ematen du informazio horren gainean, eta argumentuak bildu proposamenak egiteko:

- Sarrera gisa bildu edo ez ("kaiola" eta "kajoi", biak biltzen dira hiztegian, zein bere mailan: **kaiola** ontzat emateko, eta "kajoi" baztertu behar dela errateko; "labadora", ordea, ez da biltzen ezta baztertu behar dela errateko ere. Ez da aipatzen)

- Sarrera beregaina den (**ikara**), edo azpisarrera bezala (**ikaran**) hartu behar den
- Adibidea behar duen edo ez. Eta nolako adibidea: “**gogobete**, *zerbaitez gogobete da*”
- Sarrera definitu behar den edo ez. Edo azalpenen bat eman behar den. Zer mailatan: “**gainkatu**, ‘arra emearen gainean jarri’”; “**isiotu**, ‘(argia, sua) piztu’”
- Aditza baldin bada, zehaztu behar da nolako laguntzailea har dezakeen (*da, du, zai, dio*)
- proposamen garbirik egitea zaila baldin bada, eta hitza zalantzazkoa baldin bada, txosten berezi bat egiten da hitz horren gainean, hitzaren erabilera dela eta, ahalik eta informazio gehien emanez.
- sarrera biltzekotan, maila zehaztu: baztertu behar da (“hiraka e. **iraka**), hiztegian onartu behar da (**kokolokeria**), edo hobe da bertze aldaera bat onartzea (**jorrail** h. **apiril**)⁶.

HBL-ak material hori banatzen du eta jendeak egiten dituen oharrak biltzen ditu. Eta, ohar horiek harturik, beste dokumentu bat prestatzen du Euskaltzain osoei bidaltzen zaiena. Eztabaida, aurrerantzean, osoko bilkuran gertatzen da. Bigarren dokumentu hau lehenbizikoa baino poliki soilagoa da, erraztua bezala. Hona hemen konparazio baterako bi dokumentuak: hasierakoa (1), eta oharrak bildu ondoren euskaltzainei azken eztabaidarako igortzen zaiena (2):

⁶ Ez luzatzeagatik ez dut hemen azalduko. baina komeni da *Hiztegi Batua* liburuaren sarrera irakurtzea, “e.” eta “h:” bezalako horiek zer erran nahi duten, zehatz-mehatz, jakiteko. Anitzetan jendea nahasia da horrekin, batez ere baita arretaz irakurri sarrera.

EZTABAIDA DOKUMENTUA

ebakialdi | Z3:EArau63

ebakiarazi | Z3:EArauB

20.24: **ebakiarazi**, ebakiaraz, ebakiarazten. *dio* ad.

ebakidura | Z3:EArau63

ebakidura-tentsio | Z4B:EEBS:006 | H | 2002-12-11

20.1:

20.80: EIH: - / ElhHizt: - / EskolaHE: -

30.9: Tekn.

ebakiera | Z5:EEBS:36 | E | 1998-10-07

20.80: HLEH-EuskHizt: Ik. ebakera / HiztEn: Ik. ebakera / LurE: - / ElhHizt: - / EskolaHE: -

41.210: Ik. **ebakera**.

ebakigailu | Z4B:EEBS:003 | B | 2001-12-12

20.1:

20.80: EIH: - / ElhHizt: + / EskolaHE: -

45.2: -gailu osaerako ongi eratua.

ebakigaitz | Z4:HBL | A | 1998-10-07

20.80: HLEH: - / EuskHizt: + / HiztEn: - / LurE: - / ElhHizt: + / EskolaHE: -

45.51: -gaitz.

ebakin | Z5:EEBS:40 | F | 2004-07-06

20.1:

20.80: HLEH-EuskHizt: - / HiztEn: - / LurE: - / ElhHizt: + / EskolaHE: -

44.3: forma berria da 'ebaki den puska' adierakoa; osaera okerrekoa dela esatera ausartu gabe, zalantzazkoa iruditu zaio lantaldeari.

45.51: -kin atzizkia -ki amaitu aditzekin: cf. *eraikin* vs

PROPOSAMEN GARBIA (2)

ebakialdi | EArau

ebakiarazi | EArau: ebakiaraz, ebakiarazten. *dio* ad.

ebakidura | EArau

ebakidura-tentsio | H: Tekn.

ebakiera* e. **ebakera**.

ebakigailu

ebakigaitz

ebakin | F: forma berria da 'ebaki den puska' adierakoa; osaera okerrekoa dela esatera ausartu gabe, zalantzazkoa iruditu zaio lantaldeari (-kin atzizkia -ki amaitu aditzekin: cf. *eraikin* vs *eduki*).

Dokumentu berri honi, zenbait kasutan, eta hitzen aukeratzea hain erraza ez bada, sarrera batzuei dagozkien txostenak eranstean dira. Txosten hauek luzera desberdinekoak izaten dira, baina aski zehatzak dira, hori bai. Hona hemen adibide bat:

Txosten berezia

ebakin

20.21: Ik. OEH argitaratuan *ebakin* forma testu-lekukotasunik gabea.

20.22: *ebakin* (eta *zulakaitz-ebakin* 3, *zopizar ebakin* 1) 8: L. Oñederra ("Bestalde, bilakabide paradigmaticoek badute zerikusirik hizkuntzak segmentu edo ebakinak onestearekin, silaben onargarritasunarekin"), *Dona Dona* ("Umeei loreak eta fruitak agertzen diren errebisten ebakinak banatu"), *Natur/6* ("Dibujoak eta argazkia — inoiz ere ez liburu-etako ebakinekin"), M. Mendizabal ("Tarteak margotuko ditu, edo, ebakinez baliatuz, collage eran, bere lana moldatuko du"), *Arkeoikuska* 83 3 ("Ekain eta Urtiagako zulakaitz eta zulakaitz-ebakinen ikerketa", "Horretarako bi aztarnategietako zulakaitz eta zulakaitz-ebakinak hartu dira", "Bi elementu hauek elkarren osagarri direnez gero, Ekainean Urtiagako zulakaitzen zulakaitz-ebakinak aurkituko zirela eta alderantziz pentsatu zen"), *GAO* 1991 ("lumak, errautsak, zepak, hareak, kare gastatua, harri edo marmol zatiak, metal zatiak, beira, lastoa, txirbilak, zopizar ebakinak, trapuak, garauak, lupulua, paper zaharrak, egurrak, plastikoa, mundruna")

20.20: *ebakin*: DFrec 4, AB38 7, Euskalterm 2 (*moketa-ebakin*, *izozki-ebakin*) // Ez dugu aurkitu ap. AB50, HiztEn, LurE.

20.81: *ebakin*: HiruMila, ElhHizt, Lh *DBF*, DRA, PMuj *DVC* // Ez dugu aurkitu ap. EuskHizt, EskolaHE, Lur *EG/CE* eta *EF/FE*, Casve *EF*, HaizeG *BF*.

Euskaltzainak, orain, material honekin haste dira lanean, Pello Salabururen ardurapean. Jose Antonio Adurizek laguntzen du. Lan prozedura desberdinak izan baldin badira ere, azkeneko urteetan hola egiten da lan: euskaltzainek letra bati (D letra, konparazio) dagozkion sarrera proposamen guztiak, eta letra horietako hitzei dagozkien txostenak igortzen zaizkie. Epe bat markatzen zaie lehenik, euskaltzainek erran dezaten zein sarrerari egingo dioten oharren bat. Oharra geroago egingo diote, baina koordinatzaileek jakin behar dute zeini egin nahi dioten oharra, oharririk gabeko hitzak, osoko bilkuran aurkeztu ondoren zuzenean ontzat ematen baitira. Gero, gerta daiteke hitzen bati oharra egiteko asmoa izatea norbaitek, baina azkenean ez egitea inolako oharririk. Epe hau bukatzen denean, oharririk ez duten hitzak ontzat ematen dira eztabaida gabe. Oharrak egiteko asmoa baldin bada, sarrera bakoitzaren aitzineko aldean jarriko dute koordinatzaileek seinale bat, nork duen asmoa oharra egiteko.

Proposamen garbian oinarritua

ebakialdi | EArau

ebakiarazi | EArau: ebakiaraz, ebakiarazten. *dio* ad.

ebakidura | EArau

ebakidura-tentsio | H: Tekn.

ebakiera* e. **ebakera**.

ebakigailu

ebakigaitz

AAR ebakin | F: forma berria da 'ebaki den puska' adierakoa; osaera okerrekoa dela esatera ausartu gabe, zalantzazkoa iruditu zaio lantaldeari (-*kin* atzizkia -*ki* amaitu aditzekin: cf. *eraikin* vs *eduki*).

Ikusten denez, HBL-tik eskuratu duen proposamen garbia kontuan harturik, AAR euskaltzainak **ebakin** proposatu sarrerari egin nahi dio oharra (hemen jartzen ditugun adibide hauek guztiak egiazkoak dira, errealak. Euskaltzainen izenak ez ditugu jarri, ordea).

Oharrak dituzten hitzak (epea luzeago izaten da, jakina) eztabaidatzeko prozedura zehazten du koordinatzaileak, eta epea irekitzen da euskaltzain bakoitzak bere oharrak igor ditzan Euskaltzaindira. Aldi berean, oharrik gabeko hitz guztiak zerrendatzen dira eta Euskaltzaindiaren bilera batera eraman, haien berri emateko. Eztabaidarik gabe ontzat eman, eta sarean paratzen ditu Euskaltzaindiak. Hau da osoko bilkuratik ateratzen den materialaren erakusgarri bat:

Oharrik gabeko hitzak. Hasierako dokumentua

ea 2 dei-hitza

eaka adlag. *Ipar*. 'galdezka'.

ebagi* e. **ebaki**.

ebakaitz* e. **ebakigaitz**.

ebakera *Mat., Log*.

ebakerazi* e. **ebakiarazi**.

ebaketa *Mat., Log*.

ebaki 1, ebakitzen. *du* ad.

ebaki 2 iz.

ebakialdi

ebakiarazi, ebakiaraz, ebakiarazten. *dio* ad.

ebakidura

ebakiera* e. **ebakera**.

ebakigailu

ebakigaitz

ebakiondo iz.: *zauriaren ebakiondoak sendatzeko ukendua*.

ebakitzaile

ebakitze

ebakortz

ebakuatu, ebakua, ebakuatzen. *du* ad. 'larrialdi batean, jendeaz lekuak hustu'.

ebakuazio

ebakuntza *Med*.

ebakuntza(-)gela *Sin. operazio(-)gela*

Dokumentu hori berriz ere aztertu behar dute arduradunek: behatu kontraesanik baden edo ez, ikusi adibideak zuzen diren, zerbait falta den, ordena egokia den, erabiltzen diren ikurrak egokiak diren, eta abar. Eta behar diren oharrak egiten dira.

Oharrrik gabeko hitzak. Dokumentu zuzendua

ea 2 (dei-hitza)

eaka adlag. *Ipar.* 'galdezka'.

ebagi* e. **ebaki**.

ebakaitz* e. **ebakigaitz**.

ebakera *iz. Mat., Log.*

ebakerazi* e. **ebakiarazi**.

ebaketa *iz. Mat., Log.*

ebaki 1, ebakitzen. *du* ad.

ebaki 2 *iz.*

ebakialdi

ebakiarazi, ebakiaraz, ebakiarazten. *dio* ad.

ebakidura

ebakiera* e. **ebakera**.

ebakigailu

ebakigaitz

ebakiondo *iz.:* *zauriaren ebakiondoak sendatzeko ukendua.*

ebakitzaille

ebakitze

ebakortz

ebakuatu, ebakua, ebakuatzen. *du* ad. 'larrialdi batean, jendeaz lekuak hustu'.

ebakuazio

ebakuntza *iz. Med.*

ebakuntza(-)gela *Sin. operazio(-)gela*

Ikusten denez, hitzez hitz begiratu behar da zerrenda osoa, eta zuzenketa anitz egin (zuzenketok ez dute funtsa aldatzen inoiz ere, jakina). Hori guztia egin ondoren, hemen “dokumentu zuzendua” deitu dugun hau sarean argitaratzen du Euskaltzaindiak.

¿Zer gertatzen da oharrak izan dituzten hitzekin? Orain erabiltzen den prozedura ez da lehenbiziko itzulian (2000ko edizioaz ari naiz) erabili zen hura bera, soildu baita neurri handi batean. Urteetan erabili izan dena hau zen:

1) Koordinatzaileak ohar guztiak ordenatzen zituen, hitz bakoitzaren ondoan: hitz berak anitzetan ohar bat baino gehiago izan zezakeen, batzuetan elkarren kontrakoak gainera. Bertze batzuetan, osagarriak.

2) Ohar horiek koordinatzaileak aztertu eta, egoki ikusten bazuen, bere ohar propioak gainditzen zituen.

3) Hola sortutako dokumentua Euskara Batuko Batzordeko kideei bidaltzen zituzten (azkeneko batzordea, Euskaltzaindiak ez berritzea erabaki zuen arte: P. Salaburu (buru), M. Azkarate (idazkari), P. Altuna, A. Eguzkitza, X. Kintana, H. Knörr, B. Oiartzabal eta I. Sarasola).

4) Batzordekideek oharrak egiten zituzten dokumentu horren gainean. Koordinatzaileak oharrak aztertu eta saiatzeko, kontraesanen kasuan, batasuna bilatzen EBB-an. Dokumentu hori EBB-ra bidali.

5) Berriz ere bildu batzordekideen ohar berriak.

6) Ohar guztiekin dokumentu berri bat egiten zuen, bere oharrak gaineratuz, eta osoko bilkurara eraman, euskaltzainek eztabaida zezaten.

7) Euskaltzaindiaren erabakia

Hola egin zen lehenbiziko itzulia, argitaratua den liburuari dagokiona. Eta hola hasi zen lanean Euskaltzaindia bigarren itzuliarekin ere. Baina ikusirik horrek ikaragarri luzatzen zuela prozedura osoa, erabakia hartu zen EBB-aren tarteko urrats hori kentzeko. Beraz, gaur egun hau egiten da:

1) Koordinatzaileak euskaltzainen ohar guztiak ordenatzen ditu, hitz bakoitzaren ondoan: hitz berak anitzetan ohar bat baino gehiago izan baitezake, batzuetan elkarren kontrakoak gainera. Bertze batzuetan, osagarriak.

2) Ohar horiek P. Salaburuk aztertu eta, egoki ikusten badu, J. A. Adurizen laguntzarekin, bere ohar propioak gainditzen ditu. Anitzetan, euskaltzainek egin dituzten oharrei erantzuna emateko (dela haiek diotena eztabaidatzeko, dela haien iritzia indartzeko, eta abar), eta bertze batzuetan ohar berriak sartzeko, ikusten badu HBL-ak hasierako zerrendan zerbait zalantzan utzi eta inork ere ez duela deusik erran (hori gertatzen da, kasurako, F bezala markatuak dauden hitzekin).

3) Ohar guztiakin dokumentu berri bat egiten du, eta osoko bilkurara eraman, euskaltzainek eztabaida dezaten.

4) Euskaltzaindiaren erabakia.

Euskaltzainen oharrak era anitzekoak dira, Batzuetan aski luzeak, bertze batzuetan labur-laburrak. Batzuetan argitasunak eskatzen dituzte, egiten den proposamenaren gainean. Bertze batzuetan adiera berriak proposatzen dira, edo adibide argigarriagoak eskatu. Printzipioz, non eta ez diren zerrendan ageri den hitzen baten “familiakoak”, prozedura gisa, ez da onartzen hitz berririk gaineratzea zerrendan. Holako proposamenak hurrengo itzulirako uzten dira sistematikoki⁷. Anitzetan, definizio zehatzak eskatzen dira, edo delako sarrerak baztertzeko. Kontuan hartu behar da HBL-ko kideek aski zintzoki jokatzeko dutela Euskaltzaindiak oinarritzat bereizi zituen iturriekin. Han ageri baldin bada hitza, eta zehaztutako baldintzak betetzen baditu, zerrendan agertuko da, hitz hori, demagun, “azaña” bezalako zerbait baldin bada ere. Horretan lantaldea aski leiala da, eta ez du golkotik ezer ere ateratzen.

Lan handiena ez dator, hala ere, hortik. Koordinazioak eskatzen du behin eta berriz gogoraraztea prozedurari eutsi behar zaiola, ezin ditugula zerrendan hitz berriak jarri “nire etxean hola esaten da” erabiliz argudio nagusi gisa. Koordinazioak eskatzen du kontuan hartzea hau ez dela euskara-euskara hiztegia, baizik hiztegi ortografiko bat, zenbait oharrez hornitua. Bertze nonbait eta noizbait egin beharko da hiztegi hori (bide batez, erran dezadan horretan ere ari dela lanean Euskaltzaindia). Koordinazioak eskatzen du hemen ezin ditugula arazo guztiak konpondu, eta gauza anitz utzi beharko ditugula mahai gainean, konpondu gabe. Eta, aski garrantzizkoa, koordinazioak eskatzen du oroitaraztea hiztegi hau euskaraz dakitenentzat pentsatua dela, ez dela erdaldunei eskaintzen zaien hiztegia. Badirudi huskeria bat, baina holakoetan galtzen da denbora anitz.

Adibide argigarri batzuk

Ikus ditzagun ondoren nolakoak diren eztabaidara eramaten diren oharrak. Har dezagun, oraintxe aipatu dudanez gero, “azaña” hitzaren sarrera. HBL-ak hitz hori onartzea proposatzen zuen, honela: “**azaña** iz. *Heg. Beh*”. Hau da, hitz horrek badu tokia gure hiztegian, baina jakin beza jende guztiak hegoaldekoa dela bakarrik, eta behe mailakoa, gainera. “Azaña” hitzarekin batera, beste ohar batzuk ere biltzen ditut segidan, ikus dezagun nolako itxura duten HBL-ak egiten duen proposamenari euskaltzainek egiten dizkieten oharrek (PS bakarrik identifika daiteke, ni neu bainaiz). Hasieran lehenbiziko lerroan, aldi bakoitzean, HBL-aren proposamena (beltzez: sartu hiztegian; H: ez sartu hiztegian; F: zalantzak, ez daki zer egin).

⁷ hitz “berriez” ari garelarik, ez du izenondo horrek aparteko konnotaziorik. Guretzat hitz berriak dira aldeztatik hiztegia egiteko zehaztutako iturrietan ez daudenak. Zentzu horretan bakarrik dira berriak (beraz, aski zaharrak ere izan daitezke denborari dagokionez).

azaña *Heg. iz. Beh.*

PS: egia da *Heg.* eta *Beh* dela, baina ‘labadora’ ere *Heg.* eta *Beh* da, eta gehiago erabiltzen da gainera. Ez dut uste ez bata ez bestea hemen sartu behar direnik

A: azaña: Azken orduko espainolkada hau, ez da hiztegi batuan sartzeko moduko hitza, euskara gutxi dakitenean ahoan besterik entzuten ez dena. Nik mila aldiz balentria nahiago dut. Proposamena: azaña* e. **balentria**

B: azaña. Hitz horren inguruan arrazoi guztia du txostengileak. Egia da Orotariko Euskal Hiztegiaren Corpusean, berba horrek 25 lekukotasun baino gehiago dituela. Egia da hiztegi zaharrenek ere (Azkuren Hiztegiak, Mujikaren hiztegiak...) jasotzen dutela. Baina hiztegi berriek eta erabilerak berak baztertu egin du *azaña* hori, badaudelako euskaraz beste modu batzuk ekintza gogoangarriak adierazteko. Horregatik, zerrendatik kendu beharko litzateke.

ERABAKIA: hitza ez da onartzen

azaloste

PS: ez dakit nondik atera den hau. Liburu baten kontrako azalari esaten omen zaio, baina nahiko bitxia iruditzen zait

A: Azaloste: bibliotekonomian erabiltzen da, liburuaren atzeko azal adierazteko. Azkue Bibliotekan 220 bat bider agertzen da

B: azaloste: Zer esan nahi du, zehazki, hitz honek? Nik behintzat, beste askorekin batera, eskuarki *kontrazal* esaten dudana esateko bada, bistan da, azaloste h. kontrazal jarri beharko litzatekeela. Dena den, susmatzen dut ez dela hori hitz horren esangura, ‘azalaren azpiko aldea’ baizik. Esate baterako: *Tafallako udal liburutegian liburu zahar bat aurkitu zen; pergaminozko azala zuen, eta azalostean hebreerazko testu bat agertu zen, Torah-rena, hain zuzen, errespetu gutxiz liburua azaleztatzeko erabilia.*

Honela bada, hitz utz daiteke, azalpena emanda

--

PS: nire ustez, bere bidea egin behar du. Hemen **B** eta **A** bi adiera desberdin ematen ari dira. Ez du inolako lekukotasunik datu baseetan (adibide bat bakarra EEBSn, eta ez dakit ongi zein den esanahia: *Atalburu honetarako ikus azal-osteko aide-argazkia*). Beraz, uste dut egokiena dela oraingo ez aipatzea, eta nahi duenak erabil dezala

--

A: Termino hori Azkue Bibliotekan erabili izan dugu eta azalaren ifrentzua adierazteko erabiltzen da, ez liburuaren azkeneko edo atzeko azala. Esango nuke **B-k** erratu bat egin duela bere definizioan eta “azalaren AZPIKO barik azalaren ATZEKO aldea” esan gura duela

ERABAKIA: OK nire proposamena

azi-orrazi Pl.

PS: nik *Lit* marka jarriko nioke

A: azi-orrazi: Pl eta esangura edo adibideren bat ere bai, ez baita batere ezaguna

--

PS: beraz, holako zerbait egin daiteke:

azi-orrazi Lit. Pl. ‘negozioak, kontuak, tratuak’ *Bere azi-orrazietan kezka larriek ekarri baitzuten gure lagunetara*

--

B: ez du h-a behar? “Hazi-orrazi”?

A: hitz hau elkartua bada, jakin nahi nuke lehen elementua zer den, eta ‘hazi’ baldin bada, halaxe idatzi. Ezer jakinik ez izatekotan, orduan ez du hitz-elkartuen grafia horrek inolako justifikaziorik eta hobe genuke, bere misterioan uzteko, *aziorrazi* idaztea, hitz bakarrean

ERABAKIA: ez sartu

edangarri | F: ‘edateko ona’ adierazteko erabili izan da, dirudienez; horretarako *edateko ona* aski dela uste du lantaldeak (ikus “Euskaltzainen oharra” s.u. arnasgarri).

A: Neuk ere ez dut **edangarri** izenondoaren beharrik ikusten; lantaldeak dioen bezala, *edateko on*, edo *edateko* bera nahikoa da. *Ereduzko prosa gaur* edo Euskalterm kontsultatuz gero, oso adibide gutxi aurkituko ditugu.

B Edangarri: Nik sartu egingo nuke, oso erabilia da eta. Horrek ez du kentzen, noski, **edateko on** eta **edateko txar** arruntak ere sartu behar ez direnik.

--

PS: Lekuko bakarra du OEHN (S. Mendiburu); XX. mendeko testuetan dozenatik gora dira erabili dutenak (ez dakit goi-mailako idazlerik baden horien artean). Hala ere, onar litekeela uste dut, **A**-k nahi duen bezala (hau da, forma hobetsia definitzaile duela): «**edangarri** izond. ‘edateko ona’».

ERABAKIA: **edangarri** izond. ‘kalterik egin gabe edan daitekeena’

edipiar* e. **edipiko**.

edipiko | F: ez du mailegu onartzekoen gutxienekoa betetzen (es *edípico* / fr *oedipien*); baina onartzekoa izan liteke, *x-tar* osaerakoak okertzat ematen direnez [-perts.] motakoei dagozkiela.

A: Edipiko/edipiar: inguruko erdaretan hor adostasunik ez dagoenez, nik neuk euskaraz **edipo(ti)ar** modukoren bat bultzatuko nuke, -tar, -tiar horrela erabiltzeaz gainera, gaur egun erabat beharrezkoa dugu eta: gutar, eliztar, abadetar, erregetiar, Sabindar, aranatar, Arestiar...

--

PS: dagoeneko onartua dugu [-perts.] motakoeekin ere erabil daitezkeela *x-tar* osaerakoak (ik. *boolear*), eta beste hainbeste egin dezakegu orain ere, eta Aren proposamena onartu (erabili izan den *edipiar* baztertu egingo nuke, ez baitugu arrazoirik *edip-i-ar* egiteko, oinarria *edipo* izanik). Hau da proposamena: «**edipoar** izlag.: *edipoar triangelua*».

ERABAKIA: HBL lantaldera pasatu han eztabaidatzeko beste “-tar” guztiekin batera. Proposamen bateratua egin holako hitzekin.

edredoi | F: mailegu onartzekoen minimoa betetzen du, eta onartzekoa iruditzen zaio lantaldeari; *lumatxa* proposatu da ordaintzat, baina hau bestelako adierazkizunetarako "hartua" egon liteke.

A: Komenigarria dirudi *edredoi* sartzea, bertze hitzik ez dugulako hori adierazteko.

P frantsesegia da. Erabili **koltxoi**. Guk ere aspaldi hartua dugu gaztelaniatik, Hazparden bederen

--

PS: nahasgarria izan liteke, P-ren oharrak salatzen duenez, frantsesetik dituen bi adieretako batean hartu baitu berak, baina Hegoaldean beste adierakoa da *edredoi* ('oheko tapaki edo estalki mota', alegia, eta ez 'koltxoa, lastaira'; hau da: Hegoaldean, koltxoiaren gainean etzaten gara, ez edredoiaren gainean, honekin estaltzen baikara). Aik bezala, nik ere ez dut ezagutzen ordain egokirik, eta gutxieneko azalpen horrekin jasotzea proposatzen dut: «**edredoi** iz. (oheko estalki mota)»

ERABAKIA: ok *Heg* gehituz

edu 1 | H: *Bazt*.

A Edu: Hitz honek *eredu* hitz osoaren laburpena izateko itxura osoa dauka. Nik ez nuke sartuko, ez baita oso ezaguna.

edu 2 iz. *Bizk*. 'era, tamaina, modua'.

ahozkoan ezagun-erabilia da gaur ere, L. Baraiazarrak dioenez.

B Oharra: Adibidea gehitzea komeni da: *Zaitzte ni edu; ez dakit nik Martinek edu; hori edu geu ere bagaituk; edu lastimagarri hartan ikusirik ere ez zen errukitu; horren edukoak; nahi nuke zure niganako maitasuna nire zukanako edukoa balitz...*

--

PS: **a)** 'adina, adinbat' eta 'bezala' adieretako partikula da lantaldeak baztertutzat eman duen *edu 1*, eta Bk proposatu dituen adibideetako lehen hirurak partikula honi dagozkio; adibide hauek ematekotan, *edu 1* onartu behar dugu lehenik: OEHn ikus litekeenez, Fr. Bartolomek erabili zuen (eta Orixek); baina ez dut beste inon aurkitu, eta ondo baztertua iruditzen zait; nolana ere, bizkaiera hobeto ezagutzen dutenei emango nieke hitza; **b)** izena da lantaldeak onartu duen *edu 2*, baina ez du onartu nahi A-k ("oso ezaguna" ez delako, baina "ezaguna" dela dio L. Baraiazarrak); hona erabili duten idazleak: R.M. Azkue, R. Olabide, J. Zaitegi, E. Erkiaga, Gaztelu, X. Onaindia; J.K. Ibargutxi, Umandi, eta bizpahiru lege-testu nahiz ikasliburu; eta *eduko* izenlaguna erabili dutenak: P. Astarloa, J.A. Uriarte, S. Altube, Otxolua, J. Zaitegi, Gaztelu; oinarri egokia iruditzen zait lantaldeak proposatu duena proposatzeko, eta onartzea proposatzen dut, Bren laugarren adibidea erantsiz ("edu lastimagarri..."); **c)** *eduko* izenlaguna, berriz, ez nuke aipatuko oraingoaz, eta, ondorioz, ezta Bk proposatu dituen azken bi adibideak ere.

ERABAKIA: **edu** *Bizk* 'adina, adinbat' ez dakit nik Martinek edu (**eredu** aztertu **edu 2** horretan esaten genuena bilduz)

egikaritu, egikari(tu), egikaritzen. *du* ad.

egikaritza | H: Bebil.

A: Oharra: Zuzenbidearen esparruan gaur egun batzuetan gehiegi erabiltzen da *egikaritu* aditza, gaztelaniazko "ejercer/ejercitar" guztiak "egikaritu" aditzarekin euskaratzeko joera

zabaldtu baita. Alean ere, "egikaritu" eta "egikaritzea" nahitaezkoak dira eskubideak/askatasunak/akzioak/betebeharrak/ahalak/ahalmenak tartean direnean; hori dela eta, *Zuz.* markarekin zerrendaratzekoak dira. Eginkizunak/funtzioak/zerbitzuak, ordea, "bete" egiten dira; jarduerak, "burutu, gauzatu"; enplegu/kargu/merkataritzea/industrian "aritu" egiten da; agintaritzea "baliatu, erabili"... Zenbaitetan "egikaritu" aditza erabiltzen da halakoetarako, eta erabilera hori saihestekoa da. Proposamena izango litzateke, beraz, sartzea *Zuz.* markarekin eta adibide bana emanda: *eskubideak egikaritu egiten dira / eskubideen egikaritzea legezkoa da*

--

PS: begiratu ditut OEHko adibideak (ez dira asko, dozena-erdia edo), eta ez dakit zein ondorio atera daitekeen hortik, *egikaritu* eta *egikaritzea* hitzen adierari buruz (agindua edo mandamentuak egikaritzen dira hor, eta teoria ere bai; eta horiek 'bete' egiten dira, edo 'gauzatu'). Nik ez dut ikusten hortik aurrera egiteko modurik, baina zuek esan.

ERABAKIA: utzi lantaldearen proposamena zegoen bezala (onartu **egikaritu** eta ez sartu "egikaritzea")

egoismo

A: ez da beharrezko

egoista

A: ez da beharrezko

--

PS: egia da eskura ditugula *berekoi / berekoikeria, geurekoi / geurekoikeria* bezalakoak; baina *egoismo / egoista* maileguk betetzen dute onartzekoen gutxienekoa, eta erabili egiten dira: *egoista* bat jaso du OEHk (L. Villasante), eta XX. mendeko corpusean eta orainagoko testuetan, 17 iturritan ikus daiteke *egoismo* eta 26 iturritan *egoista* (baina, uste dudanez, bakarra da Iparraldekoa: I. Borda; eta Hegoaldekoak dira beste guztiak: E. Antxustegi, X. Arregi, J.A. Arrieta, J. Azurmendi, U. Elorriaga, J.M. Elexpuru, M. Ezkurdia, G. Garate, J. Garate, R. Garate, A. Garikano, I. Heras, M. Hernandez Abaitua, J.M. Irigoien, J.M. Iturralde, A. Lertxundi, K. Linazasoro, I. Mendiguren, X. Mendiguren B., X. Montoia, F. Olariaga, X. Olarra, M. Pagola, P. Perurena, P. Sastre, K. Zabala, J. Zabaleta, P. Zubizarreta, eta Katekesiko eta Liturgiako testu bat edo beste). Nire ustez, bada hor aski oinarri maileguak onartzeko, eta onartzea proposatzen dut

ERABAKIA: ok, onartua

eguerdi on | F: ezin esan daiteke okerra denik, baina berria da, dirudienez, eta testuetako bermerik gabea.

ik. "Euskaltzainen oharrak" s.u. arrasti.

A Eguerdian on: nik ere berriegia dela uste dut. Gaitzetsi gabe ere, ez nuke sartuko.

C kendu hau

--

PS: hona "Euskaltzainen ohar" horiek: X: «*Arratsalde* hitzaren azpisarrera gisa, *arratsalde on* gaineratuko denez gero, hitz honekin ere gauza bera egin beharko litzateke, *arrasti on* gehituz. Jasota daude, jada, *egun on* eta *gau on*. Ez dago jasota, ordea, *eguerdi on*; 2. itzulian «e» letrara iristen denean, hori gogoratu beharko da». // **PS:** «bai, azpisarrera hori gainera

daiteke. Beste kontu bat da *eguerdi on* delako hori. Hori bere tokian eztabaidatu beharko da». // BAgiria (2003-07, 2003-09, 2003-10): «**arrasti Bizk** 'arrastiria, ilunabarra' [eta AS gisa] **arrasti on**». Ez dirudi besteen parekoa denik, ez behintzat erabileraren aldetik, eta testuetan hobeki errotu arte itxaron dezakegula uste dut, A eta C-rekin. Uste dut gauza berria dela hau.

ERABAKIA: ez aipatu

egunpasa* e. **egun-pasa**.

A: Egunpasa: jendeak erabat bereganatu eta parra-parra darabiltzan hitzetan, laburrak direnean bederen (*gaupasa, usopasa, gazetxe...*) ez genuke hain estuak izan behar eta, jendearen usadioari jarraituz, hitzak baturik onartu beharko genituzke, *udaberri, basurde*, edo *usapal* bezala.

--

PS: bi dira lantaldeak proposatu dituenak, adizlaguna eta izena (ikus gorago *egun* sarrerako azpisarreretan), eta *gaupasa* izena, horrela idatzia eman bagenuen ere lehen itzulian, marratxo eta guzti eman genuen *denbora-pasa* (*denbora* sarrerako azpisarrera gisa), izena eta adizlaguna dela zehaztuz. Bi osagaiak laburrak direnean, hitz batean idatziak ere eman izan ditugu, izenak direnean, baina askoz nekezago adizlagun bat tartean denean (cf. x *bila*, x *eske* modukoak, eta 25. arauaren II.1.f atala). A-k aipatzen duen "jendearen usadioari jarraitu" beharraz, hauek dira bildu ahal izan ditudan datuak, lantaldearen txostenean eta gaurko prosan begiratur: *egun pasa* 18, *egun-pasa* 13 eta *egunpasa* 5; horietan, a) izenak dira EEBSko laurak (*egun pasa* 1, *egun-pasa* 1 eta *egunpasa* 2), eta gaurko prosako *egun pasa* 3 (P. Aristi, K. Zabala, *Berria*), *egun-pasa* 5 (X. Etxabe, JR. Gartzia, I. Iñurrieta, X. Olarra, *Berria*), *egunpasa* 1 (*Berria*); b) adizlagunak dira OEHko biak (*egun pasa* eta *egun-pasa*), eta gaurko prosako *egun pasa* 13 (P. Aristi, E. Bidegain, J. Cillero, A. Epaltza, J.M. Irigoien, K. Izagirre, E. Jimenez, *Berria, Herria*), *egun-pasa* 6 (A. Garikano, K. Izagirre, X. Mendiguren E., X. Montoia, *Berria*), *egunpasa* 2 (K. Izagirre, X. Mendiguren E.). Argi dago zein den "jendearen usadio" nagusia, eta, horregatik, nik ez nuke lantaldearen proposamena aldatuko

ERABAKIA: ok

TCM

Adibide horiek ematen dute ideia bat nahiko argia, nire ustez, euskaltzainek egiten dituzten oharrei buruz. Horrek sortzen du eztabaida, eta eztabaidaren ondorio hartzen dira erabakiak, gehienetan aho batez, baina beste anitzetan bozen bidez ere. Badira, izan, bertze kasu batzuk, gure artean TCM deitzen ditugunak, erabakia alde batera nahiz bestera hartzea ez baita erraza batere. Holakoetan, batzuetan, hitza isiltzen da. Horrek ez du deusik ere konpontzen, baina erabakia hartzea arazotsuago litzateke Euskaltzaindiaren ustez. Hona hemen kasuren bat edo bertze:

errabino iz.

A: Errabino: nazioarteko hitza *rabbi* da (Al. *Rabbi(ner)*). Ene ustez euskaraz ere *errabi* edo *rabbi* beharko genuke, espainolera makurtu gabe.

PS: forma berriei dagokie nazioartekoaren irizpidea, eta ez gure tradizioak neurri nahiz moduren batean beretu ditueni (Leizarragarekin hasita ageri da hemengo!). Badu honek lantaldearen txostena: informazio zabala bildu dute hor, eta ezagutzea komeni zaigu, esan beharrekoak zuzen esateko. Begi argiagoez argiago ikusi artean, hona nik aurrera

ditzakedanak: *rabbi* (eta *rabi*) erabili izan da, baina bokatiboan eta metahizkuntzan (hau da, izen bereziaren itxura osoa duela; adib., "Rabbi, non bizi zara? / Rabbik 'maisu' esan nahi du"); *errabi* formarik ez dut ikusi; *errabin(a)* erabili du P. Lafittek; *errabino* bi liburutan ageri da (Kintana aita-emeak eta *Erljioak munduan*), eta *rabino* sei idazlanetan (J. Arregi, M. Iturbe, J.J. Uranga, L. Villasante, *Jaunaren Deia* eta *Elizen arteko Biblia*). Datu horien osagarri, gaurko prosaren corpusean irakurriak aipa ditzaket: *rabbi* 3 liburutan (J.M. Irigoien, X. Olarra, U. Urrutikoetxea; eta *Berria*-ko 2 artikulutan); *rabi* (*Berria*-ko artikulatu batean); *rabino* 2 liburutan (J. Garzia, F. Juaristi; eta *Berria*-ko 3 artikulutan); *errabino* 6 liburutan (X. Aranburu, H. Cano, A. Lertxundi, I. Mendiguren, M. Mujika, K. Navarro; eta *Berria*-ko 4 artikulutan). Eztabaidari ekiteko, bi ohar: segurutzat daukat nik *-ino* amaiera (nire ustez, hori baitagokio mailegu egokituari, eta ez *-in* edo *-ina*; eta, batez ere, argia baita horren aldeko joera idazleen artean); *r-/err-* hasierak, berriz, zalantza handiagoak eragiten dizkie, nonbait, idazle horiei berei, eta neri ere bai (baina zerrenda honetan urrutira joan gabe ageri diren *erradikal*, *erradiografia*, *errakitismo* edo *errekete* bezalako ondoan, ez al dagokio *erra-* hasiera?). Zuek esan, baina esandakoaren arabera badirudi taldeak proposatzen duen **errabino** dela egokiena. Hori da nire proposamena ere.

ERABAKIA: OK nirea.

“Erregetto” da hitz horietako bertze bat. Batetik, gutxi erabili izan da. Edo, hobeki errateko, gutxi ageri da testuetan. Iparraldekoa da. Baina horrekin batera badugu “erregetxo”, agintari mota bati errateko. “Erregepittitta” eta “erregetxopit” ere ageri dira erregetxo hegatzia deitzeko. Eta hori ez baita aski, “erregeka” ere erabili izan da inoiz agintaria nahiz hegatzia izendatzeko. Nahasketa ederra, ikusten denez. Kasu honetan, “**erregetto** 'erregetxo' (agintaria)” erabaki du Euskaltzaindiak.

Azken zerrenda

Baina holakoak alde batera utzita, paratutako adibideetan ikusten da eztabaidan argumentu anitz erabiltzen direla, eta erabakiak ez direla nolana hartzen. Horrek ez du erran nahi, inondik ere, hartutako erabakiak hoberenak diren, edo ez. Erran nahi duen gauza bakarra da eztabaidatu ondoren hartzen direla, argumentuak denon aitzinean agertu ondoren. Euskaltzaindiak asmatuko du batzuetan, eta bertze batzuetan ez da hain zuzen ibiliko, denei gertatzen zaigun bezala. Baina ezin da ukatu lan hau aski xehea dela. Lan nekeza da, eta jende anitzek hartzen du parte prozeduraren osotasunean. ordu anitz daude hor sartuak modu batera edo bertzer. Batzuetan eztabaidagarriak direla erabakiak? Duda gabe. Bertze batzuetan inkoherenteak ere? Ez dut zalantzarik. Zenbait kasutan iturrien kontua izanen da. Bertze zenbaitetan abilezia falta. Baina, egia erran nahi badugu, ikusteko nago inkoherentziarik gabeko hiztegiaren bat. Hori gertatzen da, gertatu ere, gurea baino tradizio luzeagoa duten hizkuntzetan ere. Eta normaltzat jotzen da. Jakina, horrekin ez dut erran nahi gauzak ezin direnik egin hobeki. Baina komeni da, gutxienez, informazio aski izatea gauzak nola diren jakiteko.

Orain osatzen ahal da azken zerrenda, sarera eramateko: elkartzen dira oharrak gabeko hitza eta eztabaidaren ondorioz onartutakoak. Horrek ematen du bertze zerrenda hau:

daktilografia 'mekanografia'.

damaskinatu iz. eta izond.

damnagarri. *Zah. Erl.* 'kondenatzen duena'.

damnatu, *damna*, *damnatzen*. *ad. Zah. Erl.* 'kondenatu'.

damnazio. *Zah. Erl.* 'kondenazioa'.

damuztatu, *damuzta*, *damuztatzen*. *du ad. Ipar. Zah.* 'atsekabetu, nahigabetu'.

Danbolin 1 'musika tresna': *danbolin berri*, *soinu berri*. 2 'danbolina jotzen duena'. 3 'gartzainak-eta erretzeko tresna'.

danbolin-jotzaile

danda iz. 'danga, kanpai-kolpea'.

dandy

dantela* e. **dentela**.

dantza.: *dantza klasikoa; herri dantzak*

daktilografia iz. *Ipar*. 'mekanografia'.

damaskinatu iz. eta izond.

damnagarri izond. *Zah. Erl.* 'kondenatzen duena'.

damnatu, *damna*, *damnatzen*. *da/du* ad. *Zah. Erl.* 'kondenatu'.

damnazio iz. *Zah. Erl.* 'kondenazioa'.

damuztatu, *damuzta*, *damuztatzen*. *du* ad. *Ipar. Zah.* 'atsekabetu, nahigabetu'.

danbolin iz.1 'musika tresna': *danbolin berri, soinu berri*. 2 'danbolina jotzen duena'. 3 'gaztainak-eta erretzeko tresna'.

danbolin-jotzaile

danda iz. 'danga, kanpai-kolpea'.

dandy

dantela* e. **dentela**.

dantza iz.: *dantza klasikoa; herri dantzak*.

Eta hori da Euskaltzaindiaren weg gunean (<http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua>) kontsulta daitekeena.

BIBLIOGRAFIA

Euskaltzaindia (1968) "Batasunerako hiztegia" in *Euskera*, 251-265 or.

Euskaltzaindia (1975) "Zortzi urte arteko Ikastola Hiztegia" in *Euskera*. -- 20. libk.; 7-153 or.

Euskaltzaindia (1978) "Matematika Hiztegia" (1978) in *Euskera*. -- 23. libk. ; 255-268 or.

Euskaltzaindia (1979) "H letraren ortografi arauak" in *Euskera*, 24. libk, 659-695 or.

Euskaltzaindia (1984) *Merkatalgo izendegia, kargu eta bilera-lekuena, Nomenclator comercial, de cargos y de lugares públicos, Vocabulaire du commerce et des services* / [hitzaurrea, Xabier Kintana), Bilbo : Euskaltzaindia

Euskaltzaindia (1986) *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak* Bilbo: Euskaltzaindia

Michelena (1987-2005), *Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbo: Euskaltzaindia, Mensajero, Desclée de Brouwer

Euskaltzaindia (2000), *Hiztegi Batua*. Bilbo: Euskaltzaindia

Sarasola, Ibon (1996) *Euskal Hiztegia*, Donostia: Kutxa Gizarte- eta Kultur- Fundazioa

Sarasola, Salaburu, Ugarteburu eta Landa (2008): *Hiztegi Batua Euskal Prosan*, Leioa: EHU (<http://www.ehu.es/ehg/>)

UZEI-Euskaltzaindia (2002) *XX. mendeko corpusa*

(<http://www.euskaracorpora.net/XXmendea/index.html>)

KOMUNIKAZIOAK

The logo for Euskara Institutua features a stylized speech bubble containing the letter 'e', followed by the words 'uskara' and 'institutua' stacked vertically. The entire logo is rendered in a light gray color.

euskara
institutua

DEFINIZIOEN IDAZKERA: ADIERAZMOLDEAK ETA DISKURTSO-ESTRATEGIAK AZALPENEZKO TESTU ESPEZIALIZATUETAN¹

Xabier Alberdi (EHU)

SARRERA

Ukaezina da definizioek espezialitate-hizkeretan hartzen duten garrantzi eta pisua (Alberdi, García eta Ugarteburu 2008), bereziki azalpenezko testu didaktiko edo dibulgaziozkoetan (eskuliburu eta artikulu didaktikoetan, batik bat). Alde batetik, definizioa da zientzien eta jakintzen diskurtsoak bere ezagutzak finkatzeko eta egonkortzeko erabiltzen dituen baliabide nagusietako bat. Beste alde batetik, diskurtso horretan beregaintasun nabarmena hartzen du definizioak: testu-tipologiaren ikuspegitik, deskripzioaren aldaeratzat edo azpitipotzat jo izan da; baina orobat esan izan da sekuentzia beregain bat edo halako unitate funtzional kontzeptual bat osatzen duela. Definizioek sarritan ematen diote hasiera testuari; alegia, testu-oinarritzat erabiltzen dira maiz. Eta testu-oinarri izate horrek agerian uzten du definizioen garrantzi eta beregaintasuna. Egitura erretoriko edo prozedura esplikatibo prototipiko nagusietako bat da definizioa eta zeregin erretoriko garrantzitsua betetzen du azalpenezko diskurtsoan eta espezialitate-hizkeran (Trimble 1985).

Asko geratzen da oraindik ikertzeko definizioen gaiaren inguruan, baina lantxo honetan, alderdi kognitiboa alde batera utzita (Jorba, Gómez, Prat 2000), aztergaiaren hizkuntza-alderdiari lotuko natzaio, definizioen adierazpide eta adierazmoldeen azterketari alegia.

Batez ere, agerian utzi nahi dut lexikografia eta terminografiako definizio-moldeen eskema zurrunetik harago joan daitekeela eta joan behar dela azalpenezko diskurtsoan definizioak idazteko. Definizioen adierazmoldeak eta diskurtso-estrategiak asko dira eta askotarikoak eta, hain zuzen ere, molde-aniztasun hori sailkapen baten bidez erakustea da lan honen ekarpena. Honelako azterketek aplikazio bat baino gehiago izan dezakete: besteak beste, definizioen erauzketa automatikoa eta aplikazio didaktikoa hizkuntzen irakaskuntzan. Nolanahi ere, nire ustez, diskurtsoaren deskripzioan eta azterketan oinarritu beharko dira aplikazio didaktikoak. Eta ez dut dudarik egiten definizioen gaiari toki bat zor zaiola espezialitate-hizkeren irakaskuntzan, eta are gehiago, espezialitateko euskararen didaktikan, ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunetako bat baita.

¹ Lan hau UPV/EHUK finantzatu duen EHU06/28 "Euskarazko definizioen idazkera: deskripzio-azterketa (EDIDA)" ikerketa-proiektu biurtekoaren emaitzatariko bat da. Ikerketa horren barruan lortu dugun beste argitalpen bat (Alberdi, García, Ugarteburu 2008) birmoldatzea eta euskarara egokitzea izan da oraingo nire ekarpena. Bihotzez eskertzen diet neure lankide eta adiskide Julio Garcíari eta Iñaki Ugartebururi, adibide eta aholkuak emanez asko lagundu didatelako zeregin honetan.

1. DEFINIZIO MOTAK: LEXIKOGRAFIKO PARADIGMA ETA ADIERAZMOL-DEAK ETA AZALPENEZKO TESTU ESPEZIALIZATUETAKOAK

Lexikografia eta terminografiako definizioen eskema aski zurruna da: hasteko, izen-sintagma hutsak izan ohi ditugu eta ez —agerian, behinik behin— perpaus osorik; nahikoa hedatua dagoen konbentzio baten arabera, puntuazioak eta tipografiak ordeztzen dute kopula isildua; eta, beraz, tipografikoki (puntuaren edo bi puntuen bidez) bereizten dira definizioaren bi osagaiak (*definiendum* edo definigaia eta *definiens* edo predikatu definitzailea). Ondorioz, lexikografiako definizioa diskurtsora ekarriz gero, *X Y da* paradigma genuke. Eta, seguru asko, halakoxe egiturak dira erabilienak zientziaren eta jakintzaren diskurtsoko definizioetan (*X Y da*, *Y da X*, *X da Y*).

Lexikografian eta terminografian, oro har, perpausaren esparrura mugatu ohi da definizioa. Lemari edo sarrerari dagokion predikatutzat hartzen da *definiens* delakoa, eta esan daiteke eremu bietan gomendio aski hedatu eta onartua dela perpaus bakarraren bidez adieraztea definizioa.

Azalpenezko testu espezializatueta, berriz, maiz gertatzen da definizioa perpausaren mailatik gora hedatzea eta garatzea. Izan ere, azalpenezko testuetan funtzio erretoriko bat betetzen du definizioak, sekuentzia bat osatzen du testuaren barruan, eta, maiz paragrafoaren maila hartzen du; are gehiago, zenbaitetan paragrafo bat baino gehiago. Ondorioz, azalpenezko testu dibulgaziozkoetan definizioen adierazpide eta adierazmoldeak ez dira mugatzen perpaus bakarrera eta lexikografiako ohiko paradigmara (*X Y da...*). Aitzitik, ondoko ataletan erakutsiko dudanez, adierazmolde eta diskurtso-estrategia ugari erabiltzen dira azalpenezko testuetan kontzeptuak definitzeko.

Definizio mota batzuk eta definiziook sailkatzeko erabili diren irizpideak agertzen ditut taula honetan:

SAILKAPEN-IRIZPIDEAK	DEFINIZIO MOTA BATZUK
a) Definitzeko prozedura edo adierazpen-sistema	- Hedadura bidezkoa (<i>extensión</i>) (2) ² vs - Intentsiozkoa edo bereizgarri bidezkoa (<i>comprehensión</i>)
b) Deskripzio kontzeptualaren egitura (ezaugarri orokorrak eta bereizgarriak)	- Formala (3) - Erdiformala (4) - Formal kontestuala (5)

² Parentesi artean ageri den zenbakiak definizio mota bakoitza zer ataletan lantzen den adierazten du.

c) Hizkuntza-egitura (adierazpidea eta adierazmoldea).	- Sinonimia bidezkoak eta ez formalak (6) - Aposizio bidezkoa (7) - Aposizio bidezkoa: azalpenezko birformulatzaileak (8) - Metalinguistikoa (9) - Ezeztapena eta <i>baizik</i> : ... (10) - Konplexua (11).
d) Informazio mota edo deskripzio kontzeptual mota	- Estrukturala (12) - Funtzionala (12) - Teleologikoa (12)
e) Testu mota (deskripzioa, jarraibidea...)	- Deskripzio bidezkoa (13) - Operatiboa (14)
f) Diskurtso-estrategia	- Itxurazko elkarrizketa (15) - Kontestuala (16)

Sailkapen-irizpide horietako batzuk teilakatu egiten dira elkarren gainean eta, horren ondorioz, askotariko konbinazioak sortzen dira: definizio formal bat, esate baterako, estrukturala, funtzionala edo teleologikoa izan daiteke; definizio funtzional bat, adibidez, formala edo erdiformala izan daiteke; definizio operatibo eta deskriptiboak, gehienetan, konplexuak izaten dira; eta hedaturazko definizio banaka batzuk kenduta, gainerako guztiak intentsiozkoak edo bereizgarri bidezkoak izaten dira.

2. HEDATURAZKO DEFINIZIOA

Bi prozedura nagusi ditugu kontzeptuak definitzeko edo mugarritzeko (Cabré 1993: 210): hedadura bidezkoa ('extensión') eta ezaugarri bereizgarrien bidezkoa ('comprehension'). Kontzeptu batek generikoa den aldetik ordezkatzeko dituen objektu partikular guztiak banan-banan aipatzean datza hedaturazko definizioa. Lexikografian eta terminografian gertatzen den bezalatsu, gutxitan erabiltzen da definizio mota hau azalpenezko testu espezializatuetan: ia beti, ezaugarri bereizgarriak aipatuz definitu ohi dira kontzeptuak. Izan ere, hedaturazko definizioaren bidez ez da zehazten kontzeptu bat zer den, delako kontzeptuak zer unibertso hartzen duen baizik. Alegia, definitzeko —mugak jartzeko eta kontzeptu bat besteetatik bereizteko— modu bat da hedaturazko definizioa, baina prozedura honek ez dio ezer kontzeptuaren izaeraz edo muinaz. Hona hedaturazko definizioaren adibide bat³:

- (1) POLIEDRO ERREGULARRAK, beraz, tetraedroa, hexaedroa, oktaedroa, dodekaedroa eta ikosaedroa dira.

³ Zenbaitetan, sasihedaturazko definizioak aurkitzen ditugu: *DISPLASIKOAK: eunukoidea, akondroplastikoa eta abar* [PROP]. Zentzu hertsian, definizio hori ez da hedaturazkoa, zeren ez baitira aipatzen kontzeptuaren gauzatze guztiak. Hedaturazkotzat barik, hurbilketazko definiziotzat edo ez formaltzat jo genezake: alegia, gauzatze partikular batzuk besterik ez dira aipatzen, irakurleak zertaz ari garen jakin dezan.

3. DEFINIZIO FORMAL EDO HIPERONIMIKOA

Atribuzioaren gainean eraikia den paradigmaren barruan (*X Y da*, *Y da X*, *X da Y*), eredu prototipiko eta aski baliatua da definizio formal edo hiperonimikoa. Kontzeptuaren deskripzioaren egituran, *Y* osagaien alegia, bi azpiosagai nagusi hauek ageri ditu: ezaugarri orokor bat (generoa edo hiperonimoa) eta ezaugarri bereizgarriak.

X Y DA

- (2) KRISTALINOA, optikaren ikuspegitik, *konbergentzia aldagarria duen* [bereizgarria] leiar ganbilbiko bat [hiperonimoa] *da*; (...) [IRUDIA]
- (3) ILUSIOA *baldintza psikologiko eta kulturazko ongi definitu batzuetan irudikapenak sortzen duen* [bereizgarria] gertaera psikologiko eta pertzepziozko bat [hiperonimoa] *da*. [IRUDIA]

X Y₁ DA, Y₂, Y₃ (Y₁=hiperonimoa; Y₂=bereizgarria1; Y₃=bereizgarria2)

- (4) MATXINSALTOA intsektu jauzikari bat [hiperonimoa] *da*, *berde horixka, otiaren antzekoa baina alorretan kalterik egiten ez duena* [ezaugarri bereizgarriak].
- (5) MANDOA animalia bat [hiperonimoa] *da*, *zaldia eta astemea edo behorra eta astarra gurutzatzearen ondorioz sortua* [bereizgarria].

Y DA X

- (6) *Material moldakorrak molde baten barruan gogortuz konformatzeko* [bereizgarria] teknika [hiperonimoa] *da* MOLDEKATZEA. [PROP]

Gaztelaniaz aski ordena zurruna dugu definizio formaletan: *X es Y* ordena nagusitu ohi da; eta *Y* osagaiaren barruan, “hiperonimoa + ezaugarri bereizgarriak” hurrenkera. Euskaraz, ordea, predikatuaren egitura ez da hain zurruna. Labur beharrez, zenbait aholkuren bidez saiaturako gara laburtzen auzi honi buruzko ideia nagusiak (ik. Alberdi 2008).

Lehenengo eta behin, definizio bat idaztean ongi bereizi behar ditugu definizio baten bi osagaiak (definigaita eta predikatu definitzailea), eta horretarako baliabide egokiak aukeratu behar dira: tipografia (letra etzana, adibidez), puntuazioa, joskera (tartekiak, adibidez). Bigarrenik, oro har, galdegaiaren legea betetzea da nire aholkua, eta, beraz, *X da Y* egitura ez noiznahi eta nolannahi, baizik eta salbuespen gisa erabiltzea (ik. Alberdi 2008: 7. atala). Hirugarrenik, definizio laburretan *X Y da* egituraz baliatzea da nire aholkua, eta predikatu definitzaile luzea dutenetan *Y da X* hurrenkerarekin saiitzea. Laugarrenik, *Y* predikatu luzea dugunean (Alberdi 2008: 2 eta 3. atalak), hiperonimoa aurreratzea eta ezaugarri bereizgarriak aposatuta ematea —ikus (4), (5) eta (42) adibideak—. Eta azkenik, aurreko aholkuek huts eginez gero, bestelako egitura, adierazmolde eta diskurtso-estrategietara jotzea (egitura kataforikoak eta bi puntuak erabiltzea, prozedura diskurtsiboak, etab.).

Azken ohar bat atal hau amaitzeko. Erlatiboen bidez adierazi ohi da definizio formaletako predikatu definitzaile luzea (“hiperonimoa, *-na*, *-na...*”), baina batzuetan juntadura hutsa erabiltzen da erlatiboaren ordeztu:

DEFINIZIO FORMALA (JUNTADURA BIDEZKOA)

- (7) FONETIKA hizkuntzalaritzaren adar bat da eta hizketaren hots posible guztiak aztertzen ditu beren gauzatze zehatzetan, banakoetan, geografikoetan, eta abar.

4. DEFINIZIO ERDIFORMALA

Trimble-ren arabera (1985: 77), hiperonimorik edo generorik ez agertzea da definizio erdiformala formaletik bereizten duena. Honelako eskema kontzeptuala du: “X (*definiendum*) + ezaugarri bereizgarria adierazten duen predikatua”. Honako lauki honetan aurrez aurre jarri ditut definizio formal eta ezformalen adibide soilduak:

DEFINIZIO ERDIFORMALA	DEFINIZIO FORMALA
(8) a) ANEMOMETROAK haizearen abiadura <i>neurtzen du</i>	b) ANEMOMETROA haizearen abiadura <i>neurtzen duen <u>tresna da</u></i> .
(9) a) FONOLOGIAK fonemak <i>aztertzen ditu</i> .	b) FONOLOGIA hizkuntzalaritzaren <u>adar bat da</u> , fonemak <i>aztertzen dituena</i> .
(10) a) BAKTERIOLOGIA bakterioen ikerketaz <i>ardurutzen da</i> .	b) BAKTERIOLOGIA mikrobiologiaren <u>adar bat da</u> , bakterioen ikerketaz <i>ardurutzen dena</i> .

5. DEFINIZIO FORMAL KONTESTUALA

Baldin eta definizio erdiformal batean testuinguruari esker ezaugarri orokorra (generoa) edo hiperonimoa berreskuratzeko aukera badugu, halakoa definizio formal kontestualtzat joko dugu. Noizean behin erabiltzen da azalpenezko testu espezializatu didaktikoetan, batez ere sailkapenetan. Honako adibide honetan parentesi artean ageri da ezaugarri bereizgarria eta aurreko testuinguruari esker berreskuratzen da hiperonimoa:

- (11) a. [*Garezurraren*] *Osaera anormalen* adibide dira: DOLIKOZEFALIA (*luzetarako diametroa nabarmen nagusitzen da*) [Definizio formal kontestuala] [*PROP*] =>
- b. DOLIKOZEFALIA: *garezurraren osaera anormala (da)*, luzetarako diametroa nabarmen nagusitzea ezaugarritzat duena. [Definizio formal]

6. SINONIMIA BIDEZKO DEFINIZIOAK ETA EZ FORMALAK

Lexikografian erabiltzen diren definizio-baliabideen artean erabilienetako bat da sinonimia. Eta, maiztasun gutxiagorekin bada ere, azalpenezko testu espezializatuetan ere erabili ohi da. Batzuetan, terminologia-aldakortasunaren isla da sinonimia (12); beste batzuetan, oster, erregistro apalago bateko termino “baliokide” baten bidez esplikatu nahi izaten da terminoa eta hortik sortzen da sinonimia (13, 14). *Edo* juntagailua erabili ohi da sinonimoak juntatzeko, baina batzuetan baliabide tipografikoak erabiltzen dira, hala nola parentesiak (15), tartekiak, eta abar.

- (12) Gorpuzkera. ASTENIKO EDO LEPTOSOMATIKOA: altuera nabarmentzen da pisuaren aldean, eta luzera zeharkako eta aurretik atzerako neurrien aldean; psikikoki, pertsona horiek eskizotimikoak dira, hau da, sentiberak, barnerakoiak, idealistak, ordenazaleak eta zorrotzak. [*PROP*]
- (13) - Larruazaleko anomalia baskularrak. Odoljarioak petekia gisa (lesio gorriak, puntu-formakoak, presioa egin arren desagertzen ez direnak), nahiz EKIMOSI EDO UBELDURA gisa (petekiak baino zabalagoak dira, eta hainbat kolore-aldaketa izaten dituzte, gorri urdinxkatik berdera, eta horira eta marroira) ager daitezke. [*PROP*]
- (14) Nutrizio-egoera. SANTOLINOREN ZEINUA EDO “LOKIETAKO KUXINDURA”. [*PROP*]

(15) Erradiologiako eta SZINTIGRAFIako (GAMMAGRAFIA) ohiko azterkei teknika ez inbasiboak gehitu zaizkie (...)[PROP]

Trimble-k (1985: 78-80), definizio ‘ez formalen’ sailean sartzen ditu sinonimia bidezkoak. Zehazkiago, gutxi gorabeherako sinonimoen bidezko definizioak izendatzeko darabil batik bat Trimblek ‘ez formal’ deitura. Izan ere, ‘ez formalen’ sailean, informazioaren ikuspuntutik halako zehazgabetasun bat adierazten duten definizioak sartzen ditu: gutxi gorabeherako sinonimia bidezkoak; ezeztapen eta antonimia bidezkoak (*An arachnid is not an insect; The opposite of indigenous is foreign*); ezaugarri nagusi bat ematen dutenak (esaterako, *helizea espiral bat da*); eta abar. Zentzu hertsian, ez dira zinezko definizioak, kontzeptua identifikatzeko balio duten hurbilketa moduko azalpenak baizik.

7. APOSIZIO BIDEZKO DEFINIZIOA

Sarritan, aposizio bidez txertatzen da definizioa azalpenezko testu espezializatu didaktikoetan. Gehienetan, izen-sintagma batek osatzen du aposizioa eta erlazio predikatiboa du aurrekariarekin (*definiendum*). Ondoko adibideetan ikusten denez, definizio aposatua duen aurrekariak askotariko funtzioak bete ditzake perpausean: subjektua, objektua, eta abar. Albokotasunaren baldintzan oinarritzen da aposizioa eta hari esker ezartzen da erlazio predikatiboa definigaiaren (*definiendum*) eta predikatu definitzaile (*definiens*) aposatuaren artean. Puntuazioa gorabehera, ez gaude hain urrun lexikografian erabiltzen den definizio-eredutik. Baina desberdintasuna honetan datza: definizio aposatua diskurtsoan txertatzen da, non definigaiak, aposizio bidezko predikazioaren aurrekaria izateaz gainera, funtzio sintaktiko propioa betetzen baitu (objektua, subjektua, etab.).

- (16) Begiaren mugimenduak era askotakoak dira: (...) - KONPENTSAZIO-MUGIMENDUAK (bestibuluarenak eta begiarenak), *burua edo gorputza mugitzen denean begirada finko edukitzeko egiten direnak*; erreflexuak dira guztiz.[IRUDIA]
- (17) - DENBORAZKO IRUDIAK, *ikusleak hartan parte hartu gabe, beren produkzio- eta aurkezpen-apailuaren eragin soilez, denboran zehar aldatuz doazenak*. [IRUDIA]
- (18) Zabaltze-lanari akabera emateko modu asko daude: a) TALOTXATZEA, *emokadura busti eta talotxaz biribilean igurtziz egiten dena, besterik gabe*;(…) [ARKIT]

8. APOSIZIO BIDEZKO DEFINIZIOA: AZALPENEZKO BIRFORMULATZAILEAK

Sarritan, azalpenezko birformulatzailen bidez (Martín, Portolés 1999: 4122-4126) ematen da termino baten definizioa (*hau da, hots, alegia...*). Halakoetan, birformulazio berezi baten aurrean gaude: termino baten parafrasia egiten da. Parafrasia ez dator lehen esandakoa zehaztera edo zuzentzera, kontzeptu bat (termino bat) azaltzera baizik. Horrelako birformulazioen bidez benetako definizioak eman daitezke, edo azalpen hutsak, eta, aposizioan oinarritzen direnez, aposizio bidezko definizioen artean sailkatu ditut⁴.

⁴ Itzulpengintzaren alderditik zera ohartarazi beharra dago: nahiz eta gaztelaniazko aposizio definitzailean birformulatzailerik ez egon, euskarazkoan lagungarria izaten da azalpenezko birformulatzaille bat aposizioaren hasieran ipintzea (*hots, hau da, alegia*). Halako birformulatzailleak bide-seinale argigarriak dira,

- (19) ELASTIKOTASUN-MODULUA, *HOTS*, portaera elastikoaren eremuan tentsioak eta deformazioak erlazionatzen dituen faktore hori, espezifikoa izaten da material bakoitzarentzat. [ARKIT]
- (20) Ezta kontuan hartuz ere FENOMENO ERREOLOGIKOAK, *HAU DA*, materialaren isuria eragiten duten karga iraunkorren mende jarritako piezen deformazio geroratuak. [ARKIT]
- (21) MUGIMENDU ATZERAGARRIAK ikusiko ditugu orain, *ALEGIA*, hezetasun-aldaketan eraginez, materialak bere bizitza osoan jasan beharko dituenak. [ARKIT]

9. DEFINIZIO METALINGUISTIKOAK

Lexikografiaren arloan (Bosque 1982: 105-106), oro har, gramatika-hitzetara eta zenbait kategoriatara (preposizio, postposizio, juntagailuak...) murriztu izan da definizio metalinguistikoaren erabilera: *baino*: 'baina'-ren ordean erabili ohi den juntagailua; *baietz*: 'bai' adizlagunaren zeharkako era; *beste*: (...) adierazteko erabiltzen den hitza; *guzti*: (...) erabiltzen den zenbatzailea... Beste hainbeste gertatzen da terminografian (Cabré 1993: 213), non zeinuaren metahizkuntzako esapide hauek "debekatuta" geratzen baitira: (...) *adierazteko erabiltzen den terminoa*, *-z esaten da*, *-i ematen zaion izena*, eta abar.

Dibulgaziozko testu espezializatuetan, berriz, sarritan erabiltzen dira enuntziatu metalinguistikoak kontzeptuak definitzeko. Rey-Debove-ren (1969: 113-114) azterketaren arabera, diskurtso metalinguistikoetan erlazio hauek gertatzen dira zeinuaren eta gauzaren artean:

erakusle anaforikoaren falta edo euskararen ordena "berezia" (buru azkena) aski ongi konpentsatzen dutenak: a) (...) *los movimientos irreversibles, aquéllos/esos que son consecuencia de los procesos de fabricación*; b) (...) *mugimendu atzeraezinak, hau da, fabrikazio-prozesuak eragindakoak / eragindako horiek*.

Zeinuaren eta gauzaren arteko erlazioak (Rey-Debove 1969: 113-114)⁵

SUBJEKTUAREN ETA PREDIKATUAREN IZAERA	ENUNTZIATU MOTA	ERLAZIOA	ADITZAK	ESAPIDE BALIOKIDEAK
I. GAUZA → GAUZA	Ez metalinguistikoa	Berdintasuna	<i>IZAN: X Y da</i> (1) “Moxala zaldiaren kumea da”.	<i>hau da, hots, alegia, bestela esan, edo</i>
II. GAUZA → ZEINUA	Metalinguistikoa	Izena ematea (izendapena)	<i>IRITZI: Y-ri X deritzo</i> (2) “Zaldiaren kumeari <i>moxal</i> ⁶ deritzo”.	(3) <i>Y-ri X esaten zaio</i> ⁷ (4) <i>Y-k X du (dauka) izena</i> (5) <i>Y-ri X izena eman</i> (6) <i>Y(-ri) X deitu (Y-ri X-ren izenez deitu</i> ⁸) (7) <i>Y-k X izena hartu (Y-k X-ren izena hartu)</i>
III. ZEINUA → GAUZA	Metalinguistikoa	a) Erreferentzia	a) <i>ADIERAZI:</i> <i>X-k Y ADIERAZTEN DU</i> (8) “ <i>Moxal</i> hitzak zaldiaren kumea adierazten du”	a) ERREFERENTZIA (10) <i>X-z Y aditzen da; X-ren izenez Y aditzen da.</i> (11) <i>X-tzat ulertuz Y</i> ⁹ (12) <i>Y-tzat ulertuz X</i> (13) <i>X Y gisa ulertu</i> (14) <i>X Y bezala ulertu</i> (15) <i>X (hitz/terminoa/...) erabiltzen da Y izendatzeko.</i> (16) <i>X-en bidez Y izendatzen da (X hitzaren / terminoaren bidez).</i> (17) <i>X hitzak Y izendatzen du</i> (18) <i>X-ren bidez aditzera ematen da Y; X-ren izenez aditzera ematen da Y.</i> (19) <i>X esatean, Y aditzera ematen da.</i> (20) <i>X-k Y denotatzen du</i> ¹⁰
		b) Esanahia	b) <i>ESAN NAHI IZAN:</i> <i>X-k Y ESAN NAHI DU</i> (9) “ <i>Moxal</i> hitzak ‘zaldiaren kumea’ esan nahi du”	b) ESANAHIA (21) <i>X-k Y esanahia du</i>
IV. ZEINUA → ZEINUA	Metalinguistikoa	a) Baliokidetasuna	a) <i>ESATEN DA: X X'ERE ESATEN DA</i> (22) “ <i>Penumonia alborengoa</i> ere esaten da”	a) <i>sinonimoak izan, esanahi bera izan, erreferente bera izan...</i>
		b) Berdintasuna	b) <i>IZAN</i> (23) “ <i>Alborengoa pneumonia</i> bat da”	

⁵ Rey-Debove-ren (1969) eta Llopis-en (2006: 1092) lanak uztartuz osatu dugu eskema, euskararako egokituta.

⁶ *Deritzo* gisako adizkien predikatu-osagarria bi modutan agertzen da tradizioan: a) mugatzaile gabe (*oroimen deritzon indar hau*); b) mugatzaile eta guzti (*kamelloA deritzon aberetzarra*). Azalpenezko testu

Dena dela, aurrera baino lehen, hiru ohar nagusi egin beharrea gaude goiko taulako adierazpide batzuen inguruan.

Lehen oharra “gauza \rightarrow zeinua” erlazioari (izendapenari) dagokio. *Izendatu* ere erabiltzen da batzuetan “izena eman”, “iritzi” edo “deitu” aditzen zentzu berean (adibidez, *Euskaldunok “euli” izendatzen dugun intsektua* esaldian), baina joskeraz eta argumentuz-egituraz ez dira inola ere baliokide, euskara estandarrean behinik behin. Izan ere, *Y-ri X izena ematen zaio* edo *Y-ri X deritzo*, *Y-ri X esaten zaio*, *Y-ri X deitzen zaio* esaldien parean nekez esaten da *Y X izendatzen da/dugu* (? *Intsektu hau euli izendatzen da/dugu*). Alegia, euskara estandarrean, ia beti, “izena \rightarrow gauza” erlazioa adierazteko erabiltzen da *izendatu* (*X hitzaren bidez Y izendatzen da; X hitza erabiltzen da Y izendatzeko; ...*), baina ez alderantzizko erlazioa (“gauza \rightarrow izena”). Hala ere, euskalki batzuetan *deitzen da* esapidearen baliokidetzat erabiltzen dute *izendatu*: “*Kantuok jartzen ditut*” *izendatzen da* *Ruper Ordorikak plazaratzen duen azken obra* [EPG: Herria astekaria]. Gauza bera esan behar da *izendatuk* duen “izena izan” adieraz: baditugu *X izendaturiko Y* (*X izendaturiko gutuna*) gisakoak, baina nekez edo askozaz ere bakanago *Y X izendatzen da* gisakoak: *Fenomeno hau Y izendatzen da* (?).

Bigarren oharra “zeinua \rightarrow gauza” erlazioa (erreferentzia) adierazten duen *X-z Y aditzen da* adierazmoldeari dagokio. Nahiz eta, *Orotariko Euskal Hiztegiaren arabera (OEH)*, adierazmolde honek tradizio zabal eta euskalki guztietan errotua duen¹¹, badirudi gaurko zientziaren prosan bakanka baizik ez dela erabiltzen. Hona *OEHk* zer dioen tradizioaz (204-205 orr.): “ADITU. Entender por... (Usado sobre todo en preguntas y respuestas o en definiciones). Tr. Es general su uso en todas partes desde los textos más antiguos; a fines de del S. XIX y sobre todo en el s. XX, decae notablemente su uso”. Egiturari bagagozkio, gutxienez, honako aldaera hauek ditu: *Y aditzen da X-gatik*, *Nor aditzen dira X-tzat?*, *X-ren izenarekin (izenagaz) aditzen da Y*, *Xren izenean aditzen da Y*, *X esanagaz zer aditu behar da?* Bestalde, adiera honetan *adituren* ordez *entenditu* eta *entelagatu* ere agertzen dira inoiz tradizioan.

Hirugarren oharra *ulertu* aditzak adiera honetan (“entender por”) onartzen dituen josterei buruzkoa da. Erabili, maiztxo erabili izan dira aspaldi honetako prosan *X Y gisa ulertu* eta *X Y*

espezializatuetan, berriz, arrazoizkoa dirudi zeregin atributiboa betetzen duen osagaia (terminoa edo izendapena) mugagabearen bidez bereiztea (*pseudoisomero deritze*). Irizpide hori adostu dute EHUko Euskara Zerbitzuak eta Elhuyarrek testu espezializatuen itzulpenetarako. Nolanahi ere, mugagabearen hautua eginda ere, *topiko(a) bihurtu* moduko egituretan Euskaltzaindiak (ik. 40. araua) nabarmendu duenaren antzeko salbuespen-jokamoldea onar daitekeela dirudi: *termodinamikaren bigarren legearen adierazpen matematiko(a) deritzo; muga-lubrikazio(a) deritzo halakoari; mintz basilar(ra) deritzo ehunezko xaffa horri; etab.*

⁷ “X izenez ezagutzen den” egitura ez da asko erabili orain gutxi arte. Tradizio hobea dute honelakoek: “X esaten dioten/zaion”, “X deritzon” eta antzekoak.

⁸ *OEH*-en arabera (ik. *deitu* sarrera), tradizio handia du *-(r)en izenez deitu* esapideak.

⁹ “X-z Y ulertu” aldaera ere bada tradizioan —*X-z Y aditu* egituraren parekoa dena—: “Iainkoak zeru-lurrak esatean, ez dirala ulertu bear zeru-lurrez sorkari ikuskari ta ikus-eziñak (...), baizik eta (...)” (Or. Aitork 358).

¹⁰ Jakintza-eremu jakin batzuetan (hizkuntzalaritza, filosofia...) baino ez da erabiltzen, eta zentzu teknikoan.

¹¹ Julio Garcia lankide eta adiskideari zor diot informazio hau.

bezala ulertu egiturak (ik. *Ereduzko prosa gaur corpora*). Hala ere, gaizki ulertu ez badut, EIMA batzordearen proposamenaren arabera (Garzia 2005: 73-74), baztertzekoak lirateke euskara estandarerako konparaziozkoak ez diren *bezala* guztiak, *X Y bezala ulertu* gisakoak barne. Beste bi esapideen artean (*X Y-tzat ulertu* eta *X Y gisa ulertu*), lehenbizikoa —*X Ytzat ulertu*— lehenetsi du Juan Garziak bere idazlanetan egitura atributiboetarako.

Goiko taulan aipaturiko adierazmoldeez gainera, honako bi hauek ere baditugu euskaraz kontzeptuak definitzeko: *-n datza* eta *X Y-tzat definitu*. Lehenengo adierazpideak (*-n datza*) berdintasunezko erlazioa adierazten du ($X Y-n datza \Rightarrow X = Y$), eta sarritan erabiltzen da azalpenezko testu espezializatuetan prozesuen berri emateko. Hain zuzen ere, *Y* predikatuaren bidez prozesu bat adieraztea da esapide hau erabiltzeko baldintza. Zenbait testuingurutan, *da* kopulaz truka daiteke —(22) eta (23) adibideetan, baina ez (24)an—.

- (22) ARTERIOGRAFIA. Kontraste-injekzio baten bidez eskualde jakin bateko arteria-sistema zuzenean *ikustean datza*. [PROP]
- (23) BIRIKETAKO ARTERIOGRAFIA: *Biriken baskularizazioa ikustean datza*, zainetik nahiz bihotzaren eskuinaldean kateter baten bidez injektatutako kontraste batekin. Erabilgarria da masa barskularrak eta birika-enbolismoa aztertzeko.
- (24) PULTSU PARADOXIKOA, berriz, arnas hartzean *hedadura murriztean datzan fenomeno fisiologikoaren* neurrigabekeria da, eta (...).[PROP]

Nire iritziz, metalinguistikotzat jo behar dira *X Y-tzat definitu* eta antzeko egiturak (*X Y hitzen bidez definitu*, *X Y esapidez definitu* eta abar), hitzetara edo hizkuntzara eramaten baikaituzte; alegia, hizkuntza bera —predikatu definitzailea— bihurtzen da mintzagai. Gehienetan, “gauza → zeinua” erlazioa adierazten da halako egituren bidez, baina “zeinua → zeinua” erlazioa ere adieraz dezakete, baldin eta definigaia “aipatzen” den hitz edo terminoa bada. Gaurko prosan, *ulertu* aditzarekin gertatzen den moduan (ik. gorago esandakoa), *X Y gisa (modura...) definitu* eta *X Y bezala definitu* egiturak sartzen dira lehian *X Y-tzat definitu* egiturarekin. Halako joskera edo *periodo* “jarraituen” aldamenean, beti dugu eskumenean, noski, bi puntuen erabilera: *X honela(ko hitzez) definitzen da/du: (... Y...); hona X-ren definizioa: (... Y...);* eta abar.

- (25) LIBURUA BERA *definitzen zaigu* "kimikari militante baten kronika"tzat. [EPG Primo Levi / Juan Garzia: *Sistema periodikoa*, 10. or.]
- (26) Menard-ek, William James-en garaikide batek, *ez du definitzen* HISTORIA *errealitatearen ikerketatzat, haren sorburutzat baizik*. [EPG Jorge Luis Borges / Juan Garzia: *Ipuin hautatuak*, 43. or.]
- (27) Tamaina-anormaltasun nagusia HIDRONEFROSIA da, *zeina giltzurrun-pelbisaren zabaltze gisa definitzen baita*. [PROP]

Nolanahi ere, honelako definizioak saihestekoak direla deritzot:

- (28) BIKOTEA *bi pertsonen arteko harreman sakona, maitasunean oinarritua eta denboran irauteko intentzioarekin (normalean gizon eta emakumea) osaturikoa* bezala *definitzen dute* eta familia, bikoteak seme alabak dituenean osatuko litzateke. [ZTC]

Bestalde, (*baldin*) *ba-* (...), *X-z mintzatu (ari izan)* egitura metalinguistikoa eta antzekoak ditugu (*baldin ba-*, *X dugula esango dugu*), zeinak *Y-ri X esaten diote* adierazmoldearen aldaera diskurtsibotzat jo baititzakegu. Honako adibide honetan ikusten denez, adierazmolde hori dikotomieiei loturik joaten da maiz.

- (29) Obran jartzeko teknikak era logiko batean sailkatzeko, materialak eransteari dagokionez, bi maila bereiziko ditugu: eransten den materialak gainerako piezekin erabateko solidariotasuna *lortzen bada*, hau da, material-baturaren ondorioz pieza bakoitzaren indibidualtasuna galdu, eta bestelako ezaugarriak dituen multzo bat *osetzen bada, orduan, eranste-teknikaz ariko gara*; aldiz, solidariotasun hori gutxi gorabehera puntuala den ukipenez bakarrik *egiten bada*, eta elementu bakoitzak bere ezaugarriei *eusten badie, orduan, finkatze-teknikaz ariko gara*. [ARKIT]

10. EZEZTAPENA ETA BAIZIK JUNTAGAILUA: *X EZ (DA) Y, Y' BAIZIK; X EZ (DA) Y BAIZIK*

Noizean behin, ezeztapen bat eta galdegaien arteko kontrastea (Euskaltzaindia 1994: 197) adierazten duen *baizik* juntagailua erabiltzen da azalpenezko testu espezializatueta kontzeptu bat definitzeko: *X ez (da) Y, Y' baizik* sekuentzia korrelatiboa. Lehenik, kontzeptu baten definizio faltsu edo ustel bat ezeztatzen edo ukatzen da; eta, ondoren, definizio egoki eta zuzena baieztatzen da¹². Baliabide erretoriko honen bidez fokalizatuta geratzen da baieztapena, definizio zuzena, alegia.

- (30) Krudeltasunari BIHOZBERATASUNA kontrajartzen zaio, eta *hau ez da pasio bat, Izpirituaren ahalmen bat baizik, gizakiaren Hira eta Mendekua jabaltzen dituen*. [EPG: Spinoza / Piarres Xarriton: *Etika*]

Beste definizio batzuetan, *baizik*-en erabilera “murriztailea” (Euskaltzaindia 1994: 216) ageri da: halakoetan ez dago juntadurarik, osagai bakarra baitago (*X ez da Y baizik*). Predikazioa elementu bakar horretara (Y) mugatu edo murrizten dela adierazten da.

- (31) FONEMA *ez omen da* eskutada bat bereizgarri *baizik*, bereizgarri mordo bat.

11. DEFINIZIO KONPLEXUA

Azalpenezko testu espezializatueta (Trimble 1985: 81), lexikografian eta terminografian ez bezala, maiz erabiltzen dira perpaus bat baino gehiago edo paragrafo oso bat definizio bat emateko. Are gehiago, ohikoa ez bada ere, batzuetan paragrafo bat baino gehiagoren bidez garatzen eta zehazten da definizioa.

- (32) ORDENAGAILU BIDEZKO TOMOGRAFIA (OBT)

Teknika erradiologikoa da. Haren bidez, igorle-hartzaile sistema mugikor bat erabiliz, X izpien sorta batek zeharkatutako ehunen indargabetze-koefizienteen neurrien berreraikitze matematikoa egin daiteke, ordenagailuz lagunduta. Koefiziente horiek irudi bihurtu ondoren, ehunen irudia proiektatzen da telebista-pantaila batean.

Funtsean, gorputza zeharkatzen duen sorta igortzen duen X izpien hodi batean datza sistema; sorta hori detektagailu-sistema batek jasotzen du beste aldean. Ehun bakoitzak X izpiak xurgatzeko koefiziente bereizgarria duenez, zeharkatzen duen organoaren arabera motelduko da sorta hori. Sorta indargabetzean lortutako balioak ordenagailu-sistema konplexu batean jasotzen eta metatzen dira, eta sistema horrek zenbakizko balio bat ematen die balio horiei (“indargabetze-balioa”). Zenbakizko

¹² “Ezeztapena-baieztapena” eskemaren aldaeren artean adierazmolde hau dugu: *X ez da Y; aitzitik Y'*. Hona adibide bat: “Saussurek eta ondorengoek diotena hau da, gutxi gorabehera: *hizkuntza bat ez dela* handik eta hemendik bildurikako gai pila, *aitzitik* sistema bat, bere egitura duen sistema, eta sistema horren elementuek sistematik hartzen dutela beren izatea eta beren izaera, ez sistemak elementuetarik”. (Mitxelena, *Idazlan hautatuak*)

informazio hori argi-intentsitate edo kolore bihurtzen da. Hala, objektuaren plano tomografikoko puntu bakoitzak argi-intentsitate bat edo kolore bat izango du. Puntu horiek guztiak pantaila batean proiektatzean, gorputzeko atal oso eta zeharkako baten irudi fidagarria lortuko dugu, milimetro gutxi batzuetatik 1 cm arterako lodiera duena.[PROP]

12. DEFINIZIO ESTRUKTURALA, FUNTZIONALA ETA TELEOLOGIKOA

Hautatzen den informazio motaren arabera edo deskripzio kontzeptualaren izaeraren arabera, aldatu egiten da definizioaren adierazmoldea. Ikuspegi horretatik, hiru definizio mota hauek bereizten ditugu: a) estrukturala (egitura baten deskripzioa da definizioaren predikatua); b) funtzionala (predikatuaren bidez erabilera edo funtzioa zehazten da); teleologikoa (definigaiaren zertarakoa edo helburua zehazten du predikatuak).

Definizio estrukturaletan, adibidez, honelako adierazmoldeak aurkitu ohi ditugu: (...) *A-z eta B-z osatu(t)a dago X, A-k eta B-k osatzen dute X...*

- (33) *Zelula bizi bakunez eratutako geruza gutxi batzuek osatzen dute EPIDERMISA; haren gaineko geruza (stratum corneum izenekoa) zelula hilez osatuta dago; elkarren kontra zapaldurik daude zelula hil horiek, ehun sendo bat eratzeko.* [EPG: John Lenihan: *Giza gorputza lanean*, Irene Aldasorok euskaratua]

Hona definizio funtzional eta teleologikoen adierazmolde erabilienetako batzuk:

DEFINIZIO FUNTZIONALA	DEFINIZIO TELEOLOGIKOA
(hiperonimoa) <i>-t(z)eko erabiltzen da</i>	(hiperonimoa) <i>-t(z)ea du helburu</i>
(hiperonimoa) <i>-t(z)eko balio du</i>	(hiperonimoa) <i>haren helburua da...</i>
(hiperonimoa) <i>...da haren funtzioa</i>	...
(hiperonimoa) <i>...da haren betekizuna</i>	
(hiperonimoa) <i>aditza: erregistratzen du, neurtzen du...</i>	
...	

Sailkapen-irizpide hau, noski, bateragarria da aipatu ditudan beste batzuekin. Hala, hiperonimoa agertzen den ala ez kontuan harturik, definizio funtzionaletan formalak eta erdiformalak bereiziko ditugu, eta bereizkuntza bera egin daiteke definizio teleologikoetan.

13. DESKRIPZIO BIDEZKO DEFINIZIOA

Terminologian, behintzat, definizioak asko du deskripziotik. Definizioa, azken batean, adierazpen bat da, kontzeptu baten deskripzioa ematen duena eta kontzeptu deskribatua sistema bateko alboko kontzeptuetatik bereizten duena. Nolanahi ere, sarri askotan alde batera uzten dira adierazmolde ohikoak (*X Y da, Y da X...*) eta bestelako deskripzio-moldeetara jotzen da azalpenezko testu espezializatuetan kontzeptu bat azaltzeko. Batzuetan, terminoa (*definiendum*) eman ohi da lehenik eta gero deskripzio definitzailea (34). Beste batzuetan, ostera, deskripzio xehea agertzen da definigai bano lehenago (35).

- (34) Lodollik saio batzuk egin zituen arkitektura-elementuen eraikitzea arrazionalizatzeko, eta, saio horien emaitzarik ezagunena, eta ia bakarra, 10. irudian azaltzen den LEIHO VENEZIARRA da. *Leiho horrek hauts-babes mailakatu bat du ura kanporatu eta hutsarte babesteko, eta, gainera, barlasaiak kurba bat egiten du, hain zuzen ere, leiho-zangoen arteko hutsarte hartzen duen habearen flexio-momentuen kurba.* [ARKIT]
- (35) *Emplecton* klasikoa.
Grezian azaldu zen lehenbizi, K. a. VII. mendean, tartean betegarria duen bi aurpegiko horma, eta asko erabili zen VI. mende guztian. *Lehorrean hartutako harrizko bi orri ditu, eta, tartean, "buztinarekin eta harrobi-hondakinen harri-puskekin egindako nahasketa bat. Horrela dago osatuta EMPLECTON izeneko horma-egitura".* [ARKIT]

14. DEFINIZIO “OPERATIBOA”

Zenbaitetan, zeharka azaltzen da gauza bat zer den: ez da zehazten kontzeptu bat zer den, baizik deskribatzen da zer prozesu jarraitu behar den edo zer eragiketa egin behar den, emaitza gisa, definitu nahi dena lortzeko¹³. Adibide honetan ikusten denez, halako definizioetan guztiz aldentzen gara definizio-molde predikatibo ohikoetatik (*X Y da, Y da X...*)

- (36) Moldearen tamaina handitzea izan da moldekatze-tekniken beste eboluzio bat. *TUNEL-KOFRATUA* da horien artean ikusgarriena: *metalezko molde-multzo bat prestatzen da ahuspez jarritako kaxa handiak eratuz, eta haien gainetik eta tartetik hormigoia botatzen da.* [ARKIT]
- (37) BRONKOSKOPIA. *Sistema optiko bat sartzen da bronkio-zuhaitzean; haren bidez, bronkio-zuhaitzaren iragazkortasuna, ohiz kanpoko edukia eta mukosaren egoera frogatu ditzakegu (31. Irudia). Bronkioskopiari esker, jariakinak har ditzakegu zitologia- eta bakteriologia-azterketak egiteko, baita biopsia-laginak ere azterketa histopatologikoetarako (bronkio-xurgatzea, bronkio-albeoloak garbitzea eta biopsia transbronkiala)* [PROP]

15. ITXURAZKO ELKARRIZKETA: DEFINIZIOA, GALDERA BATEN ERANTZUN GISA.

Zenbaitetan, hizkuntza mintzatua eta zehazki elkarrizketa imitatuz, galde-erantzunaren estrategia baliatzen da azalpenezko testuetan. Testugileak ez du edonolako galdera egiten (*zergatik?, non?, zertarako?...*), galdera jakin bat baizik: *Zer da X?* Eta galdera horrek¹⁴ definizio bat eskatzen du erantzunean¹⁵: *X Y da* (38), *Y da X*, etab. Definizio baten oinarri gisa erabiltzen da galdera eta erantzunean isilduta geratzen da batzuetan oinarri ezaguna (39, 42): *Zer da X? Y da (X), Y (da X)*. Baliabide erretoriko honen bidez, diskurtsoari hasiera ematen dio testugileak, hartzailearen arreta bereganatzen du eta definizioa fokalizatzen. Gainera, galdera honek, testu-oinarri gisa, definizio-molde predikatibo jakin bat bideratu ohi du (*X Y da, Y da X*, etab.), nahiz eta bakanka bestelako egitura duten erantzunak agertu (40, 41).

- (38) Zer da Makrobiotika?

¹³ Trimblek (1985: 81-82) definizio konplexuen artean sailkatzen ditu “operatiboak”. Gehienetan, jarduera fisiko edo mekaniko bati dagozkie.

¹⁴ Ez da galdera erretoriko hutsa, erantzun jakin bat –definizio bat– eskatzen duen galdera baizik. Fuentesek dioenez (1999: 49) “otro procedimiento apelativo que se utiliza como focalizador de una información es el crear un aparente dialogismo en el texto”.

¹⁵ Sarri askotan, honelako hitzez erantzun ohi zaio “Zer da X?” galderari: “[hiperonimoa] BAT da, ...(-na)”. Alegia, *bat* zenbatzailea erabili ohi da definizioetan (ikus 42), eta hiperzuzenketaz batzuetan ez da erabiltzen erabili behar litzatekeen lekuan: nire iritziz, (38) adibidea honela eman behar da: *Makrobiotika mugimendu kultural bat da...*

Gaur egun MAKROBIOTIKA mugimendu kultural filosofikoa da, monje japoniarren ZEN filosofiaren urruneko ekialdeko kontzeptu kosmogoniko-erlijiosoetan oinarritua, eta nahi higieneko-medikoak eta kultura bitalista helburutzat dituen janeurri batean zehaztua. [ZTC]

- (39) ¿Zer da HIZKUNTZALARITZA? Giza hizkuntza naturalaren ikerketa zientifikoa da (hizkuntzalaritza).
- (40) Zer da ABSTRAKZIOA? Hitz horrek errealtatetik urruntze bat esan nahi du aspaldidanik gure hizkuntzan. [IRUDIA]
- (41) Ezen zer da GIRISTINOA? Izen horrek erran nahi du, Kristorena. Giristinoa da beraz, gizon bat Jesu-Kristori eman zajona, hari konsekratu zajona, hari datxeikona; hitz batez giristinoa da gizon bat Jesu-Kristorena (Baratziart. *Meditazione Ttipiak*)
- (42) Zer da bada JAINKOA? Izate bat, bere baitharik dena, zeina baino hoberik ta perfetagorik ezin asma baititeke; Izate bat guziz handia ta majestateg bethea, zeinaren aldean munduko goratasun, handitasun, distiadura guziak ezpaitire herrautsik eta itxurapenik baizen; izate bat guziz botheretsua, zeru-lurrak eta hetan diren guziak hitz bakhar batez, nahi xoil batez ezdeusetik athera dituen, eta diren gauza guziak gobernatzan dituen, zerbait izan eta gerta dadila baitezpada nahi duenean, deusek, ez nihork ezin bara dezaken gisan. [Baratziart. *Meditazione Ttipiak*]

16. DEFINIZIO KONTESTUALA

Batzuetan, *definiendum* eta *definiens*en arteko erlazioa ez dago adierazia ohiko predikatu baten bidez (*da, datza...*), ezta albokotasunaren bidez ere (aposizio bidezko definizioa), baizik eta erlazio hori ondorioztatzen da testuinguruari esker. Halakoetan esango dugu definizio kontestual edo implizitu baten aurrean gaudela. Adibide honetan, esaterako, *erreakzio immunologiko* baten nolabaiteko definizioa —definizio kontestuala— dugu: testuinguruari esker ezar daiteke *definiendum*aren (*erreakzio immunologikoa*) eta *definiens*aren (*Sarkina hauteman denean, antigorputzak...*) arteko erlazio predikatibo implizitua.

- (43) Proteina arrotz bat gorputzean sartzen den guztietan (gehienetan gaitz kutsakorren baten organismoak izaten dira, baina ehun transplantatu bat ere bai inoiz), ERREAKZIO IMMUNOLOGIKO BAT sortzen da. *Sarkina hauteman denean, antigorputzak fabrikatzen dira nodulu linfatikoetan edo beste leku batzuetan.* [Giza gorputza lanean, 8. kapituluan]

BIBLIOGRAFIA

- ALARCÓN, R.; BACH, CARME; SIERRA, G. (prensa): “Extracción de contextos definitorios en corpus especializados: Hacia la elaboración de una herramienta de ayuda terminográfica” in Revista Española de Lingüística. Sareko argitalpena: <http://www.uned.es/sel/36-simposio.html>
- ALBERDI, X. (2008): “Zenbait gogoeta euskal definizioen idazkeraz” in Ugarteburu, I. (argit.), *Espezialitateko hizkerak eta terminologia II*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 145-170.
- ALBERDI, X.; GARCÍA, J.; UGARTEBURU, I. (2008): “La definición: del paradigma de la tradición lexicográfica (y terminográfica) al discurso expositivo en textos técnicos; estrategias discursivas”, Sociedad Española de Lingüística-ren (SEL) XXXVII. biltzarreko aktekin batera sarean argitaratzekoa (<http://www.unav.es/linguis/simposiosel/>).
- ALONSO, M.P.; BRONCART, J.P. (2007): “Por un interaccionismo socio-discursivo: historia de una trayectoria”, Itziar Plazaola, Maria Pilar Alonso Fourcade (argit.), *Testuak, diskurtsoak eta generoak*, Erein, Donostia.
- BOSQUE, I. (1982): “Sobre la teoría de la definición lexicográfica”, *VERBA*, 9: 105-123.
- CABRÉ, T. (1993): *La terminología. Teoría, metodología, aplicaciones*. Barcelona: Antártida/Empúries.
- DOMÈNECH, M.; GELPÍ, C.; RIBAS, M. (2000): “Discurso, terminología y conocimiento especializado”, Actas del VII Simposio de RITERM. Publicación electrónica en: <http://www.riterm.net/actes/7simposio/domenech.htm>
- EUSKALTZAINDIA (1994): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-IV*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- FLAMENCO, L. (1999): “Las construcciones concesivas y adversativas”, I. Bosque y V. Demonte, *Gramática descriptiva de la lengua española*, Madrid: Espasa, 3805-3878.
- FUENTES, C. (1999): *La organización informativa del texto*, Madrid: Arco/Libros.
- GARZIA, J. (2005): *Kalko okerrak*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua (Interneten: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-73/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/estilo_liburua_e.html)
- ISO 704 (2000): *Terminology work. Principles and methods = Travail terminologique. Principes et méthodes*. Geneva: ISO.
- JORBA, J.; GÓMEZ, I.; PRAT, À. (2000): *Hablar y escribir para aprender*, Madrid: Síntesis.

- LLOPIS, A. (2006): “Aplicación de la teoría de Rey-Debove a las definiciones lexicográficas de los marcadores discursivos”, Milka Villayandre (ed.), *Actas del XXV Simposio Internacional de la Sociedad Española de Lingüística*, León: Universidad de León. Publicación electrónica en: <http://www3.unileon.es/dp/dfh/SEL/actas.htm>
- LÓPEZ, C. (2002): “Reflexiones sobre la enseñanza-aprendizaje de los textos explicativos en la universidad”, en *Revista de Investigaciones Lingüísticas y Literarias Hispanoamericanas*, RILL 15. Publicación electrónica en: <http://web.fu-berlin.de/adieu/vazquez/Reflexiones.pdf>
- LORENTE, M. (2001): “Teoría e innovación en terminografía: la definición terminográfica”, T. Cabré, J. Feliu (eds.), *La terminología científico-técnica: reconocimiento, análisis y extracción de información formal y semántica*, Barcelona: IULA-UPF.
- LOUREDA, O. (2003): *Introducción a la tipología textual*, Madrid: Arco Libros.
- MARTÍN, M.A. & PORTOLÉS, J. (1999): “Los marcadores del discurso”, in Bosque, I. & Demonte, V. (zuz.) (1999): *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*, Madrid: Espasa Calpe, 4051-4203.
- POPOVA, T.: “Características de la definición en el texto científico español”. Publicación electrónica en: <http://hispanismo.cervantes.es/documentos/popovat.pdf>
- RAE (REAL ACADEMIA ESPAÑOLA) (1999): *Ortografía de la lengua española*, Madrid: Real Academia Española.
- REY-DEBOVE, J. (1969): “Les relations entre le signe et la chose dans le discours métalinguistique: être, s'appeller, désigner, signifier et se dire”, *Travaux de Linguistique et de Litterature*, 7(1), 113-129.
- REY-DEBOVE, J. (1971): *Étude linguistique et sémiotique des dictionnaires français contemporains*, The Hague-Paris: Mouton.
- SECO, M. (1978): “Problemas formales de la definición lexicográfica”, *Estudios ofrecidos a Emilio Alarcos Llorach (con motivo de sus XXV años de docencia en la Universidad de Oviedo)*, II., Oviedo: Universidad de Oviedo, 217-239.
- TRIMBLE, L. (1985): *English for Science and Technology. A Discourse Approach*, Cambridge: Cambridge University Press.

CORPUS AIPATUAK ETA LABURDURAK

- AUMONT, J. (2005): *Irudia*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. Aipamen laburtua: *IRUDIA*
Ereduzko prosa gaur corpusa: <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/> Aipamen laburtua: *EPG*
- IXA TALDEA; ELHUYAR FUNDAZIOA: *Zientzia eta Teknologiaren Corpusa* in <http://www.ztcorpusa.net> Aipamen laburtua: *ZTC*.
- JIMÉNEZ, A. (argitaratzekoa): *Propedeutika*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua Aipamen laburtua: *PROP*
- PARICIO, I. (2005): *Arkitekturaren eraikuntza*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. Aipamen laburtua: *ARKIT*

TXONTAK ETA TXOLARREAK: GOGOETA BAT EREDUZKO PROSA ZIENTIFIKOAREN GAINEAN

Kepa Altonaga.

Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia Saila. Zientzia eta Teknologia Fakultatea.

EHU/UPV.

Hiru urratsetan beteko dut komunikazio honen ekarpena. Lehenengo eta behin, prosa zientifikoaren kanonaz mintzatuko gara, baina ez ikuspegi teoriko batetik abiatuta, benetako adibideetan oinarrituta baino. Hainbat argibide lortuko ditugu era horretara. Bigarren urrats batean euskararen baratzera ekarriko dugu autua, eta hor ere zenbait adibide azalduko ditugu kanonaz eta kanonetik urruntzeaz. Azkenik, hirugarren urrats batean eztabaida planteatuko dugu, eztabaida esplizitua. Hau da, fakultateetako karraju eta korridoreetatik mahai gainera eraman behar da kontua, ezin da-eta hizkuntza-politika unilateralki markatu, edo bai?

1.- TXONTAK ETA TXOLARREAK: HIZKERA ZIENTIFIKOAREN KANONAZ

Abiapuntuan Stephen Jay Gouldi irakurritako iritzi bat aldatuko dut hona, alegia, “saiakera zientifikoa literatur generoa da, tipia, baina zahar eta ohoragarria”¹ (Gould 1995: xii). Ez da lehen aldia esaldi horretaz baliatu izan naizela euskarazko prosa zientifikoari buruzko gogoetei hasiera emateko. Izatez hirugarrena da. Eta aurreko biak gogorarazi gura ditut, ze, gaurkoan aipatuko ditudan hainbat kontuk aurreko horietan dituzte oinarriak eta osagarriak. Lehenengoa, “Saiakera zientifikoa idazteko abiapuntu bat” (Altonaga 2002), eta, “Adostutako eredu baten bila (edo *amaigabeko eztabaida aspergarria* gainditu guran)” (Altonaga 2005) bigarrena. Nolanahi, Stephen Jay Goulden arrastoan joango naiz, eta zientzia-idazle handi horrek hain maite zuen Darwin hartuko dut adibide.

¹ “...the little, but old and honorable, literary genre of the scientific essay”.

Denok ezagutzen dugu Darwin gainez gain bada ere. Eta besteak beste, denok daukagu haren bost urteko periploaren berri, Beagle itsasontziarekin. Izatez, Hegoamerikako kostaldea kartografiatzen aritu ziren gehien bat, baina, mitiko bihurtu da Galapago irletako egotaldi laburra. Esaterako oso ospetsua da Charles irlako kartzelako zuzendariaren episodioa. Bai, Darwini esan ziola dortokaren oskola ikusitakoan bazekiela dortoka konkretu hori zein irlatakoa zen. Bide batez esateko, eta ura gure errotarantz bideratuz, aipatu egingo dut Charles irla horrek bazuela beste izen bat, Floreana, eta izan ere, irla horrek jabe euskalduna izan zuela, Leon Uthurburu, eta berorrek, hil zenean, Barkoxeko herriari jarauntsi ziola. Bide batez esateko ere, Floreana irla horretan gaur egun ez da dortokarik gelditzen.

Kontua da harrigarria egin zitzaidala Darwinen bidaiaren liburua irakurtzea (Darwin 1839a). Darwinena ez zen izan gainerako bidaien modukoa, inoiz azpimarratu denez. Edozelan ere, nik neuk puntu bakarra ekarriko dut hona. Hain zuzen, Galapago irletako fauna deskribatzen ari dela, eta bertan aurkituriko hegaztiak zehazki zerrendatzen ari dela, zera irakurri nuen gaztelaniazko itzulpenean:

[...] Los otros pájaros terrestres forman un grupo muy especial de gorriones que se parecen entre sí por la conformación de los picos, por la cola corta, la forma del cuerpo y del plumaje. Hay trece especies que... (Darwin 1839a: 188).

Eta lerro batzuk geroago: “pero todas las otras especies de este grupo de gorriones...” (Darwin 1839a: 189).

Utz dezagun aparte horko “pájaros terrestres” hori, izatez, “aves terrestres” izan beharko litzatekeela. Baina hor “gorriones” irakurtzea guztiz irrigarria suertatu zitzaidan lehendabizikoan, eta bigarrenez ere topo egin nuenean “gorriones” horrekin, ezin sinetsizkoa begitandu zitzaidan.

Zergatik sinestezin? Bada, karrera osoan zehar behin eta berriro errepikatu zitzaigulako, Galapago irletan Darwinek “pinzones” aurkitu zituela, ez “gorriones”, berriro diotsuet, “pinzones”, ezen ez “gorriones”.

Kontuak badu bere transzendentzia, zeren-eta, omen, Galapago irletako txori-aldra horrek ulertarazi baitzion Darwini eboluzioaren zer-nolakoa. Hau da, Damaskorako bidean San Pauloren antzera, Darwinek Galapago irletan ikusi zuen argia, edo, hobeto, delako txori horiek ikusi zituen, eta eboluzioaren egiaz kargutu ei zen. Eta izan ere, hain munta handikoa izan zen behaketa hori, gerora biologoen artean “pinzones de Darwin” esango zitzaiela Galapago irletako txori erabakigarri haiei.

Ez dago esan beharrik, biologia-ikasketak egitean guk geuk ere makina bat biderrez egin genuen topo zorioneko txoritxo horiekaz, beti ere, hori bai, “pinzones” edo “pinzones de Darwin” gisa aurkezten zizkigutelarik. Alegia, giro akademikoan “pinzones” zen gaztelaniazko denominazio kanonikoa.

Alabaina, erdaraz ikasitako “pinzones” hori, Charles Darwinek berak zelan izendatu zuen? Jatorrizko testuan arakatuz gero, “finches” eta “finches” aurkituko dugu:

The remaining land-birds form a most singular group of *finches*, related to each other in the structure of their beaks, short tails, form of body and plumage: there are thirteen species, which ... [...] ...but all the other species of this group of *finches*... (Darwin 1839b)

Webster hiztegian bilatuz (Webster 1983), “finch” delako hori txori kantari txikia dela jakingo dugu, Fringillidae familiakoa, beste hainbat txori-espezie diren bezala, hala nola “sparrow” delakoa². Eta datuok zehatz-mehatz lotuz, Morrisek (1998) esango digu “finch” *txonta* dela, eta bai “sparrow” *txolarrea* dela.

Hau da, jatorrizkoan “finch” egon den tokian gaztelaniazko kanonerako “pinzón” izan da ohiko ordaina. Hortik dator guk fakultatean-eta erdaraz beti “pinzones de Darwin” entzutea, eta aitzitik “gorriones” hain sinsorgo iruditzea, azken batean, *Darwinen txontak* hobestea eta *txolarreak* baztertzea. Jakina, kontuaren azalpenean urrunago joan gintezke, baina hementxe utziko dugu txonta eta txolarren adibidea, larregi ez luzatzeko.

² **Finch**, *n.* [ME. *finch*, *fynch*; AS. *finc*, a finch.] any of a large group of small singing birds forming the family Fringillidae, which includes the bunting, canary, cardinal, sparrow, etc. It is often used in compounds to form the names of various fringillinae birds; as, bull *finch*, pine *finch*, gold *finch*, chaf *finch*, etc.

Esparru teknikoetatik aldenduta ere igar daiteke batzuetan kanon baten garrantzia. Darwinen bidaiarekin bezala, beste bidaia literario batean murgildu nintzen aspaldi, Marcel Prousten *En busca del tiempo perdidon* barrena, batez ere ea madalenaren ipuina benetakoa zen egiaztatzeko. Irakurketa horretan aurrera noala, halako batean, bigarren tomoan, nire belarrietarako oso-oso estridentea suertatu zen kanon-urraketa batekin egin nuen topo. Alegia, Prousten digresio luuuze baten barruan, kontatzen ari zena argitu aldera, Proustek simil botaniko batera jo zuen:

[...] Hasta mentalmente dependemos de las leyes naturales mucho más de lo que nos figuramos, y nuestra alma posee por anticipado, como una criptógama o gramínea determinada, las particularidades que se nos antojan escogidas por nosotros [...]. Y puede ser que [...] tanto las ideas de que vivimos como la enfermedad de la que morimos nos vengan de familia, como a las plantas amariposadas la forma de su simiente. (Proust 1919a: 529)

Egia esateko, “criptógama” eta “gramínea” irakurri ostean, “planta amariposada” zen, hor, gutxien espero nuena. Jakina, kanonak aurreko adibide teknikoan “pinzones” eskatzen zuen gisa berean, oraingo honetan “plantas amariposadas” barik “papillonáceas” da hor agertu beharreko berba.

Kontua ez da nik neuk horrela deritzodala, kontua da kanonak berak dakarrela berez hor “papillonácea” jartzea, eta, zer esanik ez, Marcel Proustek bazekien hori, eta Proustek *papillonacées*³ idatzi zuen jatorrizkoan (Proust 1919b). Hau da, gaztelaniazko itzulpenean harrapatutako kanon-urraketa ez dago jatorrizkoan. Urraketa horren zergatikoa, beharbada, Consuelo Berges itzultzailearen hitzotan atzemango dugu:

Declaro, pues, valientemente y sea lo que Dios quiera, que en mi traducción –en ésta y en todas– he perseguido la belleza, la belleza li-te-ra-ria de

³ [...] Même mentalement, nous dépendons des lois naturelles beaucoup plus que nous ne croyons et notre esprit possède d'avance comme certain cryptogame, comme telle graminée, les particularités que nous croyons choisir. [...] Et peut-être, alors que les unes nous paraissent le résultat d'une délibération, les autres d'une imprudence dans notre hygiène, tenons-nous de notre famille, comme les *papillonacées* la forme de leur graine, aussi bien les idées dont nous vivons que la maladie dont nous mourrons.

mi idioma castellano. Para lo cual, inevitablemente, obviamente, he tenido que dejar a los franceses la belleza del idioma francés. (Berges 1974: 48)

Eta bestetzuotan:

[...] traducir bien no es [...] yuxtaponer sobre las palabras extranjeras, y en su mismo orden, unas palabras nuestras que los diccionarios dan como equivalentes, y ya está. (Berges 1974: 44)

Edo beste era batera adierazita, itzultzaileak, azken batean, ez du jatorrizkoa itzuli, aitzitik, ahalegindu egin da itzulpena ematen ustez Proustek berak gaztelaniaz idatziko zukeen bezala. Eta, jakina, itzultzailearen begietan “papillonáceas” frantseskada arbuiagarria zelarik, “plantas amariposadas” horrek habi beroa egin zuen gaztelaniazko bertsioan. Kontua da, baina, Proustek teknolektora jo zuela, eta frantsesez bezala gaztelaniak ere “papillonáceas” beharko lukeela kanona betetzekotan.

Xehetasun txiki bat erantsi beharrea nago. Consuelo Bergesek *En busca del tiempo perdidoren* lau tomo itzuli bazituen ere, gure adibiderako erabili dugun pasartea bigarren liburukoa izan da, hau da, Pedro Salinasen eskutikoa izan da, eta ez Bergesena. Ez dut uste, alabaina, horrek indar handirik kentzen dionik erabili dudun planteamentuari.

Esan gabe doa, jarrera horrek makina bat desmasia ekar ditzake. Esate baterako, Lewis Carrollen *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* liburu ospetsuaren asturierazko bertsioan kroketean barik boloetara jokatzen dute protagonistek: jatorrizkoan zortzigarren kapitulua “erreginaren krocket-zelaian” gertatzen bada ere, asturierazko itzultzaileak nahiago izan du erreginaren *bolatokian* kokatzea, eta hori dela-eta zenbait egokitzapen sartu behar izan ditu. Ohar batean adierazten du aldaketa liburu-amaieran:

Nel textu inglés, la reina y los sos convidaos xueguen al *croquet*. El fechu de traducir la partida de croquet por una partida de bolos nun afecta gran cosa al textu. (Carroll 1865: 138)

Ez noa eztabaidatzera norainoko garrantzia duen aldaketa horrek, baina, nire iritzian ez da gauza bera ingelesezko jatorrizkoan aurkitzea hain aristokratikoa den kroketa, eta itzulpenean abarkadunen edozein joko. Nolanahi, asturierazko edizioaren atzeko azalean ondokoa irakur daiteke besteak beste: “La versión de Xilberto Llano nun quier ser una mera traducción literal, polo que tien siempre presentes el contextu y la clave d’humor asturianos”. Nahikoa esanguratsu iruditzen zait.

2.- KANONA EUSKARAZKO PROSA ZIENTIFIKOAN

Euskararen alorrera pasatzeko ere, Charles Darwinen liburu bat erabiliko dugu, *Espezieen jatorria*, hain zuzen ere (1859). Klasiko horren euskal itzulpenean ere badago zer-aipatu franko hemen darabilgun ikuspegitik, baina bizpahiru oharretara mugatuko dugu oraingo hau. Esaterako, Darwinen txontak, zorionez, txontak dira euskal bertsoan, eta, kasurako, hautespen naturalari hautespen natural esaten zaio. Baina, bestalde, “struggle for life” klixex famatuaren ordean, ez duzu kanonikoa den “bizitzagatik burruka” aurkituko, beste ordain bat baino.

Euskararen alorrean gaudelarik, aipamen txiki bat egin gura diot Primo Leviren (1975) *Sistema Periodikoa* liburu atseginari, gogorarazteko “Saiakera zientifikoa idazteko abiapuntu bat” (Altonaga 2002) hitzaldian azpimarratu nuela kanonaren garrantzia, eta hain zuzen adibide horretaz baliatu izan nintzela erakusteko prosa zientifikoaren kanona ezinbestekoa dela, bai prosa zientifikoa idazteko, jakina, eta bai, halaber, idazlan literarioetarako. Izan ere, *Sistema Periodikoa* horretan Primo Levik bere bizitzagaz batera kimikarien jardunbidea kontatu nahi du, eta, zer esanik ez, sarritan kimikarien txostenetako hizkeraz baliatzen da narrazioan zehar. Areago, ematen du irakurle ideal gisara kimikari bat begietaratu duela.

Ba, hala eta guztiz ere, euskarazko bertsoan kimikarien hizkera kanonikoa oso oso nekez ezagutuko dugu orrialdeak irakurri ahala (Altonaga 2002: 148). Alde horretatik, euskarazko *Sistema Periodikoa* nahikoa irreal gelditzen da. Euskal kimikarien prosaren fisionomiatik aldentzeak sinesgarritasuna lapurtu dio euskarazko itzulpenari, eta zientzietako irakurleak irrealtasuna edota demaseko urruntasuna aurkitzen dio.

Hona ekarri gura dudan hurrengo adibidea François Jacob-en *Sagua, eulia eta gizakia da* (Jacob 1997a), ZIO bilduma barruan Juan Garziak euskaratu duena. Asko poztu nintzen jakitean bilduma horren barruko bigarren titulua François Jacob-ena zela. Izatez, irakurriak eta disfrutatuak nituen askoz lehenagotik bai *La lógica de lo viviente* (Jacob 1970) eta bai *El juego de lo posible* ere (Jacob 1981), eta hain interesgarri suertatu zitzaizkidan, nire artikuluko baterako abiapuntu eta iturri bibliografiko nagusi izan zirela (Altonaga 1984).

Hortaz, gogo handiz koiu nuen liburua, François Jacobekin une atseginak bizitzeko esperantzarekin. Banuen ere itzulpena kuxkuxeatzeko gura. *A posteriori* esango dut, itzulpenaren bitxiak behin eta berriro desbideratu du nire arreta, liburuaren mamiaren kalte.

Eta hori zergatik? Ba kontu batzuk egon direlako, orrialde batean bai eta hurrengoan ere bai agertu izan direnak atergabe, nire ustez itzulpena lorrindu egin dutenak. Lau ataletan sailkatu ditut.

Badago lehen arazo bat lexikoarekin zerikusia duena. Ikus dezagun.

Makina bat hitz aurkituko dituzue indarrean dabilen kanonarekin bat ez datozenak. Esate baterako, *ondoretasuna*. Jakina, ezinbestekoa da “herentzia” agertzea liburu batean, genetika, ingeniari-tza genetikoa edota klonazioa direnean gai nagusi. Alabaina, ZIO bildumako bertsioan “herentzia” ez duzu behin ere topatuko, zeren “ondoretasun” delakoak ordeztu baitu erabat, hau da, ezabatu egin du.

Nola liteke hori? Egin dezagun azterketa arin bat. Orotariko hiztegiak badakartza biak, bai “ondoretasun” (Mitxelena 2001: 350) eta bai “herentzia” ere (Mitxelena 1992: 17). Hiztegi Batuak ere “herentzia” onartuta dauka⁴. Ikus dezagun orain Zientzia eta Teknologiaren Corpusak zer dioskun: “ondoretasun” behin ere ez da erabili⁵ eta argi

⁴ <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua/bilatu.asp?sarrera=herentzia&x=16&y=14>

⁵ <http://www.ztcorpua.net/cgi-bin/kontsulta.py>

dago kanonikoa “herentzia” dela⁶, berrehun eta hirurogeita sei agerpenekin, eurotariko berrehun eta hogeia “biziaren zientziak” alorrean.

Nola liteke, orduan, ba, eredugarritzat jotzea ondoretasun? Lan-hipotesi modura aipatuko dut: badirudi Zehazki hiztegia erabiltzeak (Sarasola 2005) baduela zerikusirik erabaki horrekin. Bai, baldin eta bazoaz horko “herencia” sarrerara, zera aurkituko duzu guri dagokigula: “3 BIOL ondoretasun: *la herencia genética*, ondoretasun genetikoa” (Sarasola 2005: 456).

“Nukleo” da lexiko kanonikoaren ordezenaren beste biktima bat. Datu sumario batzuk arin aurkeztuz, aipatuko dugu Hiztegi Batuak jasota duela “nukleo”⁷ eta Zientzia eta Teknologiaren Corpusean⁸ 1380 aipu dituela, “biziaren zientziak” alorrean 624. Zer esanik ez, “gune” ere topatuko duzu datu-banku horretan⁹, hain zuzen 1921 aipu eta horietariko 795 natur zientzietakoak, baina banan-banan arakatzuz gero, argi ikusiko dugu zelularen egitura jakin hori izendatzeko izan beharrean, “zona” edo “alde” esangurarekin datoz jasotako adibide guztiak.

Kasu horretan ere, badirudi, Zehazki hiztegia begiratzeak argitu diezaigukeela aukera lexikal horren zergatikoa, izan ere, “núcleo” begiratzuz, “5 (*de célula*) nukleo, gune” aurkituko duzu (Sarasola 2005: 618).

Ikus dezagun hirugarren adibide bat. Hobatsi den “eragin-truke” delakoak ez du inolako agerpenik, ez Mitxelenarenean, ez Hiztegi Batuan eta ezta ere Zientzia eta Teknologiaren Corpusean. Oстера, “elkarrekintza” berbaren kasuan, Mitxelenarenak eta Hiztegi Batuak jaso ez arren, Zientzia eta Teknologiaren Corpusean¹⁰ 515 aipu agertzen dira denetara, eta eurotariko 121 natur zientzietan. Eta berriro ere, Zehazki hiztegiak badakar itzulpenetarako erabili den “eragin-truke” ezezagun hori (Sarasola 2005: 502).

⁶ <http://www.ztcorpUSA.net/cgi-bin/kontsulta.py>

⁷ <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua/bilatu.asp?sarrera=nukleo&x=18&y=14>

⁸ <http://www.ztcorpUSA.net/cgi-bin/kontsulta.py>

⁹ <http://www.ztcorpUSA.net/cgi-bin/kontsulta.py>

¹⁰ <http://www.ztcorpUSA.net/cgi-bin/kontsulta.py>

Kontua ilustratzeko hemen hiru adibide besterik erakutsi ez baditugu ere, makina bat dira era horretara baztertutako termino kanonikoak: andui, unizelular, multizelular, ftohartzaile, oreka taiduna, sentimen, kultibo, itu, DNA, RNA, eukarioto, irradiazio...

Hau da, datuotan erreparatuta oker egoteko beldur handi barik esan daiteke hor garbiketa-lan planifikatu bat egon dela.

Badago, bestalde, bigarren arazo orokor bat, *Sagua, eulia eta gizakia* liburuan alderik alde hegaldatzen dena, eta da marraren erabilera. Denok ezagutzen dugu norainoko gaitasun desanbiguatzaila duen marrak eta zelako laguntzaile ona izaten den. Aspaldi baten aita Villasanteri irakurritako adibidea ezin argiagoa zen hori ulertarazteko: jakina, ez dira gauza bera “emakume sendagilea” eta “emakume-sendagilea”. Alabaina, marraren eraginkortasun desanbiguatzaila maximoa izan dadin, marraren erabilerak guztiz koherentea izan behar du idazlanean zehar, bestela irakurleak ez du jakingo zehatz-mehatz zein terreno zapaltzen ari den. Alde horretatik, liburuak ez du irakurketa sosegatua errazten, zeren-eta, marraren faltaz behin baino gehiagotan atzera itzuli behar izan duzunez benetako esanguraz jabetzeko, hirugarrenetik aurrera prebentzioz beterik segituko baituzu.

Besteak beste, adibide-sorta bi erakutsiko ditut, *Sagua, eulia eta gizakia* liburuan han-hemenka hainbatetan aurkitutako kasuokin osotuak:

Gene-adierazpen	Gene mota
Gene-bilduma	
Gene-bloke	
Gene-egitura	
Gene-familia	
Gene-funts	
Gene-mutazio	
Gene segmentu	
Gene multzo	
Gene sorta	
Gene sail	

Zutabe biok ikusita nekez asmatuko dugu zergatik batzuek marra merezi duten eta besteok ez. Askoz nabarmenago suertatzen da asistematizazio hori lerro berean elkarren ondoan posibilitate biak doazenean:

...eragiketa-modulu konplexuak determinatzen dituzten gene segmentuak edo gene-blokeak... (Jacob 1997a: 112-113)

Ba al dago araurik? Zein da araua?

Anabasa bera erakutsiko digu beste adibide-sorta honek:

ADN puska

ADN sekuentzia (161)

ADN-sekuentzia (131, 136)

ADN molekula

ADN kantitate

ADN zati

ADN segmentu

ADN-eskualde

ADN-zunda

edota beste pare honek:

Entzefalizazio-urratsa (Jacob 1997a: 183)

Irudimen fasea (Jacob 1997a: 185)

Areago, konposizio arruntetik haratagoko kasuistikan nahasketa handiagoa da: batetik marrarekin idatzita ikusi ditugu esaterako “prototipo-organismo” (127), edo “xede-gene” (63; = itu genea) edota “probeta-haurra” (96); bestetik, marrarik gabe, “eredu segmentu” (62), “fago sistema” (187), “HOM gene” (61), edota “*in vitro* ernalkuntza” (96) ; eta bai ikusi dugu ere eskumako hedapena “sagu inude” (95). Zein ote da, ba, segitu beharreko eredua?

Hirugarren atalera pasatuta, oso nabarmena da euskal itzulpena joera garbizaleegikoa dela sarri askotan. Batzuetan bide teutonizatzailetik (Altonaga 2002: 143; 2005: 79) jotzen du: “bat-

etortze” (171; konbergentzia), “bat-egite” (55; fusioa), “gogo-sua” (83; entusiasmoa), “gogoberotasuna” (52; entusiasmoa), “erronka-jotze” (93; probokazioa), “barne-herstura” (168; antsietatea), “sexugabe” (30; asexuala), “sexu bidezko” (30; sexual), “berdin-peto” (12, 60, 107, 110, 127, 137...; identikoa), “peto-peto” (38, 106, 144, 185...; edozertarako komodin inespezifikoa), “petotasuna” (167; fidelitatea) eta beste hamaika, testu osoan zehar barreiatuta daudenak.

Beste askotan eta askotan perifrasi esplikatiboez baliatzen da, eta era horretara iskin egiten die makina bat berba antipatikori. Hiruzpalau adibide:

Berdinik gabekoa (107): unikoa

Giza adimenaren irismenean dauden (167): inteligiblea

Batek berezko duen izamolde berezi (106): idiosinkratikoa

Ia ukiezin diren (109): intangiblea

Dena dela, beharbada, laugarren puntua da ilustratzeko zailena gertatzen dena, eta da itzulpenerako erabili den sintaxi-moldea. Izan ere, nabarmen urruntzen da jatorrizko testutik behin eta berriro, eta urrundu larregi gainera. Adibide simple bi. Lehenengoa:

Belaunaldi batzuen buruan, argiztapena eta perspektiba, espresioa eta sakontasuna asmatzearen ondorioz, horra margolaritzaren funtzioa bera aldatu. (Jacob 1997a: 166)

Bada, baliabide estilistiko bat erabiltzearen, irakurleari ostu egin zaio informazioa:

En quelques générations, avec l’invention de l’éclairage et de la perspective, de l’expression et de la profondeur, l’Europe modifie la fonction même de la peinture. (Jacob 1997b: 185)

Euskal irakurleak ez du jakingo Europa dela margolaritzaren funtzioa aldatu zuena. Ez da horrelakorik gertatuko gaztelaniaz irakurriz gero:

En unas cuantas generaciones, con la invención del claroscuro y de la perspectiva, de la expresión y de la profundidad, Europa modifica la función misma de la pintura. (Jacob 1997c: 164)

Ingelesez irakurrita ere, jakina, hor aurkituko duzu Europa izan zela margolaritzaren funtzioa eraldatu zuena:

In a few generations, with the invention of light and perspective, of expression and depth, Europe modified the very function of painting. (Jacob 1997d: 128)

Eta hauxe da hona ekarriko dugun bigarren adibidea:

Teoria kuantikoak eta erlatibitatearen teoriak, beren ondorioekin, muturrez mutur jotzen dute denboraz eta espazioaz dugun sen berezkoarekin. (Jacob 1997a: 100-101)

Lehen adibidean bezala, baliabide estilistiko batekin ordaindu da kasu honetan erlatibozko esaldi bat, eta, ondorioz, aldatuta dago jatorrizkoak dioskuna:

La théorie quantique et la théorie de la relativité conduisent à des conclusions qui défient le sens intuitif que nous avons du temps et de l'espace. (Jacob 1997b: 110)

Hau da, konklusioak dira desafio egiten dutenak, eta ez teoriak eurak, euskarazkoan adierazi zaigunez –parte utzita zer ote den “sen berezkoa” (= “sens intuitif “?”)–. Gaztelaniaz ere jatorrizkoaren erlatibozkoa mantendu da, eta, beraz, esangura bera ere gorde da:

La teoría cuántica y la teoría de la relatividad conducen a conclusiones que desafían el sentido intuitivo que tenemos del tiempo y del espacio. (Jacob 1997c: 98)

Eta ingelesez beste horrenbeste:

Quantum theory and the theory of relativity lead to conclusions that contradict our intuitive sense of time and space. (Jacob 1997d: 74)

Jakina, esaldi meheko birekin hemen erakusten ahalegindu naizena askoz korapilotsuagoa suertatzen da *Sagua, eulia eta gizakia* liburuaren testuan zehar. Kontua da, nire ustez, sarri askotan, sarriegitan, demaseko urruntasuna dagoela jatorrizkoaren eta euskarazko bertsioaren artean. Badirudi euskararen ederra erakustea izan dela helburu nagusia itzulpenean eta alboratu egin dela jatorrizkoaren eta euskal bertsioaren arteko itzulgarritasuna. Hau da, euskarazkotik abiatuta

ezinezkoa da asmatzea hor frantsesez zer dagoen. Ez da aintzat hartu euskal bertsoaren homologagarritasuna (Txurruka 2005).

François Jacoben *La Souris, la Mouche et l'Homme*ren eta Juan Garziaren *Sagua, eulia eta gizakiaren* arteko urruntasuna dela-eta, nire ustez pertinentea litzateke Juan Garziaren berba batzuk hona aldatzea:

Dударик gabe, ahalik eta itzulpenik literalena egitea eskatzen du horrelako testu batek, jatorrizkoak dioen huraxe eta ez besterik uler dezan irakurle eta erabiltzaileak. Baina, literaltasun hori erdietsi nahian, gure ahaleginik handiena ez da izan hitza hitzarekin ordaintzea; formari leial izatea baino gehiago, zentzuari leial izatea bilatu dugu. Hitzen gehiegizko morrontzan erori gabe, ideiak doi eta argi eman. (Garzia 2007: 81)

Niri, hitzok lehen aldiz irakurri nituenean, gorago aipatu dugun Consuelo Bergesen itzulpen-filosofia gogorarazi zidaten. Uste dut itzulpen erabat idiosinkratikoa egin digula Juan Garziak. Areago, nire inpresioa da, neurri batean hemen ez dagoela itzulpenik, baizik eta, birkreazio bat, izan ere, ematen du itzultzen barik ahalegindu dela euskaraz sortzen, alegia, idazten François Jacobek euskaraz idatziko zukeen era berean-edo.

Kontua da ezagutzen ditudan biologo euskaldunek ez luketela testu hori era horretara idatziko: ez lukete sintaxi hori erabiliko eta ez lexiko tekniko hori ere. Narrasago egingo luketeela? Bai beharbada, baina homologagarriago ere ezelako duda barik. Esanak esan, ondorio bat: nire ustez, oso zalantzazkoa da *Sagua, eulia eta gizakiaren* eredugarritasuna euskarazko prosa zientifikoaren ikuspegitik.

Labur esateko, nire iritziz Arantzazuko Biltzarretan Mitxelenak aspaldian markaturiko bidetik joan beharko litzateke horrelako itzulpen bat:

7. Egungo prosa, gaiak bereizten ez duenean, ez da hizkuntza batekoa edo batena, nazio-artekoa baizik: B.L. Whorf-ek “standard average European” deitu zuena. Euskal-idazlerik gehienek ere ez dute bestela jokatu. Ezin bazter eta arbuia dezakegu zor diegun hizkuntzaren lantzea, beti irabazle izan ez bagera ere.

8. “Euskal-usaia”, “euskal-kutsua” deritzatena ongi dago, noski, euskal-gaiak darabiltzagunean, Euskal-herriko mendi-giroa irakurleari sumarazi nahi diogunean. Hortik

kanpora, ordea, badirudi ur garbiaren pare behar duela izan behar bezalako prosak: inongo usairik, kolorerik eta zaporerik gabea. Euskal-kutsua badario, barren-muinetarik dario, ez axaleko edergarrietarik. (Mitxelena 1968: 219)

Hau da, Europako hizkuntza guztiek, euskara barne, ba omen dute gauzak adierazteko modu bakarra –“standard average European” delako hori –. Beraz, bada garaia, uste dut, hori aintzat hartzeko eta orain berrogei urteko eztabaida behingoz gainditzeko. Ez dezagun ahaztu, Mitxelenak orduan azaldu zuenez, “latinaren, eta erabat sortaldeko hizkuntzen, kutsua geure bekokian daramagu[la]. Aitor dezagun, onhar dezagun, eta goazen aurrera bide horretatik” (Ikusi aita Villasanteren –1988: 141-154 – “Prosazko tradizio sendo bat osatu beharra” argibide gehiagorako).

3.- KANONA ETA EREDUZKO EUSKARA EHU-KO PLAN GIDARIAN

Eta azkenik, hirugarren urratsa. Honaino iritsita eztabaida planteatu gura dut.

Badakigu. Baten batzuek deliberatu dute oso narrasa dela daukagun kanona, Leioako euskalkia, eta euskarak bestelako *tornuia* merezi duela. Ildo horretatik, ereduazko prosa bat ondu nahian-edo dabilta, eta besteak beste Euskara-Zerbitzuan aurkitu dute eragin dezenteko plataforma bat.

Kontua da Juan Garziak *Sistema Periodikoa* kaleratu zuenean, hor zelan edo halan itzultzaile pribatu baten lana daukagula, eta, iritziak iritzi, ezin dugu iruzkin kritiko batzuk egitetik harantzago joan. Aitzitik, erabat bestelakoa da Juan Garziaren *Sagua, eulia eta gizakia* baldin eta ZIO bilduma baitan badoa, eta, areago, baldin eta Euskal Herriko Unibertsitatearen hizkuntza-politika markatu nahi badu.

Nire argudiaketan inguru-minguruka ez ibiltzeko, hari nagusitik larregi ez urruntzeko, eta eztabaida ondo zentratzeko, gorago aipatu dudan Juan Garziaren artikularen arrastoan joango naiz, eta horko esaldi argigarri askoren artetik, hemen daroagun auturako nire ustez esanguratsu diratekeen bizpahiru aldatuko ditut hona, kontestutik kanpo erabili arren artikuluan bildu dena ahalik eta zintzoen islatzeko. Hortaz, hiru puntu eztabaidagarri aipatu nahi ditut.

Lehen esaldi bat:

Okerreko bidean setatzea litzateke orain zinezko errua, bide horren desegokitasunaz eta kalteez jabetu garelarik (Garzia 2007: 75).

Nire irakurketan, labur esateko eta bestelako komentariotan endredatu barik, orain arteko kanona okerreko bidetik joan dela diosku, eta bai desegoki eta bai, areago, kaltegarria izan dela ere. Neuk jakin gurako nuke zeintzu iturritan oinarritu den, hori peto-peto esateko. Non daude eta nortzuek eginak dira hain arbuio erabateko eta biribila bermatzen duten azterketak?

Nolanahi, ez dago ezer salbatzekorik naufragio orokor horretan? Bada, frogatu gabeko uste hori errekurrentea da artikulu horretan (76, 77, 78, 80, 81 orr.). Hain erraz ahaztu al daiteke daukagun kanona izan dela, prosa zientifikoa idazteko bizi izan dugun eredu-gabezia historikoa gaindituz, joan den mendearen azken laurdenean plasmatutako hizkera-eredua, alegia, unibertsitate-irakasleek-eta beren lana euskaraz egitean garatu eredua, mundu zientifiko-teknologiko berria zehaztasunez azaltzeko gai izan zena? Zientzia-kontuez euskaraz idaztea, hortaz, ohizko bilakatu zen, ez salbuespen mirezgarria. Ehunka orrialde argitaratu dira urtero, eta horrek euskara-molde jakin bat itxuratu du, ez baitira alferrik joan hogeita hamar urte.

Bigarren esaldi bat:

Martxan jarri zenetik, hori izan du Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak kezka nagusietariko bat: espezialitate-hizkeretako eredu egokiak bultzatu beharra, eta itzulpen-plangintza ere asmo horretara bideratu beharra. Aurretik azaltzen ahalegindu garen irizpideok aplikatzen saiatu gara [...] (Garzia 2007: 78)

Labur zurrean, lehenagotik egon den kanona gustukua izan ez, bertan behera utzi, eta “eredu egokiak” bultzatu. Baina, nork erabaki du hori? Norekin kontsultatu du? Non eztabaidatu da arazoa? Ez dakigu ezertxo ere horretaz. Niri, egia esateko, batxilergoan irakatsi ziguten “despotismo ilustratua” ekartzen dit gogora.

Dena dela, azalpenaren zatitxo bat, beharbada, bide honetatik doa:

[...] nola lor ditzakegu emaitza hobeak: abiapuntu txar bat zuzentzen ahaleginduz, ala hartatik atzera egin eta berriro abiatuz? (Garzia 2007: 77).

Eta hirugarren esaldi bat:

Jakina, proposaturiko ereduak talkaren bat egin dezakete, inoiz, aurretik zebiltzan moldeekin, eta tirabiratxo edo gaizki-ulerturen bat gerta liteke tarteka, baina, oro har, han-hemenkako desadostasunen bat gorabehera, alorrean alorreko erabiltzaileek, ulertu, partekatu, eta are eskertu egiten dute ahalegina: izan ere, asmo berean gabiltza guztiok, zein bere gaitasun eta ezagueratik, eta espezialista bera dago ongien kokatua testu-eredu egokien premiaz jabetzeko. (Garzia 2007: 78).

Nire pertzepziotik kontua ez da izan hor zirriborratutakoa bezain zerutiarra, baina tira. Edozelan ere, tirabiratxo, gaizki-ulertu eta desadostasun dira horko gako hitzak: zein da bidea horrelakoak ebazteko gertatzen direnean?

Adibide erreal bat. *Fosilen atarian* (Domènech & Martinell 1996) Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen-zerbitzuak kaleratu zuen 2004. urtean. Liburuaren kredituetan irakur daitekeenez, euskal itzulpenaren antolakuntza eta kudeaketa Euskara-Zerbitzuarena izan zen. Ardurak honelaxe banatu ziren: itzultzaileak Miren Arratibel eta Aintzane Atela; begirale teknikoak Estibaliz Apellaniz eta Xabier Murelaga; eta hizkuntza-begiralea Ibon Sarasola.

Liburu horren euskal bertsioan ere, arestian *Sagua, eulia eta gizakiari* egotzi dizkiodan antzeko arazoak aipa ditzakegu. Esaterako, marraren erabilera urria eta asistematikoa. Zoritxarrez, liburu horretan ere arbuia eta ezabatu da lexiko kanonikoa. Adibide negargarri bat: “kuskubidun” ematea (160. orr. eta hurrengoak), kanonikoa den “bibalbio” beharrea. Lehen bezala aipa ditzaket bataren, hain zuzen bibalbioen kanonikotasuna bai datu-bankuetan¹¹ eta bai Hiztegi Batuan¹², eta kontrara kuskubidunaren absentzia erabatekoa, batean¹³ eta bestean¹⁴, edota jo dezaket kuskubidun horren desegokitasun semantikoa frogatzera: molusku bibalbioen maskorra kuskubiduna da bai, molusku gastropodo batzuen edota molusku errostrokonkio fosilen maskorra den bezalaxe, edota brakiopodoen maskorra den bezalaxe, edota krustazeo ostrakodoen maskorra kuskubiduna den bezalaxe. Horiek horrela direlarik, garbi dago, kuskubidun ez da inondik inora egoki bibalbio termino sistematikoa ordeztuko. Bada, hala ere, itzultzaile eta begirale teknikoen iritziaren kontra, bibalbio baztertu eta kuskubidun irentsi beharra egon da liburua argitaratzekotan. Zelan uler daiteke horrelakorik? Nork erabakitzen du?

¹¹ <http://www.ztcorpUSA.net/cgi-bin/kontsulta.py> : bibalbio terminoaren 36 erregistro.

¹² <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua/bilatu.asp?sarrera=bibalbio&x=39&y=16>

¹³ <http://www.ztcorpUSA.net/cgi-bin/kontsulta.py> : kuskubidun terminoaren 0 erregistro.

¹⁴ <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua/bilatu.asp?sarrera=kuskubidun&x=21&y=17> : kuskubidun ez dago onartuta.

Euskal prosa zientifikoaren garapenean arrotz edota kasurik onenean guztiz periferikoa izan den ikuspegia, nolabait txolarrearen ikuspegia, horixe bera da aspaldi honetan Euskal Herriko Unibertsitatean argitaratzen diren euskarazko idazlanen fisionomia *de facto* markatzen ari dena, txontaren kanona garbiro arbuiauz. Hau da, orain arte soilik kontrajarriak izan diren ikuspegi biok topo egin dute une honetan: oraintsu arte gutxi gorabehera nor bere aldetik ibili dira ikuspegi biok, baina topo eta talka egin dute, bata, UPV/EHUren Euskara-Zerbitzuaz jabetu delarik, besteari bere irizpideak praxian derrigortu gura izan dizkionean. Egoera horrek ezinegon eta haserre franko piztu ditu, baina, itxura batean Euskal Herriko Unibertsitateko Plan Gidariak (Euskara-Errektoreordetza 2007) kontsolidatu egingo du egoera berria, izan ere, bedeinkazioa eman baitio itsu-itsuan txolarrearen ikuspegiari, onartu egiten du-eta “ereduzko” euskara berri horren ondadea, eta era berean txontaren kanona estigmatizatu.

Plan Gidariaren letran *de jure* bilakatu da aspaldi honetan *de facto* gertatu dena:

[...] ardatza nagusia *Zientzia Irakurle Ororentzat (ZIO)* liburu-bilduma izango da. Bildumako liburuetan gaur egungo gai zientifikoak aurkezten dira, zehaztasun zientifikoa eta bizitasun literarioa uztartzen dituen estiloan, eta ereduzkoa izan nahi duen euskarari idatzita. (Euskara-Errektoreordetza 2007: 88)

Uste dut larriegia dela txontaren kanona lurperatzen saiatzea, haren ordez txolarrearena inposatuz. Eztabaida patxadatsua behar da horren gainean. Dagoeneko ezin da saihestu eztabaida esplizitua.

Ondo esandakoak gogoan hartu, eta txarto egon direnak barkatu. Mila esker.

ERREFERENTZIAK:

ALTONAGA, K. (1984): “Biologiako zenbait eredu: artisauarengandik brikolatzailereanaino”, *Elhuyar*, 10, 1, 33-44. Ikus: http://www.elhuyar.com/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-38-04.pdf

ALTONAGA, K. (2002): “Saiakera zientifikoa idazteko abiapuntu bat”, *Ekaia*, 15, 127-149. Ikus: <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/publica/ekaia/ekaia15.pdf>

ALTONAGA, K. (2005): “Adostutako eredu baten bila (edo amaigabeko eztabaida aspergarria gainditu guran)”, in TXURRUKA, J. M. & BARRUTIA, E. (argit.): *Euskera zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologaziora*, 55-153. Mendebalde Kultura Elkarte. Ikus:

<http://www.mendebalde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi141A.pdf>

Ikus baita:

“Zientzia-prosa: hitzartutako eredu baten bila”, in UGARTEBURU, I. & SALABURU, P. (argit.): *Espezialitateko hizkerak eta terminologia II: Euskara estandarra eta espezialitate hizkerak*, 247-275. UPV/EHU. Argitalpen-zerbitzua (2007).

BERGES, C. (1974): “Nota sobre esta edición de *Madame Bovary*”, in FLAUBERT, G.: *Madame Bovary*, 41-49. Alianza Editorial. 493 pp. (1986).

CARROLL, L. (1865): *Alicia nel país de les maravías*. Xilberto Llano trad. Llibros del Pexe. 144 pp. (1989).

DARWIN, C. 1839a. *Viaje de un naturalista alrededor del mundo (tomo II)*. Akal Editor. Madrid. 341 pp. (1983).

DARWIN, C. 1839b. *The Voyage of the Beagle*.

<http://www.zoo.uib.no/classics/darwin/voyage.chap17.txt>

DARWIN, C. (1859): *Espezieen jatorria, hautespen naturalaren bidez*. A. Gabikagogeaskoa itz. Klasikoak. 493 orr. (1994).

DOMÈNECH, R. & J. MARTINELL (1996): *Fosilen atarian*. EHUko argitalpen-zerbitzua. 353 orr. (2004).

EUSKARA ERREKTOREORDETZA (2007): *UPV/EHUko Euskararen Plan Gidaria (2007/08-2011/12)*. Argitalpen-Zerbitzua. 95 orr.

GARZIA GARMENDIA, J. (2007): “Etxea oinarritik hasi beharra: hizkera juridikoa ere euskara da”, in M.J. ARRIETA SAGARNA (koord.): *Hizkuntza, komunikazioaren eta teknologiaren garaian*. 75-83. IVAP/HAEE.

GOULD, S.J. (1995): *Dinosaur in a Haystack. Reflections in Natural History*. Harmony Books, Random House. New York. 480 pp.

JACOB, F. (1970): *La lógica de lo viviente*. Editorial Laia. Barcelona. 352 pp. (1977).

JACOB, F. (1981): *El juego de lo posible*. Editorial Grijalbo. Barcelona. 132 pp. (1982).

JACOB, F. (1997a): *Sagua, eulia eta gizakia*. Juan Garzia Garmendia itz. ZIO bilduma, 2. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 197 orr. (2003).

JACOB, F. (1997b): *La Souris, la Mouche et l'Homme*. Poches Odile Jacob. Paris. 221 pp. (2000).

JACOB, F. (1997c): *El ratón, la mosca y el hombre*. Antoni Martínez Riu itz. Editorial Crítica. 207 pp. (1998).

JACOB, F. (1997d): *Of Flies, Mice and Men*. Giselle Weiss itz. Harvard University Press. 158 pp. (1998).

LEVI, P. (1975): *Sistema periodikoa*. Juan Garzia Garmendia itz. Alberdania, 307 orr. (1998).

MITXELENA, K. (1968): “Joskera”, 218-219, in: *Arantzazuko biltzarrak*. Euskera XIII. Ikus: <ftp://www2.euskaltzaindia.net/euskera/51282.pdf>

- MITXELENA, K. (1992): *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia. VII. Ere-Fa.* Euskaltzaindia. 798 orr.
- MITXELENA, K. (2001): *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia. XIII. Oam-Peb.* Euskaltzaindia. 922 orr.
- MORRIS, M. (1998): *Morris student, euskara-ingelesa ingelesa-euskara.* Klaudio Harluxet Fundazioa & Egunkaria. 1248 orr.
- PROUST, M. (1919a): *En busca del tiempo perdido. 2. A la sombra de las muchachas en flor.* Pedro Salinas trad. Alianza Editorial. 596 pp. (1982).
- PROUST, M. (1919b): *À l'ombre des jeunes filles en fleur.*
<http://ebooks.adelaide.edu.au/p/proust/marcel/p96o/volume3.html>
- SARASOLA, I. (2005): *Zehazki Gaztelania-Euskara Hiztegia Diccionario Castellano-Euskera.* Alberdania. Fundación BBVA. 939 pp.
- TXURRUKA, J.M. (2005): “Euskal hizkera zientifiko-tekniko homologatuaren premia”, in TXURRUKA, J. M. & BARRUTIA, E. (argit.): *Euskera zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologaziora,* 189-293. Mendebalde Kultura Elkarte. Ikus: <http://www.mendebalde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi143A.pdf>
- VILLASANTE, L. (1988): “Prosazko tradizio sendo bat osatu beharra”, 141-154 in: *Euskararen auziaz.* Gráficas Lizarra. 265 orr.
- Webster's New Universal Unabridged Dictionary.* (1983) Deluxe Second Edition. Riverside, New Jersey, U.S.A. Simon & Schuster. 2347 pp.

ESKU-PILOTAKO HIZTEGIA: HITZ BEREZIAK, FRASEOLOGISMOAK ETA ADIERAZPIDEAK

Xabier Altzibar (UPV-EHU)

1. Pilotaren munduko euskal kazetari, kazetarigai, komentarista, irakasle, ikasle, kirol teknikari, itzultzaile eta orohar pilotazaleek eskertuko lukete esku-pilotako hiztegi on bat eskura izatea. Bereziki kazetariak, partidaren berri eman edo kontatzerakoan kontsulta edo erabil lezaketen hiztegi bat. Artikulu honetan nolakoa nahi genukeen hiztegi hori azalduko dugu, Eraskinean erakusburu bat eskainiz.

Pilota hiztegietan bada abiapuntu bat: UZEIren hiztegia (UZEI 1994). Pilotako hitz teknikoaren hiztegia da: hitzak, adieren definizioa, sinonimoak euskaraz eta baliokideak gazteleraz, frantsesez eta ingelesez, UZEIren EUSKALTERM hiztegietan ohi bezala. Sarreran, J. Agirrek dioenez,

pilota praktikatzen dutenei dago zuzendua, batipat: kirolari eta teknikoei. Baina baita terminologia hori euren eguneroko ihardunean laneko tresna bezala behar dutenei ere: kiroleko kazetari eta esatariei, interpretari eta itzultzaileei, etab. Azkenik, baita kirolzaletuei eta jende guztiari ere. (10).

Hiztegi honek batez ere plekako jokokoak hartzen ditu (esku-pilota ez ezik pala, xistera, erremontea), gutxiago erreboteko jokokoak. Orotara 379 kontzeptu plekakoak eta 30 baizik ez errebotekoak, azken hauek definizio gabe.

UZEIren hiztegiak hitz tekniko edo bereziak biltzen ditu. Ordea, kazetarigai eta kazetariak hiztegi osoago bat nahi lukete, esku-pilotako hitz tekniko edo hitz berezi hutsak ez ezik esapideak eta adierazpideak bilduko lituzkeena, bereziki pilota munduko jendearenak, komentaristenak eta kazetariarenak, partidak kontatzerakoan erabiliak edo erabilgarri direnak. Hain zuzen, horretan zulo handia dagoela uste dugu aipatu hiztegian, hizkuntza bizia agertzen den eremuan.

2. Beraz uste dugu esku-pilota arloko hitz bereziak edo teknikoak finkatzeko ahaleginarekin batera, esamoldeak, formula, esaera eta adierazpideak biltzea komeni dela, egunen batez hiztegi seguruago eta osoagoa izan dezagun. Zergatik osoagoa?

2.1. UZEIren definizioak, batzuetan, ez direlako hitzen adiera guztienak edo garrantzitsu zenbaitenak. Adib., *joko* “Jokatzearen ekintza eta ondorioa. Zehazkiago esateko, pilota jokoa” (UZEI 1994:47). Hor beste adiera batzuk falta dira: 1. (=Pilota joko). Pilota-jokoa; Pilotako joko edo jolasa. 2. “Pilota joko batzuetako partida banatzen den zati bakoitza.” (Sarasola 2007). 3. Pilotan jokatzen den tokia. 3. *Jokoan (egon, izan)*: jokoaldi/joko-puntu/forma onean. 4. Dirua jokatzea. Gure erakusburuko *abiada/abiadura* hitzek ere bi esanahi dituzte: 1. Lastertasuna. 2.

Jokalariaren abiatzea edo higitzen hasia pilotara hurbiltzeko. UZEIren hiztegian lehenaren bigarren adiera jasotzen da huts-hutsik, bigarren hitza ez da ageri.

2.2. UZEIren hiztegian (1994) hitz eta adierazpide franko ez datozelako. Adibidez: *forma(n) izan* edo hori adierazteko hainbat sinonimo (*gorputz/gorputzeko*)aldi on, sasoi on/bete, trenpu, fleit(ean) etab.; (*Pilotaria*) jarri, ongi/gaizki jarri; *partida hautsi*; *pilota bildu/ibili/kendu* etab.

UZEIk (1994) esamolde edo adierazpide gutxi biltzen ditu, adib. kiroletako hitz orokorrenak (*irabazi, galdu, jokatu, lehiatu...*), edo hitz tekniko batzuenak (adib., pilota motak, edo pilotari baten gaiak edo kondizioak, kalitateak eta jokatzeko modua adierazten dutenak). Kontuan hartzekoa da, baina, UZEIrena 1994koa dela eta geroztik urak bide egin duela eta pilota kronikalariek ere bai.

3. Egun erabiliak diren hitz, esapide, esaera eta adierazpideak bilduko dituen hiztegi bat behar genuke.

3.1. Euskalki desberdinetan erabiliak diren hitzena eta beraz baliagarria Hegoaldean nahiz Iparraldean. Iparraldeko hitzik gutxi ageri da UZEIn (zergatik hiztegiak Hegoalderako baizik ez?). Adib.: *aitzina(ldia) (hartu)* edo mendebaleko *aurre(a) (hartu)*. Hitz batzuek forma desberdinak dituzte: (pilotari) *segurua* (Heg.), *segura* (Ipar.), oraindik bateratu gabe, ustez.

3.2. Sinonimoak garbi erakutsiko dituen, kazetariak edo dena delakoak entzule edo irakurleei begira aukeratu ditzan. Izan ere, hitz berezi edo tekniko gehienek ere bizpahiru sinonimo dituzte, euskalki edo eskualde desberdinetakoak: adib., *bote/punpa/jagi* (Bizk.); *pilotaren/aire(aren) bila joan / pilota/aire topetan joan* (Bizk.); *tanto/kintze* (Ipar.). Beraz euskalki, eskualde eta herrietakoei ere toki egingo dien hiztegia.

3.3. Batez ere erabilera desberdinak jasoko dituen, hizkuntza mailei eta erregistroei dagokienez, horiek bereiziz. Ohargarria da pilotariak edo pilotari izaniko komentariak edo adituek (esku-pilota, zesta-punta nahiz erremontekoei, eta euskalki desberdinetakoak, ETB1en ikus eta entzun daitekeenez) kirol horretan usatutako hitzak darabiltzatela, ez euskara jasokotzat hartzen direnak. Eta haien ondoan partida kontatzen ari diren kazetariak, ordea, euskara jasoagokotzat hartzen direnak. Adib. (alfabetoaren hurrenkeran): *pilota arrimatu* vs *baztertu*; hankak *asentatu* vs hankak *finkatu*; *atakatu* vs *eraso*; *partiduari belozidade handia eman* vs *partidari abiada / abiadura handia eman*; *botilero* vs *aholkulari*; *brillu handiko tantoa* vs *distira handiko tantoa*; *dominatu* vs *menderatu*, *mendean hartu*, *menean eduki*, *agindu*; *entregatu* vs *eskura eman*; *erregalua egin* vs *oparia egin*; *engantxatu* vs *katigatu*; *kontrario* vs *aurkari*; *korredore* vs *artekari*; *kortada* vs *ebaki*, *moztu*; *lezioa eman* vs *erakustaldia eman*; *mano mano* vs *buruz buru*; (pilotari) *manomanista* vs *esku-huskalari* (gutxi erabilia); *pilotazo* vs *pilotakada*.

Lehenik hitzak bildu egin behar dira eta beraz batez ere hiztegi deskriptiboa behar genuke, sinonimoak eta aldaerak batzuk besteen ondoan ezarriz, agian erabilienak nabarmenduz. Gero, hitz batzuetan, hizkuntza maila adieraztea komeni da, nahiz zalantzak egon daitezkeen: (*Beh.*) laburduraz (Beheko maila adierazteko) markatu behar ote dira aipatu zerrendako lehen aldaerak (*arrimatu* etab.), pilotari munduan hala erabiliak izanik? Euskara jaso edo goiko mailakotzat hartzen ditugun horietako zenbaitek (*aholkulari, artekari, aurkari, eskura eman, oparia egin...*) ez ote dute euskara idatzizkoaren edo hein bat urrunekoaren usainik, batez ere mintzabidezko kazetaritzan (irratian, telebistan)?

3.4. Esamolde, esaera eta adierazpide berriak aintzat hartuko dituenak. Hainbat sortu baitira, ia beti gaztelaniaren eraginez: *bizkarra erakutsi, diferentzia markatu, erakustaldia eman, ikuskizuna eman, markagailuan alderik ez (egon), partida irekia da / partida irekita dago*. Hitz eta adierazpide berri baina erabili batzuei buruz gogoeta egitea komeni da: *piloteo, piloteatu, piloteoari eutsi, piloteoan nagusitu*.

Ordea, hitz edo adierazpide berri zenbait, beharrik gabe asmatuak (orain arte beste batzuk erabili baitira), ez dira orain arte eta orain ere erabilien eretzean hobesteko modukoak. Adib.: pilotakada/pilota *buelatu* (orain arte: *ekarri/eraman/jaso/errestatu/heldu/bildu/oneratu* etab.). Edo *abantaila mantendu*, Hegoaldeko kirol kronika zenbaitetan agertzen dena, Iparraldean *abantaila atxiki* egonik, hau baita hobestekoa (zenbaitek *abantaila eduki* ere badarabilte).

3.5. Hitzen esanahi desberdinak zehaztuko dituenak. Aipatu dugu nola *joko* eta abiada/abiadura hitzek esanahi bat baino gehiago duten, adierazi beharrekoak.

3.6. Adibideak jarriko dituenak: adibide gutxi eta argiak baina dokumentatuak. Ohargarria da UZEIren hiztegiak (1994) ez duela iturrien berririk ematen, ez kazetaritzako testurik ez idazleenik aipatzen, ezta adibiderik jartzen. Gure erakusburuko adibide batzuk ETB1ekoak dira, pilota-partidetan kazetari eta komentariak ohikoek (Euzkitze, J. Tolosa) erabiliak; beste batzuk *Berria* eta *Herria*-koak (zenbait, Ereduzko Prosa Gaur-etik hartuak); *Herria*-ko adibide gehienak Bego sinatzailearenak dira (E. Larre), “Pilota” sailekoak.

4. Iturriak arakatu behar dira, esku-pilotako hiztegi on bat egin nahi bada.

4.1. Hiztegiak eta fraseologia bildumak (DGV-OEH; Mokoroa, 1990).

4.2. Orain baino lehenagokoak, idatzizko euskararen ageri direnak: bai literarioak bai kazetetakoak. Lehenbizikoen artean bertso eta kantuetakoak, Hiribarren, Zaldubi, J. Etxepare, J. Elizalde, Zubiri-Manezaundi, Basarri,... Hitzak ez ezik esamoldeak, esaerak eta adierazmoldeak, horiek ez baititu OEHK beti biltzen. Eta batez ere kazetetakoak (*Eskualduna, Zeruko Argia* etab.). Lehenago hitz eta fraseologismoak oraingoan erreferentzia dira eta baliagarri, oraingoekin bat datozen ber.

4.3. Batez ere oraingo hedabideetakoak, aditu, komentarista, kazetari, ikertzaile eta idazleek erabiliak, ahoz nahiz idatziz: ETB1, Euskadi Irratia, *Berria*, *Herria*, *Gara* etab. Erderazko hedabideetakoak ere, askotan euskaldun kazetari edo adituenak, erreferentzia izan daitezke.

5. Ohargarri da kazetarien eta komentaristen artean aldea dagoela batzuen eta besteen erabileran. Kazetarien (kronikalarien) eta komentarista adituen artean aldea nabarmena da generoari eta egitekoari dagokionez, kazetariak kontatu egiten baitute eta komentaristek iruzkinak egin. Halaber pilotako hizkerari dagokionez, askotan kazetariak hitz tekniko edo berezi zehatzagoak erabiltzen baitituzte eta komentaristek adierazpide arruntki korritzen dutenak. Orobat, hizkuntza-mailari dagokionez, kazetariak hizkuntza mailaz jasoagoak eta komentaristek pilotarien artekoagoak edo lagunartekoagoak. Esandakoa garbi ikus daiteke ETB1eko pilota partidak ikus eta entzunez, esku-pilota, xistera nahiz erremontekoak. Estilo aldetik ere, batez ere kazetari gazteek, izen-estiloa edo nominalizazioa erabiltzeko joera dute, eta lehenagokoek edo komentaristek aditz-estiloa.

Kazetarien artean ere aldea egon daiteke, hitz eta fraseologismoen erabilerari dagokionez, bat-batean kontatu behar dutenen eta idazteko denpora pixka bat badutenen artean, azken hauek kontatera apaindu baitezakete irudiz, hitzez eta hotsez, are gehiago astekari batean idazten dutenek. Hauetako batzuek kontatera tekniko hutsa baino maiteago dute kronika literarioaren itxurakoa (aditz-estiloa, aditzaren elipsia etab.). Esandakoaren erakusgarri, konpara bitez Hegoaldeko egunkarietako pilota-kronikalariak *Herria*-ko Bego sinatzailearekin.

6. Hiztegi horretako hitz motak askotarikoak dira:

6.1. Termino, hitz berezi edo teknikoak (esku-pilotakoak).

6.2. Kiroletako hitz arruntak, esku-pilotan erabiliak. Adib.: *irabazi*, *galdu*, *errebantxa*, *lanak eman*, *sufritu* etab., euren sinonimoekin.

6.3. Fraseologismoak (unitate fraseologikoak, hitz multzo egonkorak edo konbinazio eginak edo finkatuak). Oso garrantzitsuak dira, hizkuntzan edo norman landatuak direlako, jendeak arruntki erabiliak eta erreproduktiboak. Zehatzago, hona fraseologismo motak:

6.3.1. Kolokazioak. Oro har fraseologismo ugariak dirateke. Kolokazioen artean ugariak dira izena + izenondoa edo izena + aditza motakoak. Adib.: *partida irabazi/galdu*, *pilota bizia/motela*.

6.3.2. Lokuzioak (esamolde edo esapideak). Adib.: *partida hautsi*, *pilota gastatu*.

6.3.3. Ohiturazko formulak. Adib.: *Ados*, *jaun-andreok*, *ados!*, *Bego!*, *Bortz eta esperantza!*, *Sakeak X (hainbat)*, *errestoak Y (hainbat)!*, *Sartu!*

6.3.4. Atsotitzak edo tankerako esaerak. Adib.: *Jokoak adarrak makur*, *Partidak jokatu beharrekoak dira*, *Pilota biribila da*.

6.4. Hitz konbinazio libreagoak edo adierazpideak. Adib., hitz bereziekin lotuak edo orokorragoak: *boleaz/sotamanoz erantzun; partidaren iraupena*.

Bi hitzez esateko: batez ere hiztegi deskriptibo aberatsa nahi genuke, eta bereziki kazetariendako egina, egun zabal erabiliak diren hitz eta fraseologismoak bilduko dituen, orain arte bizi direnak galtzen utzi gabe.

BIBLIOGRAFIA

Ereduzko Prosa Gaur (EPG).

DGV-OEH: Mitxelena, L. 1987-2005. *Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia*. Euskaltzaindia.

Mokoroa, J.M. 1990. “*Ortik eta emendik*”. *Repertorio de locuciones del habla popular vasca*. Labayru—Eusko Jaurlaritza—Etor.

Sarasola, I. 2007 (2. ediz.). *Euskal Hiztegia*. Elkar.

UZEI. 1994. *Kirol Hiztegiak: Pilota*. IVEF-SHEE. Vit.-Gasteiz 1994. Jabier Agirre (koord.).

ERASKINA. Erakusburu bat (ABANTAILA-ADOSTU)

Hitzak eta fraseak ondoko hurrenkeran ezarriko ditugu: lehenik hitza edo fraseologismoa, parentesi artean adieraziz euskalkia, hizkuntza maila, erabilera, gramatika-kategoria; gero, definizioa (batzuetan I. Sarasolaren *Euskal Hiztegia*-tik hartu eta egokitu dugu); ondoren, sinonimoak + Ik. sinonimo garrantzitsuak; azkenik, adibideak.

Abantaila. Pilotari edo bikote batek besteari ateratzen dion aldea edo aurrea tanto-kopuruan. Sin.: abantzu, aitzina, aitzinalde, alde, aurre, bentaja, gaina. Ik. **Aitzina, aitzinalde, alde, aurre, bentaja, gaina.**

Abantaila atxiki (*Ipar*). (Kirol.). Bi pertsona edo talderen arteko aldeari eutsi edo iraunarazi. Sin.: abantaila eduki. *abantaila atxiki sofrituz xapeldunek, 25-23, 26-24, 27-25. Herria, Herrietako kronikak, 2005/11/03.*

Abantaila baliatu (edo **Abantailaz baliatu**; gutxiago erabiliak dira *abantaila(z) aprobeixatu* edo *abantaila profitatu*). *Zeberioak ondo baliatu zuen abantaila. Berria, Kirolak, “Zeberioak eta Urrutiak aise irabazi dute Galarretan (40-27)”, 2006/05/02.*

Abantaila ekarri. *Lalanne eta Iparragerrek abantaila baionesei ekarriko diete.* Herria, Lapurdi: Baiona, 2003/02/06, 4.

Abantaila eman. *Gure zaleen aurrean ariko gara, eta horrek abantaila txiki bat emango digu.* Berria, A. Legarda, Kirolak, 2004/12/02.

Abantaila galdu (edo **Abantaila ezereztu/deuseztatu/hutsean utzi/geratu**). *Laugarren txandako abantaila galduta zuen.* Berria, J. Tornay, Kirola, 2006/04/19. *Alferrik galduriko abantaila.* Berria, I. Magro, “Balentria Valencian”, 2004/11/21.

Abantaila gutxi. *Lauko Finalerako lasterketan abantaila gutxi taldeen artean.* Berria, 2006-04-01.

Ik. Abantaila txikia.

Abantaila handia (*izan, hartu, eman, ekarri, lortu etab.*). *puntu bakarra ez da abantaila handia.* Berria, B. Iraola, Kirola, 2004/09/18.

Abantaila hartu. *Barrandan hasi da iberoarra Gonzalezen eskuina miratuz sakean eta 7-0ko abantaila hartuz.* Herria, Bego, Pilota, 2004-04-08, 7.

Abantaila izan/ukan (*Ipar.*). *Alta 46-40 ukana zutelarik irabazleek abantaila.* Herria, Bego, Pilota, 2003/09/11, 7. (Oharra. *Abantaila izan ez ezik, batez ere Hegoaldeko idazle eta kazetari batzuek noiztenka abantaila eduki ere erabiltzen dute abantaila izanen adiera berean. Erabilera hau ez da hain jasotzat hartzen eta, bestalde, nahasgarri izan daiteke, Iparraldekoek abantaila eduki gehienbat ‘abantaila atxiki’ adierazteko erabiltzen baitute).*

Abantaila lortu (*Heg.*) (edo **Abantaila erdietsi, Ipar.**). *Boca erasora jokatzera zelairatuko da itzuliko partidarako abantaila on bat lortzeko.* Berria, Kirolak, 2004/06/23 (futboleko adibidea).

Abantaila polita (edo **Abantaila politak**) (*Adierazk.*). *Jokalari edo talde batek aurkariari ateratzen dion aldea, ez handia baina ez gutxia ere.* *Abantaila polita da hori, baina ez da erabakigarria.* Berria, 2006-04-01.

Abantaila txikia (edo **Abantaila txiki bat; Abantaila ttipia, Ipar**). *Abantaila txikia duten lau talde egotekotan, azken denboraldian European indartsuenak izan direnak daude (...).* Berria, 2006-04-01.

Abantaila ttipitu (*da, du*). *Garai batean bazuen minutu bat baino gehiagoren abantaila, ttipitu delarik gero, 43 segundura jaitsez.* Herria, J.H., Telebixta leihotik, 2004/04/22, 6.

Abantzu (*Ipar*). *Aurre edo abantaila.* *Segurean jarri dira lakartarrak, lehen partidako abantzu hura zainduz zer gerta ere: 27-20, 35-28, (...).* Herria, Bego, Pilota, 2001/02/22, 7.

Abantzua hartu. (*Ipar*). *Aurrea hartu, abantaila hartu, aitzinatu.* *Abantzu polita/ederra/handia/ttipia hartu.* *Galtzaleak dira lehenik hasi, abantzu doi bat hartu beharrez, biak ere fleitean.* Herria, Bego, Pilota, 2005/03/3, 7.

Abantzuaz izan. Abantailaz/aitzinean izan. *Partida gelditu dute (15 eta 4 abantzuaz zirelarik) parreko jokolari batek arazoak ukanez trenputxartu baita.* Herria, Baxenabarre: Aiherra, 2005-06-02, 5.

Abantzuaz joan. Abantailaz joan. *Abantzu ederrean joan Ximun garaztarra, gero berdindu du hazpandar hunek (...).* Herria, Bego, Pilota, 2005-04-21, 7.

Abiada. 1. Abiadura, lastertasuna. 2. Jokalariaren higitzea pilotara hurbiltzeko. *Abelek bere jokoa egiten badu, pilotari abiada emanez, (...).* Berria, I. Magro, 2004/12/23. Ik. **Abiatu.**

Abiadura. Pilotak daraman edo hartzen duen lastertasun indarra. Sin.: abiada, belozitatea (*Beh.*).
Ik. **Abiada. Belozitatea.**

Abiadura X (honenbeste) **km/h-koa** (edo **X (honenbeste) km/h-ko abiadura**) (hartu/izan/...) (pilotak) (*du*). *Pilotak 180 km/h-ko abiadura hartu du.*

Abiadura bizia (edo **Abiadura handia; Abiadura izugarria / Izugarrizko abiadura, adierazk.**).
Sin.: **Ziztuaz** (edo **Ziztu bizian**) (joan). Ik. **Ziztuaz.** *Izugarrizko abiadura ematen dio pilotari.*
Berria, E. Telleria, 2004/12/15.

Abiadura eman (jokalaria pilotari) (*dio*). Ik. **Abiada. Belozitatea.** *Orduan Lizarrako atzelaria arriskatzen hasi zen, pilotari abiadura emanez.* Berria, I. Magro, 2004/07/07

Abiatu. Jokalaria higitzen hastea pilotara hurbiltzeko. (X pilotaria) *Berandu abiatu da.*

Abisatu. Pilotari batek kontrakoari edo aurkako bikoteari, saka ateratzerakoan abisua ematea. Ik. **Ba!**, gazt. *¡Va!*

Ados (izan) (*adb*). Bi pilotari edo bikotea tanto kopuru berean egon. Sin: berdinduta. Ik. **Berdinketa, Berdintze.** *34etan ados ziren.* Herria, 2001/06/14, 7.

Ados egin. *Eta 33tan gelditu besteak, hor ados egin baitute eta 36etan ere.* Herria, Bego, Pilota, 2001/11/08, 7.

Ados gelditu. *Partida hau 17na ados gelditu zen.* Herria, Baxenabarre, 2003/09/04, 5.

Ados! (*Ipar.*; formula ohiturazkoa; erreboteko jokoa). *Bi alderdiak kuantean berdintzearekin, biak jausten dire trenterat eta oihu egiten da ados.* Zaldubi. RIEV 1908, 88.

Ados, jaun-andreok, ados! (*Ipar.*; formula ohiturazkoa). Bi jokalariek edo bikoteek berdintzera iritsi direnean esan edo oihukatu ohi da.

Adoste. Sin.: berdinketa/berdintze. Ik. **Berdinketa/Berdintze.** *Tipituz joan da makurra, 22-16, 31-24, bainan 7 tantoren lerro batekin, horra 31tan adostea, Sorhueten bote zenbait ere besteak beste.* Herria, Bego, Pilota, 2004/05/27, 7. *Adosterik ez (X. Euzkitze). Adostea lortu.*

Adostu. (*Ipar.*). Tanto kopuru berdinerira iritsi. *Zazpitaraino berdintsu, hor adostu eta gero joan dira irabazleak.* Herria, Bego, Pilota, 2005/03/24, 7.

ADMINISTRAZIO-HIZKERA. ON LINEKO PRESTAKUNTZA

Xabier Amatria Cuesta (IVAP)

0. SARRERA

IVAPek bere sorreratik beretik administrazio-hizkera lantzea eta garatzea izan du helburuetako bat. Legez dagokigun betebeharrak horri erantzuteko, hainbat lan argitaratu ditugu orain arte: *Udal-agiriak*, *Administrazio-idazkiak*, *Hizkera argiaren bidetik*, *Argiro...* eta berriki, *IVAPeko estilo-liburua*.

Argitalpenekin batera —batzuetan abiapuntu modura, besteetan horren ondorio gisa— zenbait ikastaro eta jardunaldi antolatu ditugu, betiere xede berbera gogoan: administrazio-hizkera zaharkitua baztertu eta, horren ordean, hizkera zehatza, argia eta zuzena proposatzea; azken finean, kalitatezko komunikazioa bultzatzea herritarren eta administrazioen artean.

Lanabes bat baino gehiago erabili izan dugu horretarako: argitalpenak, ikastaroak, jardunaldiak, baita azken urteotan Internet ere, bereziki IVAPeko web orria.

Bestalde, ezin dugu ahaztu gure ekoizpena euskararen erabilera bultzatzeko administrazio publikoek aurrera daramaten politikaren barruan sartzen dela bete-betean. Horrek, gainera, etengabeko berrikuntzara bultzatzen gaitu: material berriak arakatu, besteek egiten dutena aztertu eta eskaintza handitu.

Testuinguru horretan sortu dugu komunikazio honetan aurkeztu nahi dugun erreminta hau. Izena nahiko adierazgarria da: *Administrazio-hizkera. Gutuna eta Ofizioa*; hartzaileak: administrazio langileak, administrazio orokorrekoak zein foru- eta toki-administrazioak; teknologia: on line ikastaroa, EJIEn sorturiko SABA plataformaren barruan; helburuak: langileei laguntza ematea administrazio-hizkera argia, zehatza eta zuzena erabiltzen eguneroko jardunean, gutun eta ofizioen ereduak jarraituz.

Lan hau proiektu zabalago eta handinahiago baten lehen emaitza baino ez da, gure asmoak ez baitira ikastaro honetara mugatzen: hizpide dugun ikastaro honi beste bik emango diote segida, denak administrazio-idazkien inguruan ardaztuta, denak euskararen erabilera bultzatzeari begira, eta denek, jakina, kalitatezko komunikazioa helmuga dutela.

Eta hauxe da artikuluko honen helburua, IVAPek langile publikoei begira atondutako on lineko ikastaroa aurkeztea, alegia. Ikastaro honi esker, bada, administrazio langileek eguneroko jardunean euskaraz aritzeko behar dituzten zenbait aholku eta irakaspen jasoko dituzte. Eta hori

guztia gorago esandako testuinguruan garatzen da, euskarazko harreman idatzietan kalitatezko komunikazioa sustatzeko lanean, hain zuzen ere.

Artikulu honetan ibilaldi arin bat egingo dugu ikastaroaren edukietan barrena. Hasteko, ikastaroa sortzen den testuinguruari begiratu labur bat botako diogu, zer proiektu ari den lantzen IVAP arlo honetan azaltzeko jarraian. Hurrengo atalean, eta hauxe da artikuluaen mamia, on lineko ikastaro honen egitura erakutsiko dugu. Azkenik, bibliografiak eta ikastaroaren atalen deskribapen xehatuagoak osatuko dute lan xume hau.

1. TESTUINGURUA

Aurreratu bezala, proiektu hau ez dator ezerezetik, baditu oinarri sendoak, ez guk asmatuak, baina bai aspalditik gure eguneroko jardueran sakonki errotuak: administrazio herritarrengana hurbiltzea eta horretarako administrazio-hizkera herritarren zerbitzura erabiltzea. Berba hauekin adierazten genuen ideia hori duela zenbait urte "Herritarra da herri-administrazioaren helburu bakarra. Gure administrazio-ereduaren jomuga eta izateko arrazoi bakarra herritarrari zor dion zerbitzua ahalik eta ondoen ematea da" (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea 1994: 6). Eta abiapuntu eta helmuga hori gogoan, hizkeraren garrantzia azpimarratzen genuen: "Administrazio modernoak eraginkortasuna irabazteko herritarren hizkeratik hurbil dagoen hizkera behar du: demokraziaren, segurtasun juridikoaren eta hizkuntzari zor diogun begirunearen izenean behartuta gaude administrazioan argi, zehatz eta zizen idaztera" (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea 1994: 6).

Testuinguru horretan IVAPek bere egin zuen hogeita hamar urte lehenago Estatu Batuetan sorturiko hizkera argiaren aldeko mugimenduaren filosofia (*Plain English Movement*) eta horren jarraitzaile eta bultzatzaile bihurtu zen Espainiako Estatuko administrazioen artean, Katalunia, Valentzia eta Galiziako herri-administrazioekin batera.

Ezin aipatu gabe utzi, bestalde, Eusko Jaurlaritzak oraindik orain berri duen euskararen erabileraren aldeko apustua. Izan ere, herri-administrazioetako euskararen erabilera normalizatzeko IV. plangintzaldiaren haritik, bi helburu nagusi azpimarratu du Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak: ezagutzatik erabilera pasatzea eta euskal herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea (EUSKARAREN BERRIPAPER 2008). Eta erabilera bultzatzeko asmo eta ahalegin horretan sartzen da bete-betean gure proiektu hau.

Aipamen sorta hau bukatzeko, 2005. urtean kaleratu genuen *IVAPeko estilo-liburua* ekarri behar dugu lerro hauetara. Argitalpen hori izan dugu proiektu honen guztiaren bidelagun eta, horrekin batera, 2006 eta 2007 bitartean eskainitako aurrez aurreko ikastaroetarako sorturiko materiala.

Horiek dira, laburbilduz, gure premisak, eguneroko lanean urrezko hizkitan idatzita ditugunak, eta horietatik abiatu gara, beste behin ere, lan hau burutzeko: idazki argi, egoki eta zuzenak atontzen

ikasteko jarraibideak eman administrazio publikoetako langileei, hizkuntzaren ulergarritasuna eta kalitatea hobetzeko eta herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko.

2. ADMINISTRAZIO-HIZKERA LANTZEKO ON LINEKO PROIEKTUA

Hizpide dugun ikastaro hau proiektu zabalago baten lehen emaitza baino ez da. Egitasmo hau, oraingoz, 3 atalez dago osatuta eta 2009. urtearen amaierarako dago aurreikusita beraren amaiera. Hona hemen, labur-labur, modulu bakoitzaren ezaugarri nagusiak:

a) *Administrazio-hizkera. Gutuna eta Ofizioa*, 2007an lehenengo aldiz eskainia eta 15 orduko iraupena duena. Hartzaileak administrazioko langileak dira eta edukiak kontuan hartuta, 1. eta 2. hizkuntza-eskakizunak gaindituta dituzten enplegatu publikoei eskaintzen zaie.

b) *Administrazio-hizkera. Bilera-deia, Ziurtagiria, Eskabidea eta Testu elebidunak*. Proiektuaren 2. modulu honetan, izenburuan aipaturiko idazkiak lantzen dira: bilera-deia, ziurtagiria, eta eskabide-orria eta horiekin batera, dokumentu elebidunak diseinatzeko zenbait aholku eskaintzen dira. Hartzaileak 2. edo 3. hizkuntza-eskakizuna gaindituta duten herri-langileak dira eta 2008. urtean jarri da abian, 20 orduko iraupenarekin.




Bigarren ikastaroaren interfazean zenbait aldaketa eragin dugu.

c) Azkenik, eta administrazio-hizkera lantzeko proiektu hau oraingoz biribiltzeko, 2009. urterako beste modulu bat sortzea dago aurreikusita. Behin behineko edukiak hauexek ditugu: txostena, iragarkia, aktak, ebazpenak eta abar. Eta hartzaileei dagokienez, 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna gaindituta duten enplegatu publikoei zuzenduta dago.

3. ADMINISTRAZIO-HIZKERA. GUTUNA ETA OFIZIOA: EDUKIAK ETA MATERIALA

3.1. Egitura orokorra

Ikastaroak egitura narratiboa du: protagonista administrazioko langile bat da, Aitor izenekoa, eta abiapuntutzat hartu ditugu langile horrek administrazioko zenbait idazki egiteko orduan izan ohi dituen arazoak, zalantzak eta zaitasunak. Ikastaroaren helburua hutsune horiek betetzen laguntzea da, beti ere *off*-eko ahots batek gidatuta.



Goian ikastaroaren interfazea ageri da: pertsonaia eta beraren lan-ingurunea

Prozedura didaktikoa ohikoa da lineako ikastaroetan eta edozein ikaslek inongo zailtasunik gabe jarraitzeko modukoa: edukiak aurkeztu-landu-zuzendu. Aldi berean, praktika askea eta praktika kontrolatua tartekatzen dira, eta modu horretan aukera ematen zaio ikasleari ikasitakoa bere kabuz praktikan jartzeko eta zuzentzeko. Zuzenketa horiek modu autonomoan egiten ditu ikasleak, beti ere ikastaro osoan zehar beraren jarraipen pertsonalizatua egiten duen tutore baten laguntzarekin.

3.2. Ebaluazio sistema

Ebaluazio jarraituaz gain (fitxak irakurtzen /lantzen emandako denboraren neurketa, auto-zuzenketako ariketak eta abar), atal bakoitzaren amaieran ariketa osoago bat dago eta horixe da ikasleak tutoreari bidali behar diona azken horrek ebaluatu ahal izateko.

Ikastaroak irauten duen bitartean, ikasleak uneoro komunikatu ahal du irakaslearekin posta elektronikoz bidez eta zalantzak eta iradokizunak helarazi (ikastaroaren euskarria den plataformak txata eta wikia ere aurreikusita ditu komunikazio tresnak bezala). Azkenik, ikastaldi bakoitzean foro bat osatzen da kideen artean, informazioa elkartrukatzeko eta eztabaidak pizteko ikastaroaren edukien inguruan.

3.3. Material osagarria

Aurrekoarekin batera, zenbat ataletan, material osagarria eskaintzen diogu ikasleari, ikastaroaren edukiak osatu eta hobetzeko. Hortaz, ikasleak aukera izango du *pdf*. formatuko dokumentuak jaisteko edo eta interneteko estekak erabiltzeko ere. Material osagarri horren guztiaren bidez aukera eman nahi diogu ikasleari oinarrizko edukietan bere kabuz sakon dezan.

3.4. Atalak

Edukiei dagokionez, 6 atalez dago osatuta ikastaroa, eta banan-banan ikusiko ditugu jarraian.

3.4.1. Idazketa prozesua deskribatu

Idazteak bere prozesua du eta prozesu horretan sakontzen ahalegindu gara unitate honetan. Idazketa-prozesua deskribatu nahi izan dugu: zer gertatzen den gure buruan orri zuriari aurre egiten diogun unetik testua amaitutzat eman arte. Hauxe da unitate honetan jarraitu diogun eskemari:

1. Komunikazio egoera aztertu
2. Ideiak sortu
3. Testua antolatu
4. Testua idatzi
5. Testua diseinatu
6. Testua zuzendu

3.4.2 Gutuna. Gramatika

Akatsik gabeko idazkiak sortu behar dira. Hizkuntza da gure mezua komunikatzeko erabiltzen dugun bidea, eta horregatik testu zuzenak eta zehatzak idatzi behar ditugu, gramatika arauak — Euskaltzaindiaren arauak, alegia— betetzen dituztenak.

Egin kontu, gutunetan eta ikastaroaren hartzaileen hizkuntza-gaitasunaren mailan ohikoak eta sarri agertzen diren gramatika akatsak baino ez ditugula landu unitate honetan: ortografiako kontuak, deklinabideko akatsak, zenbakien idazkera eta abar.

3.4.3 Gutuna. Estiloa

Batzuetan, gramatikari erreparatuta, testu zuzena izaten da, baina ez da behar bezala ulertzen. Iluna da, lausoa... Zergatik? Ziur asko erabilitako estiloa egokiegia ez delako.

Gure asmoa da gutunean sarri agertzen diren estilo kontu batzuk lantzea. Hortaz, zenbait gomendio bildu ditugu testu egokiak eta argiak idazteko, hala nola, hartzailea hurbilagoa egin, egilea agerian uzteko komenentzia, nola saihestu erdal formulak, kalkoak, estilo nominala, eta abar.

3.4.4 Gutuna. Diseinua

Idazkiak diseinatzeak garrantzia handia dauka administrazioan. Kalitatezkoa izateko, testuak erakargarria izan behar du, eta horretarako, ondo zaindu behar dugu diseinua. Ezin dugu ahaztu orrialdeak begientzako irudiak direla, eta irudiak komunikazio indar handia duela. Horrexegatik da hain inportantea idazkien itxura zaintzea, azken batean, hori baita irakurlearen eta paperaren arteko lehen kontaktua, erakarri edo atzera eragingo diona.



Pantaila honetan unitatearen edukiak ageri dira zerrendatuta

3.4.5 Gutuna. Zuzenketa


Unitate honekin idazketa-prozesuaren amaierara iritsi gara. Atalak helburu bikoitza du:

- a) Aurreko ataletan ikasitako edukiak berrikustea.
- b) Ikasleei adieraztea zein garrantzitsua den testu bat zuzentzea.

Ez badugu idazkia behar bezala berrikusten eta zuzentzen, hartzaileari bidali aurretik —edo argitara eman baino lehen—, ordura arte egindako ahalegin guztiek porrot egin dezakete.

3.4.6 Ofizioa

Azken unitate honetan beste idazki bat landuko dugu, oinarritzkoa eta sinplea, baina ez horregatik hutsala edo garrantzirik gabea: ofizioa.



Ofizioari buruzko unitatearen edukiak

Ofizioaren ezaugarri nagusiak eskaintzen zaizkio ikasleari baita gutunaren aldean zein diren ezberdintasun nagusiak ere: batetik, administrazioak barruko komunikaziorako erabiltzen du; bestetik, gutunen aldean, formalagoa da ofizioa.

4.-BIBLIOGRAFIA

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (1994): *Hizkera argiaren bidetik*, Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (1997): *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*, Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP.

ARAKAMA [et al.] (2005): *IVAPeko estilo-liburua*, Gasteiz: HAEE-IVAP.

Euskararen berripapera (2008): Vitoria-Gasteiz: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2008ko martxoa (190. zk.).

ERANSKINA: IKASTAROAREN EDUKIAK

UNITATE 0: Administrazio hizkera. Aurkezpena.

Administrazio hizkeraren kalitatea: hizkera zuzena, argia eta egokia

Idazterakoan kontuan izan beharrekoak: idazketa prozesua, gramatika, estiloa, diseinua eta zuzenketa

UNITATE 1: Idazketa prozesua urratsez urrats

Idazten hasi aurreko lana atondu

Ideiak sortu

Testua antolatu

Testua idazteko kontuan hartu behar ditugunak

UNITATE 2: Gutuna. Gramatika

Gutunetan sarri agertzen diren zenbait gramatika-akats

Karguak eta hilabeteak

Data

Komak

Siglak

Eta juntagailua

Hau, hori, hura

Aditzaren komunztadura

UNITATE 3: Gutuna. Estiloa

Gutunetan sarri egiten diren zenbait estilo-akats

Hartzailea kontuan hartu

Egilea agerian utzi

Aditza aurreratu

Labur idatzi

Aditza hobe izena baino

Erdal gerundioak

UNITATE 4: Gutuna. Diseinua

Gutunen diseinua

Hartzailearen datuak

Data

Hasiera eta bukaerako agurrak

Izenpea

Izenburuak

Paragrafoak

Lerrokatzeak

Zerrendak

UNITATE 5: Gutuna. Zuzenketa

Hartzailearen datuak zuzendu

Hasierako eta bukaerako agurrak zuzendu

Paragrafoak zuzendu

Data zuzendu

Izenpea zuzendu

Izenburua zuzendu

UNITATE 6: Ofizioa

Hartzailearen datuak

Izenburua

Hasierako eta bukaerako agurrak

Informazioa aurreratu

Data eta Izenpea

OREKATZEN: LANEKO EUSKARAZ ARITZEKO BALIABIDE LAGUNGARRIAK ETA JARRERAK

Imanol Azkue
(Elhuyar Aholkularitza)

Aurkibidea

1. ELHUYAR AHOLKULARITZAREN AURKEZPENA

2. “LANEKO EUSKARA” IKASTAROAK

3. OREKATZEN: JUSTIZIA SAILAREN PROIEKTUA

3.1. Justizia Saila

3.2. *Orekatzen* proiektua

3.3. Zenbait adibide

3.3.1. *Hitzak sortzen*

3.3.2. *Motibazioa lantzen*

3.4. *Orekatzen* non eta nola

1. ELHUYAR AHOLKULARITZAREN AURKEZPENA

[Elhuyar Aholkularitza](#) lan-mundua euskalduntzeko ahaleginetan sortu zen Elhuyarren baitan, 1992an, eta gaur egun ere euskara da gure lanaren ardatz eta gai nagusia. Hala ere, pixkanaka lan-esparrua zabaltzen ari gara: parte hartzeko planak, genero-berdintasuna, hezkuntza, motibazioa, hirigintza, gazteak... Jendearekin egiten dugu lan, parte-hartzea errazten edo eragiten duen metodologiarekin.

Gure egoitza nagusia Usurbilen dago, baina Bizkaian ere badaukagu bulegoa, Durangon, Landako Elkartegian.

Guztira 27 lankide ari gara lanean, 20 emakumezko eta 7 gizonezko, diziplina anitzeko lantaldeetan antolatuta.

2. “LANEKO EUSKARA” IKASTAROAK

Elhuyar Aholkularitzak urte asko daramatza langileak euskaraz trebatzeko euskara-ikastaroak ematen, euskara-planen barruan, bai lan-munduan, bai udal edo udalerrietakoetan,

euskalduntze-prozesu arrunta edo ohikoa iristen ez den lekuetara iritsi nahian. Izan ere, enpresetako edo udaletako langileetako asko euskaldunak dira, ikasketak euskaraz eginak ere bai, baina hainbat faktore direla medio, ez zaie erraza egiten euskaraz aritzea lanean eta laguntza osagarria behar dute, euskaraz trebatzeko ikastaroak. Ikastaro berezi horiei “**Laneko Euskara**” deitzen diegu.

Normalean, ikastaro horiek **talde homogeneousentzat** izaten dira, antzeko lanak eta eginkizunak dauzkaten langileentzat, laneko funtzioen arabera elkartuta: udal-administrariak, aurrezki-kutxetako langile edota gestoreak, unibertsitateko atezainak, Osakidetzako harreragileak, lantegietako esku-langileak, informatikariak... Langileen perfila, eginkizunak eta interesak nolakoak, ikastaroaren ezaugarriak eta edukia halakoak izan ohi dira, baita iraupena eta intentsitatea ere.

Ikastaro horietan ikusi dugunez, langileentzat **zailtasun handienetako bat**, ustez, **terminologia** izan ohi da, hau da, lanbide jakin bateko edo funtzio jakin batzuetarako hizkera berezitua. Gaztelaniazkoa ederki ezagutzen eta erabiltzen dute, ohituta daude, baina euskarazkoa arrotz eta zaila egiten zaie, eta batzuek, gainera, oztopo gaindiezintzat daukate.

Horregatik, “Laneko Euskara” ikastarootan **ahalegin berezia egiten dugu hiztegi edo terminoak lantzen**, hainbesteko oztopoa izan ez dadin, edo ustezko beldur hori uxatzeko. Ikastarootan bereziki lantzen dugu hiztegia; adibidez, langile bakoitzak bere hiztegia osatzen du: egunez egun, bai saioan bertan, baita saioetatik kanpo (lantokian) ere, euskaraz ezagutzen ez dituen eta erabili beharko lituzkeen hitzak jasotzen ditu, eta horiek gero etengabe lantzen ditugu, ariketen eta jolasen bidez.

“Laneko Euskara” ikastaro horiei esker eta horietan oinarrituta, **bestelako lan osagarri batzuk ere egin ditugu**, material berezia sortzeko, betiere langileei baliabide lagungarriak eman nahian. Adibidez, hor daude eskuliburuak: “kutxan euskaraz” (kutxarentzat), “Merkataritzan euskaraz”, [Enpresan euskaraz](#) (enpresei euskaraz lan egiten laguntzeko), [LABen euskaraz](#) (LAB sindikatuarentzat), [AZPidazki](#) (EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako langileentzat), [Atezainok euskaraz](#) (EHUko atezaintzat)... Horietako askotan, gainera, hiztegitxoak ere txertatu ditugu, arlo edo eginkizun horietan gehien erabiltzen diren hitz, esamolde edo esaldiekin.

Gure eguneroko lanean eta trebakuntza-saioetan ikusi ahal izan dugunez, ordea, hori guztia ez da nahikoa. Ikastarootan ikusitakoa eta ikasitakoa gero lanean erabili ezean, alfer-alferrikakoa da ahalegina, eta, horregatik, **ikastaroetan garrantzi handia ematen diogu motibazioari eta jarrerak lantzeari**: bakoitzak bere errealitateari eta inguruari begiratuta, jarrerak aztertuta, konpromiso txiki batzuetatik abiatuta progresiboki urratsak egitea

euskararen erabileran. Gehienetan, euskaraz ez egiteko hainbat arrazoi eman ohi dituzte langileek, beste leku edo egoera askotan ere azaltzen direnak: segurtasunik eza, hanka sartzeko beldurra, lana bikoiztea, errekonozimendurik eza... Arrazoi horiek propio aztertuta eta landuta, aurre egiten ahalegintzen gara, jarreretan eta motibazioan eragiten saiatzen gara.

Laneko eskarmentuak erakutsi digunez, langileei tresnak eman behar dizkiegu euskaraz lan egiteko, eta horiek erabiltzen irakatsi behar diegu, trebatu, baina, horrekin batera, komenigarria da aldi berean jarreretan ere eragitea, euskara erabil dezaten motibatzea. Horregatik, “Laneko Euskara” ikastaroen eta material berezien bidez hizkuntza-edukiak lantzen ditugu, baina aldi berean jarrerei eta motibazioari ere garrantzi berezia ematen diegu.

3. OREKATZEN: JUSTIZIA SAILAREN PROIEKTUA

Gure azken proiektuetako bat *Orekatzen* da eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailarentzat egin dugu.

Orekatzen izenpean **hamar unitate didaktiko** daude bilduta, Justiziako lanbide jakin batzuetako langileek (agiriak-eta bideratzen dituztenek: agenteek, ofizialek eta laguntzaileek, batez ere) **testuak euskaraz idaztean dauzkaten zailtasun edo oztopoetan laguntzeko** eta horiei aurre egiten trebatzeko.

3.1. Justizia Saila

Zuzenbidearen edo Justiziaren arloetan, aspalditik daude abian hainbat ahalegin edo proiektu euskarak bere tokia har dezan, bai barrura begira (langileen trebakuntza, baliabideak...), baita kanpora begira ere (batez ere herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko). Terminologia-arloan ere lan handia eginda dago, eta **Justizia Sailak baliabide ugari dauka jarrita euskaraz lan egiten laguntzeko**, materialak (itzulpen-memoriak, ereduak, hiztegiak...) zein giza baliabideak (itzultzaileak, teknikariak, trebatzaileak...). Baliabideetako asko justizia.net web gunean daude bilduta, [Euskararen Txokoan](#).

Baliabideei dagokienez, Justizia Sailak laster erabilgarri izango du **JustiziaBat aplikazioa**, asko errepikatzen diren edo oso antzekoak diren idatzi-motak ekoizteko; aplikazio horri esker, denbora eta ahalegina aurreratuko dira, datuak behin bakarrik sartuta aplikazioak ele bietan (euskaraz eta gaztelaniaz) aterako baititu idatziak. Beraz, neurri batean dezente erraztuko da agiriak ele bietan bideratu behar dituztenen lana.

Aplikazio horren jardun-eremutik kanpo geratu dira, ordea, beste idatzi asko, “jardun libre” edo “**testu libre**” izenekoak, hau da, aurreikusten oso zailak eta nolabait bakarrak direnak, sortzeko aparteko lana eskatzen dutenak. Adibidez, herritar batek epaitegian deklaratu behar

badu, **ezin da aurreikusi edo jakin** zer adieraziko duen deklarazioan, zer hitz edo nola esango dituen. Deklarazioetako idatziek badituzte esaldi eta zati batzuk behin eta berriz errepikatzen direnak, egitura jakin bat badago, baina deklarazioko mamari dagokionez, ezin da aurreikusi zer esango duen herritarrak.

Justizia Saileko hizkuntza-teknikariek ikusi zuten komeni zela laguntza ematea Justiziako langileei “testu libre” horiek euskaraz ere emateko, eta laguntzetako bat izan zitekeela berariazko trebakuntza ematea, **eginkizun horietan trebatzeko berariazko materialaren bidez**. Horrela sortu zen gero *Orekatzen* izena hartuko zuen proiektua.

3.2. *Orekatzen* proiektua

Beraz, hasierako asmoa zen unitate didaktiko batzuk sortzea, Justiziako langile batzuk eginkizun batzuetan trebatzeko, eta horretarako Elhuyar Aholkularitza kontratatu zuen Justizia Sailak.

Proiektua abian jarri genuenean, hiru fase nagusi bereizi genituen:

- **Dokumentazioa aztertu:** “testu libreak” aztertu eta horietan azaltzen ziren zailtasunak, oztopoak... aurreikusi. Halaber, inkesta baten eta elkarrizketen bidez langileen eta teknikarien iritziak ere jaso genituen (arazoak, kezak, espektatibak, nolako materiala nahiko luketen...).
- **Unitate didaktikoak diseinatu eta gauzatu:** edukiak aukeratu, gaiak bereizi, materiala egituratu, idatzi...
- **Unitateak probatu:** langile batzuei erakutsi eta baliagarriak zirela egiaztatu.

Materiala aztertzeke orduan, oso lagungarria izan zen Justiziako hizkuntza-teknikariek aurretik eginda zeukaten lana. Izan ere, langileek ekoiztutako guztia jasota zeukaten, baita dokumentu-mota bakoitza non eta zenbateko maiztasunarekin erabiltzen zen ere; material guztia esku-eskura eman ziguten aztertzeke. Horrela, ikusi genuen testu gehien-gehienak gaztelania hutsean egiten zirela, salbuespenak salbuespen, eta, horregatik, etengabe ariketa hau egin behar izan genuen: testu horiek euskaraz jartzen ahalegindu, langileek zer zailtasun edo oztopo izango lituzketen imajinatzeke.

Materiala aztertuta, hainbat ondorio atera genituen, nagusietako bat hauxe: **hizkuntza aldetik, ez zegoen zailtasun berezirik**, lehendik identifikatuta ez zegoenik (lokuzioak, hiztegia, zehar-estiloa, inpersonala...); horietako gehienak ez ziren berriak eta lehendik ere aztertuta edo landuta zeuden (adibidez, IVAPek lan handia eginda dauka). Hasierako urrats

hartan, halaber, erabaki batzuk ere hartu behar izan genituen, horietako bat ondorengoa: **unitate didaktikoak langaiaren (edo hizkuntza-edukien edo -zailtasunen) arabera antolatzea**, eta ez dokumentu-motaren arabera; hau da, unitatea ez genuen sortuko “deklarazioa” edo “agerraldia” dokumentuak lantzeko, baizik eta agiri horietako zailtasunak (edo hizkuntza-edukiak) lantzeko: besteen esanak nola eman (zehar-estiloa, zuzenekoa, inpersonala...), datuak nola adierazi (izen-abizenak, helbidea, data, zenbakiak...) eta abar.

Horrela, materialaren hezurdura gauzatu genuen eta 10 unitate didaktiko proposatu genituen:

- *Aditza aditzen*
- *Antzekoak bereizten*
- *Baliabideak baliatzen*
- *Besteenak jasotzen*
- *Datuak erabiltzen*
- *Hitzak sortzen*
- *Idazten ikasten*
- *Itzultzen hasten*
- *Lokuzioak euskaratzen*
- *Motibazioa lantzen*

Izenburuetan ikus daitekeenez, ahalegindu ginen unitateen mamia edo **edukia bi hitzetan** laburbiltzen: *Aditza aditzen* unitatean aditza lantzen da (aditzaren osagaiak, denbora...), *Antzekoak bereizten* unitatean antzeko edukiak landu genituen (adibidez, “haren” eta “bere”, “ere”, denborazkoak...), *Baliabideak baliatzen* unitatea Justizia Sailak euskaraz lan egiteko dauzkan baliabideak erakusteko edo horietan trebatzeko da... Halaber, orduan erabaki genuen zein izango zen unitate guztiei batasuna emango zien izenburua eta irudia: ***Orekatzen***, **nolabait adierazteko unitateon bidez oreka bilatu nahi genuela**, euskara eta gaztelania berdin erabiltzea nahi genuela lanean; horregatik, hain zuzen ere, *Orekatzen* izenaren “t” letran balantza bat dago irudikatuta, eta alde banatan bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) maila beran.

Unitateei dagokienez, labur bada ere, komeni da **beste ezaugarri batzuk** ere adieraztea:

- **Bakarka zein taldean** lantzeko prestatuta daude.
- **Independenteak** dira, edozein ordenatan landu daitezke, beharren edo nahien arabera. **Ez dira progresiboak** edo errazenetik zailenerakoak.

DIBULGAZIO MAILAKO DOKUMENTALEN ITZULPENA IKUS-ENTZUNEZKO ITZULPEN ESPEZIALIZATUAN

Josu Barambones Zubiria

Ingeles eta Aleman Filologia eta itzulpengintza eta Interpretazio Saila

Euskal Herriko Unibertsitatea

1. AURKEZPENA

Ikus-entzunezko itzulpena ikasgai nahiko berria da Euskal Herriko Unibertsitatean. Izan ere, Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketak 2000-01. ikasturtean ezarri ziren Gasteizko Filologia, Geografia eta Historia Fakultatean eta 2003-04 ikasturtean eman zen estreineko aldiz ikasgai hau gure unibertsitatean.

Euskal Herriko Unibertsitateko ikasketa planetan ikasgai honi eman zitzaion izendapen ofiziala hau da: “Itzulpen espezializatua III (zientifiko-teknikoa eta ikus-entzutekoak): ingelesa-euskara”. Hortaz, Itzulpengintzako ikasketen barruan eskaintzen diren lau itzulpen espezializatuen ibilbidean¹ hirugarren geltokia da ikus-entzunezko itzulpenarena. Sei kredituko ikasgai derrigorrezkoa da eta laugarren mailako ikasleei zuzenduta dago. Izendapenak berak jasotzen duenez, ikasgai honetan bi hizkuntzarekin egiten dugu lan: erabilitako testuen sorburu-hizkuntza beti ingelesa izango da; xede hizkuntza, aldiz, euskara.

Ikasgaiaren izendapenak bi itzulpen espezializatu uztartzen ditu: batetik, bi komunikazio kanal, hots, ikusizkoa eta ahozkoa, erabiltzen dituzten testuen itzulpena; eta, bestetik, espezialitate hizkeretan idatzitako testuen itzulpena.

Bi testu-mota horien elkarguneak eskaintzen duen aukeraz baliatuta, uste dut egokia dela, beti ere kontuan hartuta 6 kredituk ematen duten tarte laburra, alderdi zientifiko-teknikoa dibulgazio mailako dokumentalen bidez lantzea. Era horretan, bi helburu betetzen dira: dokumentalen ikus-entzunezko itzulpenaren eskakizunak errespetatuz itzultzen ikastea eta ikasleek eduki zientifikoak eta hizkera zientifikoa bereganatzea.

¹ Gainerako itzulpen espezializatuak hauek dira: Itzulpen juridiko-ekonomikoa I eta II (ingelesa-euskara) hirugarren mailako derrigorrezko ikasgaiak biak; eta Literaturako Itzulpena (ingelesa-euskara), laugarren mailako ikasgai derrigorrezkoa.

Kasu praktikoa ikusi aurretik, zilegi bekit bi hitz esatea irakaskuntzako ereduaren gainean. Itzultzen irakasteko jarraitzen dudan eredu eredu dinamikoa da, irakaskuntzaren erdigunea irakaslearengan kokatu beharrean ikasleengan kokatzen duena, hau da, ikasleek egindako galderei erantzun bakarra eta zuzena eman ordez, ikasleen galderei beste galdera batzuk eginez erantzuten dien eredu, hala nola zer testuingurutan agertzen da termino hori, zeintzuk dira erabili dituzun dokumentazio iturriak, zein hiztegi erabili duzu, e.a. Azken finean, irakaslea ez da ikasleen galdera eta zalantzei erantzun bakarra eta zuzena ematen dien pertsona —gainera, eskarmentuak esaten dit itzulpenetan gutxitan egon ohi dela erantzun bat eta bakarra—, baizik eta ikasleak erantzun posible eta zuzen guztiak bilatzera eraman behar dituen eragilea.

2. KASU PRAKTIKOA: DIBULGAZIO MAILAKO DOKUMENTAL ZATI BATEN ITZULPENA

Lan honetan “Itzulpen Espezialiatua III (Ikus-entzutekoa eta Tekniko-zientifikoa): ingelesa-euskara” ikasgaiaren lantzen dudan gai bat azalduko dut: klonazioa.

2.1. Itzultzeko agindua

Ikasgai honetan ikasleek “Clone” izeneko dokumentalaren lau minutuko zati bat itzuli behar dute *voice over* edo “ahotsak gainjartzea” izeneko teknika² erabiliz eta isokronia errespetatuz.

2.2. Helburuak:

- Dokumentazio iturri egokiak bilatzen jakitea
- Terminologia arazoei aurre egitea proposamen egokiak eginez
- Itzultzeko erabakiak hartzen eta justifikatzen jakitea
- Isokronia errespetatuz dokumentalak itzultzen jakitea

2.3. Eginkizunak:

Aipatu helburuak lortzearen eta dokumentala itzuli-egokitu aurretik, ikasleek eginkizun hauek bete behar dituzte:

² Jatorrizko ahotsaren gainetik entzuten den itzulitako berbaldiri esaten zaio “ahotsa gainjartzea”.

- Gaiaren lexikoa eta terminologia ezagutu eta aberasteko, irakasleak emandako hainbat ingelesezko eta euskarazko terminoren testuinguruak bilatu eta ingelesezko terminoari dagokion euskarako termino egokia proposatu behar dute ikasgelan erakutsitako glosario ereduari jarraiki³
- Klonazioari buruzko argibide hauek jaso:
 - Zer da klonazioa? Ba al dago klonazio mota desberdinik?
 - Zein animalia klonatu izan dituzte orain arte?
 - Giza organoak klonatu ahal dira transplanteetan erabiltzeko?
 - Klonazioaren arriskuak
 - Zer deritzozu gizakia bera klonatzeari?

2.4. Entregatu beharreko lana:

- Glosarioa
- Klonazioari buruzko argibideak
- Dokumentalaren zatia behar bezala itzuli-egokituta

2.5. Iraupena: aste bat (hiru ordu ikasgelan; gainerakoa ikasgelatik kanpo)

2.6 Materiala

Ikasgelan jorratuko diren gaiak lantzeko benetako materiala erabiliko da. Horrela, ikasleek beti aukera izango dute haiek egindako itzulpena dagoeneko merkatuan den edo telebistan emititu den bertsioarekin alderatzeko.

Hortaz, ikasleei ingelesezko gidoiarekin batera, itzuli beharreko bideoklipa ere ematen zaie.

Eskolan erabiltzen dutan materialaren adibide gisa, hona hemen *National Geographic*eko *Clone* izeneko dokumentalaren jatorrizko gidoiaren zati bat:

“**Narr:** Cloning starts with an egg cell. Inside are genes that instruct the cell to turn into, say, a pig... just as a sheet of music tells you how to play a song. To create a clone... you vacuum out the genes to get rid of the existing instructions. Then you put in a new set of instructions—a new set of genes from an adult

³ Glosarioa artikularen bukaeran agertzen da eranskin modura.

animal you want to copy. But, that's not all. You also have to tweak the new instructions. Just like rewriting a piece of music, you have to change the notes, erase some, rearrange others. You now have a new set of instructions that will tell the clone how to grow. With pigs, a surgeon implants about 150 single-cell embryos...

Surgeon Sync:

Embryos please.

Narr:...each genetically modified—into a sow.Perhaps five piglets will come to term. But before Andrea Gordon can get the organ she needs, many scientific puzzles must be solved.The science of cloning isn't exactly new. In the late 1800s, a sea urchin embryo in ocean water was shaken not stirred. The embryo split into separate cells, and each grew into an identical animal—a clone. And so the prickly problem of reproductive cloning was solved for the first time._Could other animals be cloned? In 1902, Hans Spemann investigated salamanders._Unlike a sea urchin embryo...a salamander embryo can't be shaken apart.In a moment of inspiration, Spemann took a hair from his baby son...and used it to create a loop.He lassoed the embryo._As he tightened the noose...the two-cell embryo divided neatly into separate cells.Each cell developed into an adult salamander—two clones: twins.In the 1960s, cells from a juvenile frog—a tadpole—were used to clone an adult.But only with Dolly did scientists at last show that a clone could be made from an adult mammal._Dolly wasn't created in a day.It took 277 tries to make her—276 embryos that never survived to term.”

3. IKASGELAN ERABILITAKO DOKUMENTAZIO ITURRIAK

Ikasleek klonazioari buruzko ezagutza sakondu eta gai honetako hizkuntza terminologia lan dezaten, testu paraleloetara jotzen dut, hala sorburu hizkuntzan idatzitakoetara nola xede hizkuntzan adituek argitara eman dituzten testuetara. Azken batean, ikasleek, dokumentala euskarara itzuli-egokitzeko egoeraraino iritsi arte, terminologian zein dokumentazio iturri zientifikoetan espezializatzeari ekin behar diote nolabait ere.

Interneten asko eta era askotakoak dira klonazioari buruz topa daitezkeen helbideak. Horregatik, bilaketan denbora gehiegi gal ez dezaten, kontsultak egiteko orduan informazio fidagarria eta kalitatezkoa ematen duten hainbat helbide elektronikoko proposatzen dizkiet:

- Estatu Batuetako Energia Ministerioaren Zientzia Departamenduak Giza genomaren proiektuaren berri ematen duen orrialde elektronikoa: [http://www.ornl.gov/sci/techresources/Human_Genome/elsi/cloning.shtml].

- Utah-ko Unibertsitateko Genetika Zientziako Irakaskuntza Zentroaren helbide elektronikoa: [<http://gslc.genetics.utah.edu/units/cloning>].
- Euskarazko testu paraleloak irakurtzeko, Elhuyar Fundazioaren zientzia komunikaziorako web orria: [<http://www.zientzia.net>].

Goiko helbide horietan, idatzizko testuak irakurtzeaz gain, ikasleek aparteko aukera dute ikus-entzunezko testuak ere jatorrizko hizkuntzan ikus-entzuteko. Era honetako testuak erabat berriak gertatuko zaizkie ikasleei, izan ere orain arte itzulpengintzako ibilbidean idatzizko testuak baino ez baitituzte landu. Oraingoan, ordean, ikus-entzunezko testuei egin beharko diete aurre.

Hiztegiak eta, bereziki, hiztegi elektronikoak dira gaur egun itzultzaileen tresna lagungarriak ez ezik tresna baitezpadakoak ere. Klonazioaren gaia lantzeko ikasleei erabiltzeko gomendatzen dizkiedan euskal hiztegi espezializatuak hauek dira:

- Zientzia eta Teknologiaren hiztegi entziklopedikoa: [<http://www.zientzia.net/hiztegia/index.asp>].
- Zientzia eta Teknologiaren Corpusa: [<http://www.ztcorpusa.net/cgi-bin/kontsulta.py>].
- Euskalterm, Terminologia Banku Publikoa: [http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm].

Euskarazko testu paraleloen iturri nagusia Elhuyar Fundazioak babesten duen “Zientzia.net” helbide elektronikoa da. Web gune horretan “zientziaren eta teknologiaren inguruko informazio eguneratua” ematen da “euskaraz eta modu ulerterrazean landuta”, baina “zorrotasunari uko egin gabe”, egileek esaten duten bezala.

Irakurtzeko gomendatzen dizkiedan artikuluen artean hauek aipatuko ditut:

- “Dolly, klonazioaren ikurrak hamar urte” (Errementeria, N: [http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik_kod=12766]).
- “Zerk geraraz lezake giza klonazioa?” (Roa, G.: [http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik_kod=3168]).

- “Klonazio ‘terapeutikoaren’ mitoa: egiak eta gezurrak” (Escajedo, L.:

[http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik_kod=4989)]

Ikasleek, gainera, euskarazko multimediatik aurkezpenak ikusi eta entzuteko aukera dute “zientzia.net” web gunean. Lantzen ari garen gaiarekin zerikusirik zuzena du, esaterako, “Genetika XX mendean” izeneko dokumentalak:

[http://www.zientzia.net/multimedia_bist.asp?Multi_Kodea=2&formatua=bideoa].

Horrela, idatzizko testuak nahiz ikus-entzunezkoak baliagarriak gertatzen zaizkie ikasleei erregistro jasoagoekin eta espezializatuagoekin trebatzeko eta arlo honetako hizkera zientifikoarekin gero eta erosoago sentitzeko.

4. EBALUAZIOA

Behin lana amaitu dutenean, denon artean komentatzen ditugu glosarioa egiteko orduan sortu zaizkien zalantza terminologikoak, bai eta erabili dituzten dokumentazio iturrien egokitasun maila ere.

Bukatzeko, ikasleek itzuli-egokitutako dokumentalaren zatia telebistan emititutakoarekin alderatzen dute.

ERANSKINA: GLOSARIO EREDUA

TERMINOA	XHko TESTUINGURUA	EUSKARAZKO TERMINOA	SHko TESTUINGURUA	Dokumentazio iturriak
ADULT CELL				
CLONE				
EGG CELL				
EMBRYO				
GENE				
GENETIC COPY				
GENETIC INFORMATION				
HUMAN CLONING				
MAMMAL				
NUCLEAR TRANSFER				
REPRODUCTIVE CLONING				
TWO-CELL EMBRYO				

lantzea eta erabilera bultzatzea, ikusitakoa eta ikasitakoa lanera eramateko. Horregatik, **Orekatzen, unitate honetan propio landu genuen motibazioa.**

Funtsean, unitate honek balio du langileen **hizkuntza-ohiturak aztertzeke, horien zergatiaz jabetzeko eta aldarazten laguntzeko.** Ariketa batzuen bidez, langileek inguruari (lanekoari zein lanetik kanpokoari) begiratu behar diote, analizatu, hausnartu eta egoeraz jabetu, eta ondorioetatik abiatuta, konpromiso txikiak baina sendoak hartu, pixkanaka ohiturak aldatzen hasteko. Ez beti, baina aldaketa hori gauzatzea, neurri batean, norberaren esku dago, eta ahal den neurrian horretara bultzatu nahi ditugu.

Unitate honetan, besteak beste, honelakoak lantzen dira: euskararen abantailak edo alderdi onak, euskararekin norberak izan duen harremana, euskaraz izandako esperientzia onak edo ez hain onak, gure eguneroko hizkuntza-ohiturak, euskararen erabilera (matrizea), mintzagrama... Horietako asko bakarka egiten dira, baina beste batzuk taldean ere bai, eta besteen esperientzia entzunda edo irakurrita norberarentzat baliagarria izan daitekeena hartzen eta erabiltzen da.

3.6. Orekatzen non eta nola

Materiala **pdf formatuan** dago eta aukera egongo da ordenagailura jaisteko, gordetzeko, betetzeko eta inprimatzeko.

Azken egokitzapenak eta zuzenketak eginda, *Orekatzen* materiala Justizia Saileko teknikarien esku utzi genuen apirilaren hasieran, eta, beraz, hor bukatu zen gure lana.

Orain **beste fase bat hasiko da**, etorkizunean garatuko dena: materiala ezagutarazi, eskuragarri jarri, langileak animatu erabil dezaten, trebatzeko ikastaro bereziak antolatu, etorkizunean nola osatu are gehiago... Izan ere, ez da nahikoa material on edo interesgarria sortzea; behar bezala erabiltzeko eta ahalik eta etekin handiena ateratzeko, materialari ere bidea egiten lagundu egin behar zaio, eta ahal baldin bada are gehiago osatu.

ARAUEN ERABILERAZ ETA ERABILERAREN ARAUEZ: GOGOETA SOZIOLOGIKOAREN LEKUA UNIBERTSITATE-IRAKASKUNTZAN¹

Agurtzane Elordui (EHU)

1. GOGOETA SOZIOLOGIKOAREN LEKUA UNIBERTSITATE-IRAKASKUNTZAN

Europatik datozkigun irakaskuntza-jarraibideek unibertsitate-irakaskuntza esanguratsuaren beharra nabarmentzen dute. *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoaren* (Europako Kontseilua 2001) jarraibideen arabera, ikasleek irakaskuntza-prozesuan hasi aurretik dituzten ezagutzak eta gaitasunak hartu behar ditu irakaskuntzak abiapuntu, eta irakaskuntza horren helburu nagusia izan behar da abiapuntu horretatik ikasleek etorkizuneko komunikazio-jardueretan izango dituzten beharrei modu eraginkorrean erantzuteko gaitasunak garatzen laguntzea. Hori helburu, hizkuntzen irakaskuntzan, ekintzan oinarritutako ikuspegia proposatzen du *Europako Markoak*, eta gizarte-eragiletzat hartzen ditu hizkuntza bat ikasten diharduten erabiltzaile eta ikasleak; hau da, egoera jakin batzuetan, ingurune espezifiko eta jarduera-arlo jakin batean, zeregin batzuk bete behar dituzten gizarteko kidegizak.

Unibertsitate mailan, Europako Unibertsitate Eremuak hartu duen jokabide metodologikoan, hau da, gaitasunetara zuzendutako irakasbidean, komunikazio-gaitasunak lantzeak hartu du lehentasuna, baina beti ere jomugan dugun jardun-eremu akademiko-profesionalaren diskurtso komunitatearen praktikak kontuan hartuta.

Irakaskuntza-ikuspuntur berri horietan komunikazioaren alderdi soziolinguistikoei aparteko garrantzia hartzen dute: hizketa-ekintzak gizarte-testuinguru zabalago baten osagaitzat hartzen dira, eta aintzat hartzen da testuinguru horrek berak ematen diela hizketa-ekintzei esanahi osoa. Irakaskuntzak jardun-eremu akademiko-profesional jakin baten diskurtso komunitatearen praktikak hartu behar ditu bereziki aintzat, baita

¹ Lan hau aurrera eraman ahal izateko, *GARATERM: Diskurtso akademiko-profesionalaren didaktika eta garapena uztartzeko tresna informatikoen diseinu eta integrazioa* (EJIE 07/07) ikerkuntza-egitasmoaren barruan emandako diru-laguntza baliatu dugu.

komunikazioa egoera jakin batean, ingurune espezifiko batean eta jarduera-arlo jakin batean gertatzen dela kontuan hartu ere.

Alderdi soziolinguistikoa are garrantzitsuagoa da *Europako Markoak* eta Europako Unibertsitate Eremurako proposamenek hartu duten jokabide metodologikoak ikaslea gizarte-eragileztat hartzen duelako, egoera jakin batzuetan zeregin jakin batzuk bete behar dituen gizarteko kideztat. Ikuspegi horretan irakaskuntzaren helburua da ikasleari laguntzea komunitate akademiko eta profesionalean integratu dadin. Horretarako ezinbestez hurbildu behar du ikaslea eremu profesionalaren testuingurura, eta komunitate akademiko-profesionalen praktika komunikatiboen dimentsio soziokultural eta funtzionaletan jarri behar du arreta berezia.

Gogoeta edo kontzientzia linguistikoa irakasbide emankortzat hartu da gaitasun linguistiko eta soziolinguistikoaren lantzean (Cost et al. 2007; Halliday 1982, Halliday & Hasan 1989, Van Lier 1996, besteak beste). Hizkuntzaren didaktikan hainbat proposamenek ohartarazten gaitu ikasleei komunikazio-gaitasuna garatzen laguntzeko, hizkuntzaz ohartzeko ahalmena landu behar dela ikasgelan (Bretaina Handiko *Language Awareness* edo EEBBetako *Whole Language* mugimenduek bereziki). Proposamen didaktiko horien arabera, hizkuntzaren eta haren erabileraren inguruko gogoeta pizten duten jardunbide pedagogikoez, ikaslearengan komunikazio-gaitasuna areagotzea lortzen dute. Gogoeta linguistikoak laguntzen die ikasleei komunikazioan parte hartzen duten elementuez hobeto ohartarazten, baita hizkuntzaren baliabide linguistikoaren eta funtzio edo helburu linguistikoaren artean dagoen loturaz ere. Gogoeta linguistikoak, horrela, euskarri teoriko-metodologikoak eskaintzen dizkio ikasleari bere erabilera eta besteen erabilera aztertzeko eta balioztatzeko, eta gaitu egiten du ikaslea irakaskuntza-prozesuan bertan, eta baita etorkizuneko behar komunikatiboetan, hizkuntzaren inguruan hartu behar dituen erabakiak era eraginkor eta autonomoan har ditzan.

Ahalmen kritiko hori lantzean, hizkuntzalaritza teoriko eta deskriptiboaren ekarriak hartzen dituzte kontuan; baina, aldi berean, aldarrikatzen dute lehentasunezko lekua hartu behar dutela *Hizkuntzaren Zientziak* erabileraren alderdi sozial eta pragmatikoez ohartzeko egiten dizkigun ekarriek ere (Halliday 1982, Halliday & Hasan 1989): soziolinguistikaren, eta pragmatikaren bertiente pragmalinguistikoaren eta soziopragmatikoaren ekarpenek euskarri teoriko-metodologiko ezinbestekoak ematen baitizkigute diskurtsoaren eta testuaren alderdi formalez zein hizkuntzaren erabilera-baldintzez gogoeta egin ahal izateko.

Hizkuntzen irakaskuntzaren bi proposamen horiek bereziki interesgarriak iruditzen zaizkigu euskara bezala normalizazio prozesuan dagoen hizkuntza baten kasuan, eta areago berriki garatzen hasi diren erabilera-eremuetako hizkeren irakaskuntzan. Esparru horietako gizarte-eragileek euskararen arau gramatikalak eta estandarrak izango dituzte abiapuntu, baina arau horien ezagutza teoriko-praktikotik abiatuta, ezinbestekoa izango dute arau sozial eta pragmatikoen garapena eta finkapena, haien esparruko genero eta erregistroen eskakizun diskurtsiboei erantzuteko helburuarekin.

Garapen eta finkapen lan horretan duten erantzukizunari behar bezala erantzuteko, eta horretan beren ekarria egin ahal izateko, esparru akademiko-profesionalak ikasle-erabiltzaileek formazio sendoa behar dute esparruko berezitasun soziolinguistikoez: besteak beste, lan-esparruan hizkuntzak duen egoera soziolinguistikoaz, esparru horretan hizkuntzaren estatusaren eta corpusaren normalizazioan egin diren aurrerapenez (eskuragarri dituzten produktu linguistikoez eta esparru horren hizkerarako egiten diren proposamenez, esaterako), eta baita lan-esparru horrek edozein hizkuntzaren kasuan dituen berezko parametro soziolinguistikoez ere.

Aztergai horiek, ahalmen kritikoa eta autonomia sustatuz landu behar ditugula sinesten dugu. Gure ustez, gogoeta kritikoak laguntzen die ikasleei euskararen eta bereziki haien lan-eremuko egoera soziolinguistikoa ulertzen, lan-esparruko hizkerak ustiatzen dituen baliabide linguistikoen ezagutza teoriko-praktikoa sendotzen, eta euskararen erabileran izango dituen gabeziak eta erronkak aurreikusten, besteak beste. Era berea, gogoetarako zereginak trebakuntza ona dira ikasleak lan-esparruan izango dituen gabeziei eta erronkei aurre egiteko estrategiak gara ditzan.

Ondorio horietara eguneroko irakaskuntza-esperientziak eraman gaitu: ahalmen kritikoa eta autonomia sustatzeko hainbat zeregin egin ditugu azken urteetako gure irakaskuntza-jardueran. Hurrengo atalean azalduko ditugu horietako batzuk.

2. ARAUEN ERABILERAZ ETA ERABILERAREN ARAUEZ UNIBERTSITATE-IRAKASKUNTZAN

2007. urtean onarturiko Euskararen Plan Gidariak² aurreko planen bidetik arautu du titulazio berri guztien planetan euskara berariaz lantzeko bi irakasgai txertatu behar direla. 2008ko otsailaren 6ko HEAAn argitaratu zen graduko titulazioen mapa egin eta onartzeko prozedura, eta xedapen horretan berariazko aitortza egiten zaie Euskararen Plan Gidariari atxikitako irakasgaii.

Euskal Filologia Sailak irakasgai horien katalogoak garatu ditu 2007-2008 ikasturtean. Irakasgai horietako bat *Euskararen araua eta erabilera* du izena, eta haren helburua da EHUtik ateratzen diren tituludunek gizartean goi mailako tituludunei dagokien estandarra ezartzeko eginkizunean eragile kualifikatuak izatea. Aipatutako katalogoan Euskal Filologia Sailak proposatu behar izan du ikasgai horretan landu beharreko egitaraua, eta helburu horrekin sortu zen *Euskararen arau eta erabilera* egitaraua diseinatzeko foroa (ikus. in <http://euskaraztrebatzen.org>). Sail horretako hainbat ikaslek³ hartu dugu parte foro eta proposamen horretan.

2.1. *Euskararen araua eta erabilera* ikasgai lantzeko gaitasun soziolinguistikoak

Foroan ikasgai horren gaitasunak erabakitzeke orduan, aurreko atalean aipatutako gogoeta soziolinguistikoak hartu dira bereziki kontuan, beste gogoeta didaktiko batzuen artean⁴. Izan ere, irakasgaiaren justifikazioa euskararen egoera soziolinguistikoan oinarritzen da, hizkuntzaren normalizazio-planetan espero daitekeen bezala⁵. Hurrengo

² EHUk 2007/08-2011/12 ikasturte tarterako onarturiko hizkuntza-plana ondoko helbide honetan kontsulta daiteke: http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/p076-11752/eu/contenidos/informacion/plan_informa/eu_plan/adjuntos/plan_gidaria.pdf

³ Joseba Ezeizak, Igone Zabalak eta hirurok landu eta garatu ditugu Euskal Filologia Sailak ikasgai horretan proposatu dituen gaitasunak eta egitarauaren gainerako alderdiak. Xabier Alberdi, Xabier Alzibar eta Ines Garzia irakasleek ere aintzat hartzeko ohar eta iradokizunak egin dituzte.

⁴ Luze joko luke artikulu honetan azaltzeak *Euskararen araua eta erabilera* ikasgaiarako proposatu ditugun bost gaitasunetara heltzeko hartu ditugun erabaki didaktikoen arrazoiak. Gainera, ikasgaiaren diseinuan aritu garenon artean didaktikan adituak direnak badira, eta haiek azaldu dituzten nik baino hobeto, eta xehetasun gehiagorekin, ikasgai honek egun dituen euskarri didaktikoak (Ezeiza 2008, Ezeiza et al. 2007).

⁵ Plan Gidariak honela azaltzen du ikasgai honen justifikazio soziolinguistikoa: ‘—Bigarren hautazko ikasgaia zeharkakoa izango da; izan ere, bertan ikasiko diren trebetasunak beharrezkoak izango dira

gaitasun hauek proposatu ditugu ikasgai honetan lantzeko (ikus. in <http://euskaraztrebatzen.org>):

1. GAITASUNA. Hitzunek eta gizarte-eragileek hizkuntzen erabileran eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea eta, bereziki, bere lan esparruko euskararen egoera soziolinguistikoarekin harremanetan jartzea.
2. GAITASUNA. Hizkuntzaren erabilera zuzen eta egokien nozioei erreparatzea, bereziki aztertuz zergatik testuinguru batzuetan onargarriak diren hizkuntza-baliabideak baztertzekoak diren beste testuinguru batzuetan.
3. GAITASUNA. Arrazoi pragmatiko-diskurtsiboengatik hautatzen diren hizkuntza-baliabideen funtzio komunikatiboa eta esanahi soziala antzematea.
4. GAITASUNA. Norberaren intuizio eta esperientzia linguistikoak sistematizatu eta azaltzea, eta norberaren komunikazio-rola berriro definitzea askotariko komunikazio-egoerei egokitzeko.
5. GAITASUNA. Kontsulta-tresnak, bereziki Interneten eskuragarri daudenak, erabiltzen jakitea, hizkuntza-baliabideen formari, esanahiari eta erabilerari buruzko informazioa lortzeko.

Gaitasun horiek proposatzera gogoeta-prozesu luze baten ondoren heldu gara. Ikuspegi soziolinguistikotik prozesu horretan bi ardatz soziolinguistiko nagusi hartu ditugu kontuan. Batean, euskararen egoera soziolinguistikoa eta ikasle-erabiltzaileen lan-esparruko egoera soziolinguistikoa hartu ditugu kontuan eta, bestean, hizkuntza normalizatu batean esparru akademiko-profesional horietako edozein ikasle-erabiltzailek dituen behar sozial eta pragmatikoak. Bietan antzeman ditugu ikasleak aurrean izango dituen erantzukizunak eta eginkizunak, eta biek pentsarazi digute ikasleak erantzukizun eta eginkizun horiei erantzuteko garatu behar dituen gaitasunez ere.

Euskararen Araua eta Erabilera ikasgaia EHUko titulazio guztietan eskainiko da esan bezala. Hortaz, ikasgai horren gida-lerro didaktiko nagusiak erabakitzeko orduan

euskaraz ikasten duen edozein ikaslerentzat, hautatu duen ikasketa edozein izanik ere. Ikasgai horretan ikasleek estandarizazio- prozesuko arauak landu eta hobeto ezagutuko dituzte, eta komunikazio-egoera desberdinetan nola erabili behar diren ikasiko dute. Ikasgai horrek izen orokorragoa izango du; adibidez, «Euskararen araua eta erabilera». Zeharkakoa izango denez, ikasgai hori ez da egongo titulazio zehatz bati loturik. Titulazio desberdinetako ikasleek ikasi ahal izango dute, baina komenigarria da berdinak ez izanik ere, antzekoak diren titulazioak izatea.’ (http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/p076-11752/eu/contenidos/informacion/plan_informa/eu_plan/adjuntos/plan_gidaria.pdf)

gogoan izan behar izan ditugu unibertsitate mailako edozein ikasle-erabiltzailek garatu behar dituen komunikaziorako gaitasunak, ikasle bakoitzaren espezialitatearen gainetik hasteko. Baina, irakaskuntza-praktikan, komunikaziorako gaitasun orokor horiek ikaslearen esparru akademiko-profesionalaren testuingurura eraman behar dira, beti ere jakintza-arlo horretako komunikaziorako eskakizunetara egokiturik. Horregatik euskararen egoera soziolinguistiko orokorra ez ezik, esparru akademiko-profesionalen diskurtso-komunitateen eskakizun soziolinguistiko eta pragmatikoak ere oso aintzat hartzekoak iruditu zaizkigu, bereziki esparruko egoera soziolinguistikoak ikasle-erabiltzaileari ekartzen dizkion berariazko erronkak eta zailtasunak.

Euskararen arauz eta erabileraz jardun behar dugu ikasgai honetan, eta gai horretan ezinbestez izan behar dugu gogoan euskaraz diharduten esparru akademiko-profesionaletako ikasle-erabiltzaileek normalizazio bidean dagoen hizkuntza batez dihardutelara, eta haien arazo eta erronka ugari euskararen beraren estandarizazio edo normalizazio-prozesuarekin loturik daudela. Era berean, ezin dugu ahaztu ikasle-erabiltzaile horiek erantzukizun handia dutela euskararen estandarizazioan: arau estandarren ezarpenean, eta, ezinbestez, estandar hori haien eremu akademiko-profesionalean bizi duen elaborazio edo modernizazio-prozesuan ere. Izan ere, une honetan euskararen normalizazio prozesuaren erronketako bat da hain zuzen hizkuntzaren lantze sozio-funtzionalarekin lotuta doan garapen lexiko-diskurtsiboa. Unibertsitateak prestatzen dituen aditu eta profesionalek modu aktiboan lagundu behar dute euskara akademiko eta profesionala garatzen. Unibertsitateko hizkuntzaren irakaskuntzak helburu izan behar du, beraz, profesional horiek eragile eraginkor eta beregainak izatea alorrez alorreko erregistro akademiko-profesionaletan euskara egiten ari den garapen lexiko-diskurtsiboa.

Erronka eta zailtasun horiei aurre egiteko gai diren ikasle-erabiltzaileak trebatzeko, edozein hizkuntzaren irakaskuntzan kontuan hartzen diren parametro sozial eta pragmatikoak (komunikazioaren eremuak, komunikazioaren xedea, komunikazioaren gaia, trataera eta euskarriak, besteak beste) ere baliatu behar ditugu, bai gaitasun soziolinguistikoaren, eta bai haiek lantzeko zereginen diseinuan ere. Euskara darabilten ikasle-erabiltzaileek ondo ezagutu behar dituzte arau gramatikal eta akademikoak, teorikoki eta praktikoki; baina, aldi berean, arau horiek erabileran bizi duten egokitzapenez eta, zeresanik ez, arauen mugez ere, kontzientzia hartu behar dute. Bestalde, elaborazio edo modernizazio prozesuan haien ekarria egin ahal izateko, beren

lan-esparruko arau sozial eta pragmatikoak modu eraginkorrean ezagutu behar dituzte, eta horretarako, arrazoi pragmatiko-diskurtsiboengatik hautatzen diren hizkuntza-baliabideen funtzio komunikatiboa eta esanahi soziala ulertu behar dute.

Azken alderdi horretarako, PREST ikerketa-proiektuaren ikerketen emaitzak hartu ditugu bereziki aintzat⁶. Ikerketa-proiektu horretan titulazio berrien Liburu Zurieta jodugu eta liburu horiek aztertu ditugu esparru akademiko-profesionaletan komunikaziorako gaitasunen dimentsioak identifikatu eta sistematizatzeko asmoz. Identifikazio eta sistematizazio lan horietan, hurrengo galdera hauek hartu ditugu gidalerro nagusi: a) zein eginkizunetarako prestatu behar ditugu unibertsitateko ikasleak, alorrez alor? b) zein dira eginkizun horien komunikazio-eskakizunak? eta c) zein ahalbide garatu beharko dituzte unibertsitateko ikasleek eskakizun horiei modu egokian aurre egin ahal izateko? (Ezeiza et al. 2007).

Galdera horiei entzuteko lehenik eta behin komunikaziorako berariazko gaitasunak identifikatu ziren titulazioz titulazio eta, horretarako, esan bezala, Liburu Zurieta egiten diren proposamenak baliatu ziren. Ondoren, Liburu Zurieta jomugatzat hartzen diren berariazko gaitasun horien egitura komunikatiboaren azterketa egin zen eta horretarako *Europako Markoak* proposatzen dituen jarraibideak hartu ziren aintzat. Markoari jarraiki, Liburu Zurieta aurreikusitako komunikaziorako gaitasunen hainbat aldagai soziolinguistiko eta pragmatiko xehatu eta sistematizatu ziren (komunikazioreremua, komunikazioaren xedea, komunikaziorako gaiak, euskarriak, komunikaziorjarduerak, testu motak, e.a) aztergai izan genuen jakintza-arlo bakoitzerako.

2.2. Arauen erabileraz eta erabileraren araez gogoetan

Behin landu beharreko gaitasunak arrazoituta eta erabakita, xedetzat ditugun gaitasun horietara heltzeko jardunbide edo zereginez ere aritu gara *Euskararen arau eta erabilera* egitaraua diseinatzeko foroan. Aipatutako gaitasun soziolinguistikoei dagokielarik bereziki, hizkuntzaz ohartzeko ahalmen kritikoa sustatzen duten jardunbide didaktikoak oso egokiak iruditu zaizkigu. Lehenago esan bezala gure ustez ahalmen kritikoa latzen duten jarduerak laguntzen diete ikasleei euskararen erabileran izango dituen gabeziak eta erronkak aurreikusten, eta lan-esparruko hizkerak ustiatzen dituen euskararen baliabide linguistikoaren ezagutza teoriko-praktikoa sendotzen ere. Biak ala

⁶ PREST proiektuaren lan-ildo nagusien berri izateko ikus. <http://euskaraztrebatzen.org> eta Ezeiza eta al. 2007.

biak oso garrantzitsuak dira erronka horiei era eraginkorrean eta autonomoan erantzun behar dien ikasle-erabiltzaile horrentzat: izan ere, aurreikusteko gaitasunak eta bere lan-esparruko berezitasun sozial eta pragmatikoen ezagutzak komunikaziorako estrategiak garatzen lagunduko diote ikasle horri.

Aurreko atalean esan bezala, eguneroko praktikak eraman gaitu ondorio horretara. Izan ere, irakasbide hori praktikara eraman dugu azken urte hauetan irakatsi dugun *Hizkuntza II: Araua eta erabilera* ikasgaiari. Ahalmen kritikoa eta autonomia sustatzeko asmoz hainbat zeregin egin ditugu ikasgelan. Horien adibide gisa, zenbait zeregin azalduko ditugu hurrengo lerroetan. Aukeratutako zereginak kontsulta-tresnetan trebatzeko ariketak dira. Ariketa horiek aukeratu ditugu trebakuntza hori ere gogoetaren bidez landu daitekeela erakusteko asmoz.

Hizkuntza II: Araua eta erabilera ikasgaiari kontsulta-tresnetan trebatzeko hainbat ariketa egiten ditugu: Euskara batuaren arauen berri izateko kontsulta-tresnetan trebatzeko jarduerak (Euskaltzaindiaren webgunean, HABEren webgunean edo Ehulku-n esaterako), arauen kontsulta-guneetan ematen zaizkien argibideak interpretatzen ikasteko jarduerak (Euskaltzaindiaren webgunean); egitura morfosintaktikoak, lexikoa eta esamoldeak testuinguruan aztertzeko ariketak (*Ereduzko Prosa Gaur-en* eta *ZT Corpusean*, esaterako), espezialitateetako lexikoa eta esamoldeak kontsultatzeko ariketak (*Elhuyar hiztegia*, *Euskalterm* zein *Ereduzko Prosa Gaur*, *ZT Corpora*,...), aholkularitzarako zerbitzuetan kontsulta-saioak (Jagonet, Ehulku, Duda-muda,...).

Ariketa praktikoa horietan ahalmen kritikoa lantzeko jardunbide didaktikoak integratzen ditugu. Hurrengo lerroetan zenbait ariketatik integratzen dugun gogoetaren helburuak eta prozedura azalduko ditugu.

1. ARIKETA: HIZTEGI BATUA LANTZEKO ARIKETA

HELBURUA: Kontsultarako tresnen erabileran ikasleak hainbat arau pragmalinguistiko eta soziopragmatikoren inguruan gogoeta egitea: euskara batuaren kodifikaziorako irizpideez, estilo zaindurako ematen diren aholkuek eta horien atzean dauden irizpideez, esparru funtzional eta geografiko ezberdinetan egiten diren proposamen ezberdinez (hizkera maila ezberdinetan), besteak beste.

PROZEDURA: Ariketa honetan 1. taularen ereduko fitxa bat erabiltzen dugu. Fitxan ikasleari hainbat hitz ematen zaizkio -ohiko hitzak bere lan-esparruan-. Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan aurkitu behar ditu eta aztertu: a) Onartua den, b) bere orde besteren bat hobesten den, c) Euskaltzaindiak ematen dizkigun irizpideetan

onarpen edo hobespen horretarako azalpenik dagoen, d) Gaitzesten bada, zein proposatzen zaigun erabiltzeko bere ordeztan eta Euskaltzaindiak ematen dizkigun irizpideetan horretarako azalpenik dagoen e) Hitz horren erabileraren inguruko informaziorik ematen den: adibidez erabilera orokorrerako ez, baina erabilera esparru jakin baterako onartzen dela d) hitzaren mailaren inguruko informaziorik ematen zaigun, beheko hizkera mailari dagokion forma dela esaten zaigun, esaterako, e) informazio geografikorik ematen zaigu: esaterako, eremu geografiko jakin bateko erabilerara mugatzen den, eta f) bestelako gramatika berezitasunik ematen zaigun: adibidez, erabilera ezberdinak iparraldean eta hegoaldean; mendebaldean, erdialdean /ekialdean, e.a.

HIZTEGIA BATUKO HITZA	HIZTEGI BATUAN ONARTUA	HORREN ALDEAN HOBETSIA (H.)	HORREN ORDEZ ERABILI	ERABILERA-MARKAK <ul style="list-style-type: none"> GEOGRAFIKOAK HIZKERA MAILAK ERABILERA-ESPARRUA 	GRAMATIKA-INFORMAZIO AIPAGARRIRIK?
integrazioa	1. + 2. +	1. _____ 2. bertakotu, gizarteratu		1. <i>Mat</i> 2. _____	
basazain	1. -	_____	basozain	_____	_____
...					

1. taula: Hiztegia Batua lantzeko ariketa

2.ARIKETA: HIZTEGI BATUA LANTZEKO ARIKETA

HELBURUA: Hiztegi Batuko erabileran ikurren interpretazioan trebatzea. Aldi berean, esparru funtzional eta geografiko ezberdinetan egiten diren proposamen ezberdinez gogoeta egitea.

PROZEDURA: 2. taulako eredua erabiltzen da ariketa honetan. Hiztegi Batua lantzeko egia/gezurra ereduako ariketak proposatzen zaizkie ikasleei. Gezurra den kasuetan, informazio zuzenaren arabera berformulatu edo berridatzi behar dituzte testuak :

HIZTEGI BATUA	E	G
1. Euskara Batuko hiztegian <i>Bizk.</i> ikurra du eta, beraz, ezin dut erabili Euskara Batua ez delako. BERRIDATZI:		
2. <i>Eroan</i> ez da Euskara Batuko forma eta, beraz, ezin dut inolako testuingurutan erabili. BERRIDATZI:		
3. <i>Heg.</i> ikurra duten hitzen kasu batzuetan ulertu behar dut delako hitza berria dela eta gaztelaniaz ez dakitenentzat ezin ulertuzkoa dela <i>-aleazio</i> , esaterako-. BERRIDATZI:		
4. ...		

2. taula: Hiztegia Batuko ikurren interpretazioa lantzeko ariketa

3.ARIKETA: KONTSULTA-TRESNAK LANTZEKO ARIKETA

HELBURUA: a) ikaslea ohartzea hizkuntza batetik besterako itzulpenean edo egokitzean testuinguruak (kotestuak zein testuinguru diskurtsiboak) duen garrantziaz, b) ikaslea konturatzea komunikazio-eskakizunei erantzuteko orduan produktu linguistiko bakoitzak eskaintzen dion informazio motaz.

PROZEDURA: ikasleak teletipo zati batzuen egokitzea egin behar du kontsultarako baliabideak (hiztegiak, datu-baseak eta corpusak,...) erabiliz. Teletipo horietan zenbait forma (hitz edo esamoldeak) azpimarraturik daude. Hurrengo testuetan ikus daitezke zenbait adibide:

- Nueva Zelanda, sin jugar bien, aplasta a Canadá con diez **ensayos** (...) También **ensayaron** Caleb Ralph y Rodney So'oiolo, dos, y Kees Meews y Ma'a Nonu, mientras que el centro Daniel Carter **anotó** nueve **transformaciones**.
- Los ministros de Educación europeos aceleran la **integración universitaria**: El **proceso de Bolonia**, que tiene como objetivo la integración universitaria europea, permitirá una de las **transformaciones** más profundas que haya experimentado Europa , y algunos países tendrán que despedirse de una **tradición académica centenaria** y de los viejos títulos universitarios.
- Disputa en la familia de Agatha Christie: La propia escritora era poco partidaria de las **transformaciones** atrevidas de sus obras y en 1928 ya manifestó su gran descontento por una **representación teatral** de su novela "Café negro" que no le agradó mucho.
- En *EB rim Technologies* somos **especialistas** en tecnologías de **transformación** de plásticos aplicadas a diferentes **sectores de series medias-cortas** como la automoción, la aeronáutica, el **sector ferroviario**, etc. (publizitatea interneten)

Azpimarratutako forma horietako batzuk teletipo zati guztietan agertzen dira, baina esanahia eta funtzio ezberdinak dituzte teletipoaren gaiaren arabera (*transformación* hitza adibidez). Ikasleak aztertu behar du formaren kotestua eta forma horien itzulpenerako proposamen bat egin behar du. Horrezaz gain, proposamen horretara heltzeko egin duen kontsulta-ibilbidea azaldu behar du 3. taulako atalak kontuan hartuz: zein kontsulta-gunetara jo duen, zein helbururekin eta zein ondoriotara heldu den azaldu behar du (*transformación* hitzaren ibilbidea jarri dugu hemen adibide):

HITZA/ ESAMOLDEA ‘TRANSFORMAZIOA’	ZERTARAKO	ONDORIOAK
Elhuyar Hiztegia	<ul style="list-style-type: none"> • ‘Transformación’ itzultzeko ematen zaizkidan aukerak aztertzeko asmoz. • Gaia/espezializazioaren arabera forma egokia aukeratzeko asmoz. 	<i>transformazio, bihurtze, bihurketa, eraldaketa, eraldatze, bilakaera, bilakatzea</i>
Hiztegi Batua	Euskaltzaindiak onartzen/hobesten/aholkatzen duenaz jakiteko	Euskara batukotzat: <i>transformazio, eraldaketa, eraldatze, bilakaera, bilakatzea</i>
Euskal Hiztegia	<ul style="list-style-type: none"> • Formen tradizioaz jabetzeko: zein agertzen diren eta nolako jokaera duten. • Hiztegi horretan estilora egin diren zenbait proposamenen berri izateko 	<i>Transformazioa [nart]>eraldatzea</i> <i>Bihurtze (esanahia)</i> <i>Bihurketa>bihurtzea</i> <i>Eraldaketa>eraldatzea</i> <i>Eraldatze (esanahia)</i>
Euskalterm	Gaia/espezializazioaren arabera forma egokia aukeratzeko asmoz.	<i>KIROLA: transformazioa: Jokalari batek egiten duen lekualdaketa espezifikoa, nahitaez joko-sistema aldatzera behartzen duena</i> <i>HIZKUNTZA/LITERATURA: eraldatze, transformazio,...</i> <i>INDUSTRIA: transformazioa eraldatzea: ‘plastikoaren eraldatze-prozesua’</i>

3. taula: kontsulta-tresnak lantzeko ariketa

Aurretik aipatutako zeregin horiekin eta ikasturtean zehar egiten ditugun beste zenbaitekin (gogoeta-irakurgaiak, foroak, ...) gure ustez ikasleari laguntzen diogu ikasgaian helburu ditugun gaitasunak garatzen:

- Zeregin hauen bidez kontsulta-tresnetan, bereziki *Interneten* eskuragarri daudenetan, trebatzen dira ikasleak. Gainera, tresna horiek eskura jartzen dizkieten hizkuntza-baliabideen formaz, esanahiaz eta erabileraz informazioa lortzeko urratsak sistematizatzen dituzte eta informazioa interpretatzeko eta balioztatzeko behar duten ezagutza ere garatzen dute (5. GAITASUNA).
- Hizkuntzaren erabilera zuzen eta egokien nozioei erreparatzen diete ikasleek, baina *ondo dago/txarto dago* eruditik harago doaz, eta ulertzen dute zergatik testuinguru batzuetan onargarriak diren hizkuntza-baliabideak baztertzekoak diren beste testuinguru batzuetan (2. GAITASUNA).
- Erabaki horiek azaltzeko gaitasuna ere garatzen dute eta azalpenak haien aurretiko esperientzian oinarritzen dituzte, haien intuizio eta esperientzia linguistikoak sistematizatuz (4. GAITASUNA).
- Arrazoi pragmatiko-diskurtsiboengatik hautatzen diren hizkuntza-baliabideen funtzio komunikatiboa eta esanahi soziala antzematen hasten dira ikasleak

(3.GAITASUNA). Ariketa horiek laguntzen diete ulertzen erabilerak bere arauak ezartzen dituela: forma gramatikal eta estandar guztiak ez direla baliagarriak edozein testuingurutan. Komunikazio jardunean, euskarazko baliabideen artean aukeratzeko orduan, zenbait erabaki hartu behar dituztela ulertzen dute: kotestuaren eta testuinguruaren (hartzailearen, euskarriaren, gaiaren eta komunikazio helburuaren) ezaugarrien arabera, besteak beste.

3. ONDORIOAK

Lan honetan gure asmoa izan da ekarpen bat egitea Europako Unibertsitate Eremu berrirako proposamenak unibertsitatean landu beharreko komunikazio-gaitasunen eta jardunbide didaktikoen inguruan berpiztu duen eztabaidan. Euskal Filologia Sailak eztabaida-foroen bidez bideratu du eztabaida hori, eta aztertu ditu bereziki esparru akademiko-profesionalak jomuga dituen hizkuntzaren irakaskuntzan aintzat hartzeko gaitasunak eta horien irakasbideak. Foro horietan kokatzen da hemen azaldu dugun proposamena: izan ere, foro horietan eztabaidatu eta defendatu dugun ikuspegia azaldu nahi izan dugu lan honetan.

Foroan bezala hemen ere aldarrikatu dugu gaitasun soziolinguistikoek lehentasunezko lekua izan behar dutela euskararen irakaskuntzan eta bereziki esparru akademiko-profesionalak helburu dituen hizkuntzaren irakaskuntzan: esparru akademiko-profesionalak ikasle-erabiltzaileek euskararen garapenean duten erantzukizunari behar bezala erantzuteko, formazio sendoa behar baitute esparruko berezitasun soziolinguistikoetz.

Gaitasun horiek, gure ustez, ahalmen kritikoa eta autonomia sustatuz landu behar ditugu. Gogoeta kritikoak laguntzen die ikasleei euskararen erabileran izango dituen gabeziak eta erronkak aurreikusten, eta baita erronka horiei aurre egiteko estrategiak garatzen ere.

Gure proposamenak benetako testuinguru batean ainguratu nahi izan ditugu eta helburu horrekin lan honetan *Euskararen araua eta erabilera* ikasgaiaren gaitasunak eta zereginak aztertu eta azaldu ditugu bereziki. Plan Gidariaren barruko ikasgai horretan inon baino esanguratsuagoak iruditzen zaizkigu proposatzen ditugun jarraibide didaktikoak.

4. BIBLIOGRAFIA

- EUROPAKO KONTSEILUA (2001): *Common European Framework for Languages: Learning, Teaching, Assessment*. Estrasburgo: Education Committee.[euskarazko bertsioa HABE (2005) *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa*. Donostia: HABE.]
- EZEIZA, J. (2008): “Espezialitate-hizkeren didaktika Europako unibertsitate eremuan. Gaitasunetara zuzendutako irakasbidea” in Ugarteburu I. Eta P. Salaburu (arg.) *Espezialitate hizkerak eta terminologia Jardunaldiak III*. Bilbo: Euskara Institutua –EHU.
- EZEIZA, J., I. ALDEZABAL, M^aJ. ARANZABE, X. BILBAO, A. ELORDUI, A. ELOSEGI, K. ELOSEGI, A. EZEIZA eta I. ZABALA (2007): *PREST Profesionalen berriazko komunikazio-gaitasunaren garapenari etengabe laguntzeko baliabide telematikoa*. Ikerketa-txostena [Interneteko helbidea: <http://www.euskaraztrebatzen.org>]
- COST, J.M, L. ARMENGOL, E. ARNÓ, M. IRÚN, E. LLURDA (2007): *La conciencia lingüística en la enseñanza de las lenguas*. Bartzelona: Graó, Biblioteca de textos. Serie Didáctica de la lengua y la literatura.
- HALLIDAY, M.A.K. (1982) “Linguistic in teacher education. in Carter, R. (arg.) *Linguistics and the teacher*. London: Rutledge & Kegan Paul, 10-15.
- HALLIDAY, M.A.K. & R. HASAN (1989): *Language, context and text: Aspects of language in a social-semiotic perspective*. Oxford: Oxford University Press
- VAN LIER, L. (1996): *Interaction in the language curriculum. Awareness, autonomy & authenticity*. Harlow: Longman [euskarazko bertsioa: HABE (2005): *Elkarreragina hizkuntz curriculumean. Hizkuntzaz ohartzeko ahalmena, autonomia eta benekotasuna*” Donostia: HABE]
- ZABALA, I. (2008): “GARATERM: diskurtso akademiko-profesionalaren didaktika eta garapena uztartzeko tresna informatikoen diseinua eta integrazioa helburu duen proiektua” in Ugarteburu I. Eta P. Salaburu (arg.) *Espezialitate hizkerak eta terminologia Jardunaldiak III*. Bilbo: Euskara Institutua –EHU.

Hizkera berezituen didaktika eta plataforma telematikoak: PREST proiektua

Ainhoa Ezeiza Ramos
Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika
Euskal Herriko Unibertsitatea
ainhoa.ezeiza@ehu.es

Laburpena:

PREST egitasmoaren helburu nagusia komunikazio profesional eta akademikorako gaitasunak garatzen lagunduko duten baliabideak eta materialak diseinatzea da. Diseinu horretan, ezinbestekotzat jo dugu lantresna telematikoak integratzea, bai komunikaziorako baliabide direlako, bai garatu nahi ditugun gaitasunen ikaskuntzan lagundu dezaketelako.

Zeregin hori hartuta, PREST proiektuak bi ardatz teknologiko ditu: alde batetik, dokumentazioaren kudeaketa, eta bestetik, elkarreragina, koordinazioa eta komunikazioa.


Labur esanda, teknologiak eskaini dizkigun baliabideak ikuspegi didaktikotik aztertu ditugu egitasmo honetan, hizkera espezialduari buruz egiten den ikerketa lana ikaskuntzara eta ikasgelara ahalik eta gehien hurbiltzeko asmotan.

Garapena:

PREST proiektu telematikoa da, bizitza osoko ikaskuntzarako eta etengabeko garapen profesionalerako edukiak eta baliabideak eskaini nahi lituzkeena; beti ere, diskurtso espezializatuen eta komunikazio profesionalaren alorretan. Izan ere, PRESTek erantzun doitu bat eman nahi die euskaraz jardun behar duten ikasle, irakasle, ikertzaile eta profesionalen berariazko behar linguistikoei.

PREST proiektuak asmo praktikoa du: edukiak, esperientzien trukaketarako guneak eta aholkularitza telematikoa eskaini nahi lituzke. Baina, areago, diskurtso espezializatuen eta komunikazio profesionalaren ikerketari bidea egingo liokeen gunea izan nahi du: Euskal Filologia Saileko kideen lanaren, unibertsitateko komunitatearen eta gizartearen arteko nolabaiteko zubia.

Gauzak horrela, hauxe da PREST egitasmoaren helburu orokorra: euskar-maila jaso dutenei diskurtso espezializatuetan janzteko eta komunikazio profesionalaren alorrean etengabe hobetzeko edukiak eta zerbitzuak eskainiko dizkien baliabide telematika diseinatzea eta garatzea.



1. irudia: PREST: helburu orokorrak

Ildo horretan, PREST baliabide didaktikoa da, batez ere; eta eremu akademiko eta profesionalean jarduten dutenei lagundu nahi die euskaraz komunikatzeko dituzten ezagutzak, abileziak eta estrategiak sendotu, zabaldu eta aberasten, norbanakoak dituen ahalbideak eta mugak aintzat hartu, eta espezialitateko komunikazioko testuinguruetan sortzen diren premiak, zereginak eta eskakizunak kontuan izanda. Horregatik, PREST egitasmoak gaitasunen araberako ikas-eredua hartu du oinarri gisa; zehazkiago esanda, hizkuntzalaritza funtzionalak eskaintzen duen “gaitasun komunikatiboaren” markoari atxikitzen dio bere ahalegina.

Ahalegin horrek prozesu bat bideratuko du, norbanakoaren, gizartearen eta hizkuntzaren beraren dinamikak aintzat hartu eta baliatuko dituena: “bizitza osoko ikaskuntza”. Ikuspegi honek norbanakoaren ikaskuntzarako ahalegina ekimen sozial zabal baten testuinguruan txertatzen du. Komunikazio espezializatuari bagagozkio, ekimen hori espezialitateko diskurtsoaren erakuntza, balioespena eta hedapen prozesuak sustatuko dituena izango da. Eta hiru ardura egozten dizkie prozesu horren eragileei: kontzientzia piztea norberak dituen arduren eta erronken gainean; norbanakoaren autonomia indartzea gizarteko kide aktibo gisa; eta konpromiso pertsonala. Horregatik, bizitza osoko ikaskuntza ahalbidetu nahi duten programa, ekitaldi eta baliabideek malguak, irekiak eta parte hartzaileak izan behar dute. Horiek dira, oro har, PREST egitasmoak bere egin dituen irizpide didaktikoak.

Behar didaktiko horiek garatzeari begira, PREST ekimenak IKTen eremua (hizkuntzaren teknologiak eta irakaskuntzarako teknologiak barne hartuta) hautatu du bere ezarpen, garapen eta hedapenerako. Izan ere, pentsatzen dugu komunikazio-teknologien ingurunea dela proiektu honen asmoei hobekien erantzun ahal diena.

Ikuspegi didaktikoa, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren ildoan. IKTen ekarpena.

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza Informazio Gizartetik abiatuta Jakintzaren Gizartea eraikitzeko ardatz nagusia denez, estrategikotzat jotzen du Europar

Batasunak. Honela definitu dute Etengabeko Ikaskuntza Europar Batasuneko Batzordeak eta kide diren estatuek:

“iraunkortasunez egiten den ikaskuntzako jarduera erabilgarri oro da, betiere gizalegezko ikuspegi pertsonala edota gizarte edo enpleguarekin erlazionatutako ikuspegia erabiliz, prestakuntza, ezagutzak eta gaitasunak hobetzeko helburuarekin gauzatutakoa” (Europar Kontseilua, 2000)

Definizio zabal honetan, ikaskuntza formala, ez formala eta informala hartzen ditu bere baitan eta pertsona batek bizitzan zehar lortzen duen ikaskuntza orori egin nahi dio erreferentzia.

Europar Batasunak 2000ko martxoan Lisboan antolatutako Europako Kontseiluak irakaskuntza eta hezkuntza moldatzea behar nagusizat finkatu zuen Europar Batasunaren helburu estrategikoa betetzeko: hain zuzen ere, Europa izatea jakintzan oinarritutako munduko gizarterik lehiakorrena eta dinamikoena. Adierazpen horren ondoren, hainbat bilkura eta argitalpen garatu ziren eta horren emaitza gisa, Batzordeak 2001eko azaroaren 21ean argitaratutako komunikatuan Jarduteko Sei Elementuak finkatu zituen:

- ikaskuntzaren balioespena (informalarena batez ere)
- informazioa, orientazioa eta aholkularitza
- denbora eta dirua ikaskuntzan inbertitzea
- ikaskuntza aukerak ikaslearengana hurbiltzea
- oinarritzko gaitasunak zehaztea
- IKTetan oinarrituriko pedagogia berritzailea garatzea eta hedatzea.

Komunikatu honen ondorioz argitaratu diren memorandumak eta txostenak dira Etengabeko Ikaskuntzaren erreferentzia markoa. Ikuspegi instituzional batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan hiritar guztiei bizitza osoan zeharreko ikaskuntza bidez prestakuntza jaso eta eguneratzeko **benetako eskubidea** bermatzeko helburua ezarri da, Bizitza Osoan Egiten Den Ikaskuntzaren Liburu Zurian jasotzen den bezala (22. or.).

PREST proiektua zuzenean atxikitzen zaio Liburu Zurian zehazten den strategiari, bereziki helburu hau lortzeari begira egiten ari den ahaleginari:

“- heziketa eta prestakuntza maila orokor handiagoak lortu behar ditugu sektore guztietan, kalitate oneko heziketa eta prestakuntza eskaintza bermatu, eta, era berean, herritarren ezagutza eta gaitasunak lan baldintza, lekuen antolamendu eta lan egiteko metodo aldaketei ongi egokitzen zaiela ziurtatu” (Liburu Zuria, 4. or.)

Helburu honi zehaztaper bat egin behar zaio: oraindik ere “heziketa” eta “prestakuntza” hitzak darabiltza dokumentuak, baina dokumentu beraren 21. orrialdean kritika egiten zaie termino hauei:

“Izan ere, dagoeneko, Europako iparraldean etengabeko ikaskuntza edo bizitza osoan zeharreko ikaskuntza terminoak normaltasunez erabiltzen dira, baina hegoaldean hezkuntzaz eta prestakuntzaz hitz egiten jarraitzen dugu”

PREST proiektuan “etengabeko ikaskuntza” eta “bizitza osoan zeharreko ikaskuntza” terminoak erabili ditugu “prestakuntza” hitz hedatuaren ordean.

Etengabeko Ikaskuntzaren politika integralak dimentsio hirukoitza da: berrikuntza, gizarteratzea eta herritarrak aktibo izatea. PREST proiektuak dimentsio hauei eta ondorioz datozen helburuei begira, ondorengo arloetan egin nahi luke ekarpena:

Berrikuntza eta lehiakortasuna: gizartea etengabe berritzen ari denez, ezinbestekoa da herritarrei behar adina oinarrizko gaitasun edo trebetasun ematea, ezagutzak gaurkotu, bereganatu, igorri eta partekatu ahal izan ditzaten, bikaintasunaren eta erabateko kalitatearen bidetik. Dimentsio honetan egin nahi ditu PREST proiektuak ekarpen nagusiak, hizkuntzalaritza eta didaktika IKTekin uztartuz.

Gizarteratzea: pertsonen autonomia handiagoa behar dute norberaren bizi-proiektuak, garapen pertsonala eta profesionala diseinatzeko erabakiak hartzeko eta erantzukizunak bereganatzeko. Horretarako, oinarrizko gaitasunak definitu dira eta PREST proiektuan profesionalek garatu beharreko gaitasun komunikatiboen definizio teknikoa egin du, erreferentzia gisa erabil dadin, adibidez une jakin batean erakunderen batek honi dagokion jakintza-maila balioesteko.

Herritar aktiboak: jakintzak izaera kritikoa sendotzen du eta gizartea hobeto ulertzen laguntzen. Gainera, gaitasun komunikatibo profesionala garatuta, parte hartzeko joera indartzen da.

Horretarako, kalitatezko aholkularitza edo bitartekaritza eskaini beharko da ikaskuntza-ibilbide indibidualizatuak diseinatzea erraztuz eta ikaskuntzan berrikuntza eta kalitatea sustatuz, bai edukietan, bai metodoetan. Horregatik, funtsezkoa da bizitza osoan zeharreko ikaskuntza IKTen erabilerarekin uztartzea.

Bide hori hartu da, hain zuzen ere, erreferentzia gisa hartu dugun bigarren dokumentua: i-Gipuzkoa 2010 estrategia. Dokumentu honen arabera, IKTak funtsezko elementuak dira ikaskuntzarako eta lan profesionala, pertsonala eta soziala bateragarri egiteko.

Jarduera-lerroetan zehazten da eduki digitalak garatu behar direla eta bereziki azpimarratzen da enpresen eta hezkuntza-sektoreen arteko lankidetzaren beharra. Halaber, Unibertsitateko hezkuntza erreferentzia eredua da ezagutzaren gizartea eta IKTak enpresa sektorera eta, oro har, gizartera zabaltzeko eta horien prestakuntza eskaintzeko.

Horrez gain, estrategikoki garrantzi handikotzat hartu da edukien artean ondare digitalarekin erlazionatutakoak, batez ere euskararen ondarearekin.

Beraz, esan daiteke bai Bizitza Osoan Egiten Den Ikaskuntzaren Liburu Zuriak eta i-Gipuzkoa 2010 Estrategiak ezarritako markoarekin oso bat datorrela PREST proiektua. Kontua da oraindik korapilo handi bat dagoela askatzeko bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan IKTen sustapenean: informazioa jakintza bihurtzeko, informazio-biltegi erraldoiez gain beste zerbait behar dela, biltegi horiek oso bilatzaile eraginkorrak izanda ere: edukiak didaktizatu egin behar dira eta erabiltzaileari lagundu autonomia izan dadin bere ikaskuntza horretan.

Egungo on-line ikastaro asko dokumentu eta fitxategi biltegiak baino ez dira eta Ikaskuntza Kudeatzeko Sistemak Edukiak Kudeatzeko Sistemak balira bezala erabiltzen dira, kasurik onenean aurrez aurreko saioetako edukiak softwareara pasata, softwarea erabiltzeak ekar litzakeen abantailak baliatu gabe.

IKTek aukera ematen dute benetan ikaskuntza ikaslearen neurrira egokitzeko eta ikasleak berak ikaskuntza bere neurrira egokitzeko. Hori da Norberaren Ikaskuntzaren Ingurunearen ideia nagusia (Personal Learning Environment):

“Norberaren Ikaskuntzaren Ingurunearen ideiak onartzen du ikaskuntza aldatzen ari dela eta eskaini behar direla ikaskuntza berri horretarako lan-tresnak. Norbanakoak kudeatuko du bere ikaskuntza, izan ere, ikaskuntza testuinguru eta egoera desberdinetan gauzatuko da eta ez da etorriko ikaskuntza zentro jakin batetik; ikaskuntza informalaren pisua handituko da”. Attwell, G. (2007)

Horri begira, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan une honetan egiten ari diren ikerketak bi bidetatik dabilta:

- a) Teknologiaren arkitektura modularra. Moodle bezalako ikaskuntza plataforma ikasleari ikaskuntza informala kudeatzen lagunduko dioten moduluekin konbinatzea edo Zerbitzuei Begirako Arkitektura (SOA-Service Oriented Architecture) (adb.: <http://projectcampus.ca/> Kataluniako Gobernuak bultzatutako proiektua)
- b) Ikaskuntza prozesuetarako orientazioa eta ikaslearen autonomiaren garapena, nork bere ikaskuntza kudeatzeko gai izateari begirako ikerketak.

PREST proiektuak bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan ezarritako helburu estrategikoei erantzun nahi die hizkuntzalaritzaren jakintza-arlotik, euskara esparru profesional berrietan garatu dadin.

PREST proiektuaren garapen tekniko-didaktikoaren oinarriak

Egun zalantzarik gabe informazioa kudeatzeko tresnen beharra ageri-agerian geratu da eta dokumentuen kudeaketarako tresna egokien bilaketa lehentasun bihurtu da erakunde publiko zein pribatuetan. Kudeaketa hau, zer esanik ez, funtsezkoa dugu etengabeko formazioaz ari garenean.

Izan ere, gero eta gehiago dira autoformazioaren bila interneten bilaketak egiten dituztenak, baina zaila da oso informazio baliagarria, fidagarria iragaztea eta aurkitutako informazio hori jakintza bihurtzea, alegia, asimilagarria eta

erabilgarria, garapen pertsonalean eta profesionalean aurrera egiten lagunduko duena.

Bide horretan, bi tresna mota azertu dira: alde batetik, informazioaren eta dokumentazioaren antolaketarako tresnak eta bestetik, informazio eta dokumentazio hori didaktikoki antolatzen eta kudeatzen laguntzen dutenak. Teknikoki, lehenengoei CMS deritze (Content Manager System) eta bigarrenei LMS (Learning Manager System). Bi tresna mota hauen artean eskaintza izugarri zabala denez, irizpide batzuk finkatu ditugu erabakiak hartzeari begira:

- Erabilgarritasuna: edonork instalatu ahal izango duen softwarea, interneten ostatu ematen duten gune nagusietan edo nor bere zerbitzarian, eta moldaketak eta egokitzapenak egiteko aukera ematen duena
- Malgutasuna: aurrera begira sortuko diren behar berriei erantzun ahal izateko tartea izatea, softwarea itxia ez izatea eta enpresa jakin batengana jo beharrik ez izatea lan-tresna berriak txertatzeko
- Jarraitutasuna: eguneratzeak ziurtatzea eta softwarearen proiektu teknikoa itxiko balitz ere, proiektu honen jarraitutasuna bermatzea

Irizpide horiek aztertuta, hartutako lehen erabakia izan da software librea jotzea. Berez unibertsitate publikoak berezko duen filosofiak hala agintzen du, unibertsitatean jakintza konpartitzen delako eta jakintzaren jarioa sustatzen delako horren truke printzipioz diru-saririk bilatu gabe (Bultchand, 2004). Izan ere, software librea definizioz ez da doako softwarea, kode irekikoa baizik. Software librea **erabilgarria** da guztiz eta ia beti internet bidez eskuratu daiteke, nahi adina aldiz inolako lizentziarik ordaindu beharrik gabe. **Malgua** da, kodea irekia denez edonork –edo behintzat horretaz dakien edonork- egokitzapenak egin ditzake programa bere testuingurura moldatzeko. Gainera, software mota honetako programa askok atzean komunitate bat izaten duenez, **jarraitutasuna** nahikoa bermatuta dago, talde jakin batek programan duen interesa galduz gero beste talde batek har baitezake gidaritza edo eguneratze lana.

Beraz, softwarea hautatzeko lehenengo hiru irizpideak nahikoa bermatuak ditugu software librerera jota.

Hainbat azterketa egin ondoren, PREST proiektuak bi programa hauek hautatu ditu: dokumentazioa kudeatzeko eta PREST proiektua publikoki aurkezteko Joomla izeneko CMSa (Content Management System), webguneak eraikitzeako sistema malgua, teknikoki jantziegi egon gabe ere erabil daitekeena; eta taldeen koordinazioa eta ikaskuntza telematikoa, bestalde, Moodle izeneko plataforman garatu da.

Plataforma honetan askotariko baliabide eta jarduerak diseina daitezkeenez, PREST egitasmoak zedarritu duen gaitasunen eskema oinarritzat hartuta, gaitasunez gaitasun lantresna telematikoen erabilera iradokitzea izan da ikuspegi teknikoa eta didaktikoa uztartzeko hartutako bidea. Lan horren helburu nagusia izan da gaitasun horiek landu nahi lituzkeen irakasleak hartu beharreko erabaki didaktiko-teknikoak erraztea. Horrela, gaitasunak mikrodidaktikaren ikuspegitik erabilgarriak egin nahi izan dira, eta mikrotrebetasun bakoitza garatzeko tresna jakinen erabilera gomendatu da:

GAITASUNEN ZEHAZTAPENA:

1. Dokumentazio lanerako gaitasuna

- dokumentazio-lana eskatzen duten egoera profesionalak definitu
- dokumentazio-atazak bideratzeko galdetegiak eta protokoloak egin
- bilakuntza-plana erabaki eta dokumentazio-lana antolatu eta kontrolatu
- jakintza esparru zehatz bateko erreferentzien base dokumentala sortu
- jakintza arloko oinarritzko terminoen zerrenda egin eta etiketak definitu
- jarritako atazaren emaitzak sintetizatu eta plataformara igo
- ataza ebazteko baliatutako prozedura, analisia eta emaitzak ebaluatu

2. Eginkizun akademikoekin lotutako gaitasunak

- hipotesiak definitu, alderaketak egin
- hiztegi gintzarako bideak eta arauak
- arloko aipurik esanguratsuenen bilduma egin
- artikuluetako berrikusketak simulatu
- posterraren diseinuan trebatu
- aurkezpena prestatu
- Hitzaldia aurrez egin

3. Eginkizun teknikoari atxikitako gaitasunak

- testugintzaren kontzeptuen oinarria aurkeztu
- kasu azterketak eskaini
- ideia-jasa
- kasuak eztabaidatu eta talde lana koordinatu
- irizpenak eta proiektuak igo
- hitzaldia aurrez egin

4.modulua: Zabalkundearekin eta hezkuntzarekin lotutako gaitasunak

- testu laburren eraldaketak egin
- testuen egituraketa eta kohesio-bideak aplikatu
- definizio teknikoak dibulгатibo egin, birformulatu
- ideia bera formatu desberdinetan adierazi
- jakintza arloko gai baten inguruko webgune bat sortu
- ahozko zabalkunderako gaitasuna

5. modulua: Gizarte-komunikazioarekin lotutako gaitasunak

- produktu edo zerbitzu bati buruzko informazio-orria egin
- informazioa erakargarri aurkezteko testua eta irudiak konbinatu
- produktu edo zerbitzuari buruzko informazio publikoa eman ahoz

7. modulua: Pertsonarteko harremanekin eta talde-lanarekin lotutako gaitasunak

- IKTak pertsonarteko harremanetan erabili
- Talde-lana koordinatu
- komunikazio egoerak definitu
- komunikazio tresnen erabilera bereiztaileaz hausnartu

8. modulua: Eginkizun juridiko eta administratiboei lotutako gaitasunak

- mezuen informazioa adierazgarritasunaren arabera hautatu
- inpersonalizazioa egoki erabili eta errotutako erabilera okerrak saihestu
- itzulpengintza dokumentu eta inprimakien inguruan sakondu
- gai juridiko eta administratiboen gainean idaztea

HAUTATUTAKO BALIABIDE ETA JARDUERAK (proiektuko amaierako irizpenean datoz zehaztuak gaitasunez gaitasun, taula batean bildurik):

- etiketa
- liburua
- web orria
- direktorioa erakutsi
- datu-basea
- glosategia
- foroa
- wikia
- inkesta xumea
- galdetegia edo inkesta feedback
- ikasgaia
- tailerra
- zeregina (moodle-rena edo audio-grabazioa-covcell)
- testu-txata (moodle edo covcell)
- covcell audio-bideoa (edo Skype, Wengo)
- covcell arbela (edo talk&write)

Azkenik, ingurune telematikoan administratuko diren ikaskuntza-baliabideak sortzeko protokolo teknikoa ere idatzi dugu PREST proiektuan. Egile eskubideak testuinguru telematikoan dituen berezitasunen berri izatea oso komenigarria da ekoizten diren baliabideen hedapena errazteari begira. Horrez gain, nazioartean ikaskuntza objektuak ekoizteko estandarrak kezka iturri diren garai honetan, joera nagusien berri eman nahi izan dugu diseinatzen diren

ikaskuntza-baliabideak ahalik eta iraunkorrenak izan daitezen, alferrikako formatu aldaketak saihestu nahian.

Konklusioak:

Euskal Autonomia Erkidegoan hiritar guztiei bizitza osoan zeharreko ikaskuntza bidez prestakuntza jaso eta eguneratzeko benetako eskubidea bermatzeko helburua ezarri da, Bizitza Osoan Egiten Den Ikaskuntzaren Liburu Zurian jasotzen den bezala. Alabaina, informazioa jakintza bihurtzeko, informazio-biltegi erraldoiez gain beste zerbait behar da, biltegi horiek oso bilatzaile eraginkorrak izanda ere: edukiak didaktizatu egin behar dira eta erabiltzaileari lagundu autonomia izan dadin bere ikaskuntza horretan

Hizkera berezitua, bere ezaugarriengatik, etengabeko ikaskuntzaren esparruan integratu behar da, hizkuntzalaritzaren ikerketan ematen diren aurrerapausoak didaktizatu eta ikaskuntza eredu esanguratsuetan implementatuz. Horretarako, teknikoki garatzen diren tresnei begira egon behar dugu, integrazio hori erabiltzailearentzat erraza eta malgua izan dadin.

Erreferentzia bibliografikoak:

Atwell, G. (2007). *“Personal Learning Environments-the future of eLearning?”*. eLearning Papers, 2. Bol., 1. zkia, 2007ko urtarrila.

<http://www.elearningpapers.eu>

Bizitza Osoan Egiten Den Ikaskuntzaren Liburu Zuria. Eusko Jaurlaritzak.

Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza (2006). Etengabeko Ikaskuntza: Politika europarrak eta hauen translazioa Euskal Herrira. Euskonews & Media, 2006/12/15-22.

i-Gipuzkoa 2010 Estrategia. Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIENTZIETAKO HIZKERAREN ERABILMENDUAN, HAMAR MANDAMENDU BETEKIZUN

Jacinto Iturbe
Zientzia eta Teknologia Fakultatea,
Euskal Herriko Unibertsitatea
jacinto.iturbe@ehu.es

“Le mot just”
Flaubert

SARRERA

Zientziaren hizkeraren erabilmenduari gainean erreflexio batzuk plazaratu nahi ditut Espezialitate Hizkeren III. Jardunaldi hauetan. Erreflexio hauek egin nahi izan ditut bai zientziaren jasotzaile naizen aldetik, eta bai zientziaren garraiatzaile eta barreiatzaile naizen aldetik: hau da, erreflexio hauek zientziaren erabiltzaile baten erreflexioak dira. Eta erreflexio hauei hamar mandamenduen formatua eman nahi izan diet zeren eta historia luze batek demostratu baitu formatu hori, beste gauza batzuen artean, oso didaktikoa eta komunikatiboa dela (Poniewozik, 2007).

Eta historia hitza aipatu dudanez, esan behar dut ezen, Zientziaren eta Teknologiaren hizkeraren historia, euskaraz, denboran laburra bada ere (Etxebarria, 2002), emaitzetan zabala eta sakona dela, arlo honetan begirada arinenak ere ikusiko lukeen moduan¹.

Erreflexioak paratu baino lehen esan behar dut hemen ez ditudala aipatuko zeintzuk diren zientziaren komunikazioan hizkerak bete behar dituen ezaugarriak; hainbat tokitan zabaldua daude (Altonaga, 1987; Ensunza et al., 2001).

¹ Testuinguru honetan, aipatu behar da INGUMA datu-basea (<http://www.inguma.org/>).

LEHENA: ANBIGUETATEAK EKIDIN EGINGO DITUZU

Hizkera zientifikoa erabiltzen denean, hau da bete behar den lehen mandamendua. Mandamendu hau autoesplikatiboa eta ebidentea dirudien arren, sarri ez da horrela gertatzen. Eta hori horrela dela ikusteko, nahikoa da inguruetara begiratzea, eta adibideak eurrez agertuko dira.

Batzuk aipatzearren:

1. Irakiten hasi orduko, disoluzioa bero-iturritik baztertuko da.
2. Gatza urtu.
3. Unibertsitate Orientazio Zerbitzua

Desanbiguazioa, batzuetan, testu-ingurutik lor daiteke, beste batzuetan, programa informatiko bereziek egin dezakete, baina sarri ez horrela gertatzen, eta, ondorioz, informazioaren igorlearen eta informazioaren hartzailearen artean gaizki-ulertzeak gertatzen dira: hau da, hizkera zientifikoak ez du bere helburua erdietsi.

Mandamendu hau betetzeak zera eskatzen du: hizkeraren erabiltzaileak (idazlea, hizlaria, editorea,...) kontu handiz jokatzeko. Hala ere, desanbiguazio guztiak ez dira ekidindo, baina desanbiguazio-lana ezin da utzi irakurlearen edo entzulearen eskuetan, zeren eta desanbiguazio-lana ez baitagokio irakurleari edo entzuleari, baizik eta idazleari edo hizlariari.

BIGARRENA: KONTUAN HARTUKO DUZU DISKURTSOA NORI ZUZENTZEN DIOZUN

Agindu honen muina hau da: estiloak duen garrantzia azpimarratzea. Zeren estiloa baita komunikazioaren muina. Estiloak hizkera edo idazkera NOLA egingo den ekarriko du atzean. Eta kontuan hartuko duzu zein forma erabiltzen duzun: eskola magistrala, azalpen magistrala, kazetaritzako artikulua, hitzaldia, jardunaldi bateko komunikazioa, liburua, ikerkuntzako artikulua, dibulgazioko hitzaldia, tesia, tesina...

Eta kontuan hartuko duzu hizkeraren jomuga nortzuk diren: ikasle lotuak, haurrak, gazteak, helduak, jubilatutakoak, politikariak, periodistak,..., diru-laguntzak ematen dituzten erakundeak, zure ikerketako kideak,...

Mandamendu honen garrantziaz jabetzeko, nahikoa da ikustea azken denboretan zenbat estilo-liburu argitaratu diren², eta denetan dago zer ikasi, batez ere idazkera nori zuzenduta dagoen arloan. Bakarrik puntu bat gehitu nahi nuke: hizkera zientifikoaren barruan

² Adibidez, "IVAPeko estilo-liburua"; Berria egunkariko "Estilo liburua"; EIMA egiten ari den "Estilo-liburua",...

adostasun tazituak eta esplizituak daude, eta hizkeraren erabiltzaileak jakin egin behar ditu: komaren erabilera, marraren erabilera, parentesiak,... Edonola ere, estilo egokia erabiltzetik ez da ondorioztatzen idazten edo esaten dena irakurle edo entzule orok berehala ulertu egingo duenik.

Hemen, Einstein-en aipu bat egitea zilegi bekit:

Things should be made as simple as possible, but not any simpler

(Gauzak egin behar dira ahalik eta sinpleen, baina ez sinpleago)

HIRUGARRENA: EZ ZARA GARBIZALEA IZANGO

Nor edo nork esango du: zorioneko garbizaletasuna! Eta nik esango diot: Binke zorionekoa! Puntu hau ez da gaurkoa: Azkuek berak esandakoa da (Azkue, 1905): “No sé si habrá en el mundo oídos tan delicados como los nuestros para esta clase de palabras (barbarismos, voces de extraño origen)”. Zientziaren eta teknologiaren arloez gain, beste arloetan ere ikusten da garbizaletasun moderno bat, nik Txominismo deituko nukeena, Txomin Iakakortexarena Apaizaren omenez, bera, arlo honetan, paradigma izan baitzen.

Eta zertan da nabari txominismo hau? Besteak beste:

1.- Hitzen esanguraren aldaketa

Bat aipatzearen: kutsatu. Hiztegietan hitz honen esanahia begiratzea baino ez dago ikusteko zelan, oraintsu arte, zenbait gauza adierazteko erabiltzen zela. Gaur egun, esango nuke soilik erabiltzen dela “kontaminazio” ez esateko: “kontaminazio” hitza gaztelaniaren itxuraz kutsatuta baitago.

2.- Antigaztelania

Honen ildotik, arazo bat aipatuko dut. Ingelesez, kualitatea adierazteko, nagusiki, bi atzizki erabiltzen dituzte: *-ness* eta *-ity*, azken hau izanik magnitudeak adierazteko gehien erabiltzen dena. Euskaraz, kualitatea adierazteko, nagusiki, bi atzizki erabiltzen ditugu: *-tasun* eta *-tate*. Gaztelaniaz, kualitatea adierazteko, nagusiki, atzizki bakar bat erabiltzen da: *-dad*.

Azken denboretan, euskaraz gaztelaniazko bakarraren urrunena (eta bakarra) erabiltzeko ohitura zabaldu da, *-tate* gero eta gutxiago ikusiz, magnitudeetan ere: linealitate edo normalitate erabili ordez, sarri linealtasuna edo normaltasuna ikusten dira maiz: antigaztelania egiteagatik, hizkuntza pobretu egiten ari gara.

3.- Kanpo-hitzen sasi-itzulpena. Gaur egun ez dira (hainbeste) ikusten intera batean sarri ikusten ziren berba-moduak: mamutxa, neurkinaneiki,... baina sarri baino sarriago beste tankera bateko berba-moduak ikusten dira: zalgurdi, basidi, leiar,... eta hauek, testu batean ikusten ditugunean, edo ahozko diskurtso batean entzuten ditugunean, edo ez ditugu ulertzen,

edo ulertu egiten ditugu, ez hitzek daramaten esanguragatik, baizik eta, gaztelaniara (edo beste erdara batera) “desitzuli” egin eta gero, gaztelaniako hitzak ulertu egiten ditugulako. Hizkera zientifikotik hartutako adibide bat: *oinarriak*; hau ikusten dugunean, berba horren esangura zehatza soilik antzemango dugu kanpo-erreferentziak erabiltzen ditugunean: batzuetan *fundamentals*, dela, beste batzuetan, *basics*, bestetan, *elements*, bestetuetan, *principles*,...

LAUGARRENA: AREAN JAKINGO DUZU GAIAREN GAINEAN

Gaur egunean, edozeinek edozertaz hitz egiten du (agian periodistak eta politikoak dira honetan nabarmentzen direnak), baina gauza serioak egin nahi badira, seriooki hartu behar dira gauzak. Zientziaren hizkeraren erabiltzailea bazara, igorle bat bazara, igorle berezia izango zara (tira, igorle guztiak bereziak dira), baina hartzailea bera ere berezia izan daiteke, eta, suposatu egin behar duzu berezia izango dela.

Arean jakiteak PERSPEKTIBA bat ematen du, eta hizkeran-idazkeran perspektiba bat behar da, arazo puntualak ikuspuntu orokor batetik ikusteko. Beste era batera esanda, irakurleari, entzuleari, ezin zaio iruzur egin.

Hemen zera aipatu nahi nuke: Zientziaren eta Teknologiaren arloko Corpusak. Gaur egun, baliabide informatikoei esker, Corpusak ugaritu egin dira, baina Corpusak erabiltzerakoan kontuan hartu behar da nor izan den idazlea eta nor izan den irakurlea. Hau da, Corpusetan dagoen material idatzia erabiltzen denean, kontuan hartu behar da idazlearen perspektiba (edo perspektiba-falta). Hori kontuan hartzen ez bada, Corpora okertuta agertuko da edo, are txarrago, oker erabiliko da.

BOSGARRENA: ITZULI EGITEN DUZUNEAN, ITZULI EGINGO DUZU, EZ DUZU INTERPRETATUKO EZTA BERTSIORIK EGINGO

Jakina da euskaldun guztiok itzultzaileak garela. Are gehiago Zientzian eta Teknologian. Harro esaten dugu ingelesa dela gure atzerri-hizkuntza, nahiz eta errealtatean, gehienetan, gaztelera (edo eta frantsesa) izan. Eta itzulpena egiten dugunean, behin baino gehiagotan, itzulpena baino interpretazioa egiten dugu, eta beste batzuetan, bertsioa egiten dugu; horrela estukuratik ateratzen gara, eta entzuleari edo irakurleari iruzur egiten diogu.

Demagun adierazpen hau: 5 ε 3

Ahoz esaterakoan, honelako zerbait esango dugu:

“Bost ez da hiru baino txikiagoa” edo “bost ez txikiago hiru”.

eta ez da esango “bost, hiru baino handiagoa da”, zeren eta ez baitira gauza berdinak,

nahiz eta testuinguru batzuetan horrela izan, eta, are txarragoa dena, adierazpide-forma bat saihestu egiten da, hizkuntza pobretuz.

Nik baino hobeto, matematikari hauek (Knuth, Larrabee eta Roberts, 1989), esanda dator:

“If you mean ‘not nonincreasing’ don’t say ‘increasing’”

“Esan nahi baduzu ‘ez ez-hazkorra’, ez esan ‘hazkorra’”

Adibideak, terminologiaren arloan, ugari dira:

“Partizio-funtzioa”, “zatiketa-funtzio” moduan ikusi dut interpretatuta, nahiz eta, denok dakigunez, funtzio hau batura bat den.

“London-en dispertsio-indarrak”, “sakabanatze-indar” moduan ikusi dut, nahiz eta denok jakin indar hauek erakarleak direla, eta ez aldaratzaile.

SEIGARRENA: ARGITARATU BAINO LEHEN, NORBAITEN KRITIKA JASOKO DUZU.

Uste dut mandamendu hau autoesplikatiboa dela, baina, hala ere, gauzatxo bat esango dut. Gaur egun idazten den gauza asko ia artez publikatzera doa. Idazteko, testu-prozesadoreak erabiltzen ditugu, zuzentzailez hornituak, eta horiek, txarto idatzitakoa zuzendu egiten dute. Zuzentzaile automatiko horiek editorearen lana ere egiten dute, idazlea haietaz fidatu egiten da, eta ondorioak, sarri, ez dira idazleak nahi zituenak: berba bat, beste berba batez trukaturatuta agertzen da. Horren ondorioz, idatzitako materialetan akatsak agertzen dira. Literatura espezializatuan, Cupertino efektua deitzen da³. Eta horrelako hanka-sartzeak, eta sakonagoak diren beste batzuk, ekiditeko, oso komenigarria da beste norbaitek idatzitakoa irakurtzea.

ZAZPIGARRENA: GRAMATIKALITATEA BETE BEHAR DENEAN, BETE; ETA GORDE BEHAR DENEAN, GORDE.

Gramatikalitatea funtsezkoa da edozein testutan. Hizkeraren muina da. Testuari kalitatea ematen dio. Horregatik, zilegi bekit hau idaztea:

Gramatikalitatea = gramatika + kalitatea

BAINA mandamendu honek bere kontrakoa dakar:

Gramatikalitatea bete behar ez denean, ez bete; eta gorde behar ez denean, ez gorde.

³ Ik., esaterako, New Scientist, **2632**, 62 (01-XII-2007)

Jakin badakigu kasuak daudela non gramatikalitatea ez den betetzen, eta hori testuaren baldintzek aginduta dator. Hori da, esaterako, Hiriart-Urrutik bere erretorikan egiten zuena (Altzibar, 2003); eta hori da Gabriel Arestik bere poesian (Aresti, 1970) egiten zuena... Hau da, idazle horiek, eta beste batzuek ere, zerbait preseski eta sakonki esateko beharrezkoa ikusten bazuten, gramatikalitatea hautsi egiten zuten.

Hau ez da ergatiboaren kontrako kanpaina bat, ez eta nor-nori-nork komunztadura ekiditeko proposamen bat. Hau zera da, testu oso konkretu batek, testuinguru oso konkretu batean beharrezko badu, arauak ez betetzeko salbuespena erabiltzeko eskubidearen aldarrikapena.

Hemen aipatuko dut, hainbaten aipatu behar dut-eta, gaur egunean proskritoak diren hitz batzuk, ia euskara traketsaren eta agramatikalaren sinonimo izatera iritsi direnak: anaforikoak eta kataforikoak, eta antzekoak: zein, zeintzuk, nor, nortzuk, esaterako, aipatutako, halandaze, halandabe,...

Hauen premia ez da euskararena bakarrik. Ingelesezt, *that, which, where*, eta antzekoak hor daude, diskurtsoaren harian. Baina ez horiek bakarrik. Oraintsu irakurri dut liburu bat (Brown, A. E.; Jeffcott, H. A., Jr., 1974), non patente zahar batzuen deskripzioa egiten baita, ingelesez. Bertan, parra-parra agertzen dira honelakoak: *heretofore, whereupon, hereinafter, therefrom, the said invention, whence, whereby, upwardly, rearwardly*,...

Hitz hauek arrunki ez dira erabiltzen. Soilik testuinguru oso berezietan. Baina hiztegieta egon badaude, norbaitek, beharko balitu, eta horrela nahi badu, erabili ditzan. Euskaraz, ez ditugu erabiltzen hiztegieta ez daudelako, eta erabiltzen dituztenek, hiztegieta ikusten ez dituztenez, gero eta gutxiago erabiltzen dituzte, hizkera pobretuz.

ZORTZIGARRENA: KREDIBILITATEA ZAINDUKO DUZU

Hizkera zientifikoak, denok dakigu, ZEHATZA izan behar du. Derrigorrezkoa du. Baina ez da nahikoa. Zehatza izateaz gain, PREZISOA ere izan behar du. Kontzeptu bi horiek desberdinak dira, eta jakina da independenteak direla: Zientzian eta Teknikan erabiltzen diren adierazpideek, terminoek, esaldiek,... aldi berean zehatzak eta prezisoak izan behar dute. Ez du balio zehatza bai, baina prezisoa ez.

Hor daude: buruko mina, zefalea
 bihotzekoa, infarktua
 berezkoa, espontaneoa
 ondo-ondokoa, kontsekutiboa
 geldikorra, estazionarioa

garuna, zerebroa

Ariketa moduan uzten dizuet erabakitzea zeintzuk diren zehatzak eta prezisoak, eta zeintzuk ez.

Prezisiogabetasunaren ondorioak larriak izan daitezke: ez da bakarrik hizkuntzaren mailaren kontua, elkar ulertze edo ez-ulertze kontua ere bada. Honekin, zehaztasunarekin eta prezisioarekin, lotuta daude: hizkuntzaren eta hizkeraren normalizazioa, hau da, hizkera normala eta hizkuntzaren kanona.

BEDERATZIGARRENA: AUTORITATEAK ERRESPETATUKO DITUZU, BAI HIZKUNTZAN ETA BAI ZIENTZIAN

Hizkuntzan, autoritatea Euskaltzaindia da, eta errespetatu behar da. Euskaltzaindiak *Hiztegi Batua* atera du. Eta hiztegi horretan dagoena bete behar da. Baina, sarri, ez dakigu dagoen hori zer den ere: definizioak falta dira. Halaber, Euskaltzaindiak *Arauk* ateratzen ditu. Eta Arauek diotena bete behar da.

Zientziaren aldetik, idazle eta hizlari zientifikoak dira autoritate. Gainera esan behar da, azken muturrean, zientzialariak direla, artez edo markets, hizkera zientifikoaren asmatzaileak eta sortzaileak.

Eta bi autoritateok topo egiten dutenean, zer egin?

Nire iritzia emango dut: aurreko mandamenduak bete; anbiguetateak ekidin; prezisioa eta zehaztasuna, biak, konplitu; kredibilitatea zaindu,...

HAMARGARRENA: ESPEZIALITATE-HIZKERAREN ERABILMENDUAN GARRANTZITSUENA EZ DA IDAZTEA (EDO HITZ EGITEA), IRAKURRIA ETA ONGI ULERTUA IZATEA BAINO.

Hau, mandamendu bat baino, gomutagarri bat da. Eta irakurriak eta ulertuak izateko, denok paratu behar ditugu ahal ditugun tresnak eta jakitateak.

Komunikazio hau bukatzeko, esan behar dut badaudela mandamendu gehiago, baina nik, gaur eta hemen, aipatutako hamarrak nabarmendu nahi izan ditut.

Hamar mandamendu hauek, hurbilketa didaktiko gisan uler bitez, zientziaren eta teknologiaren hizkerak erabiltzerakoan kontuan hartu behar direnak.

BIBLIOGRAFIA

- ALTONAGA, K. (1987): “Hizkera teknikoaren ezaugarriak”, in Odriozola, J. C. (zuz.-koord.): *Euskara gaurkotzeko bideak*, Unibertsiate-Hedakuntzarako koadernoak. Bilbo: UPV/EHU.
- ALTZIBAR, X. (2003): “Erretorika gramatikaren gainetik: Hiriart-Urruti adibidetzat”, in Makazaga, J. M. & Oyharçabal, B. (arg.): *P. Lafitteren sortzearen mendemugako biltzarra. Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*. 81-118 or. Bilbo: Euskaltzaindia.
- ARETI, G. (1970): “Harrizko herri hau”, 140. or. Donostia: Lur.
- AZKUE, R. M. (1905): “Diccionario vasco-español-francés”. XV. or., Tours: Mame.
- BROWN, A. E.; JEFFCOTT, H. A. Jr.: *Absolutely Mad Inventions*, New York: Dover.
- ENSUNZA, M., ETXEBARRIA, J. R., ITURBE, J. (2002): “Zientzia eta teknikarako euskara. Zenbait hizkuntza-baliabide”, 213-223 or. Bilbo: UEU.
- ETXEBARRIA, J. R. (2002): “Euskal prosa zientifikoaren historiaren inguruan”, *Hegats*, 30, 63-75 or.
- KNUTH, D. E.; LARRABEE, T.; ROBERTS, P. M. (1989): *Mathematical Writing*, 13. or., The Mathematical Association of America: USA.
- PONIEWOZIK, J. (2007): “The Power of 10”, *Time*, December, 24, 68 or.

TERMINOLOGI KUDEAKETA EUSKAL IRRATI TELEBISTAREN BARRUAN

Asier Larrinaga Larrazabal (EITB)

Euskara Zerbitzuaren ekimenez, 2005ean Euskal Irrati Telebistak berariazko aplikazio informatiko bat prestatu zuen enpresa barruan sortzen eta erabiltzen den terminologia kudeatzeko. Aplikazioari HIKEA izena jarri zitzaion, «hizkuntza kontsultak egiteko aplikazioa» andanatik, eta 2005. urtean bertan hasi zen kargatzen.

1. TERMINOLOGI BATERAKUNTZA

HIKEAk helburu oso garbia izan du hasieratik: Euskal Irrati Telebistaren euskarazko hedabideetan hiztegi-erabilera bateratzea. Izan ere, hiru hedabide koordinatu behar ziren (Euskadi Irratia, Euskal Telebista eta Eitbnet), eta erabakiei iraupena eman behar zitzaien, gaiak –eta hiztegi-premiak, horrenbestez– aldian-aldian errepikatzen baitira albistegietan, dokumentaletan, programetan eta fikzioan.

HIKEAn, beraz, Euskal Irrati Telebistan adosten ditugun hitz arruntak eta terminoak biltzen ditugu, betiko gordeta eta beharra duenak kontsultatzeko moduan gera daitezen. Horrez gainera, kanpoko lanak ere biltzen ditugu, EITBn erabilgarri badira: Euskaltzaindiak erabakitako onomastika, EIMAk proposatutako izen-zerrendak, Elhuyarren izendegi bi (ugaztunak eta hegaztiak), eta abar.

Kargatzen hasi ginenean, lehendik landuta geneuzkan glosarioak irauli genituen (gerrak eta gatazkak, zuzenbidea, hauteskundeak...), eta orain bitara jokutzen dugu: glosarioak lantzen segitzen dugu (ikus-entzunezkoak, kirol-probak...), baina egunean-egunean agertzen zaizkigun hitzak ere banaka sartzen ditugu.

EITB komunikazio-taldearen barruan hiztegi-baterakuntza errealitate egin nahi badugu, HIKEA kargatzeaz eta eguneratzeaz gain, funtsezkotzat jotzen dugu erabiltzaileak HIKEAz gogoraraztea eta fitxa berriez ohartaraztea. Horri begira, hilean behin artikulua batean biltzen ditugu aurreko hilean kargatu diren hitzik aipagarrienak, eta artikulua Tortolikan –EITBren intranetean– eskegitzen da.

2. APLIKAZIOA

HIKEA Euskal Irrati Telebistako Informatika Sailak prestatu zuen. Funtsean, datu-base bat da, Oraclen eraikia. Datu-basea mantentzeko eta kontsultatzeko interfazeak Active Server Pages zerbitzari aldeko teknologia erabiliz programatu dira, Internet Explorerren erabil daitezzen.

Kargatzen hasi eta urtebetera, 2006an aplikazioa EITBko langile guztien eskueran ipini zen. Batetik, Tortolikan. Bestetik, erredakzioko aplikazioan txertatuta, kazetariak irismen errazagoa izan zezaten. Denen eskueran ipiniaz bat, erabiltzen ikasteko saioak antolatu ziren EITBko kazetariarentzat.

HIKEAren egiturari dagokionez, informazio ugari ematen dio erabiltzaileari: terminoa euskaraz eta gure inguruko hizkuntzetan (gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez), izen zientifikoa (bizidunen kasuan), forma gaitzetsiak, laburtzapena, egutegiko data (ospakizun eta abarren kasuan), gaikako sailkapena, jakingarriak, eta beste.

Kontsultak eremu horietako ia edozeinetatik abia daitezke, hau da, gaztelaniazko hitzetik, ingelesezko hitzetik, laburtzapenetik... Bilaketa egiteko, ez da beharrezkoa azentuak, marrak edo bestelako zeinuak ipintzea, ezta hitza osorik idaztea ere. Horrek esan nahi du aplikazioak berdin-berdin aurki dezakeela *Alpes-Côte d'Azur* zein *lpescotedazur*; erantzun modura Provence-Alpes-Côte d'Azur eskualdeari dagokion fitxa ematen du.

Kontsultaren emaitza erantzun-pantaila batean azaltzen da, taula bateko errenkada baten itxuran, euskarari, gaztelaniari, ingelesari, frantsesari eta gaiari dagozkien eremuekin. Kontsulta batek, *audiencia* gaztelaniazko hitzak, adibidez, erantzun bat baino gehiago izan dezake, eta orduan erantzun bakoitzeko lerro bat ageri da. Lerro bakoitzaren hasieran lupa erako ikono bat dago, klik egin eta erantzunari dagokion fitxan sartu ahal izateko.

Bilaketak murrizteko modu bat gaiaz baliatzea da. *Audiencia* kontsultatzen denean, *Audiencia Nacional* erakundearen euskarazko izena aurkitu nahi bada, orduan gaztelaniazko laukian *audiencia* idatzi eta *Gaia (1)* koadroan *zuzenbidea* aukeratu behar da. Horrela, erantzunetan ez dira azalduko telebistaren munduarekin zerikusia daukaten *ola de audiencia*, *audiencia acumulada* eta beste.

Gaikako bilaketa beste era bateko kontsultan ere erabil daiteke. Esaterako, hizkuntzen laukian ezer idatzi barik, *Gaia (1)* koadroan *artelanak* eta *Gaia (2)* koadroan *pintura* hautatuz gero, HIKEAn dauden margolan guztiak atera daitezke. Edo, antzera jokatur, *Gaia (1)* koadroan *kirolak* eta *Gaia (2)* koadroan *futbola* aukeratuz gero, horren gaineko hitz-zerrenda

lor daiteke. Eskuraturiko zerrenda lanen batean erabili nahi bada, erantzun-pantailaren oinean *Excel* izeneko botoia jarri da, erabiltzaileak saka dezan eta, horrela, eskuraturiko zerrenda Excel formatuko orri bihur dakion.

3. DATU OSAGARRIAK

HIKEArako fitxak prestatzen ditugunean, ahalik eta zehatzen ipintzen ditugu dena delako hitzari dagozkion gaia (*Gaia (1)*) eta azpigaia (*Gaia (2)*). Izan ere, aplikazioa diseinatzen hasi ginen unean bertan garrantzi handia eman genion gaikako antolakuntzari. Oraingoan, hamazortzi gai nagusi jarri ditugu. Batzuk aipatzearen: artelanak, ikus-entzunezkoak, politika, medikuntza, geologia...

Esan bezala, gai nagusietan –ez denetan– azpigaiak bereizten ditugu. Ikusi dugu artelanetan pintura jarri dugula azpigai modura; baita arkitektura, eskultura, literatura, musika eta zinema ere. Biologian askoz azpigai gehiago bereizi ditugu, naturari buruzko dokumentaletatik hainbat eta hainbat bizidunen fitxak ateratzen ditugu eta: anfibioak, araknidoak, arrainak, hegaztiak, intsektuak, landareak, moluskuak, narrastiak, onddoak, ugaztunak eta besteren batzuk. Zalantza barik, azpigairik gehien geografian egin ditugu: aintzirak, Espainiako autonomia-erkidegoak, badiak, basamortuak, Frantziako departamenduak, Euskal Herriko eskualdeak, fosak, golkoak, hiriak, munduko ibaiak, Euskal Herriko ibaiak... Oro har, Euskaltzaindiak erabakitako toponimo-sail bakoitzak bere azpigaia du HIKEAn.

Fitxan berriazko eremu bat dago (*erreferentzia* izeneko) euskarazko terminoa zein erakunde erabaki edo onartu duen jakinarazteko. Erakunde hori Euskaltzaindia denean, arauaren zenbakia ere adierazten dugu.

Fitxako beste eremu garrantzitsu bat adibideei dagokie. Laburtzapenei, forma gaitzetsiei edo datei dagozkien eremuak ez bezala, ez du balio bilaketa abiarazteko, baina hitza esaldi batean txertatuta erakusten du.

Jakingarriak deritzon eremuan, azkenik, era guztietako informazioa ipintzen dugu: aditzen erregimena (argitzea komeni bada), obren egileak, tokien kokapena, hitzaren adierari buruzko azalpenak, eta abar.

4. ETORKIZUNEN ASMOAK

Bi urtez probatzen eta kargatzen aritu eta gero, dagoeneko HIKEAren datu-basean 20.000 fitxatik gora bildu ditugu, eta aplikazioaren diseinua eraginkorra dela egiaztatu dugu. Orain hurrengo urratsa dator: HIKEA EITBtik kanpoko erabiltzaileen kontsultetara irekitzea <eitb.com> webgunearen bitartez.

Euskal Irrati Telebistako Hizkuntza Zerbitzuak 2008ko plangintzan jarri du helburu hori, eta, horrenbestez, hasita dago prestakizunak egiten. Alde batetik, informatikari eta diseinatzaileei interfaze berriak eta hobeak eskatu dizkiegu, erabiltzailearentzat erosoagoak eta erakargarriagoak izan daitezzen. Beste alde batetik, datu-basea osatzen ari gara, esate baterako, ETBren film bikoiztuen zerrendarekin, erreferentzia zehatzagoekin, eta abarrekin.

HIKEA bezalako lanabes bat Interneten jartzea jende askorentzat izango da baliagarria, baina zinez uste dugu lehen onuradunak Euskal Irrati Telebistako erabiltzaileak izango garela, gure praktika lexiko eta terminologikoen oihartzun handiagoa izango dute eta.



EUSKARA ZIENTIFIKO-TEKNIKOKO TERMINOLOGIA HOMOLOGATUAREN BEHARRA

Jesus Mari Txurruka (UPV-EHU)

1. SARRERA GISA. TERMINOLOGIA FINKATZEN.

Irakurle bati baino gehiagori harrigarri xamarra gerta dakioke izenburuan “homologatu” adjektiboa aurkitzea, euskarari buruzko gaietan askoz ere erabilera zabalagoa duen “normalizatu” adjektiboaren orde. Esan barik doa, bata eta bestearen eremu semantikoak oso desberdinak dira. Aurrerantzean *patroi*, *estandar* edo *erreferentzi forma* gisa erabilia izango den zerbait *norma* edo *arau* bihurtzeko prozesuari *normalizazioa* deritzogu. Zerbait *arrunt*, *ohiko* edo *normal* bihurtzeari ere *normalizazioa* esaten diogu, hala nola Administrazioaren edozein mailatan gure hizkuntzean edonon eta edonorekin aritzeko eskubidea eskatzen dugunean, euskararen erabilera *normalizatu*a ari gara galdegiten.

Antzeko eran, homologazioari gagozkionean, berba horrek ere esangura bi dituela ikusiko dugu. Aldez aurretik ezarritako *kalitate-arau batzuk betetzen ote dituen egiaztatzeko*, produktu jakin baten kalitateari buruz *probak egiten ditugunean*, produktu hori homologagarria denentz aztertzen ari gara. Jakina, produktuaren goi-mailako kalitatea bermatzea da kalitate-arau horien xedea. Bestalde, homologazioaren bigarren esangurari dagokionez, gauza desberdin bi *baliokidetzen* edo *maila berdinean zein antzekoan jartzen ditugunean*, gauza bi horiek *homologatuta* daudela esan ohi da. Hori dela-eta, unibertsitate biren biologo-tituluak baliokideak badira, titulu bi horiek homologatuta daudela esan dezakegu.

Hizkera berbaren definiziotzat honako hau eman dezakegu: Giza-jarduera jakin batean erabiltzen den *hizkuntza-mota berezia*. Hizkuntza bati dagokionez, *normalizazioa introbertsio-prozesu orokor* baten ondorio da. *Introbertsio* hitzarekin adierazi nahi dudana da hizkuntzak bere baitara, hots, bere ezaugarri berezien muinetara, begira dagoela normalizazio-prozesuak irauten duen bitartean; normalizazio-prozesua burutzeko aski du soilik horra begiratzearekin. Gainera, prozesu hori *orokorra* dela adieraztearekin azpimarratu nahi dut ezen normalizazioak hizkuntzaren arlo guztiei eragiten diela. Argi dago normalizazio-prozesua ezingo dela aldi berean aurrera eramanez hizkuntzaren arlo guztietan (deklinabidea, aditza, sintaxia, ...), baina argi dago baita ere, normalizazioa ez dela amaitutzat emango arlo guztiak arautuak izan arte. Munduan beste hizkuntzarik ez balego ere, artean posible izango litzateke hizkuntza horren normalizazioa aurrera eramatea, eta, are gehiago, kasu horretan ere, normalizazioa premiazkoa izango litzateke, lukeen hedaturagatik zenbait dialekto aski desberdinetan banatuta balego esate baterako. Hizkera bat *homologatzeak*, aldiz, homologatu nahi dena jatorrizko hizkuntzako ez den beste zerbaitekin konparatzea eskatzen duenez, lehenik eta behin, beste hizkuntzaren baten existentzia eskatzen du, homologazioaren definizioaren halabeharrezko PREMISA gisa. Bigarrenez, homologazioaren kontzeptuak berarekin dakarren ezinbesteko konparazioak jatorrizko hizkuntzatik kanpora begiratzea eskatzen du, eta horrexegatik diot, hain zuzen ere, homologazioa *extrobertsio-prozesu bat* dela. Soilik bere zilborrera begira dagoen hizkuntza batean ezin da homologazio-prozesurik gertatu, normalizazio-prozesu bat, ordea, bai. Homologazioak duen berezko ezaugarrietariko bat da homologatu nahi dena beti izan behar dela multzo handi batetik bereizi eta bakandu daitekeen zerbait. Ezin dira orokortasunak homologatu, berezitasunak baizik. Alegia, multzo bateko ale guztiak ezin dira ekitaldi bakarrean homologatu. Homologazio-prozesuak,

funtsean, beti dira partzialak; multzoko ale bakoitzaren homologazioak berari soilik eragingo dion berariazko homologazio-prozesua eskatzen du. Jakina, multzoa osatzen duten ale guztiak homologatuko balira, azkenean, *a posteriori* eta ondorio gisa, multzoa bere orokorrean homologatuta geratuko litzateke. Banan-banan egiaztatu aurretik, ezin da esan Olinpiada bateko errekor guztiak, besterik gabe, homologatzen direnik. Behin bana-banaka egiaztatu eta gero errekor bakoitza baldintza egokietan lortu dela, orduan, eta soilik orduan, esan daiteke Olinpiada jakin bateko errekorrak homologatuta daudela.

Era berean, ezingo dugu esan hizkuntza bat, bere orokortasunean, beste batekin homologagarria denik, eta hortaz, hizkuntza batetik bestera egiten diren itzulpenak, besterik gabe, homologagarriak direnik. Horrelako baieztapena egin aurretik, egiaztatu behar da ea arlo jakin batean erabiltzen diren hizkera eta terminologia, beste halako hizkuntzan arlo berean erabiltzen diren hizkera eta terminologiarekin homologa ote daitezkeen. Eta horrela arloz arlo.

2. EUSKAL HIZKERAK HOMOLOGATZEARI EKITEAN DATZA EUSKARAREN ETORKIZUNARI BAIKORTASUNEZ BEGIRATZEKO GAKOA

Eman dezagun gauko egunez lehendakariari ondoko gutun hau heldu zaiola:

Karl-Johan Lönnroth
Director-General
Directorate-General for Translation
European Commission
B-1049 Brussels

Juan-Jose Ibarretxe
President
Basque Government
01010 Gasteiz-Vitoria

Brussels, 31 January 2008

Right from the outset of that European project that evolved into the European Community and now the European Union, it was decided that the official languages would be those of the Member States. This principle is enshrined in Regulation No 1 of 1958, which is amended each time a new country joins the EU to include its language or languages. This too is reflected in Article 21 of the Treaty establishing the European Community, which stipulates that the residents of the Member States have the right to communicate with the EU institutions in their own language.

As the European Union grows, the practical difficulties of according equal status to the languages of its constituent nations also grow, but any approach that failed to respect the languages of its peoples would betray the very foundations of the philosophy that lies behind the European Union. Keeping in mind this moral duty and taking into account that some of the recently incorporated countries have official languages with fewer speakers than some languages with full regional status in Spain, it has been an objective of the European Parliament to safeguard the linguistic rights of these communities. Therefore, as a way to support and strengthen multilingualism in the European Union and to help bring the Union's policies closer to its citizens, it was decided in the plenary session of the European Parliament held last month in Strasbourg to add Basque, as well as Catalan and Galician, to the list of the 23 official languages of the European Union.

As far as this resolution will go into effect after the first of January of 2010, I am very pleased to invite you or your delegates to contact me to start the

procedure for the full integration of the Basque language into the European Commission's Directorate-General for Translation service.

Sincerely yours,

Karl-Johan Lönnroth

Gonpidapen hori euskaldunontzat, pozgarria izango litzateke? Ala, ostera, kezkarria? Bietariko apur bat? Poztu ala kezkatu aurretik, azter dezagun norako gonbidapena iritsi zaigun. Onartzekotan, munduko itzulpen-zerbitzu handienetarikoa baten partaide izango ginateke, izan ere gaur egun 1750 hizkuntzalari eta 600 idazkari eta laguntzaile iraunkor baino gehiagok lan egiten baitu Europar Batzordeko Itzulpengintzarako Zuzendaritza Orokorrean (DGT akronimoaz ezagutzen dena, ingelesez Directorate-General for Translation baita, gutunaren goi aldean bidaltzailearen izenaren azpian ikus daitekeenez). Soilik ikuspegi horretatik aztertuta, pozarren egoteko moduko gonbidapena beraz. Baiezkoa eman aurretik, baina, azter dezagun erakunde horren funtzionamendua. Europar Batzordeko Sail batek Itzulpengintzarako Zuzendaritza Orokorrari (DGTari) itzulpen-eskaera bat luzatzen dionean hasten da prozesua. Zuzendaritzak eskaera onartzen badu, Euramis izeneko erakundera bidaltzen du automatikoki, alegia ordenadore bidez, itzulia izan dadin. Hala nahi, edo behar, izanez gero, automatikoki lortutako emaitza hobetzeko helburuarekin, jatorrizko idazkia eskuz aurreprozesatu daiteke; hots, gaiaz ulertzen duen pertsona batek dokumentua “presta” dezake, ordenadorearen lana errazteko. Dokumentuaren arloko itzulpen-unitateari itzultzeko agindua ematen zaio eta, ostean, automatikoki lortutako itzulpena pertsona batek orrazten du eta denbora laburrean jatorrizko eskatzaile edo bezeroari elektronikoki bidaltzen zaio.

Prestatuta al daukagu euskara horrelako lan-dinamika batean sartzeko? Edo-eta, areago, eraginkorki txertatzeko? Oraingoz bederen, ezezkoan nago. Alde batetik, arrazoi historikoengatik. Europako Batzordea Makina bidezko Itzulpena (MI) edo Itzulpengintza Automatikoa 1976tik hona ari da erabiltzen. Argi dago urte guzti horietan landutako masa lexikal ikaragarriarekin osatutako datu-baseak izugarri errazten eta hobetzen duela gaur egun ordenadore bidez egin daitekeen edozein itzulpen. Jakina, euskararekin gertatuko zenaren antzera, Europar Batasunean sartu berri diren estatuetako hizkuntzek arazo berberari egin behar diote aurre.

Bestalde, ezagutu beharko genukeena da itzulpengintzaren lan-bolumena, edo, hobe, lan-erritmoa, denbora-aldagaia ezinbestean kontuan hartu behar baita; datu horrek DGTaren lan-prozedura horretan txertatzeko euskarak zukeen gaitasunari buruzko galderari eman lekiokkeen erantzuna asko baldintzatuko bailuke, zeren lan-erritmoa txikia izango balitz, automatikoki lortutako emaitza hobetzeko egin beharreko eskuzko aurreprozesamendu horrekin, agian aurrera egiteko moduan egon gintezke. Bada, gure zoritxarrerako, DGTaren lan-erritmoa ikaratzeko modukoa da, izan ere Europako Batzordeak asko erabiltzen baitu itzulpen-zerbitzu hori. Esate baterako, 2005ean goraxeago aipatutako sistema horren bidez 860.314 orrialde itzultzeko eskaria egin zuen. Gaur egun MI zerbitzuak 18 hizkuntza-bikotetan lan egiteko aukera ematen du eta orduko 2000 orrialderen “itzulpen gordina” eskaintzeko ahalmena du. Normalean, itzulpena egitea eskatu duenari minutu batzuren buruan heltzen zaio “itzulpen gordina”. Makinak sortutako “itzulpen gordin” hori gero itzultzaile batek orrazten du, jatorriz pertsona batek itzuli izan balu moduan gera dadin. Denetara eta itzulpen-sistema guztiak, automatikoak zein “tradizionalagoak”, erabiliz, 2006an DGTak 1 541 000 orrialde itzuli zituen. Hizkuntzei dagokienez, itzuli beharreko orrialdeen %72 jatorriz ingelesez idatzita zegoen, %14 frantsesez, % 2,8 alemanieraz, eta geratzen den %10,8 Europar Batasuneko

gainerako hizkuntzetan. Proportzio horiek ordu betean MIK lantzen dituen 2000 orrialdeei aplikatuz, zenbat denbora itxaron beharko genuke ingelesezko 1440, frantsesezko 280, alemanierazko 56 eta hizkuntz “poutpourrian” idatzitako 216 orrialderen euskarazko zirriborroa, “itzulpen gordina” alegia, eskuratzeko? Egun bat? Aste bete bat? Hilabete osoa? Ala, zoritxarrez, hortik gora?

Erronkaren tamainaz jabetzen hasteko, oraingoz aski da. Gehienok bat etorriko gara onartzerakoan euskara horrelako dinamika batean berehalako batean txertatzeko gaur gaurkoz ez dugula prest. Horrek ez du esan nahi, baina, presta ezin dezakegunik, lan itzela eskatuko digun arren.

Edozein ekintzaren ondorioak atoaan bistaratzen ez direnean pazientzia oso erraz galtzen duten pertsonen osatutako gaur egungo gizarte globalizatu eta automatizatuan zientziaren eta teknikaren esparruetan euskara erabiltzeari utz ez diezaiozun, ahalbait arinen ekin beharko diogu soilik informatika bidez lor daitekeen itzulpenaren berehalakotasuna lantzeari. Berehalako itzulpengintza, hitzena ezezik esaldi osoena ere bai, ahalbidetzeko euskara itzulpengintza automatizaturako prestatu beharko dugulakoaz inor gutxik egingo du zalantza. Bere osotasunean dena batera ezingo dugunez prestatu, nondik hasi beharko genuke? Alegia, zein lirategi prestakuntza-lanik behinenak? Nire ustez, espezialitate-hizkeretako terminologiak homologatzeari ekitea izango litzateke, bere zailtasunean, gauzarik errazena, zeren, itzulpengintza automatikoa benetan eraginkorra izan zedin, hizkuntza desberdinetan erabiltzen diren alorrez alorreko hizkerak ahalik eta homologazio-maila altuena eduki beharko bailukete.

Edozein espezialitate espezializazio-prozesu jakin baten ondorioa da, eta, definizio ez oso akademikoa, baina bai, ostera, oso grafikoa, erabiliz, espezializatzea ondoko hau dela esango genuke: geroz eta gutxiagotaz geroz eta gehiago jakitea, ia ezertaz ia den-dena jakitera iritsi arte. Beraz, espezialitate-hizkeretako terminologiak homologatzearekin itzulpengintza automatikoan euskara modu eraginkorrean integratzea lor dezagun espezialitate-hizkera guztientzat baliagarria izango den terminologia “orokorra” homologatzen saiatzea proposatuko dut, “espezialitate” eta “orokorra” kontzeptu kontraesangarriak diruditen arren, eta, neurri batean bederen, hala diren arren.

3. EUSKAL ADITZEN ESANGURAK HOMOLOGATZEAREN PREMIA ETA ONURAK.

Atal honen izenburuak argi adierazten duenez, aditzak homologatzea proposatuko dut. Irakurle bat baino gehiago harrituko da nik aditzak terminotzat hartzearekin; baina, zergatik ez? Ez al da egia, sarritan, lan zientifiko bat euskaratzeko orduan, benetako zailtasuna ez dagoela alorreko kontzeptu ultraspezifikoko definitzean erabilitako termino berezi-berezietan, baizik eta aditzetan? Ez al da egia, gainera, oso maiz gertatzen dela esaldiaren esanguraren muina aditzean dagoela?

Gaur egungo zientzia eta teknikaren aurreramendua hain denez azkarra, ia-ia gauza guztietan ezjakinak garela eta, hortaz, sarritan gerta dakiguke aditzaren esangura zehatza deskodetzeko zailtasun handiak izatea. Adibidez, ondoko ingelesezko esaldi teknikoa euskara, gaztelerara, frantsesera eta alemanierara itzuli da. Gutariko inork ez luke bat ere arazorik edukiko, grafiak hizkuntzaz hizkuntza zertxobait aldatu arren, “benetako” termino zientifikotzat har daitezkeen *glukosa*, *intsulina*, *glikogeno* eta *triazilglizerolak* bost hizkuntzetako itzulpenetan topatzeko eta ulertzeko.

High blood glucose elicits the release of insulin, which speeds the uptake of glucose by tissues and favours the storage of fuels as glycogen and triacylglycerols.

Odoleko glukosa-maila altuak intsulina askatzea eragiten du. Horrek ehunen glukosa-harpena bizkortzen du eta erregaiak glikogeno eta triazilglizerol moduan metatzea faboratzen du.

Unos niveles elevados de glucosa en sangre estimulan la liberación de insulina, que acelera la captación de glucosa por los tejidos y favorece el almacenamiento de compuestos de reserva energética como el glucógeno y los triacilglicerolos.

De fortes concentrations de glucose provoquent la sécrétion d'insuline qui accélère la capture du glucose par les tissus et favorise le stockage des carburants sous forme de glycogène et de triacylglycérols.

Bei hohem Blutglucosespiegel wird Insulin sezerniert, das die Glucoseaufnahme in den Geweben verstärkt und die Speicherung von Brennstoffen als Glycogen und Triacylglyceride fördert.

Bost textuen arteko paralelotasuna begi bistakoa da. Alemanierazko lehen esaldian izan ezik, eta berau estilo-kontu bategatik, *aditza + aditzetik eratorritako izena + izena* egitura errepikatzen da. Zalantza-izpirik gabe esan dezakegu bost itzulpen *homologaturen* aurrean gaudela.

Baliteke baten batek esatea erdal aditz bakoitzari ez diogula zertan aurkitu behar euskal aditz bat ordaintzat. Agian, baina ekintza bati amaiera emateko moduak deskribatzeko ingelesezko ikerketa-lan batean kaleko hizkuntza arruntean ia-ia sinonimotzat har daitezkeen 12 aditz desberdin erabili badituzte (to cancel, to cease, to complete, to culminate, to end, to finish, to stop, to terminate, eta abar), baten batek emango al dit arrazoiren bat zergatik guk ez ditugun beste horrenbeste erabiliko (kantzelatuz, eten, osatu, burutu, azkendu, finitu, bukatu, gelditu, amaitu, urrendu, ...), gehien-gehienak hiztegiatan aurki daitezkeen aditz patrimonialak baldin badira? Ez omen direlako beharrezkoak? Zergatik pobretu behar dugu lan bat euskaratzerakoan jatorrizko hizkuntz aberastasuna errespetatu gabe? Zer irudituko litzaiguke gutariko edonori guk euskaraz erabilitako *ediren, kausitu, topatu, aurkitu, idoro* eta beste hainbat aditz, ingelesera, frantsesera edo gaztelerara pasatzerakoan denak forma bakarrean emanda ikusiko bagenu itzulpenean, *to find, trouver* edo *encontrar* moduan alegia? Ez al ginateke asaldatuko eta itzultzaileari “*traduttore, traditore!*” aurpegiratuko? Ez al genioke erantzuki egingo esanez, nor ote zara zu nire idazlanean islatu nahi izan dudana hizkuntzari buruzko nire ezagutza lausotzeko, edo, are gehiago, ezabatzeko?

Etorkizunean zenbait erakundek erabiliko bide duten eta, gaur egun bederen, azpiegitura teknologiko oso handia eskatzen duen itzulpenegintza automatikoa bezalako arlo urrun eta abstraktuan ezezik, egunero euskaraz jorratzen ditugun arloetan ere egokiro erabiliak izan daitezkeen, aditzak homologatzeko prozesu luze eta korapilatsu bati ahalbait arinen ekin beharko genioke; alegia, ahal den neurrian, arloan arloko erdal aditz bakoitzari euskal aditz bat esleitzeari eta erdal eta euskal aditzak elkarren artean korrespondentzia biuniboko bitartez uztartzeari. Hori, jakina, ez da beti posible, baina salbuespentzat har daitezkeen “ezinezko biunibokotasunen” kasu apurrek, ez gaituzte eraman behar onartzera ezen, aditzak itzultzea ezinbestean anabasa askaezinean murgiltzea eta tratatzea bezala denik.

To produce da adibide paradigmatikoa. Nola eman euskaraz? Modu bitan bai bederen, *ekoitzi*

In response to these messages, the hypothalamus **produces** a number of regulatory hormones.

Mezu horiei erantzunez, hipotalamoak zenbait hormona erregulatzailerako **ekoitzen** du.

eta *eragin*

This defect **produces** the symptoms of whooping cough.

Akats horrek kukutxeztularen sintomak **eragiten** ditu.

jakin ondo baitakigu gaixotasunak (beherakoa, estula, sukarra, ...) euskaraz ez direla *ekoitzen*, *eragiten* baizik. Beste hizkuntzetan ere horrelakoak sarritan gertatzen ohi dira.

Internetaren moduko teknologia modernoeri esker, azken urteotan izugarri erraztu eta bizkortu da datu-base terminologikoen kontsulta. <http://www.ehu.es/ehulku> helbidean klikatu besterik ez da egin behar ohartzeko itzulpengintzarako zenbat baliabide dauzkagun eskuera-eskueran ordenagailuaren bidez. Nire ustez, baina, arazo larriena honako hau da: erdal termino, aditzak barne, zientifiko bati euskal ordain bat esleitzerakoan, datu-base eta hiztegi aberats horien *ad hoc*-eko erabilpena egiten dugula; alegia, erdal aditzari esleituriko euskal ordaina erabat kontsultagilearen nahieraren mendekoa dela, textuinguruaren arabera ezezik, pertsona berberaren egun batetik besterako aldarte-ezberdintasunaren arabera ere alda daitekeena. Beraz, eta salbuespenak salbuespen, aitortu beharra daukagu normalean ez dugula egiten datu-base eta hiztegi horien bidez eskuratutakoaren erabilpen koherente eta sistematizaturik. Agian, oraingoz behintzat, ezin da besterik egin, izan ere testu zientifikoetan ia-ia ez baitaukagu euskal fraseologiarik eta, are gutxiago, homologatuta legokeen euskal fraseologia bat (Txurruka 2005: 189).

Nire ustez, arazoa bereziki larria da eta hedatuta dago aditzen arloan, zeren eta oso maiz gertatzen baita erdal aditz berberari, textuingurua berdintsua izan arren, zenbait euskal ordain, zoriz-edo, esleitzea, sinonimotzat-edo hartzen ditugulako, besterik gabe; eta, okerreana dena, sarritan, zeregin horretarako, esangura anitz eta era askotan uler daitezkeen aditzak erabiltzen ditugu. Esate baterako eta goraxeago emandako adibideetariko bat berrerabiliz, *favours the storage of fuels* ingelesezko esaldia *erregaiak metatzea faboratzen du* itzuli dugu. Hegoaldeko euskaldunoi bederen, bitxi xamarra egiten zaigunez faboratu aditza erabiltzea, baten batek galde dezake ea *faboratu*-ren orde zergatik ez dugun erabiltzen “ezagunagoak” edo “ohikoagoak” diren *erraztu* edo *lagundu*.

Eta ingeleseko esaldia *facilitates the uptake ... and favours the storage* izan balitz? Biak *erraztu* moduan emango genituen?

Edo *accompanies ... and favours ...* izan balitz? Aditz bien euskal ordaina *lagundu* izango zen?

Edo *cooperates in ... and favours ...* izan balitz? Hemen ere biak *lagundu*?

Eta *contributes to ... and favours ...* izan balitz? Hirugarren aldiz *lagundu*?

Euskarak ez du berezkoa, inondik inora, aditzen peitutasun hori; guk eratzikia da. Gure ezjakintasunari erosokeria eta nagikeria gehitzen dizkiogunean, textuaren balizko ulergarritasunaren izenean egiten dugula esaten badugu ere, hori da lortzen den emaitza, euskarazko testu tekniko askotan beha daitezkeen aditz-forma desberdinen eskasia. Arazo hori gainditzeko proposatzen ari naiz aditzen homologazio-prozesu baten diziplinari lotzea.

to favour, *faboratu*, favorecer, favoriser

to facilitate, *erraztu*, facilitar, facilitar

to accompany, (*zerbait*)-ekin *batera gertatu/eman*, acompañar, accompagner

to cooperate, *kooperatu*, cooperar, coopérer

to contribute, *lagundu*, contribuir, contribuir

Bost kasuetan ingelesak, gaztelerak eta frantsesak latinezko aditz berbera erabili dute, zeren, horrela, *lingua franca*-ra joaz, elkarren arteko itzulgarritasuna (ingelesez *intertranslatability* esaten dena) bermatzen eta ulergarritasuna ziurtatzen baitituzte, izan ere hiru hizkuntzetako hiztunek modu bakar eta berean ulertuko baitute horietariko aditz bakoitza. Horrela jokatzuz, hizkuntza desberdinetan etimo berbera duten aditzak erabiltzen dituztenean alegia, terminoen, kasu honetan aditzen, elkarren arteko homologazio-prozesua berez eta naturaltasun osoz gertatzeari bide ematen diote. Guk birritan egin dugu bat gure inguru kulturaleko indartsuenak diren hiru hizkuntza horiekin eta beste hirutan geure harrobiko aditzak erabili ditugu. Gehiegitan izango ote zen? Ez dut uste. Eta hiru hizkuntza horiekiko gure euskararen homologazioa? Ala ez dugu homologaziorik bilatu behar? Nik uste dut baietz. Horretarako, besteengandik aldentzen garenean beti era berean eman beharko genuke

euskal ordaina, hori baita Zabala eta Elordui-k salatzen duten *aldagarritasun asistematikoa* minimizatzeke modu bakarra (Zabala & Elordui 2005: 15).

4. HOMOLOGAZIOAREN URRATSIK BEHINENA: MODULARIZAZIOA.

Adiera (aurpegi) anitz dituzten, eta, hortaz, poliedrikoak diren terminoetatik benetako zientzialari eta teknologoek ihes egin beharko lukete. Baina, sarritan, halabeharrez-edo, esangura bakarreko termino lauen orde, erabiltzen ditugun terminoak polifazetikoak dira, aurpegi tronpagarri ugari dituztenak, eta, hortaz, poliedrikoak direnak. Eta aditzak dira termino poliedrikoen artean poliedrikoenak.

Gaur egungo zientzia eta teknikaren aurreramendua hain da azkarra, ezen ia-ia gauza guztietan ezjakinak garela eta, hortaz, sarritan gerta dakiguke aditzaren esangura zehatza deskodetzeko zailtasun handiak izatea. Eta itzulpenik egin gabe ere, aditzaren sinonimoak bilatzen ditugunean, antzeko anabasarekin egiten dugu topo.

Aditzei gagozkielarik, nola gauzatuko genuke goraxeago aipaturiko homologazio-prozesua? Arazoaren konponbidea, nire ustez, *modularizazioan* dago. Modularizazioaren helburua honako hau da: *arazo konplexuak, aditzen amarauna bezalakoak alegia, ebatzi ahal izateko, arazoa kontzeptualki maneiagarriak diren pusketatan (modulutan) zatitzea*. Lan honetan erabiliko ditugun aditzen adibide guztiak (5 hizkuntzatan) biokimikako liburu baten orijinalean eta itzulpen kanonikoetan aurkitutakoak dira (Lehninger et al. 1993).

Honako hau izango da nik erabiliko dudana modularizazio-teknika: *ekintza- edo funtzio-mota bat definitzea eta ekintza hori edo oso antzekoren batekin zerikusi zuzena duten aditzak, eremu semantiko berekoak-edo, aditz-poliedro batean biltzea*. Nire ustez aditz-poliedroak dira erabiltzaile arrunt batentzat “kontzeptualki maneiagarriak” izan daitezkeen “amaraun-zatiak”. Aditzen eremu semantiko bakoitzari poliedro irregular bat egokitzea izango da jarraituko dugun modularizazio-prozedura. Adibidez, demagun pentsatzen hasten garela ea zein aditz erabiltzen dugun honako prozesu hauek deskribatzeko: gauza bat geldi egotetik higitzen hasiera pasatzen dela edo zerbait ez egitetik egitera pasatzen garela. Segun-eta zein hizkuntzatan pentsatzen ari garen, berehala bururatuko zaizkigu batzuk, hala nola: *hasi, ekin abiatu, to begin, to start, débuter, partir, empezar, poner en marcha, beginen, starten, ...* Beste batzuk gogoratzea, ordea, jasoagoak, ezohikoagoak. ... direlako-edo, gehiago kostatuko zaigu: *kitzikatu, to prime, induire, desencadenar, anregen*, eta abar, denak, ñabardurak eta pirinkeriak albo batera utzita, eremu semantiko berbereko partaidetzat, *lato sensu* sinonimotzat-edo, har ditzakegunak. Aditzen eremu semantiko bakoitzak hizkuntza bakoitzean bere poliedroa edukiko du eta unean-unean definituriko edozein eremu semantikoko aditz bakoitzari poliedroaren aurpegi bat esleituko diogu. Definizioz, aditzen eremu semantiko bakoitzari dagokion poliedroa beste hizkuntzetako poliedroekiko berdina da. Horrela eraikitako hizkuntza desberdinetako poliedro guztietan aurpegi berdinari begiratuko bagenio, *stricto sensu* hartutako sinonimoak behatzen egongo ginateke. Ondoko zerrendetan lerro berean dauden aditzak ia-ia beti sinonimo hertsizat har daitezke. Kasu batzuetan zergatia erraza da: hizkuntza guztietan erro klasikoko *lingua franca*-ra jo dutelako aditza asmatzerakoan (*to activate, aktibatu, activer, activar, aktivieren*), edo, beste zenbait kasutan, jatorrizko termino ingelesa itzultzerakoan hizkuntza bakoitzak bere erara eman duen arren, beti aditz bera erabili dutelako (*to prime = aitzinatu, démarrer, cebar, vorbereiten*). Beste era batean adierazita, ondoko zerrendako lerro bereko aditzak elkarri korrespondentzia biunibokoz uztarturiko baliokideak direla esan dezakegu, eta, hortaz, homologazioaren bigarren esangura gogoratu, bata bestearen itzulpen homologatua dela.

Deigarria gerta dakioke norbaiti ikustea ezen, zenbait kasutan, horrelako adibideak ia-ia soilik euskararen eta alemanieraren kasuetan aurki daitezkeelarik, aditza eta aditzetik eratorritako izena zeharo erro ezberdinetakoak izatea. Horrelakoetan, ia salbuespenik gabe, erroetariko bat hizkuntzaren baitako erro patrimonialetatik eratorritakoa izango da, eta,

bestea, klasikoak deitzen diren hizkuntzetako erroren batean oinarritutakoa. Adibidez, ikus beheko zerrendako to stimulate /stimulation bikotea. Euskaraz aditza erro klasikokoa den heinean (*estimulatu*) izena patrimoniala da (*kinada*). Justu kontrakoa gertatzen da alemanierarekin, aditz patrimoniala (*beschleunigen*) eta izenaren erroa klasikoa (*Stimulierung*). Hizkera zientifiko–teknikoetako hitzak homologatzeko premia ukaezina dela-eta, horra hor euskaldunok dugun/alemanek duten garbizaletasunaren eta termino bat itzultzeko erraztasunaren artean aukeratzekoan bizi dugun/duten zalantza eta barne gatazkaren adibide paradigmaticoa, terminoen homologazioa gertatzen ez den bitartean iraungo dutenak.

INGELESA	EUSKARA	FRANTSESA	GAZTELERA	ALEMANIERA
activate	aktibatu	activer	activar	aktivieren
begin	hasi	débuter	iniciar(se)	beginnen
begin	hasi	commencer	empezar	beginnen
excite	kitzikatu	exciter	excitar	anregen
induce	induzitu	induire	inducir	induzieren
induce	eragin	induire	inducir	verursachen
induce	eragin	induire	inducir	hevorgerufen
initiate	hasi	préparer	iniciar	initiieren
initiate	hasi	préparer	iniciar	starten
prime	aitzinatu	démarrer	cebar	vorbereiten
start	abiarazi (du)	partir	poner en marcha	starten
start	abiatu (da)	soit le début	poner en marcha	starten
stimulate	estimulatu	stimuler	estimular	beschleunigen
<i>stimulation</i>	<i>kinada</i>	<i>stimulation</i>	<i>estimulación</i>	<i>Stimulierung</i>
trigger	desarratu	déclencher	desencadenar	anregen
trigger	desarratu	provoquer	desencadenar	auslösen
undertake	ekin	entreprendre	emprender	- - - -

Homologatutako aditzez osatutako honelako zerrendek ematen duten erraztasuna da aditzen "berezko itzulpena" daukagula, ondoko aholkuaren antzekoa iradokitzen dutena: *arazo berezirik sortzen ez den bitartean, aditz hau beti era bakar honetan itzuli.*





Hizkera zientifiko–tekniko hegemonikoekiko homologazioa lortzea hil ala biziko gaia da euskarak bere leku propioa izan nahi badu eta arlo horietan ematen diren aurrerapenak deskribatzeko eta ulertzeko tresna baliagarria izan nahi badu. Aurreko ideiak bereziki egiak dira txosten teknikoetan informazio-galerarik gerta ez dadin, Itzulpengintza Automatikoa erabiltzen duen sistema batez itzultzen direnean batez ere.

5. BIBLIOGRAFIA.

LEHNINGER, A. L., NELSON, D. L. & COX, M. M. (1993): *Principles of Biochemistry*, New York: Worth Publishers.

TXURRUKA, J. M. (2005): "Euskal hizkera zientifiko–tekniko homologatuaren premia", in TXURRUKA, J. M. (argit.): *Euskera zientifiko–teknikoa: Normalizaziotik homologaziora*, Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea.

ZABALA, I. & ELORDUI, A. (2005): "Euskara zientifikoaren normalizazioa: hizkuntzalarrien ekarpena", in TXURRUKA, J. M. (argit.): *Euskera zientifiko–teknikoa: Normalizaziotik homologaziora*, Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea.



NEGOZIAZIOA TESTUGINTZAREN OINARRI¹

Iñaki Ugarteburu Gastañares
EHU

1. PROIEKTUAREN OINARRIZKO AZALPENA

Proiektu honetan proposatzen dena zeregin bat da, talde (ekipo) lanean egitekoa eta orain arte bakarkako lanean egin dena (aurreko urteetan), hain zuzen ere, taldean egiteak dakartzan gorabehera eta arazoei aurre egin beharrak sortu izan didan nekearengatik eta zalantzaarengatik. Proiektuaren helburua da zeregin hori antolatzea, ikastaroan aipatu diren buruzagitza eta negoziazio lanetarako irizpideak gogoan hartu eta gauzatu.

2. PROIEKTUAREN ABIAPUNTU METODOLOGIKOA

Horretarako abiapuntu metodologiko jakin bati egingo diogu kasu, ikaskuntzaren teoria soziokultural eta konstruktibistari. Kontuan hartuko dugu, gure lanari dagokionez, ikuspuntu horren arabera, komunikazioaren oinarrizko osagaietako bat dela negoziazioa (hiztunen edo komunikazioan parte hartzen duten aktore guztien artekoa) eta negoziazio hori bideratzeko ezinbestekoa dugula ituna egitea. Era berean, komunikazioa berbalizazio modura gauzaten den momentuan bada ekintza horretan esplizitazio prozesu bat, ezinbestean kontrastea beharko duena. Ikasketa prozesua abiapuntu horretan oinarriturik bultzatu nahi duguna ikasketa esanguratsua da (Jorba, J. 2000).

Bestalde, zeregin honetan espezialista izango diren ikasleekin ari gara lanean eta, beraz, ezin ahaztu lantzen ari garen komunikazio modua (tetsugintza) eremu jakin batekoa dela. Hau da, ikasle hauek genero diskurtsibo edo espezifiko batera hurbildu behar dute. D. Cassanyk honela definituko du genero diskurtsiboa: “*Género discursivo o específico: unidad de comunicación que se ha desarrollado sociohistóricamente en una actividad laboral específica*”. Eta, horrekin batera, genero horien ezaugarri nagusiak aipatuko dizkigu: berezitasun lexiko-gramatikalak (fraseologia, terminologia, morfosintaxi aukerak...), diskurtsiboak (egitura, fatuen aukera, erregistroa...) eta pragmatikoak (diskurtsoaren

¹ Honako lan hau EHUko Kalitate katedrak 2007an antolatutako “Ikasgelako irakaskuntza (EFQM eredu)” ikastaroan aurkeztu zen aplikazio proiektutzat. Proiektua: “Osasungintzako zabalkunde artikulua idaztea (talde-lana)”; irakasgaia: Euskara Teknikoa I, Medikuntzako lizentziatura (Medikuntza eta Odontologia Fakultatea)

funtzioak, egile-irakurle rolak, kortesia moduak...). *La lectura y la escritura de géneros profesionales en EpFE (Cassany, D.)*

Bestalde, kontuan hartu beharra dugu, oro har, lan eta zeregin kooperatiboak egokiagoak gertatzen direla gure zeregin eta helburuetarako, lehiakortasunean edo bakoitzaren ahaleginean oinarritzen direnak baino.

<i>Process</i>	<i>Cooperative</i>	<i>Competitive</i>	<i>Individualistic</i>
<i>Interdependence</i>	Positive	Negative	None
<i>Interaction Pattern</i>	Promotive	Oppositional	None
<i>Outcome 1</i>	High Effort To Achieve	Low Effort To Achieve	Low Effort To Achieve
<i>Outcome 2</i>	Positive Relationships	Negative Relationships	No Relationships
<i>Outcome 3</i>	Psychological Health	Psychological Illness	Psychological Pathology

Cooperative Learning And Social Interdependence Theory. David W. Johnson and Roger T. Johnson

3. PROIEKTUAREN ABIAPUNTUA LOGISTIKOA

Proposatzen dudana zeregin hau zuzenki dago gaitasun bati lotua. Ziur aski medikuntzarako aurreikusiko diren gaitasunetako bat honako hau izango da: mediku eta gaixo edo beste bezeroen arteko komunikazioa garbi eta modu eraginkorrean bideratzeko gaitasuna. Gaitasun espezifiko modura jarri nahi dut nik Euskara Teknikoan zientzia (osasungintzako) espezialista ez direnei komunikatzeko eta argi ulertarazteko gaitasuna. Gaitasun espezifiko hori bi zereginen bidez landu ohi dut, bata ahozko azalpena eta bigarrena zabalkunde edo dibulgazioko artikulua idaztea. Aurten bakarka egin dugu azken hori eta emaitzak (ikasleen artikulua) oraindik argitaratu ez ditudan arren, laster jarriko ditut nire webgunean. Bakarkako zeregina zertan den ere (aurtengoa nola bideratu dugun, alegia) orri horretan azter daiteke (zeregin hau Moodle plataformatik kanpo egin dugu aurten): <http://www.ehu.es/euskalosasuna/Zabalkunde/nagusia.htm>.

4. ZEREGINAREN HELBURUA

Zientzia-gaia espezialista ez direnei eredu formal bat erabiliz (komunikazio idatzi edo argitalpena) espezialistak egin behar dituen birformulatze linguistiko eta komunikatiboez jabetzea eta hartarako erabili behar diren estrategiarik egokienak hautatzen ikastea, baita prozesu osoak eskatzen duen elkarreragina (aukeraztea, idaztea, zuzentzea, argitaratzea...) modu eraginkorrean bideratzen ikastea. Azken finean, benetako lana "simulatu" nahi dut. Une honetan EHUko Euskara Zerbitzuan (kolaboratzailea naiz han eta Euskara Institutuan) lan bat argitaratzen edo itzultzen den bakoitzean egiten den bide hori bera egin nahi dut lan honetan. Benetako lanen bide hori konplexua da oinarrian hartzen dugulako zenbait "aktore" badirela lan horretan (itzultzaile, begirale tekniko, hizkuntza zuzentzailea, editorea, eta abar) eta bitartekaritza linguistikoa dela ardatz nagusia, hau da, testua negoziatu egin behar dela

etengabe aktore horien artean. Nik neuk une honetan esku artean dudan begiraletza lan batean etengabe daukat negoziatu beharra editorearekin (epeak, besteak beste), itzultzailearekin eta hizkuntza zuzentzailearekin, aldez aurretik adostutako eredu bati jarraituz. Aipatu dudan gaitasun espezifiko hori lantzeko metodologiaren eta hartarako zereginen antolamenduaren oinarri teorikoak, batez ere, Daniel Cassany-renak dira (http://www.upf.edu/pdi/df/daniel_cassany/)

5. ZEREGINAREN AURKEZTEA ETA HASIERAKO ERABAKIAK HARTZEA.

Zeregin hau erabiliko den talde osoa 100 ikaslekoa da eta aldez aurretik ikusten da taldeak 5 lagunekoak izango direla (4 edo 3koak ere izan daitezke, hartarako arrazoirik baldin badago, azkenean solte geratzen diren ikasleekin taldeak osatu behar badira batez ere; hala baldin bada aurrerago zehaztuko den modu zehatzean banatuko dira taldekideen zereginak). Ikasleek, lehenbizi, agindua jasoko dute (kontsigna) era honetara formalizatua:

Zeregin honen helburua **zabalkundeko artikulua idaztea** da: alde batetik, idazten trebatzea, baina, horrekin batera, informazioa bilatzen eta antolatzen nahiz informazio hori molde jakin batean egokitzen eta taxutzen ikastea. Era berean ikasgai honetan eskuratu nahi diren gaitasunetako bat landuko da taldean, lan-taldearen ezaugarriak eta taldekako lan-metodologia ezagutuz, baita taldean besteekin jarduteko behar diren estrategiarik egokienak erabiltzen ikasiz ere. (<http://www.ehu.es/euskalosasuna/Zabalkundea/lehena/lehena.htm>)

Horrekin batera honako atal hauek aurkeztuko zaizkie ikasleei:

- Orain arte ikasi ditugunak, ikasleak badakienaz baliatzeko eta hura oinarri izateko baita lanean izango dituen zenbait zailtasuni aurre egiteko beharrezko izango dituen erreferentziak eskura izateko ere (<http://www.ehu.es/euskalosasuna/Zabalkundea/lehena/ikusiak.htm>)

- Lana egiteko arauak (<http://www.ehu.es/euskalosasuna/Zabalkundea/arauak.htm>), bereziki honako hauek:

- Lanak nolakoak izango diren: originalak, argitara gabeak, kopiatu gabeak (<http://www.copyscape.com/>), osasungintza arlokoak, dibulgaziokoak...

- Noiz eta nola bidali (epea, posta elektronikoa: irakaslearena nahiz ikaslearena EHUkoa, formatua (doc, pdf) eta abar

- Lanaren itxura eta ezaugarriak, eta abarreko kontu teknikoak (lanen jabetza eta abar)

- Ebaluazio irizpideak

Horrekin batera eredu eskainiko zaie ikasleei (<http://www.ehu.es/euskalosasuna/Zabalkundea/lehena/erreferentzia.htm>), hau da, eskatzen den tankerako lan egoki bat, eta lana egiteko prozedura akademiko zehatza (<http://www.ehu.es/euskalosasuna/Zabalkundea/lehena/prozedura.htm>)

Hori guztia azpitalde handietan egingo da, hau da ordenagailu praktiketarako egiten diren 33na ikasleko azpitaldeetan.

6. NEGOZIAZIOA:

1. Ikasleen hasierako jakintza dugu abiapuntu eta dibulgazioko artikulua irakurtzen orain arte izan duten eskarmentua aipatzeko aukera emango zaie. Horretarako, talde txikiak antolatu eta halako artikulua irakurtzen aurkitu dituzten oztopen zerrenda osatzeko eskatuko zaie. Datu horiek denon artean aztertu eta proposamenak egiteko aukera izango dute ikasleek, baldin eta orain arte azaldutakoak egoki ikusten ez badituzte. Proposamen horiek ikasle multzo baten izenean edo banaka egin ahalko dituzte idatziz, astebeteko epearen barruan, ikasgairako erabiltzen den MOODLE plataformako foro berezi batean.

2. Aurreko puntu horretan bezala jokatu da ebaluazioari eta egutegi orokorrari dagokienez.

3. Talde bakoitzarekin negoziatuko da aurrerago taldearen osaera eta funtzioen banaketa, beti ere, ezinbesteko diren jarduerak betetzeko moduko eredu errespetatuz.

4. Proposamen horiek guztiak denon eskura egongo dira MOODLEeko foroan eta horietako bakoitzari oharrak edo iruzkinak eransteko aukera izango dute ikasleek. Irakasleak hartuko du bere gain horiek guztien laburpena egitea, nahiz eta eztabaidatzeko orduan (gela handian) Interneteko loturaren bidez proposamen guztiak jatorrizko formulazioan irakurtzeko moduan egongo diren.

5. Saio bat egingo da talde osoarekin, aurreko haietatik astebetara, proposamen haiek aztertzeko eta erabakiak aho-batez hartzeko. Irakaslearen zeregina izango da lanak duen funtzio didaktikoa betetzeko derrigorrezko diren mugak aipatzea eta haietatik aurrerako aldaketak debekatzea.

6. Erabakiak aho-batez hartzerik ez balego kontsultagune bat irekiko da MOODLEn (inkest formatuko) ikasle bakoitzak iritzia eman dezan eta erabakiak gehiengoz hartzeko (epea: astebete, lehen bilera haietatik hamabost egun)

Oharrak negoziazioaz: taldeak horrela osaturik (5 lagun) taldekideen inplikazioa bilatu nahi da, haien arteko elkarrekin (asmo didaktikoz, nahiz simulatzen den egoeran horrela gertatzen delako) eta, bereziki, kritikotasuna bultzatu nahi da. Izan ere, hizkuntza kontuetan jarrera akritiko eta dogmatikoak ugari direla ikusi dugu zenbait ikerketetan eta jarrera horiei aurre egiteko bidea bilatu nahi da zeregin honen bidez. Adibide bat, hizkuntza orokorrari dagokiona: euskarari dagokionez, ohikoa da ikasleen partetik han-hemen ematen diren arauen (arau akademiko, estilistiko edo bestelakoen) kontrako jarrera landu eta koherentzia gabea, aitzakiatzat hartuta hizkuntzaren ohiko erabilera (“beti horrela esan dugu”): taldean ikusi beharko dute ea “beti” edo “denok” kategoriak unibertsalak diren eta halakorik ez dagoela ikusita taldearen araua “negoziatu” beharko dute (barne arauak hizkuntzaren erabilerari dagokionez). Bestalde, kanpotik inposatutzat sentitzen den arauak sorraraz dezakeen jarrera emozional ezkorra (“behartu egiten naute”) modu asertiboan bideratzen ikasiko dute.

7. TALDEEN ERATZEA.

Taldea bost lagunekoa izatea aurreikusten da. Ikasleek berek hautatu eta irakasleari proposamena egingo diote zenbait kontu zehaztuz:

- Taldearen izena
- Taldekideen zerrenda

- Lanaren kronograma, kontuan hartuta zer nolako urrats zehatzak aurreikusten diren: sei urrats (<http://www.ehu.es/euskalosasuna/Zabalkundea/lehena/prozedura.htm>)
- Taldekideen artean zeregin zehatzak nola banatuko diren (simulazio horretan bakoitzak beteko duen rol profesionala).

- [Argitaratzailea: irakaslea izango da eta talde-lanean izango dituen zereginenez gain (dinamizazioa, kontrola, laguntza teknikoa, ebaluazioa) harena izango da azken edizioaren lana; horretarako kontsulta egingo die beste bi talderi (parekoen bidezko epaitzea) lanaren onargarritasunaz] eta artikulua onargarria baldin bada argitaratu egingo du ikasgaiaren webgunean (gune publikoan; horretaz gain MOODLEn ere egongo da beste taldekide guztien eskura)
- Editorea: funtzio hori beteko duen taldekidearen lana izango da lanaren koordinazioa eta irakaslearekiko (argitaratzailearekiko) harreman zuzena. Partaide horrek izango du azken hitza gaia aukeratzean, gaia garatzeko moduan edo erabili behar diren informazio iturrietan (nahiz beste kontu tekniko batzuetan) ados jartzen ez direnean edo zalantza dutenean.
- Egileak: bi partaide izango dira eta informazio biltzeaz nahiz lehen idatzaldiaz arduratuko dira, baita bestelako baliabideak bilatzeaz ere (grafikoak, irudiak...) Bien artean adostu beharko dute testuaren hezurdura nagusia eta antzeko kontuak eta zuzentzaileei bidali.
- Zuzentzaileak: egileen lana ikusi eta zuzenduko dute baita grafiko eta irudiak bilatzen lagundu ere. Zuzenketak beti zuzenketa proposamen modura aurkeztuko zaizkie egileei eta adostu egingo dituzte talde osoko bileretan (gutxienez bat urrats bakoitzeko). Adostasunik ez badago editorearena izango da azken hitza. Zuzentzaileek dena zuzenduko dute: gaiaren azalpen eta elaborazio kontzeptuala, estiloa, gramatika eta abar.

Irakasleak taldekideen egokitasuna aztertuko du aldian-aldian (urrats bakoitzaren amaieran, lana aztertuta, MOODLEn, eta taldearekin bilduta nahiz haien iritzi orriak ikusita) halako edo bestelako rol profesionala betetzeko eta zuzenketak proposatuko ditu taldean. Zuzenketa horiek gehiengoz erabakiko dira 8adibidez, editorea zuzentzaile bilakatzea, edo egilea editore)

Era berean, irakasleak wiki bat eta foro bat irekiko du MOODLEn talde bakoitzeko, ikasleei aldeztu aurretik adierazita horiek izango direla irakasleak urrats bakoitzean aztertu eta ebaluatuko dituen dokumentuak (besteak beste)

8. TALDEKIDEEN ARTEKO HARREMANA, IRAKASLEAREKIKOA ETA TALDEEN ARTEKOA

Irakaslea talde bakoitzeko kide guztiekin bilduko da tutoretza orduetan (zita aldeztu aurretik eskatu eta adostuta) eta han jasoko dituzte ikasleek taldearen barne egiturari buruzko azalpenak. Irakasleak bat eta besteren funtzioan azalduko dizkie, zalantzak argituko ditu eta erabakiak hartzen lagunduko du, funtzio bakoitza betetzeko partaide egokiena zein ote den erabakitzeko orduan. Aldeztu aurretik erabiliko ez bada ere, prestatuta egongo da galdekizun bat erabaki hori hartzen laguntzeko.

Ikasleen kronogramaren arabera bildu beharko dute leku jakin batean: printzipioz fakultateko ikasleen ordenagailu gela aurreikusten da horretarako, arratsaldeztatik aurrera. Horretaz gain, MOODLEn bidez kontrolatuko dute bat edo bestearen lana. Koordinazio arazoak

(egileak zuzentzaileari lana bidaltzen atzeratzea, esate baterako, editoreak konpondu beharko ditu).

Zereginak dituen sei urratsetako bakoitzaren amaieran irakaslearekin bilduko da taldea tutoretza orduetan, zalantzak argitzeko eta egindako lana aztertzeko (lana bera, arazoak eta abar).

Denen lanak egongo dira MOODLEn denek ikusteko moduan (wikiak eta foroak) eta azken aurreko urratsean talde bakoitzak beste batena onetsi beharko du, aurrera egiteko.

9. ETENGABEKO EBALUAKETA (SEGIMENDUA): LANARENA, TALDEKIDEEN LANARENA

Zeregin zehatzetan oinarrituko da lanaren ebaluazioa eta etengabea izango da. Urrats bakoitzaren amaieran irakasleak taldearen wikia eta foroa aztertuko ditu. Puntuazioa 0 eta 1 artekoa izango da bi atal horietako bakoitzean. Wikiaren puntuazioa partaide guztiei ezarriko zaie eta forokoa bakoitzari. Azken puntuazio hori aldatu egin daiteke bilera presentzialetan eta foro orokorrean dagoen parte hartzea kontuan izanda. Irakasleak FAQ orri bat prestatuko du foroetako-eta erantzunekin

(<http://www.ehu.es/euskalosasuna/Zabalkundea/FAQ.htm>)

<i>urratsa</i>	<i>1</i>	<i>2</i>	<i>3</i>	<i>4</i>	<i>5</i>	<i>azkena</i>
puntuazioa gehienez Wikian, talde osoari	1	1	1	1	1	
puntuazioa gehienez foroan-eta, bakoitzari	1	1	1	1	1	
puntuazioa, azken lanarena						5

Puntuazioa guztira 15 puntu (10 puntu taldeko kide guztiei berdina eta 5 puntu partaide bakoitzaren arabera)

Beste dokumentu batean zehaztuko da nola erabakiko den ebaluazio zehatza. Esate baterako, 5. urratseko puntua honela lortuko da: 0,5 puntu taldearen lana pareen errebisioak ontzat ematen duenean eta 0,5 puntu beste talde baten lana errebisatu eta ontzat ematen denean (txosten arrazoitua aurkeztu behar zaie horretarako argitaratzaileari –irakasleari-)

10. AZKEN EBALUAZIOA ETA LANEN ARGITARATZEA

Lana bukatutzat emango da azken ebaluazioa gainditu eta lana webgunean argitaratzen denean.

ESPEZIALITATE HIZKERAK ITZULPENGINTZAKO ESKOLETAN

Ibon Uribarri Zenekorta (EHU/UPV)

Idazki honen helburua itzulpengintza ikasketen eta espezialitate hizkeren artean dagoen lotura aurkeztea da. Horretarako, itzulpengintza ikasketek EHUn bizi duten errealitateaz arituko gara labur, horren barne euskarak duen lekuaz eta itzulpengintza berezituak duenaz ere bai. Ondoren, benetako adibide baten eskutik, itzulpen prozesuaren faseak ikusiko ditugu, hor parte hartzen duten uneak eta eginkizunak zehaztuz, eta ikusiko dugu nola itzulpengintza orokorreko eta berezituko eskoletan espezialitateko hizkerak presentzia nabarmena duten eta nola egiten zaion aurre horri lexikografia lanak, corpusak eta beste lanabesak erabiliz, besteak beste. Azkenik, erabilpenetik produkziarako urratsa ere aurkeztuko dugu: espezialitate hizkerak landu daitezke itzulpen ikasketetatik abiatuta.

Itzulpengintza ikasketak 2000 urtean abiatu ziren EHUKo Arabako campusean. Ikasketa oso arrakastatsuak izan dira azken urte hauetan, eskari oso zabala izan dute: urtero 120-140 ikasleren eskakizunak jasotzen dira, baina EHUn *numerus clausus* duen ikasketa bakanetakoa denez, interesdunek sarrera proba bat egin behar dute. Azkenean 60 ikasle inguru hartzen ditu fakultateak urtero. Ondorioz, eskari handiena duten ikasketak dira itzulpengintzakoak Filologia Fakultatean. Kontuan izan behar da, gainera, filologia ikasle batek ordaintzen duena baino %50 garestiago dela itzulpengintzako matrikula. Horrez gain, lizentziadun gehien sortzen duen ikasketa ere bada.

Itzulpengintzako ikasleen %35-45 inguruk A hizkuntza, hau da, xede hizkuntza gisa euskara aukeratzen du. EHUK esaten du ikasle horiek curriculum osoa euskaraz egiten dutela, baina egiatan ez da horrela gertatzen. A hizkuntza gaztelania aukeratzen dutenek atzerriko hizkuntzak gaztelania dakien irakasle batekin ikasten dituzte, eta itzulpen ariketak egiten direnean, adibidez, atzerriko hizkuntzatik gaztelaniara egiten dira ia beti. A hizkuntza euskara duten ikasleen irakasle gehienek ez dakite euskara edo, baldin badakite, ikasle horiek gaztelaniako taldearekin batera daudenez, harreman guztia atzerriko hizkuntzaren eta gaztelaniaren artekoa izaten da, eta euskara ez da inondik agertzen eskoletan. Antzeko egoera

gertatzen da materialetan, ikerketan, eta abar. Ez da harritzekoa hori, atzerriko filologiaren jakintza arloetan irakasle elebidunen ehunekoa 5-15 artean kokatzen baita. Beraz, gure unibertsitateak gizarteko egoera diglosikoa onartu eta gure ikasleak hari egokitzeko prestatzen ditu gehienbat, egoera horri aurre egiteko prestatu beharrean.

Egun EHUko itzulpengintza ikasketetan itzulpen praktikak oso presentzia eskasa du, harrigarria bada ere. Itzulpen praktika horien zati handiena itzulpen berezituko ikasgaietan gauzatzen da, atzerriko hizkuntzatik (gehienetan ingelesa) A hizkuntzara egiten den itzulpen berezitua: juridiko-ekonomikoa, 12 kreditu; zientifiko-teknikoa eta ikus-entzunezkoa, 6 kreditu; eta literatur itzulpena, beste 6 kreditu. Beraz, itzulpen ikasgai horietan hainbat espezialitate hizkerarekin egiten da lana. Hor ere A hizkuntza gisa euskara duten ikasleek muga batzuk dituzte: A hizkuntza gaztelania dutenek irakasle ezberdinak dituzte ikasgai horietarako, eta irakasle horiek espezializatzeko aukera dute, hain zuzen; A hizkuntza euskara dutenek oraintsu arte 24 kreditu “berezituak” irakasle bakar baten eskutik jaso dituzte, eta noski, horrek espezializatzeko aukerarik ez dio ematen irakasleari.

Itzulpen eskoletan itzulpen prozesu osoa aurkeztu eta modu praktikoa gauzatzen saiatzen gara. Prozesu hori oso konplexua da: itzuli beharreko testua aurkezten da, testu horren ezaugarri nagusiak azpimarratuz; testua irakurtzen eta interpretatzen da, eta ulermen arazoak konpontzen dira; ondoren, testua itzultzen da; eta, azkenik, zuzenketaren unea dator, behin betiko itzulpena sortzeko. Prozesu horretan testu motei eta testu egiturari buruzko aurrejakintzak aplikatzen dira. Bestalde, dokumentazio lana egiten da eta terminologia kontuak argitzen dira. Horretarako, tresna lagungarri batzuk ere erabiltzen irakasten da: testu paraleloak, hiztegiak, corpusak, eta abar. Askotan tresna horiek espezialitate hizkerak sortzen dituen arazoak konpontzeko baliatzen ditugu.

Orain, itzulpengintzaren eta espezialitate hizkeren arteko lotura hori bermatzeko, adibide bat erabiliko dugu, eskoletan egiten ditugun antzeko itzulpen ariketa, hain zuzen. Jorrazten diren alor nagusiak zuzenbidea eta administrazioa, ekonomia eta merkataritza, eta zientzia eta teknika dira. Literatura ere agertzen da itzulpen berezituko ikasgai gisa, baina horrek eztabaida ugari sortzen du, eta ezin daiteke besterik gabe onartu literaturan espezialitate hizkera bat topatzen dugunik. Gure adibiderako zientzia dibulgazioko testu bat aukeratu dugu. Christian Weber kazetariak Focus aldizkarian argitaratutako “Kampf den Schatten!” artikulua (ikusi http://www.focus.de/auto/zubehoer/technik-kampf-dem-schatten_aid_209517.html).

Itzulpen ariketa bakoitzean testuaren analisitik abiatzen gara, eta hori egiteko Christiane Nord-en galdera ezagunak erantzuten saiatzen gara (barneko eta kanpoko faktoreei buruzkoak). Horrela, testuaren idazlea, testuingurua, funtzioak eta abar aztertzen dira lehenik, eta testuaren barne ezaugarriak ondoren. Prozesu horren ondorioz ikasleak testuaren lehen ulermen bat lortzen du: mendi baten itzalpean dagoen hiri austriar txiki batera ez da ia eguzki izpirik iristen, baina orain arazo hori konpontzeko bidea aurkitu dute argiaren teknologia berriak aplikatuz.

Testuaren ulermen eta interpretazio egokia lortzeko, testuaren inguruko dokumentazioa bilatu behar du ikasleak, bai jatorrizko hizkuntzan, bai xede hizkuntzan (edo horrelakorik ez balego, zubi hizkuntza batean, gehienetan gaztelaniaz). Kontua ez da dokumentazio hori bilatzea soilik, baizik eta prozesu horren garrantziaz jabetzea eta espezialitate hizkera bakoitzari lotutako dokumentazio iturri nagusiak bilatzen ikastea. Horrela, adibidez, jatorrizko hizkuntzan austriar telebistaren web gunean topatzen dugu gai berari buruzko artikulu bat, hainbat argazkiz hornitua (ikusi <http://oe1.orf.at/highlights/70500.html>), eta gure testuan aipatzen den argizketa enpresaren web gunea ere azter dezakegu (<http://www.bartenbach.com/>). Dokumentazio lanaren barne testu paraleloak aurkitzea da beste helburu bat, hau da, berri edo gai berbera ukitzen dutenak xede hizkuntzan. Horiek lortzeko beste iturri batzuk arakatzen ditugu: zientzia.net gunean “Argi bihurria” izeneko artikulua topatzen dugu (http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik_kod=12577); hiru.com gunean, berriz, argiaren izaerari eta tresna optikoei buruzko artikulua topatzen ditugu euskaraz (http://www.hiru.com/fisika/fisika_04900.html); eta, azkenik, jakinstei blogean, argiaren islapenari eta errefrakzioari buruzkoak topatzen ditugu (<http://www.jakinstein.com/argiaren-islapena-eta-errefrakzioa/>). Testu horiek guztiak terminologia kontuez gain testu mota horien diskurtsoa ere geureganatzen laguntzen dute.

Aurrelan horien ondoren testua itzultzen hasi behar dugu, eta orduan sintaxi eta semantika arazoak nagusitzen dira. Esaldi egitura eta joskera korapilatsu eta ezohikoak argitu behar dira, batetik, eta hitzen esanahia zehaztu behar da. Bigarren arlo horretan bi modutako arazoak topatuko ditugu, semantika arazo arruntak, nolabait esateko, batetik, eta espezialitate hizkera bati lotutakoak, bestetik, kasu honetan argiaren teknologiari lotutakoak bereziki.

Semantika kontuak zuzenean argitzeko daukagun tresna bakarra Elena Martinezek egindako alemana-euskara hiztegia da, eta agerikoa gertatzen da berehala ezen, tresna hori alor honetan aurrerapauso izugarria izan bada ere, ez dela nahikoa horrelako arazoei aurre egiteko. Horregatik, zubi hiztegiatar jo behar dugu, alemania-gaztelania gehienetan eta ondoren gaztelania-euskara hiztegia erabili (euskalterm bereziki kasu honetan). Gure egoerak dakarren muga objektiboa da hori; pena da EHUK filologia alemaneko jakintza arlo osoa izan arren, muga horiek gainditzeko lanik ez(in) egitea.

Testuaren ulermenetik itzulpenera doan prozesu guztian erabiltzen ditugu lanabes horiek, eta horrela *Metall dampflampe* edo *Umlenkfeld* bezalako terminoak ulertzea eta euskarazko baliokideak zehaztea lortzen dugu (deskargako lanpara, desbideratze xafla).

Hala ere, itzulpen ariketak beste tresna lagungarri bat aurkezteko aukera ematen digu, ztcorpusa. Aurreko asteetan euskararen corpusa eta ereduazko prosa aurkeztu ondoren, orain gaiari eta testuari lotutako beste corpus bati eusten diogu. Corpusaren ezaugarriak eta erabilera erakutsi ondoren, eskuartean ditugun arazoei aurre egiteko baliagarria ote den probatzen dugu.

Ikusi dugu, beraz, espezialitate hizkerak baduela bere lekua itzulpengintzako ikasketetan. Lotura hori, gainera, nahiko garrantzitsua da curriculumean. Bestalde, lotura praktikoa da, euskarazko itzulpenen produkzioari jarraiki zaio estuki. Eta, azkenik, atzerriko zenbait hizkuntzekin harremanak agertzen dira espezialitate hizkerak itzulpengintzako eskoletan. Horrek ekarpen interesgarriak izan ditzake euskarazko espezialitate hizkerak garatzeko lanean.

Amaitzeko, eman dezagun beste urrats bat. Orain artekoan lehendik ere bazeuden tresnen aplikazioaz aritu gara, baina orain, laburki, itzulpengintzako alorrean egiten den (eta egin daitezkeen) ikerketa lanak espezialitate hizkeren eremuan egin dezakeen ekarpena zehaztu nahiko genuke. Alegia, dagoeneko eginda dauden hiztegiak eta corpusak erabiltzen irakasteaz gain, horrelako lanabesak sortzen lagun dezake alor honek atzerriko hizkuntzekiko loturaz baliatuz. Horrela, gainera, zubi hizkuntzekiko eta zubi hiztegiekiko menpekotasuna (kasu batzuetan erabatekoa dena) gutxitzen lagundu dezake.

Hurbiletik ezagutzen dugun adibidean, esaterako, alemanetik euskararako itzulpen eskolei lotuta, lehenik alemanetik euskara itzultako testuen katalogoa osatu dugu, Aleuska katalogoa (http://www.ehu.es/ibon_uribarri/Aleuska.htm). Horrek, orduan, hainbat azterketa egiteko aukera eman dezake. Horietako bat, interesgarrienetakoa, corpus elebidun digitalizatu eta lerrotatua osatzea litzateke: testu alemanak eta euren euskarazko itzulpen digitalizatuak lerrotatuta aurkeztuko lirateke, testu osoan bilaketak egiteko aukera eskainiz. Tresna horrek aplikazio ugari izango lituzke, besteak beste, alemana-euskara hiztegia osatzeko lagungarri litzateke, baita beste tresna lexikografikoak sortzeko ere. Noski, lan berbera egin daiteke beste hizkuntza konbinazioetan.

UZEIk bere garaian egin zuen filosofia hiztegia zaharkitu xamar geratu da, orain dela urte asko egin baitzen, eta gainera alemana kontuan hartu gabe egin zen. Hutsune handia sortzen du gabezia horrek arlo horretan. Filosofia hiztegia eguneratu eta alemanaren ekarpenarekin osatzeko, proba moduan, Klasikoak bildumak eskaintzen dituen itzulpenez baliatu naiz. Itzulpenak digitalizatuta daude eta sarean argitaratuta, eta jatorrizko testuak ere erraz aurki daitezke sarean. Testuak eskuratu ondoren, Wordsmith 4 programa erabili dut jatorrizkoa eta itzulpena esaldika lerrotatzeko, honako emaitza honekin:

N	Sentences
1	Immanuel Kant
2	
3	Kritik der praktischen Vernunft
4	
5	Vorrede
6	EGILEAREN HITZAURREA
7	Warum diese Kritik nicht eine Kritik der reinen praktischen, sondern schlechthin der praktischen Vernunft überhaupt betitelt wird, obgleich der Parallelismus derselben mit der spekulativen das erstere zu erforder- scheint, darüber gibt diese Abhandlung hinreichenden Aufschluß.
8	Saiakera honek nahikoa argibide ematen du kritika hau arrazoimen praktikoko hutsaren kritika ez, baizik eta bereziki arrazoimen praktikokoaren kritika oro har izendatzeko zergatiari buruz, nahiz eta arrazoimen espekulatioarekiko paralelotasunak itxuraz lehenengoa eskatzen duen.
9	Sie soll bloß dartun, daß es reine praktische Vernunft gebe, und kritisiert in dieser Absicht ihr ganzes praktisches Vermögen.
10	Saiakera honek arrazoimen huts praktikoa dagoela besterik ez du azaldu behar, eta asmo horrekin bere ahalmen praktikoa osoa kritikatzeko du.
11	Wenn es ihr hiermit gelingt, so bedarf sie das reine Vermögen selbst nicht zu kritisieren, um zu sehen, ob sich die Vernunft mit einem solchen, als einer bloßen Anmaßung, nicht übersteige (wie es wohl mit der spekulativen geschieht).
12	Hori lortzen badu, orduan ez du ahalmen huts berbera kritikatu behar, horrela ikusteko ea arrazoimenak horrekin uste soil baten modura bere burua ez ote duen gainditzen (espekulatioarekin gertatzen den modura).
13	Denn wenn sie, als reine Vernunft, wirklich praktisch ist, so beweiset sie ihre und ihrer Begriffe Realität durch die Tat, und alles Vernünfteln wider die Möglichkeit, es zu sein, ist vergeblich.
14	Izan ere, hori arrazoimen huts gisa benetan praktikoa bada, orduan egintzaren bitartez frogatzen du bere eta bere adigaien errealitatea, eta alferrikakoa da, beraz, hori praktikoa izatearen ahalgarritasunaren aurkako arrazoiakoa oro.
15	Mit diesem Vermögen steht auch die transzendente Freiheit nunmehr fest, und zwar in demjenigen absoluten Bedeuten, worin die spekulative Vernunft beim Gebrauche des

Programa Klasikoak bildumak eskaintzen dituen itzulpen guztiekin elikatuko bagenu (gero Jakin-irakurgaiak edo Gaiak argitaletxeek egindako beste itzulpenak ere gaineratuko geniozke horri), milaka eta ehun milaka hitzez osatutako corpora eratuko genuke, gero horren bidez bilaketak eta era guztietako azterketak egin ahal izateko, filosofiako eta giza zientzietako euskarari lotuta.

Ondorioz, espezialitate hizkerek badute euren gunea itzulpengintzako ikasketen arlorrean. Gainera, alor horretan espezialitate hizkerak atzerriko hizkuntzei lotuta agertzen dira zuzenean, eta horrek gaiari buruzko hausnarketa eta eztabaida aberats dezake, ikuspuntu berriak ekarriz. Are gehiago, espezialitate hizkeren inguruan sortu diren baliabideak erabiltzetik tresna berriak sortzeko urratsa eman daiteke arlo horretan. Horretarako, ordea, euskarak EHUko itzulpengintza ikasketetan duen egoera asko hobeto beharko litzateke.

Kontzeptu mapak, tresna didaktiko gisa, euskaraz erabiltzeko ere.

José Domingo Villarroel Villamor.

UPV/EHU

Matematika eta Zientzia esperimentalen didaktika.

txomin.villarroel@ehu.es

Alfredo Tifi. World Wide Maps

alfredo.tifi@gmail.com

1 *Laburpena*

Kontzeptu mapen metodologia ezagutza grafikoki adierazteko teknika mota bat da, hezitzaile eta pedagogo askoren ustetan baliagarria suertatzen dena, alde batetik, ikaskuntza esanguratsua suspertzeko eta, beste aldetik, irakatsi eta ikaste prozesu barruko komunikazioa sendotzeko.

Teknika hau, ingelesa eta gaztelera bezalako hizkuntzen egiturarekin hagitz ondo uztartu arren, euskara eta beste hizkuntza aglutinatzaileekin metodologia honen erabilpenak zenbait doikuntza eskatzen ditu, bereziki, euskarari dagokionez, galdegaiaren ordena eta deklinabide kasuak errespetatzeko.

Egokitze-lan hauen ordez, maiz, euskaraz egiten dituen kontzeptu mapek gaztelararen egitura hartzen dute, teknika honen komunikatze ahalmena murriztuz.

Idazki honen bidez, kontzeptu mapen teknikaren hobari pedagogikoei errepassoa egiteaz aparte, metodologia hau didaktika maila eraginkor erabili ahal izateko proposamen zehatzak aurkeztuko dira, betiere, teknika honen erabilpenaren inguruko ahalik eta adostasun maila zabalena bilatu guran.

2 *Kontzeptu mapen jatorria eta erabilpen pedagogikoa*

Ezagutza irudikatzeko kontzeptu mapen metodologia aurreko mendeko azken hamarkadetan Cornell Unibertsitateko Joseph D. Nova eta bere taldea erabiltzen hasi ziren, hasiera batean, batez ere, ikasleen ikaskuntza zientifikoa aztertzekeo tresna gisa (Novak, 1998; Novak & Gowin, 1984).

Hastapeneko erabilpen horretatik, egun hezkuntzaren arloan kontzeptu mapen teknikak duen erabilerara, ordea, alde nabarmena dago; izan ere, jakintzaren diagnostiko-teknika baino gehiago ikaskuntza esanguratsuak suspertzeko metodologiatzat hartzen da.

Aldaketa hau suertatu da; alde batetik, pedagogo eta irakasle askoren artean metodologia honen hobari pedagogikoen inguruan adostasun zabala izan delako eta, beste aldetik, informazio eta komunikazio teknologien garapenak zabaldu dituelako teknika honek dakartzan aukera didaktikoak eta erabiltze hezigarriak diseinatzekeo posibilitateak.

3 *Kontzeptu mapen teknika*

Kontzeptu mapak sortze-prozesuan informazioaren ideia edo kontzeptu esentzialak identifikatu, era zentzudun antolatu eta beraien arteko erlazioak aditzera eman behar dira.

Modu honetan, norberak nabarmen dezake informazioari buruz duen ulerkuntza, bai edukietan, bai egituran (Irvine, 1995; Novak, 1990; Schmid & Telaro, 1990).

Ildo honetatik, ikaskuntza berriari aurre egin aurretik, norberak ahalegindu beharra du aurretiko ezagutza azalarazi eta grafikoki adierazten baita kontzienteki informazio berriarekin estekatzen ere (Ausubel, Novak, & Hanesian, 1986). Azken helburua aurretiko ezagutza eta informazio berriaren artean jakintza multzo kohesionatua sortzea da, kontzeptu sare gisa itxuratzen dena.

Honengatik guztiengatik ezagutza irudikatzeko metodologia hau, kontzeptu mapena, estrategia metakognitibotzat jo daiteke; izan ere, teknikaren gakoa memorizatze prozesuetan baino gehiago, norberaren aurretiazko ezagutzarekin informazio berria lotzean datza.

4 Kontzeptu mapen erabilpen didaktikoa


Hezkuntza eginkizunetan kontzeptu mapek hiru erabilpen nagusi dute :

- Ikaskuntza prozesua eta norberaren jakintza aztertu eta ebaluatzea.
- Ezagutza antolatu eta eduki berriekin era esanguratsuan barneratzea.
- Eduki eta informazio berriak komunikatzea.

Hiru arrazoi hauengatik, kontzeptu mapak oso teknika gomendagarri eta erabilgarriak dira maila guztietan eta jakintzagai ezberdinetan.

Kontzeptu mapak egiteko orduan ondoko irizpide hauek aitzat hartu behar dira:

1. Kontzeptu mapak proposizioez daude osatuta eta sarean agertzen diren proposizioek kontzeptu subjektua, kontzeptu predikatua eta bien arteko lotura behar dituzte. Kontzeptuak nodoen bidez agertuko dira.
2. Proposizio bakoitzak berezko esanahia behar du eta amaituta agertu beharra dago.



3. Loturek soilik izan behar dute erlazioa beraiekin estekaturik agertzen diren kontzeptuekin. Mapetan loturek nodo gabe agertuko dira eta estekadurak marra ala geziak bidez.
4. Nodoetan kontzeptu bakarra agertuko da.
5. Mapa bakoitzak bere abiapuntu-galdera izan behar du.

5 Kontzeptu mapen zailtasunak eta balizko konponbideak




Kontzeptu mapak bereziki egokiak egiten dira ingelesa eta gaztelera bezalako hizkuntzetan zeren bat datozen proposizioen egitura eta kontzeptu mapena.

Har dezagun, adibide moduan, ingelesa, gaztelera eta euskaraz, "zer da atmosfera?" abiapuntu-galdera duen ondoko informazio hau:

"atmosfera gas geruza da eta oxígeno, hidrógeno, karbono dióxido eta ura ditu"

"la atmósfera es una capa de gases y tiene oxígeno, hidrógeno, agua y carbono dióxido"

"the atmosphere is layer of gases and it has oxygen, hydrogen, carbon dioxide and water"



Kontzeptu mapa moduan, gaztelera, ingelesaz eta euskaraz, hurrenez hurren, 1, 2 eta 3. irudietan antzeman daiteke.

Begi-bistakoa da gaztelera eta ingelesaz, esaldien egitura bat datorrela kontzeptu maparen egiturarekin; hau da: kontzeptu-subjektua (*la atmósfera/the atmosphere*) + lotura (*es/is*) ala (*tiene/has*) + kontzeptu predikatuak (*capa de gases/layer of gases*) ala (*oxígeno/oxygen + agua/water + hidrógeno/hydrogen + carbono dióxido/carbon dioxide*).


Euskaraz, ordea, bi arazo nagusi daude:

1. Alde batetik esaldiaren orden naturala aldatu beharra dago, aditzak lotura gisa jokatu ahal izateko eta, ondorioz, galdegaia ez dagokion lekuan agertzen da:

atmosfera + da + gas geruza.

(*Atmosfera gas geruza da* orden zuzena da; izan ere, kontzeptu maparen abiapuntu-galdera honako hau da: zer da atmosfera?)

2. Bestalde, hitzen deklinazioa ezin da zuzen jarri. *Atmosfera* hitza bi esaldiren kontzeptu-subjektua da baina esaldi batean trantsitiboa da eta bestean ez.



Argi dirudi akats hauek zuzendu beharra daudela euskararen berezko egitura gramatikalari eusteko. Laugarren irudian agertzen da konponbide posible bat.

Ikus daitekeenez "zera", "ondoko", "honako" eta abarreko esapideak erabiliz perpausen egitura kontzeptu mapen egituretara molda daiteke.

Arestian aipaturiko bi arazoak maiz agertzen dira ikasleen lanetan ez ezik lan publikatuetan ere; izan ere, kontzeptu mapen egiturak aise eramaten du mapa egilea gaztelerazko parekoak egitera (adibide gisa ondoko hauek ikus daitezke: Guruceaga, A. 2002; Trebol, Astiz, Bildarratz, Etxabarri eta Olazabal, 2004; Energia, n.d.).

Hartara, kontzeptu mapak euskaraz ere, tresna erabilgarri ez ezik, formalki zuzenak erabiltzeko, beste edozein hizkuntzatako kontzeptu mapek behar dituzten gomendio berberak aparte, beharrezkoa dirudi: (a) subjektu kontzeptua perpausa ezberdinetan parte hartzean, deklinabide ezberdinak eskatzen dituenean, loturan bertan deklinabidearen berri emango da parentesien artean eta (b) galdegaia eta aditzaren arteko komunztadura ez galtzen saiatu beharra dago. Hartara, baliagarriak izan daitezke *zera*, *ondoko*, *honako* bezalako esapideen erabilpena.

6 Bibliografia

Ausubel, D. P., Novak, J. D., & Hanesian, H. (1986). *Educational psychology: A cognitive view* (2nd ed.) New York: Holt, Rinehart & Winston.

Berraondo, R.; Fdez. de Aránguiz, M.; de la Torre, S. (2004). Fisikokimikako praktiken ikas-irakas prozesuan mapa kontzeptualak erabiltzeko proposamena. 2007ko azaroan eskuratua ondoko honetan: <http://cmc.ihmc.us/papers/cmc2004-057.pdf>

Guruceaga, A. (2002). *Euskonews & Media*, 160, 3-22. 2007ko azaroan eskuratua ondoko honetan: <http://www.euskonews.com/0160zbk/gaia16001eu.html>

Energia (n.d.). 2007ko azaroan eskuratua ondoko honetan:

http://www.zientzia.net/teknoskopioa/2006/irudiak/argazkiak/00_KM.jpg

Irvine, L. M. C. (1995). Can concept mapping be used to promote meaningful learning in nurse education? *Journal of Advanced Nursing*, 21, 1175 – 1179.

Novak, J.D. (1998). Learning, creating, and using knowledge: Concept Maps as facilitative tools in schools and corporations. Mahwah, NJ: Erlbaum

Novak, J.D. & Gowin, D.B. (1984). *Learning how to learn*. New York: Cambridge University Press.

Novak, J. D. (1990). Concept maps and Vee diagrams: Two metacognitive tools to facilitate meaningful learning. *Instructional Science*, 19, 29 – 52.

Schmid, R. F., & Telaro, G. (1990). Concept mapping as an instructional strategy for high school biology. *Journal of Educational Research*, 84, 78 – 85.

Trebol, F.; Astiz, M.; Bildarratz, S.; Etxabarri, J. eta Olazabal, J. (2004). Hezkuntza Berezian esku hartzeko oinarri psikologikoak. *Uztaro*, 49, 59 - 86.

GARATERM: DISKURTZO AKADEMIKO-PROFESIONALAREN DIDAKTIKA ETA GARAPENA UZTARTZEKO TRESNA INFORMATIKOEN DISEINUA ETA INTEGRAZIOA HELBURU DUEN PROIEKTUA

Igone Zabala, Axun Aierbe, Izaskun Aldezabal, Maxux Aranzabe, Xabier Arregi, Jose Mari Arriola, Agurtzane Elordui, Antton Elozegi, Kristina Elozegi, Joseba Ezeiza, Ines Garcia, Julio Garcia, Mikel Lersundi, Itziar San Martin, Iñaki Ugarteburu (EHU)

1. SARRERA

Komunikazio honen helburua da GARATERM proiektuaren nondik-norakoak azaltzea. Egitasmo hau 2008 urtean zehar eraman behar dugu aurrera EHUKo hamabost ikertzailearen artean eta, beraz, diseinatzeko orduan kontuan hartu ditugun beharrak azalduko ditugu lan honetan, emaitzak eta gauzatutako produktuak baino gehiago.

GARATERM egitasmoa aurkeztu genuen EJIE Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak eta EHUK 2007 urtean egin zuten deialdian. Deialdi horrek zenbait baldintza aurreikusten zituen. Hasteko, ikerketa aplikatuarekin eta zehazkiago informazioaren sistema eta teknologiekin lotuta egon behar zuten proiektuok; bigarrenik, diziplinarteko egitasmoak izan behar ziren eta, azkenik, lan-eremu jakin batzuetan kokatu behar ziren, alegia, “Teknologia elektronikoa eta komunikazioak”, “Teknologia informatikoa” edo “Informaziorako zerbitzuen teknologia” alorretako batean.


Bestalde, hainbat ikerketa-ildo hartzen ziren lehentasunezko zatitza deialdian eta, horien artean, gure egitasmoa “Irakaskuntzari laguntzeko sistemak garatzeko” helburua zuen ikerketa-ildoan kokatu genuen. Sail eta diziplina desberdinetako 15 ikertzailek hartzen dute parte proiektu honetan. Bereziki, Euskal Filologia Saileko, Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saileko, Didaktika saileko eta Lengoaia eta Sistema Informatikoak sailekoak dira ikertzaile horiek. Egitasmoa 2008 urtean eraman behar dugu aurrera. Hortaz, labur azalduko dugu zein diren ikusmiran ditugun helburuak eta erronkak.

Bigarren atalean, GARATERM egitasmoaren helburu orokorraz arituko gara. Hirugarren atalean, alor espezializatu eta garapen lexiko-diskurtsiboan unibertsitateak duen zeregina izango dugu hizpide eta zeregin horretan aurkitzen ditugun oztopoez eta beharrez hitz egingo dugu zehazkiago. Unibertsitatearen esparruko lotura horiek mugatu ondoren, aurreikusitako baliabideek unibertsitate kanpoko gizartearen beste alor batzuetan egin dezaketen ekarpenaz arituko gara, hizkuntza-komunitate osoa kontuan

hartzen duen ikuspegi orokorrigo batekin lotzeko asmoz. Zeregin, oztopo eta behar horiek garapenean, didaktikaren eta ikerketaren alorrekin lotuko ditugu laugarren atalean. Azkenik, bosgarren atalean, hiru alor horiek harremanetan jartzeko beharko liratekeen tresna informatikoen modulu nagusiak gaingiroko irudikatuko ditugu.

2. EGITASMOAREN HELBURU OROKORRAK

GARATERM egitasmoaren helburu orokorra da alorrez alorreko erregistro berezituen garapenean eta finkapenean laguntzeko beharrezkoak diren baliabideen bilgune estrategiko bat diseinatzea. Bilgune estrategiko hori erdiesteko, Teknologia Informatikoek eskaintzen dizkiguten bideak baliatu nahi ditugu, hiru alor uztartzen saiatzeko: alorrez alorreko erregistro berezituen garapena, diskurtso mota horien ezaugarri linguistikoen ikerketa eta hizkera berezituen didaktika.



1. irudia: GARATERM proiektuaren helburua: alorrez alorreko erregistro berezituen finkapenean laguntzeko baliabideen bilgune estrategikoa diseinatzea.

Hiru alor horiek uztartzea ezinbestekotzat jotzen dugu gure xedea baita unibertsitatean eskaintzen dugun erregistro berezituen inguruko irakaskuntza esanguratsua izatea eta unibertsitateak prestatzen dituen profesionalek hizkuntzaren alor berezietan zehar euskara egiten ari den garapen lexiko-diskurtsiboan eragile eraginkorrak izatea.

Proiektu honen beharra ikusi dugu, hain zuzen ere, euskararen normalizazio eta estandarizazio prozesuaz eta prozesu horren faseez gogoeta egin dugunean, bereziki, prozesu horrek eskatzen dituen jardueraz, eta fase eta jarduera horietako bakoitzean hizkuntzalariok dugun rolaz gogoeta egin dugunean (Elordui eta Zabala 2007).

Lau fase bereizi ohi dira hizkuntzen estandarizazio-prozesuetan (Haugen 1983): estandarra izango den aldaeraren hautapena, aldaera horren kodifikazioa (grafizazioa, gramatikalizazioa, lexikalizazioa), estandarraren ezarpena hizkuntza-komunitatean eta, azkenik, hizkuntzaren elaborazioa edo lantzea (hiztegiaren modernizazioa eta garapen diskurtsiboa).

Faseez hitz egiten badugu ere, egiatan prozesuez hitz egin beharko genuke, ez baitira ezinbestez bata bestearen atzetik datozen faseak: batzuk besteekin gainezartzen dira. Adibidez, hiztegiaren modernizazioak eta garapen diskurtsiboak azkenik aipatu baditugu ere, kodifikazioarekin eta kodifikaturiko estandarraren ezarpenarekin gainezartzen diren prozesuak dira: garbi dago, adibidez, erabiltzaileak zenbakiak edo hitz elkartuak idatzi dituztela urte askoan Euskaltzaindiak elementu horiek nola idatzi behar ziren esan aurretik. Beste adibide bat ematearren, erabiltzaileak ez dira zain geratzen hizkuntza alor jakin batean erabiltzeko, Euskaltzaindiak Hiztegi Batuan esparru horretako hiztegi-sarrerak erabakitzen dituen arte.

Bestetik, faseen arteko atzera elikadura behar da. Adibidez, ezinbestekoa da kodifikaturiko baliabideen ezarpenaren ebaluazioa egitea, eta ebaluazio horrek beharrezkoa dela ikustarazten badigu, kodifikazio-arauak berrikusi egin beharko dira, hiztunen komunitateek egiten dituzten benetako erabileretara egokitzeko: kodifikaturiko estandarra benetako hizkuntza-aldaera izateko, ezinbestekoa da hiztunen ekoizpenetan presentzia izatea.


Nolanahi ere, aipaturiko lau prozesu horietan ezberdinak dira helburuak, eta oso desberdina hizkuntzalarien rola: hautapen eta kodifikazio prozesuetan hizkuntzalariak, filologoen, akademikoek protagonismo handia dute baina ezarpenean eta elaborazioan alorrez alorreko komunitate diskurtsiboak dira protagonista nagusiak (Bibiloni 1997). Prozesu hauei dagozkien jarduerak eta arau eta gomendio motak nahastetik etor litezke ezinegonak eta gaizkiulertuak erabiltzaileen eta arau-emaileen edota arau horien kudeatzaileen artean. Kodifikazio fasean aldakortasun dialektala kudeatzea da mota desberdinetako arauen helburua: ortografia bateratu bat eta estandar zaindu orokor baten erabilera-arau gramatikal, estilistiko zein lexikoak bilatzen dira prozesu hauetan. Elaborazio fasean aldiz, erronka izaten da estandar zaindu orokor horretatik abiatuta erregistroetan zeharreko garapen polizentrikoa lortzea. Garapen polizentriko hori esparru desberdinetako komunitate diskurtsiboek egin behar dute ezinbestez. Izan ere, tradizio diskurtsiboen ondorio dira erregistro berezituak (Gallegos, 2003).

3. UNIBERTSITATEA ETA EUSKARAREN GARAPEN LEXIKO-DISKURTSIBOA

Unibertsitatean kokatuta dago alorrez alorreko jakintza garatzeko erantzukizun berezia duen komunitate epistemologikoa. Jakintzaren garapen horretarako, ezinbestekoak dira testu idatziak eta ahozkoak. Baina jakintza garatu ez ezik, komunitate epistemologiko horren kideak izango diren aditu berriak ere prestatzen dira unibertsitatean: ikasleei finkaturiko jakintza eta aukeratutako espezialitate-alorreko kontzeptu-eskemak helarazten zaizkie, berriro ere ahozko eta idatzizko testuen bitartez. Nolanahi ere, unibertsitatea aditu-profesionalak prestatzeko eginkizun horretan, ez da hutsetik abiatzen: hezkuntza-sistemaren aurreko mailetan hasitako lanari jarraipena ematen dio unibertsitateak.

Bestalde, unibertsitateak prestatzen dituen aditu-profesionalak erantzukizun berezia dute, gizarteratzen direnean: edozein gizarretan goi mailako tituludunei aitortzen zaie estandar zaindua trebetasunez erabiltzeko gaitasuna eta bere espezialitate-alorreko gaietan zehaztasunez eta egokiro erabiltzeko trebetasuna.

Bukatzeko, unibertsitateak aditu-profesionalak ez ezik, testuak ere gizarteratzen ditu, jakintza hedatzeko edo dibulgatzeko duen zereginari erantzuteko.



2. irudia: Unibertsitatearen ekarria alor berezituetao garapen lexiko-diskurtsiboan

4. ALORREZ ALORREKO DISKURTSO BEREZITUAREN GARAPENAREN, IKERKETAREN ETA DIDAKTIKAREN ERRONKAK

Bigarren atalean aurreratu dugun bezala, diskurtso berezituaren garapena, ikerketa eta didaktika uztartu nahi ditugu GARATERM egitasmoan. Uztartze hau egiteko ikusten dugun beharra justifikatzeko unibertsitatearen esparruan uztartu nahi ditugun hiru alor horietan ikusten ditugun oztopoak eta beharrak zerrendatuko ditugu atal honetan.

4.1. Alorrez alorreko diskurtso berezituaren garapena

Alorrez alorreko diskurtso berezitua alor horietan hizkuntza erabiltzen duten komunitate epistemologiko-diskurtsiboek garatzen dute zalantzarik gabe (Swales, 1990). Bestalde, jakina da alor berrietako garapen lexiko-diskurtsiboak ezinbestez eskatzen dituela baliabide lexiko-diskurtsibo berriak edota aurreko baliabideen erabilera berriak.

Baina, garapen lexiko-diskurtsiboa aurrera joan dadin, baliabide berriak sortu ez ezik, finkatu ere egin behar dira erabileran. Hiru prozesu hartu behar dira kontuan, beraz. Hasteko, baliabideak sortu edo egokitu behar dira erregistro jakin baten behar diskurtsiboen arabera. Sortutako baliabide horietako batzuk diskurtso-komunitatean hedatu eta erabileran ezarriko dira eta beste batzuek aldiz, ez dute arrakastarik izango komunitatearen erabileran. Komunitatean ezarritako baliabide horiek detektatu eta lan lexicografikoetan edota estilistikoetan kodifikatu behar dira finkapena ziurtatzeko.

Hainbat faktore daude hizkuntza-baliabideen finkapena zailtzen dutenak. Izan ere, euskarak presentzia txikia du adituen arteko komunikazioan. Gainera, askoz ere presentzia handiagoa du alor akademikoetan, alor profesioaletan baino. Hori horrela izanik, irakasle-ikasle harremanak oso ugariak eta arinak dira eta aditu-irakasle-profesionalen arteko harremanak aldiz, oso mugatuak. egoera honen ondorio nabarmenak dira aldakortasun asistematiko handia, berezko finkapen ezarekin estuki lotuta dagoena (Zabala eta Elordui 2005).

Bestetik, azpimarratzekoa da desegokitasun nabarmenak daudela erabileraren eta kodifikazioaren artean: erabilitako baliabide asko kodifikatu gabe daude eta, bestetik, lan lexicografikoetan kodifikaturik azaltzen diren baliabide asko ez daude sustraituta erabileran. Honelako kasu ugari gertatzen dira, besteak beste, hizkuntzaren garapen lexiko-diskurtsiboaren hasierako garaian, baliabideen beharrak eraginda, neologia lexicografikoak *in vitro* sorturiko baliabide ugari ez direlako heldu ezartzera diskurtsoan.

Testuen gaineko interbentzio puntuala ezin dugu utzi aipatu gabe. Izan ere, sistematikotasunik gabeko interbentzio modu honek aldakortasuna areagotzen duela pentsa daiteke. Azkenik, sustraitutako erabilera kodifikatzeko helburua baino, motibazio

zuzentzailea duten produktu linguistikoek, zaildu egiten dute diskurtso-komunitateek sortzen dituzten baliabideen finkapena (Gutierrez Rodilla 1988, Elordui eta Zabala 2005).

4.2. Alorrez alorreko diskurtso berezituaren didaktika

Diskurtso eta erregistro espezializatuen didaktikari dagokionez, egun oro har onarturik dago arrakasta akademiko eta profesionala estuki lotuta dagoela jakintza-arloko eta diziplina profesionaleko berriazko testuak trebetasunez baliatzeko gaitasunarekin.

Hori dela eta, Europako Unibertsitate Esparruko titulazio berriei begira egindako liburu zurietan lehentasunezko helburutzat hartzen dira unibertsitateko irakaskuntza-aldian arloan arloko komunikazio-gaitasun jasoak eta espezialitateko diskurtsoei lotutako ezagutza sendoak (Ezeiza, 2007).

Hizkuntza normalizatueta arloan arloko komunikazio-gaitasun espezializatua lortzen dute ikasleek ohiko prozesu akademikoetan jasotzen duten *input*aren bitartez. Baina normalizazio bidean dauden hizkuntzetan ikasleek *input* aldakorra eta ezegonkorra jasotzen dute. Hori dela eta, irakaskuntza esplizitua eta dinamikoa behar dute. Areago, hizkuntza arlo berezitueta pairatzen ari den garapenari estuki lotutako irakaskuntza behar dute ikasleek.

4.3. Alorrez alorreko diskurtso berezituaren ikerketa

Unibertsitateko ikasleei arloz arloko genero eta erregistroen ezagutza eta kudeatzeko gaitasuna bermatzen dien irakaskuntza esanguratsua eskaini nahi badiegu, ezinbestekoa dugu arloan arloko diskurtso eta erregistro berezituaren karakterizazioa egitea: kategoria eta azpikategoria desberdinetako hiztegi-elementuen erabilera-maiztasuna, elementu horiek diskurtsoan duten zeregina, terminologia eratzeke alor bakoitzean dauden joerak, konbinazio fraseologikoak e.a.

Bestetik, alorrez alor jakintza garatzearekin batera eratu diren kontzeptu-eskemak ezagutu behar ditugu, ikuspegi semantiko-pragmatikotik sistematikoa den irakaskuntza eta terminologiaren kudeaketa posible izateko. Nolanahi ere, erregistro hauen irakaskuntza esplizitoan egingo den ahaleginak eraginkortasun txikia izango du ikasleek aditu-irakasleengandik jasotako *input*ak asistematikoa izaten badirau.

Hortaz, motibazio aplikatuko ikerkuntza behar da, aldakortasunaren karakterizazioan eta harmonizazioaren bidezko aldakien finkapenean laguntzea helburu duten

baliabideak garatzeko motibazioa duen ikerkuntza. Didaktikak era honetako ikerkuntzaren eskutik helduta joan behar du.

Esan beharra dago, hala ere, zailtasun handiak daudela alor espezializatu hauen erabileraren deskripziorako eta kodifikaziorako. Zailtasun horietako bi baino ez ditugu aipatuko hemen ordea. Hasteko, oso nabaria da ahozko eta idatzizko ekoizpenaren arteko desoreka. Izan ere, gelako ahozko ekoizpenak askoz ere ugariagoak dira gure artean, dokumentu idatzi argitaragabeak baino eta halako dokumentuak material idatzi argitaratuak baino ugariagoak. Nolanahi ere, klase magistralak, irakasgaien irakaskuntza-gidak, apunteak, praktika-protokoloak, mintegiak, ikasleek egiten dituzten lanak, tesien proiektuak eta laburpenak, era askotako idazki administratiboak bezalako materialek benetako erabileraren berri eman diezagukete, material argitaratuek eta zuzentzaileek edota itzultzaileek kontrolatuek baino areago.

Arazo honi gaineratu behar zaio alor akademikoetan egiten den erabileraren gutxiespena: *corpus*etan material argitaratuak eta zuzentzaileek edota itzultzaileek kontrolatuak biltzen dira. Baina askotan eremu akademikoan erabiltzen diren beste testu hauek eragin handiagoa dute erabiltzaileengan eta, beraz, garrantzi handiagoa dute garapen lexiko-diskurtsiboan. Ezin diogu ezikusia egin egoera honi.

5. ERREGISTRO BEREZITUEN GARAPENA, IKERKETA ETA DIDAKTIKA UZTARTZEKO BILGUNE ESTRATEGIKOA

Goazen bada gaingiroki ikustera zer nolako moduluak aurreikus daitezkeen erregistro berezituaren garapena, ikerketa eta didaktika uztartzeko helburua duen bilgune estrategiko batean.


Hasteko, testu- edo dokumentu-biltegi bat behar da aditu-irakasleek edo ikasleek ekoiztiko askotariko testuak modu sistematikoan jasotzeko. Erabilera errealaren berri ematen diguten dokumentuak dira testu hauek

Bestalde, testu-biltegi horretatik datu linguistikoak automatikoki edo erdiautomatikoki erauzteko analizatzailerak eta erauzleak behar dira. Erauzitako datu horiek posible egingo diete hizkuntzalariei espezialitateko diskurtsoen karakterizazioa baina, bestetik, erauzitako datu horiek egokiro antolatuta, aditu-irakasleen eta ikasleen eskura jar daitezke baliabideak biltzen dituen plataforma batean. Erabilera errealetik ateratako baliabide hauek ekarpen handia egingo liokete terminologiaren eta bestelako hizkuntza-baliabideen finkapenari. Testuak eta dokumentuak beraiek ere kontuan har daitezke plataforma honek eskainiko lituzkeen baliabideen artean. Izan ere, hizkuntzen

didaktikak ere onetsia du testu-generoen bidezko metodologia espezialitate-hizkeren eta itzulpengintzaren irakaskuntzarako.

Plataforma horrek dokumentu-biltegitik erauzitako baliabideak ez ezik, beste talde edo erakunde batzuek garatutako baliabide batzuetarako eztekak eta loturak ere eduki beharko lituzke. Gainera, hizkuntzalarien eta adituen arteko komunikazioa bideratzeko tresna ere izan beharko luke plataforma honek.

Unibertsitatekan kanpoko beste erakunde eta eragile batzuei begira, plataforma hau unibertsitatearen diskurtso akademikoaren eta terminologiaren erakusleho bat litzateke eta oso baliagarria litzateke lehen eta bigarren hezkuntzarako material didaktikoak lantzen dituzten eragileentzako eta lan terminologiko eta lexikografikoa oro har egiten duten erakunde eta eragileentzat oro har.



3. irudia: Erregistro berezituen garapena, ikerketa eta didaktika uztartzeko bilgune estrategikoa

BIBLIOGRAFIA

- Bibiloni, G. 1997. *Llengua estandard i variació lingüística*. Bartzelona. Contextos
- Elordui, A. eta Zabala, I. 2005. "Terminological Variation in Basque. Analysis of texts of Different Degrees of Specialization" *SKY Journal of Linguistics* 18 (2005): 71-91
- Elordui, A. eta Zabala, I. 2007. "Euskararen garapen lexiko-diskurtsiboaren egungo erronkak Mitxelena proposatutako jarraibideen argitan" *Komunikazioa. Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*. Gasteiz 2007ko urriaren 8-10

Ezeiza, J. 2007

Gallegos, A. 2003. *Nominalización y registro técnico. Algunas relaciones entre morfopragmática, tradiciones discursivas y desarrollo de la lengua en español*. Doktoretza-tesia: Albert-Ludwigs-Universität

Gutiérrez Rodilla, B. 1988. *La ciencia empieza en la palabra. Análisis e historia del lenguaje científico*. Barcelona: Península

Haugen, E. (1983) "The implementation of Corpus Planning. Theory and practice" In J. Covarrubias & Fishman (ed.) *Progress in Language Planning. International Perspectives*. Berlin/New York/ Amsterdam: Mouton, 1983

Swales, J.M. 1990. *Genre analysis. English in academic and research setting*. Cambridge: Cambridge University Press

Zabala, I. eta Elordui, A. 2005. "Euskara zientifikoaren normalizazio: hizkuntzalarien ekarpena" In J.M Txurruka (ed.) *Euskara zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologaziora*. Bilbo: Mendebaldeko Kultur Elkarte

MAHAI INGURUKOAK

The logo for Euskara Institutua features a stylized lowercase 'e' inside a speech bubble icon, followed by the words 'uskara' and 'institutua' in a clean, sans-serif font.

euskara
institutua

MAHAI INGURUA

Parte-hartzaileak:

EHU-UPV (Euskara Zerbitzua): Juan Kruz Igarabide

- EHUren zuzenketa eta aholkularitza zerbitzuen emaitzaren ustiaketa didaktikoa (Ehulku, Ehulkulist, Testu Zuzenketen Datu-Basea)

EIMA programa: Andres Alberdi

- EIMA programan sortu diren materialen erabilera eta zabalkundea

ELHUYAR FUNDAZIOA (Elhuyar Hizkuntza Zerbitzuak): Alfontso Mujika

- Elhuyarren aholkularitza, zuzenketa eta hizkuntza zerbitzuen lanaren zabalkundea

HAEE-IVAP (Duda-Muda Zerbitzua): Mertxe Olaizola eta Xabier Amatria

- HAEE-IVAPen aholkularitza zerbitzuen lanaren onarpen eta ustiaketa gizartean

Moderatzailea:

Iñaki Ugarteburu Gastañares (EHU)

Mahai inguruaren abiapuntua

Nola gestionatu jakintza, eta, guri dagokigunez, nola kudeatu aholkularitza eta zuzenketa zerbitzuetan sortzen dena? Hau da, nola jarri hizkuntza eta aholkularitza zerbitzuetan hartu diren erabakiak (duten estatusa dutela, eta erabakiok hartzeko prozedura bat edo beste izan dela) erabiltzaile guztien esku (enpresa bateko langile guztien esku, esate baterako), eta nola bultzatu erabiltzaile horiek gomendio, arau edo dena delako horiei jaramon egitera?. Are gehiago, nola gizarteratu edo gizarteratzen ahalegindu arautegi hori?

Arduradunak proposatzen dizun hausnarketa, hiruzpalau galderari erantzunez

- Arau/gomendio/aholku, zer eredu da egokiena eta zergatik? Hau da, zer moldetan saiatu behar dugu eragiten erabiltzaileari edo, beste era batera esanda, zer estrategia erabiliko dugu erabiltzaileak bultzatzeko zerbitzu jakin batean hartutako erabakiei kasu egitera?
- Nola desadostasunari aurre egin? Gerta daiteke bat ez etortzea irizpide edo erabakietan tartean dabilzan agente edo aktoreetako batzuk (egilea, zuzentzailea, aholkularia, terminologoa, araugintzaren arduraduna...); bada, nola aurre egin desadostasunari modu eraginkor eta errealistan?
- Erabiltzaileen jarrera aholkularitzaren aurrean: estimua, onarpena, men egitea? Zer eskatzen du erabiltzaileak? Erantzuten zaio hizkuntza zerbitzuetatik?
- Nola bideratu hizkuntza auziak, bitartekotza lanetan? Oro har, nola antolatu hizkuntza bitartekotza lanak, itzulpen lanetan, enpresetan, gizarte osoari begira prestatutako araugintzan...

EIMAk sortu dituen ikasmaterialen erabilera eta zabalkundea

Andres Alberdi
EIMAKo material- aztertzaileen
koordinatzailea

Jardunaldietan, goiburuak dioena azaltzeko eskatu zidaten Euskara Institutukoek. Honatx, labur beharrez, mahai-inguru horretan esan nituenak:

- EIMAREN helburuak

■ Zer da EIMA?

EIMA izena akronimo bat da eta hau esan nahi du: **euskal ikasmaterialgintza**. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak 1982. urtetik hona abian duen lan-programa bat da.

■ Zein dira EIMAREN helburuak:

- a) euskaraz behar adinbat ikasmaterial sor dadin bultzatzea;
- b) euskal ikasmaterial horien salmenta-prezioa antzeko erdal materialena baino garestiago gerta ez dadin segurtatzea;
- c) material horiek hizkuntza-trataera egokia izan dezaten zaintzea;
- d) irakasleei, ikasleei eta irakasmunduan zuzeneko zeresana duten gainerako talde eta norbanakoei aldiro-aldiro aukeran dauden euskal ikasmaterial horien berri zehatza ematea;
- e) ikasmaterial horien kalitatea (konposizioz, maketazioz eta irudi-argazki, inprimaketa eta enkoaderazio egokiz) bultzatzea.

Mahai-ingururako eskatutakoaren funtsa, ez bairik gabe, c) eta e) epigrafeetan dago. Horien harian eta testuinguruan ulertu behar da goiburuak jasotzen duena.

- EIMAREN estilo-liburuak argitaraturik edota argitaratzear dituen liburukiak

- Joxe Ramon Zubimendi, *Ortotipografia*, 2004
- Juan Garzia, *Kalko okerrak*, 2005
- Askoren artean, *Onomastika*, 2005
- Alfontso Mujika, *Letra larriak erabiltzeko irizpideak* (inprentan)
- Patxi Petirena, *Morfosintaxia* (Euskaltzaindiari oniritzia eskatzeko prest)
- Andres Alberdi, *Estandarizatu gabeko solasak nola eman ikasliburuetan (transkripzio-kontuak)* (Aholku Batzordearen azken ukituen zain)

Langai direnak:

- Andres Alberdi, *Ahoskera*
- Jose Ramon Etxebarria (mintegi-lana), *Hizkuntza zientifiko-teknikoaren ardatzean*
- Andres Alberdi, *Saski-naski*
- *Ortotipografia* (2. itzulua)
- *Puntuazio-markak*

- Liburukien sortze-prozesua

1. EIMAREN Aholku Batzordeak (IAB) erabakitzen du premia.
2. Ardura ematen zaio egile bati.
3. IABk goitik behera aztertzen du egileak sorturiko dokumentu hori.
4. Iritzi-emaileei (80) banatzen zaie dokumentua.
5. Ekarpinak eztabaidatzen dituzte autoreak eta IABk.
6. Euskaltzaindian aurkezten da liburukia oniritzi eske.

- Liburukien zabalkundea

- Jada argitaraturik daudenak Interneten eskegita daude. www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net Hezkuntza berriztatzea/Euskara/Eskola-materialaren estilo-liburua
- Paperezko formatuan ere atera(tzen) dira (3.000 ale), eta banatu egiten dira (zaizkie):
 - . eskola guztietara
 - . argitaletxe guztietara
 - . itzulpen-etxeetara
 - . aztertzaileei eta iritzi-emaileei
 - . erakundeetara
 - . eskatzen duen orori
 - . salgai daude

- Liburukien erabilera

- EIMAK argitaraturiko liburukiak ezinbestekoak dira aztertzaileentzat eta ikasliburuak argitaratzen dituzten argitaletxeentzat.
- Erreferentzia teoriko oinarritzko ere badira argitaletxeei lan bakoitzeko egiten zaien azterketan eta txostenean.
- Liburukiek oso onarpen zabala eta aplikazio zorrotza izan dute. Eskertzekoa da argitaletxeen jarrera. Hori horrela izateko balizko arrazoiak:
 - Diru-laguntza dago jokoan.
 - Kanpotiko kalitate-kontrolatzaile gisa jokatzeko du EIMAK ezinbestean.
 - Material horren (eta besteren) premia zegoen/dago.
 - Material hori sortzen parte-hartze zuzena izaten dute argitaletxeek, eta, hura argitaratu aurretik, beti, ekarpinak egiteko aukera dute.

DUDA-MUDA

Xabier Amatria
Mertxe Olaizola

IVAP

Zerbitzuaren aurkezpena

Duda-Muda IVAPek herritarrei eta erakundeei doan eskaintzen dien kontsulta-zerbitzua da eta administrazio- eta lege-arloko terminologian eta hizkeran sor daitezkeen zalantzak argitzen saiatzea du helburu.

Joan den urtean 425 galderari erantzun ditugu; horietatik %70 terminologiari buruzkoak izan dira eta %30 administrazio-hizkerari buruzkoak.

Galderen nolakoari begiratu bat eginez gero, multzo hauetara bil daitezkeela ikus daiteke: estiloa, gramatika, lexikoa, terminoek izendatutako kontzeptuei buruzko azalpen eskea, terminoen euskarazko edo gaztelaniazko baliokideen eskea, terminoaren forma normalizatuaren argibide eskea, proposatutako termino baten onspen-eskaera, terminoen egokitasunari buruzko irizpide-eskaera (dela normalizazioaren ikuspegitik, dela genero-berdintasunaren ikuspegitik), testuaren interpretazioak eragindako itzulpen-arazoak, laburtzapenei buruzko zalantzak, esapideei buruzkoak eta izendegiari buruzkoak.

Erabiltzailearen eskaerari erantzun ote diogun jakiteko, inkesta labur bat bidaltzen zaio erantzunarekin batera. Joan den urtean, esaterako, erabiltzaileen %33k erantzun zuen inkesta eta hauek izan ziren erantzunak:

Argitu al dugu zure zalantza?

BAI. %96,3
EZ. %3,7

Garaiz iritsi al zaizu erantzuna?

BAI %93,6
EZ %6,4

Erantzuten dutenetatik gehien-gehienek esker ona adierazten digute emandako zerbitzuagatik. Erabiltzaileen gogobetetasunaren berri izateko beste modu bat zeharkakoa da: badugu erabiltzaile-kopuru finko samarra, zerbitzura behin baino gehiagotan jotzen duena. Pentsa daiteke, hortaz, zalantzak argitzeko tresna baliagarria duela gure zerbitzua.

Jakintza partekatzea

Gaur-gaurkoz ezin dugu esan galdera-erantzun horietan sortzen den jakintza partekatzeko modurik dugunik. Kotsultak erantzuteko egiten den joan-etorri guztia Acces datu-base batean gordetzen da eta hura elikatzen duten bi lagunek baino ez dute eskura han jasotzen den informazioa.

Egoera hau konponbidean jarri nahirik, ordea, abian du IVAPek Duda-Muda kontsulta-zerbitzua kudeatzeko aplikazio berria kontratatzeke prozesua; besteak beste, galdera-erantzunok Internet bidez kontsultagai ipintzeke modulua izango du. Ahaleginak egingo dira modulu hori 2008. urtearen amaieran eskaini ahal izateke.

Kotsultagileek erantzuna onartzeko erabili beharreke estrategia

Kotsultaren araberakoa izaten da erantzunaren estatusa:

- a) Euskaltzaindiak araututako gaia bada edo gomendioren bat emana badu, halaxe jakinarazten zaio erabiltzaileari;
- b) Halakorik ezean, aholku- edo proposamen-mailakoa izaten da erantzuna. Horretarako, arloan arloko erreferentziako erakundeek, lanek edo egileek diotena izaten da irizpide, horren arabera moldatzen da erantzuna.

Egindako proposamenari edo emandako aholkuari jarraituarazteke biderik eraginkorrena, inolako zalantzarik gabe, erabiltzailea konbentzitzen saiatzea da eta, horretarako, erabakiaren oinarrian dagoen arrazoibidea azaldu behar zaio.

Desadostasunari aurre egiteke modua

Desadostasuna adostasun bihurtzea nahitaezkoa den gaietan konbentzitzeko ahalegina egin beste biderik ez dugu ikusten: hartutako erabakiaren oinarrian dagoen arrazoibidea azaldu.

IVAP

http://www.ivap.euskadi.net/r61-2347/eu/contenidos/informacion/dudamuda/eu_3803/dudamuda_e.html

"ESPEZIALITATEKO HIZKERAK ETA TERMINOLOGIA" JARDUNALDIAK

(EHU: LEIOA, 2008ko urtarrilaren 31n)

Mahai-ingurua: Aholkularitza-lanaren ustiaketa didaktikoa

Alfontso Mujika
Elhuyar Hizkuntza Zerbitzuak
Elhuyar Fundazioa

1 Arau/gomendio/aholku, zer eredu da egokiena eta zergatik? Hau da, zer moldetan saiatu behar dugu eragiten erabiltzaileari edo, beste era batera esanda, zer estrategia erabiliko dugu erabiltzaileak bultzatzeko zerbitzu jakin batean hartutako erabakiei kasu egitera?

ERANTZUNA

Hizkuntza-aholkularitzako edozein estrategia erabakitzeko orduan, azken erabiltzailea hartu behar da kontuan. Erabiltzaile guztien egoera eta inguruabarrak berdinak ez direnez, erabiltzaile-tipologiaren arabeko estrategiak pentsatu behar dira.

Gure kasuan, hizkuntza-aholkularitzaren aldetik, barne-bezeroak eta kanpo-bezeroak ditugu Elhuyarren, eta ezin berdin jokatu guztiekin. Barne-bezeroak dira guretzat Elhuyarren izenean argitaratzen edo kanporatzen diren lanak egiten dituztenak. Hauek:

-Zientzia-dibulgazioan aritzen diren erredaktore eta artikulugileak: *Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkaria, *Norteko Ferrokarrilla* irratsaioa, *Teknopolis* telebista-saioa, ZerNola.net, Zientzia.net eta Basqueresearch.com guneak egiten dituztenak.

-Elhuyarrek argitaratzen dituen liburuen, multimedia-produktuen eta hiztegien egileak.

-Elhuyarren bezeroentzako itzulpenak (unibertsitatea, lanbide-heziketa, administrazioak, enpresak...) egiten dituztenak.

-Elhuyarrek kaleratzen dituen prentsa-oharrak, berriak, deialdiak, iragarkiak egiten dituztenak, hau da, enpresaren komunikazioaren eta marketinaren arduradunak.

Barne-bezeroen gaineko kontrola estua da: arau orokorrak eta barnerako baino ez diren estilo-arauak erabiltzen ditugu eta betearazten ditugu. Produkzio hori guztia kontrolatu egiten da, "iragazi" egiten da, hau da, zuzendu egiten da argitaratu aurretik.

Horrek guztiak badu helburu bat: Elhuyarren izenean kaleratzen den produkzio guztia, hala idatzizkoa nola ahozkoa, estilo berekoa izatea eta eredu garbi eta koherentea lortzea. Nolabait esateko, "Elhuyarren hala egiten dugu" esan ahal izatea.

Kanpo-bezero deritzegu Elhuyarri aholkua eskatzen diotenei edo Elhuyarrek ematen dituen ikastaroetako ikasleei (irakaskuntzako profesionalak izaten dira askotan). Haien gaineko kontrolik ez dago, jakina. Kanpo-bezeroen kasuan, gure hizkuntza-aholkularitzaren helburua bikoitza da: batetik, estilo-eredu koherente bat eskaintzea, profesionalaren beharrak asebeteko dituen; bestetik, Elhuyar euskararen estandarizazioaren paisaian kokatzea, hau da, Elhuyar euskararen estandarizazioaren eta modernizazioaren erreferenteen artean kokatzea, batez ere zientzien eta teknologien arloan.

Hasierako galderara itzulita, gure estrategia, llabur-llabur esanda, bitarikoa da: arauak eta gomendioak.

Arauak, lehen-lehenik, Euskaltzaindiak ematen dituenak dira. Ez dira eztabaidatzen (arazo puntualak kenduta); bete egiten dira.

Euskaltzaindiak arautu ez duen arloetan, Elhuyarrek emandako eta bete beharreko hobespen-arauak ditugu. Elhuyariko hizkuntza-kalitateko taldeak ezartzen ditu; berak egiten ditu horretarako azterketak, eta, behar izanez gero, berretsi edo aldatu egin ditzake. Adibidez, marratxoa nola erabili hitz-elkarteetan.

Arauen azpiko mailan, hobespen-gomendioak ditugu. Bete beharreko hobespen-arau bihurtzeko bidean daudenak. *De facto*, bete egiten ditugu, horren arabera zuzentzen baititugu testuak, baina ez daude toki bakar batean jasota eta esplizitatuta, eta estilo-gomendio gisa zabaltzen ditugu. Era askotakoak dira. Hona hemen adibide batzuk:

puntuazioa eta ortotipografia

-komaren erabilera (mendeko perpausen eta perpaus nagusien artean bai, konpletiboetan ez; lokailuak koma artean, gutxienez; subjektuaren eta predikatuaren artean komarik ez...).

-maiuskulen erabilera

-sinboloak (nazioartekoak, zuriunea % sinboloaren ondoren...)

deklinabidea

<zein...bait-> izenordain erlatiboaren deklinabidea:

(EZ) zein, zeinek, zeini...

(BAI) zeina, zeinak, zeini...

-sigla, ikur eta abarren deklinabidea (BEZa, 11n, CO₂-a...)

morfosintaxia

-erakusle eta izenorde genitiboak (*haren/bere* bereizketa; *haien/beraien/beren/euren* formen arteko hobespenak...)

-erakusleen graduen espezializazioa funtzio anaforiko-kataforikoetan (hau, hori, hura)

hobespen terminologikoak

EZ	BAI
(fisikan) jario, ahalmen	(fisikan) fluxu, potentzia
(biologian) ARN, ADN, gene-adierazpena	(biologian) RNA, DNA, gene-espresioa
(informatikan) programazio-hizkuntza	(informatikan) programazio-lengoaia
(zoologian) (Carnivora ordenakoak) haragijaleak (Bivalvia klasekoak) kuskubikoak	(zoologian) (Carnivora ordenakoak) karniboroak (Bivalvia klasekoak) bibalbioak

2- **Nola desadostasunari aurre egin?** Gerta daiteke bat ez etortzea irizpide edo erabakietan tartean dabilzan agente edo aktoreetako batzuk (egilea, zuzentzailea, aholkularia, terminologoa, araugintzaren arduraduna...); bada, nola aurre egin desadostasunari modu eraginkor eta errealistan?

ERANTZUNA

Batetik, hitz eginez eta eztabaidatuz; bestetik, diziplinaz.

Irizpide eta erabakietan aktoreetako bat ados ez badago, azaldu egin behar du, eta argudiatu. Entzun egin behar zaio. Baina ez edozein kasutan. Adibidez, Euskaltzaindiaren arauak ez dira eztabaidatzen (terminologiari lotutako arazo puntualak izan ezik). Gure hobespen-arauak ere, oro har, ez dira eztabaidatzekoak. Adibidez, marratxoa Elhuyarrek erabakia duen bezala erabiltzen ez duen egileak, Elhuyarren argitaratu nahi badu, Elhuyarren finkatua dagoen moduan jarri behar du marratxoa —berak jarri edo, berak jartzen ez badu, zuzentzaileak jarriko du—. Nolanahi ere, beti egin daitezke salbuespen puntualak hobespen-arauetan.

Baina eragozpena beste maila batekoa bada, adibidez, terminologikoa bada, eragozleari entzun egin behar zaio, eta, eztabaidatu ondoren, ebazten saiatu. Ebazpen argirik egiterik ez dagoenean, malgu jokatu behar da. Ebazpena egiteko orduan, askotariko faktoreak hartu behar dira kontuan:

soziolinguistikoak (erabilera sektorialak, tradizioa edo tradiziotxoak, zabalkundea) eta linguistikoak (zuzentasun gramatikala, koherentzia terminologikoa...).

Adibidez, *Munduko ugaztunen hiztegia* liburua argitaratu zuen Elhuyarrek duela urte batzuk. Egileak EHUKo irakasle eta UEUKo kideak ziren. Egileek <zenbatzaile> + <izen> erako izenondoak proposatu zituzten, eta Elhuyarko terminologoei, izenondo horiek badaezpadaoak zirela iritzita, izenlagunen bidea proposatu zuten.

Egileak	Elhuyar	Ingeleseko izena eta latinezkoa
antilope lauadarra	lau adarreko antilopea	Four-horned antelope (<i>Tetracerus quadricornis</i>)
sagu martsupial hirumarra	hiru marrako sagu martsupiala	Three-striped marsupial mouse (<i>Moycitis melas</i>)
jerbo mongoliar bosthatza	bost hatzeko jerbo mongoliarra	Mongolian five-toed jerboa (<i>Allactaga sibirica</i>)

Egileek, baina, ez zuten onartu Elhuyarren aukera, eta berenari eutsi zioten. Adostasunik ez zegoenez, bi aukerak argitaratzea proposatu zien Elhuyarrek egileei. Eta hala egin zen.

Halakoetan ezin da inposizioa erabili, ez du balio aginte-makila erakustea. Oso arrazoi pisuzkoak, linguistikoak eta soziolinguistikoak, izan behar dira erabakiak behartzeko. Horrelakorik ez badago, hobespenen linboan utzi behar dira auziak, ontzen. Beharbada, ez da oso irtenbide eraginkorra izango, baina bada errealista. Hizkuntza-eredua ezin da eraiki erabiltzaileen kontra; batez ere, erabiltzaileak kualifikatuak direnean.

3- **Erabiltzaileen jarrera aholkularitzaren aurrean:** estimua, onarpena, men egitea? Zer eskatzen du erabiltzaileak? Erantzuten zaio hizkuntza-zerbitzuetatik?

ERANTZUNA

Erabiltzaileak, oro har, ondo hartzen du aholkularitza. Arrazoiak eta argudioak emanez gero, eskarmentuak erakusten du jendea prest dagoela bere ohiturak aldatzeko, eredu argia eta koherentea eskainiz gero.

Jendeak "errezetak" nahi ditu, eta hizkuntza-zerbitzuak beti ez du errezetarik, baina erabiltzaileak eskertu egiten du aholkularitza: batzuetan, arazoa konpontzen diolako; bestetan, berak arazorik ikusten ez zuen tokian arazoa dagoela ikusarazten diolako.

Kanpoan ematen ditugun ikastaroetan oso argi ikusten da hori. Hitz elkartuetan marratxoa (aukerako marratxoa) erabiltzen ez duen erabiltzaileari azalduz gero marratxoak hizkuntza teknikoan zer abantaila dituen (adibidez, "erreakzio beroa" eta "erreakzio-beroa" guztiz gauza desberdinak direla; edo "egun argia" eta "egun-argia", edo "grabazio etena" eta "grabazio-etena", edo "abere hiltzaile" eta "abere-hiltzaile"), erantzuna ona izaten da.

Baina aholkularitzak, eraginkorra izango bada, iraunkorra behar du, ez puntuala. Sartu-irtenak eginez, nekez lortuko du aholkularitzak ohiturak aldatzea. Lan jarraitua da; hala izan behar du emaitzak lortuko baditu.

4- Nola bideratu hizkuntza auziak, bitartekotza-lanetan? Oro har, nola antolatu hizkuntza-bitartekotza lanak, itzulpen-lanetan, enpresetan, gizarte osoari begira prestatutako araugintzan...

ERANTZUNA

-itzulpen-lanetan:

Lehenik eta behin, behar ez den hizkuntza-auzirik sortu gabe, asmatuta dagoena berrasmatzen ibili gabe; asmatu beharrekoa asmatuz, bai, baina zuhur jokaturik. Horretarako, informazioa behar da, corpusak behar dira, erreferenteak behar dira. Gaiari aditu direnei entzun behar zaie, eta itzultzaile eta zuzentzaileen artean komunikatu egin behar da, eztabaidatu, foroak erabili, mintegiak egin. Bakarka baina ingurukoei begiraturik —eta, behar denean, ingurukoei kopiatuz— egiten den jarduera kolektibo gisa ulertu behar da itzulpengintza.

-enpresetan:


Elhuyarren, trebakuntza deitzen diogu. Trebakuntza formala garrantzitsua da (itzultzaile-zuzentzaileak elkartu eta gai bat eztabaidatu, edo testu bat aztertu edo zalantzak plazaratu), baina are garrantzitsuagoa da trebakuntza ez-formala, denborarekin eta galdera eta kontsulta zuzen eta zeharkakoen bidez lortzen den jakintza kolektiboa, giza talde batek lan kohesionatua produzitzea eragiten duena. Komunikazioa da ezinbesteko baldintza. Hortik aurrera, hizkuntza-auziak kudeatzen saiatu behar da, eta ez goitik behera ebatzi; negoziatu egin behar da.

-gizarte osoari begira prestatutako araugintzan:

- Euskaltzaindiaren araugintza dago toki gorenean; harena da ardurarik eta erantzukizunik behinena. Horregatik, bikaintasuna eskatu behar zaio araugintzari dagokionez (taxuzko arauak, ongi

euskarrituak, albo-ondoriak ere ondo neurtuta). Alde horretatik, Euskaltzaindiak saihestu egin behar luke errealitate soziolinguistikoaren gainetik pasatuta egindako esku-hartze puntualak (*Europar Batasuna, garapen iraunkorra*). Zorionez, badirudi horretaz jabetuta dagoela Euskaltzaindia.

- Terminologian, 2002an Eusko Jaurlaritzak sortutako Terminologia batzordeak orain arte ez du, zoritxarrez, oso lan eraginkorrik egin. Gaur egun terminologiaren paisaiaren argazkiak erakusten duen errealitateak ez du antz handirik duela bi hamarkadakoarekin. UZEIk dagoeneko ez du behinolako zentralitatea. Dena den, horrek badu alde positibo bat, adierazten baitu euskararen normalizazioa aurrera doala eragile gehiago ageri diren neurrian. Gaur egungo errealitatea poloaniztuna da, eta hori, berez, ez da txarra, baldin eta komunikazio-kanalak sortzen badira eta sakabanatze terminologikoa ekartzen ez badu berekin.



Terminologiaren eta araugintzaren sortzaile eta zabaltzaile nagusiak

- Gainerakoan, han eta hemen ehunduz doa estandarra, nahi baino polikiago bada ere. Hala ere, askotan, espezialista-edo garenok oso arazo xeheetan ibiltzen gara, eta ez gara ohartzen guk ia konturatu gabe egunero gauzatzen ditugun eta onartuztat ditugun hizkuntza-auzi asko eta asko, jadanik guretzat auzi ez direnak, auzi edo eztabaidagai, edo, are okerrago, gai ezezagun direla oraindik erabiltzaile askorentzat.

Batzuetan pentsatzen dugu gauza asko airean ditugula oraindik, estandarraren eraikina hastapenetan baino ez dugula, gauza asko eta asko zalantzatan ditugula, baina, hasiberri bati azaldu behar

diogunean, ikusten dugu errealitatea ez dela hain beltza; duela 20-25 urteko testuak hartuta ondo frogatzen da hori.

Hizkuntza-bitartekotzaren langintza bi ardatzetan antolatu behar da. Batetik, eztabaidan, irizitrukean eta informazioaren kudeaketan, aurrera egiteko. Bestetik, komunikazioan, etengabeko komunikazioan, erabiltzaile ez-espezialistengana ondo iristeko.

AHOZKO AURKEZPENA

Axun Aierbe



BIRFORMULAZIO-ESTRATEGIAK ETA KOMUNIKAGARRITASUNA ADMINISTRAZIOKO TESTUETAN



axun aierbe mendizabal
Euskal Herriko Unibertsitatea
Leioa, 2008-01-31

1. Sarrera

Birformulazioa erabili ohi da hiztunak komunikatu nahi duena behar bezala transmititu ez ote duen hautematen duenean, hain zuzen ere, lehendik esandakoa hobeki adierazteko: birformulatzaileren bidez hiztunak aurretik esandakoa zehatz dezake edo zuzendu (Martín Zorraquino & Portolés Lázaro 1999: 4121).




2. Gaztelaniazko birformulatzailak

► Martín Zorraquinok eta Portolés Lázarak (1999: 4122-4139) lau birformulatzaille multzo bereizten dituzte gaztelaniarako:

▪ Azalpenezkoak:

- *o sea*
- *es decir*
- *esto es*
- *a saber*
- *en otras palabras*
- *en otros términos*
- *dicho de otra manera*
- *dicho de otra forma*
- *dicho de otro modo*
- ...




2. Gaztelaniazko birformulatzailak

▪ Zuzenketak sartzekoak:

- *mejor dicho*
- *más bien*
- *digo*

▪ Urruntzea adierazten dutenak:

- *en cualquier caso*
- *en todo caso*
- *de todos modos*
- *de todas formas*
- *de todas maneras*
- *de cualquier modo*
- *de cualquier forma*
- *de cualquier manera*



2. Gaztelaniazko birformulatzailak

▪ Laburbiltzekoak:

- *en suma*
- *en conclusión*
- *en resumen*
- *en síntesis*
- *en resumidas cuentas*
- *en definitiva*
- *a fin de cuentas*
- *en fin*
- *total*
- *al fin y al cabo*
- *después de todo*



3. Birformulatzailak ala fraseologia-unitateak? Bestelako sailkapenak

► Alabaina, badira beste sailkalpen batzuk ere. Corpas Pastorrek (1996) fraseologia-unitateak aztertzerakoan, aipatu ditugun unitateetatik hainbat aztertu zituen, baina beste sailkapen bat egin zuen.

► Esate baterako, *en resumidas cuentas* 'iragaitze-formula' da harentzat, *o sea* eta *es decir* bezalaxe (1996: 191), eta *a fin de cuentas* eta *al fin y al cabo*, berriz, lokailuak edo 'esapide konjuntiboak' dira (1996: 108).



4. Itzulpengintza eta birformulazioa

- ▶ Itzulpengintzaren ikuspegitik, birformulazioa hizkuntzaren barneko itzulpena edo interpretazioa dela esan ohi da, testu edo berbaldi jakin baten barnean gauzatzen dena, besteak beste, lehendik esandakoa hitz ulerterrazago eta arruntagoen bidez adierazteko (Eco 2003: 282-283).



4. Itzulpengintza eta birformulazioa

- ▶ Halaber, birformulazioak hizkuntza batetik bestera itzultzean duen garrantzia ere kontuan hartzekoa da, xede-testuaren ulergarritasuna bermatu ahal izateko, jatorrizko testuan ageri ez den informazioa erants baitaiteke (zenbaitetan parafirasira joaz) xede-testuan, birformulazioa baliatuz.



4. Itzulpengintza eta birformulazioa

- ▶ Bestalde, administrazioko testuez mintzatzean, aski ohikoa da testuen ulergarritasuna zalantzan jartzen duten iritziak plazaratzea. Hori dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoan Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak hainbat lan eman ditu argitara *plain language* edo hizkera xehearen ikuspegitik administrazioko hizkera errazteko.
- ▶ Era berean, euskara teknikoaz mintzatzerakoan birformulazioa aztertu dute, besteak beste, Makazagak beste gai batzuekin batera (1996) eta Zabalak hertsikiago testu-antolatzaileez mintzatzean (1996).



5. Birformulazioa, administrazioko testuetan

- ▶ Corpusa: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko (EHAA) testuetan (nagusiki 2007koetan) ageri diren birformulatzailerik nola baliatzen diren.
- ▶ Oro har, gaztelaniazko testuak izan ohi direnez jatorrizkoak eta –salbuespenak salbuespen– euskarazkoak, berriz, itzuliak, gaztelaniazko testuak jatorrizkotzat joko dira (aldizkari ofizialetan ez baita adierazten zein den jatorrizko testua eta zein itzulia).



6. Birformulazioa gaztelaniazko eta euskarazko testuetan

6.1. Birformulatzailerik nola erabili diren gaztelaniazko testuetan

6.2. Gaztelaniazko birformulatzailerik nola euskaratu diren

6.3. Gaztelaniazko testuan birformulatzailerik agertu ez arren, euskarazko testuan birformulatzailerik agertzea



6.1. Birformulatzailerik nola erabili diren gaztelaniazko testuetan

▶ Gaztelaniaz zerrendaturiko birformulatzailerik batzuk oso ugariak dira, baina ez beste batzuk.

▶ Hortaz, lehenik gaztelaniazko birformulatzailerik nola erabiltzen diren eta birformulatzailerik arren zein erabiltzen diren gehien eta zein gutxién aurkeztuko dugu, eta birformulazioak gaztelaniazko jatorrizko testuetan duen lekua aztertuko dugu.




6.1. Birformulatzailak nola erabili diren gaztelaniazko testuetan

- ▶ Ahozko hizkuntzan erabiltzen diren birformulatzailak administrazioko testuetan lekuri ez dutela edo oso leku gutxi dutela aurrez ikustekoa da, baina maila jasokotzat jotzen diren edo jo daitezkeen zenbaitek ere leku urria dute testu hauetan.




6.1. Birformulatzailak nola erabili diren gaztelaniazko testuetan

AZALPENEZKOAK (2007ko testuetan)	
<i>es decir</i>	205
<i>esto es</i>	93
<i>en otras palabras</i>	3
<i>en otros términos</i>	1
<i>dicho de otro modo</i>	1



6.1. Birformulatzailak nola erabili diren gaztelaniazko testuetan

ZUZENKETAK SARTZEKOAK (2007ko testuetan)	
<i>Más bien</i>	7
<i>Mejor dicho</i>	0
<i>Digo</i>	0




6.1. Birformulatzailak nola erabili diren gaztelaniazko testuetan

URRUNTZEA ADIERAZTEN DUTENAK (2007ko testuetan)	
<i>en todo caso</i>	610
<i>en cualquier caso</i>	231
<i>de cualquier modo</i>	12
<i>de cualquier forma</i>	12
<i>de todos modos</i>	6
<i>de todas maneras</i>	4
<i>de cualquier manera</i>	3
<i>de todas formas</i>	2



6.1. Birformulatzailak nola erabili diren gaztelaniazko testuetan

LABURBILTZEKOAK (2007ko testuetan)	
<i>en definitiva</i>	28
<i>en suma</i>	11
<i>en síntesis</i>	11
<i>en resumen</i>	7
<i>en conclusión</i>	3
<i>a fin de cuentas</i>	1
<i>en fin</i>	1
<i>en resumidas cuentas</i>	0
<i>al fin y al cabo</i>	0
<i>después de todo</i>	0



6.1. Birformulatzailak nola erabili diren gaztelaniazko testuetan

- ▶ Laburbiltzeko birformulatzailak ez dira oso erabiliak administrazioko testuetan.
- ▶ Aipatzekoa da zenbait birformulatzaila ez direla ageri 2007ko testu bakar batean ere, hala nola, *en resumidas cuentas* eta *al fin y al cabo* birformulatzailak.
- ▶ Laburbiltzeko erabiltzen diren birformulatzaila horiek EHAAREN corpus osoan, hurrenez hurren, lau (*en resumidas cuentas*) eta hiru (*al fin y al cabo*) aldiz soilik ageri dira.



6.1. Birformulatzailleak nola erabili diren gaztelaniazko testuetan

- ▶ Zuzenketak txertatzeko erabiltzen diren birformulatzailleak nekez agertzen dira administrazioko testuetan: *más bien* birformulatzaillea 7 aldiz erabili da 2007an eta 71 aldiz ageri da corpus osoan.
- ▶ Aldiz, azalpenezko bi birformulatzaille eta urruntzea adierazten duten beste bi askoz erabiliagoak dira.




6.1. Birformulatzailleak nola erabili diren gaztelaniazko testuetan

- ▶ Azalpenezko birformulatzailleen artean, *es decir* eta *esto es* dira gehien baliatzen direnak:
 - *es decir*: 205 testutan (2007an) eta 2.085 testutan, corpus osoan.
 - *esto es*: 93 testutan (2007an), eta 919 testutan, corpus osoan.
- ▶ Corpus osoko emaitzen azken bilaketa 2008ko urtarrilaren 30ean egina da: emaitzak egunetik egunera aldatzen dira!



6.1. Birformulatzailleak nola erabili diren gaztelaniazko testuetan

- ▶ Administrazioko testuetan, urruntzea adierazten duten birformulatzailleak dira erabilienak, baina guztien artean, *en todo caso* eta *en cualquier caso* unitateak dira ohikoenak:
 - *en todo caso*: 610 testutan (2007an) eta 7.863 testutan, corpus osoan; baina esanahiari arreta hartuz gero, zenbaitetan ez da urruntzea adierazten duen birformulatzaillea, betebeharra edo nahitaezkotasuna adierazten duen esapidea balizik. *En todo caso* unitateak bestelako erabilerak ere izan ditzake, birformulatzaille gisara baliatzeaz gain (Montolio 1999).
 - *en cualquier caso*: 231 testutan (2007an) eta 2.823 testutan, corpus osoan. *En todo caso* unitateari buruz esanikoez, neurri batean, *en cualquier caso* unitatearentzat ere balio dute.
 - *de todos modos*: 6 testutan (2007an) eta 56 testutan, corpus osoan.



6.1. Birformulatzailleak nola erabili diren gaztelaniazko testuetan

- ▶ Beraz, esan beharrezko gaude, administrazioko gaztelaniazko testuetan gehien baliatzen diren birformulatzailleak azalpenezkoak eta urruntzea adierazten dutenak direla, baina oso leku urria dutela bai zuzenketak sartzeko baliatzen direnek baita laburbiltzeko erabiltzen direnek ere.




6.2. Gaztelaniazko birformulatzailleak nola euskaratu diren

- ▶ Batzuetan jatorrizko testuan zegoen birformulazio berbera euskaratzen da.
- ▶ Batetik, birformulatzailleen arteko sinonimia dagoenez, eta bestetik, baliokidetasunak (guztiz) finkaturik ez daudenez, hainbat birformulatzaille euskaratzen dira ordain jakin bat baliatuz, edo alderantziz, birformulatzaille jakin bat era bat baino gehiagotan euskaratzen da.
- ▶ Beste batzuetan, aldiz, gaztelaniazko birformulatzaillea ez dago euskaratuta. Adibide gisara, lehenik, urruntzea adierazten duten *en cualquier caso* eta *en todo caso* birformulatzaille baliokideak euskaratzeko baliaturiko ordain adibideak dakartzagu hona:



6.2. Gaztelaniazko birformulatzailleak nola euskaratu diren: *en cualquier caso*

- ▶ En cualquier caso, el mínimo de la ayuda será de 294 euros...
- ▶ Edozein kasutan, diru-laguntzaren gutxienezko 294 eurokoa izango da...
- ▶ [...] incluyendo las adaptaciones técnicas de seguridad y de salubridad que sean necesarias y que, en cualquier caso, deberán ser compatibles con el bien cultural
- ▶ [...] beharrezkoak diren segurtasun- eta osasungarritasun-egokitzapen teknikoak eginda, eta, betiere, kultura-ondarearekin bat



6.2. Gaztelaniazko birformulatzailleak nola euskaratu diren: *en todo caso*

- ▶ La presentación del proyecto por el mismo empresario que va a ejecutar las obras tiene carácter excepcional y requiere, en todo caso, la redacción previa por la Administración correspondiente anteproyecto.
- ▶ En todo caso, a efectos de disfrute, los periodos de tiempo fijados en días se computarán siempre con carácter de días naturales, a contar desde la fecha del hecho causante.
- ▶ Obrak exekutatu behar dituen enpresari berak proiektua aurkezteak salbuespen izaera du eta nolanahi ere, aldez aurretik Administrazioak dagokion aurreproiektua idaztea eskatzen du.
- ▶ Betiere, egunetan zehaztutako aldiak hartzeko, egutegiko egunak bezala neurtuko dira, egitate kausatzailearen egunetik aurrera.



6.2. Gaztelaniazko birformulatzailleak nola euskaratu diren: *en todo caso*

- ▶ Dichas pólizas se adecuarán en todo caso conforme a las actualizaciones que se puedan venir a realizar en el ámbito de la Administración General de la Comunidad Autónoma, cuyos importes se harán públicos para su conocimiento general.
- ▶ En todo caso, el momento concreto del disfrute del descanso quedará supeditado al mantenimiento de la atención de los servicios.
- ▶ Edonola ere, poliza horiek aldian-aldian egokitu ahal izango dira, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean egin litezkeen eguneratzeen ondorioz. Polizen zenbatekoa jakitera emango da denon ezagutzarako.
- ▶ Hala ere, zerbitzuak emateak atsedena aldia hartzeko une zehatz hori baldintzatuko du.



6.2. Gaztelaniazko birformulatzailleak nola euskaratu diren: *en todo caso*

- ▶ Esta medida estará en todo caso sujeta a negociación con la Dirección-Gerencia de la Organización de servicios correspondiente, pudiendo conllevar si así fuera necesario para su atención, un cambio de Unidad del/la solicitante.
- ▶ Dena dela, neurri hau zerbitzu-erakundeko zuzendaritzagerentziarekin negoziatu beharko da eta salbuesteko aukera hori erabiltzeko beharrezkoa balitz, eskatzailea beste unitate batera aldatu ahal izango litzateke.



6.2. Gaztelaniazko birformulatzailleak nola euskaratu diren: *en todo caso*

- ▶ En todo caso, después de 24 horas de trabajo ininterrumpido, [...] el residente tendrá un descanso continuo de 12 horas...
- ▶ La aplicación de estas compensaciones quedará en todo caso supeditada al efectivo cumplimiento de la jornada anual pactada.
- ▶ Edozein kasutan ere, lanean 24 ordu etengabe eman ondoren, [...] egoiliarak 12 orduko atsedena aldian etengabea izango du...
- ▶ Ordu horiek hartzea, edozein modutan ere, hitzartutako urteko lanaldia betetzearen menpean egongo da.



6.2. Gaztelaniazko birformulatzailleak nola euskaratu diren: *en todo caso*

- ▶ En todo caso, a los efectos del Acuerdo se considerarán deberes inexcusables de carácter público o personal los siguientes
- ▶ Nolanahi den, Akordio honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira nahitaezko eginkizun publiko edo pribatutzat
- ▶ En todo caso, la concesión de este permiso estará condicionada a la disponibilidad organizativa de la Organización de servicios correspondiente...
- ▶ Nolanahi ere den, zerbitzu-erakundearen antolaketak egoerak baldintzatuko du baimena ematea edo ez...



6.2. Gaztelaniazko birformulatzailleak nola euskaratu diren: *en todo caso* ordain espliziturik gabe

- ▶ En los supuestos de que el último puesto fuera desempeñado en adscripción provisional sin garantía retributiva, se garantizará, en todo caso, el devengo de las retribuciones correspondientes al nivel del grado personal consolidado.
- ▶ Azkeneko lanpostuan behin-behineko atxikipenean eta ordainsarietako bermerik gabe egon direnei, finkatuta duten graduari dagozkion ordainsariak emango zaizkie.



6.2. Gaztelaniazko birformulatzailleak nola euskaratu diren: *en todo caso* ordain espliziturik gabe

- ▶ La autorización podrá solicitarse en cualquier momento posterior a la fecha de nacimiento o resolución judicial de adopción, teniendo, en todo caso, una duración máxima de tres años desde la fecha de nacimiento o de la resolución judicial, sin perjuicio de que dicha situación pueda finalizar con anterioridad como consecuencia de la extinción de su relación de empleo.
- ▶ Baimena jaiotza edo adoptatzeko erabaki judiziala izan denetik edozein momentutan eska daiteke, gehienez hiru urterako, haurra jaio denetik edo erabaki judiziala eman denetik. Eskatutako epearen barruan lankontratuak bukatuko balitz, baimen hori ere bukatutzat emango litzateke.



6.2. Gaztelaniazko birformulatzailleak nola euskaratu diren: *es decir* birformulatzailaren ordainak

- ▶ Es decir, se garantiza que los cupos asistenciales asignados a cada médico tenderán a ajustarse a la estructura demográfica estándar de la Comunidad Autónoma Vasca (CAV), reconociéndose, en cualquier caso, los excesos que sobrepasen la media anteriormente citada.
- ▶ Hau da, mediku bakoitzari esleitutako asistentzia-kupoak Euskal Autonomia Elkargoko egitura demografiko estandarrera egokituko dela garantizatuko da. Edonola ere, lehen aipatutako batezbestekoa gainditzen duten kupoak onartuko dira.



6.2. Gaztelaniazko birformulatzailleak nola euskaratu diren: *es decir* birformulatzailaren ordainak

- ▶ Únicamente podrán recibir las subvenciones contempladas en esta modalidad los proyectos que son deficitarios, es decir, aquellos proyectos que no puedan cubrir los gastos previstos mediante su financiación propia obligatoria.
- ▶ Defizitarioak diren egitasmoei bakarrik eman ahal izango zaie diru-laguntza, hots, aurreikusitako gastuak, eskatzaileak ezinbestean jarri beharreko finantzaketa propioarekin berdindu ezin dituzten egitasmoei.



6.2. Gaztelaniazko birformulatzailleak nola euskaratu diren: *es decir* birformulatzailaren ordainak

- ▶ Cada clase competirá con las de su propia categoría y no con todo el resto de participantes. Es decir, que los participantes de 5.º y 6.º de EP de modelo A competirán con el resto de grupos de igual modelo y nivel; se procederá de la misma manera en cada una de las seis categorías restantes.
- ▶ Lehia multzo horietako bakoitzean jokatu da eta ez parte-hartzaile guztien artean. Esan nahi baita, A ereduko LMHko 5. eta 6. mailakoak eredu eta maila berekoekin alderatuko direla. Berdin-berdin beste sei multzoetako bakoitzean.



6.2. Gaztelaniazko birformulatzailleak nola euskaratu diren: *es decir* birformulatzailaren ordainak

- ▶ También se tiene constancia de la cobertura mediática, no sólo por el número de pueblos y territorios por los que circula la carrera, sino por los periódicos, propaganda y televisiones que informan sobre la misma. Es decir, su influencia sobre la población o número de habitantes es enorme, por lo que resulta un medio idóneo para llevar un determinado mensaje a la población.
- ▶ Badakigu, orobat, hedabideek estaldura handia ematen diotela, ez bakarrik lasterketa hainbat herri eta lurraldetatik igarotzen delako, baizik eta baita egunkariak, propagandak eta telebistek horren berri ematen dutelako ere. Bestela esanda, biztanlerian edo biztanle-kopuruan duen eragina ikaragarria da eta, hori dela-eta, bitarteko egokia da biztanleen artean mezu jakin bat zabaltzeko.



6.2. Gaztelaniazko birformulatzailleak nola euskaratu diren: *es decir* birformulatzailaren ordainak

- ▶ La Cuenta General recoge los anexos previstos en el artículo 61.2 de la Norma Foral 14/2003, es decir, el balance de comprobación de sumas y saldos, el estado de modificaciones de créditos y el estado de situación y movimiento de valores.
- ▶ Kontu Orokorrek 14/2003 Foru Arauaren 61.2 artikuluan aurreikusitako eranskinak jasotzen ditu, alegia, kopuru eta saldoen egiaztatze-balantzea, kreditu-aldaketen egoera eta baloreen mugimendu eta egoera.



6.3. Gaztelaniazko testuan birformulatzailerik ez, baina euskarazko testuan bai.

► Azkenik, gaztelaniaz birformulaziorik edo birformulazio espliziturik agertu ez arren, euskarazko administrazioko testuetan birformulazioa baliatzen da hainbatetan, izan ere, itzultzerakoan txertatzen da birformulatzailerik, jatorrizko testuan esplizituki ez agertu arren.



► Hain zuzen (ere) birformulatzailerik maiz agertzen da gaztelaniaz birformulaziorik ez egon arren.

6.3. Gaztelaniazko testuan birformulatzailerik ez, baina euskarazko testuan bai.

► Facilitar la incorporación del alumnado de reciente incorporación al Sistema Educativo Vasco necesariamente contemplar la mejora en la capacidad de comunicación del mismo, mejora a la que dan respuesta los diferentes programas de refuerzo lingüístico.



► Euskal Hezkuntza Sistemari hasi berriak diren ikasleei laguntzeko, ezinbestekoa da euren komunikatzeko gaitasuna hobetzea; behar horri erantzuten diote, hain zuzen, hizkuntza indartzeko zenbait programek.

6.3. Gaztelaniazko testuan birformulatzailerik ez, baina euskarazko testuan bai.

► Para los que no alcancen el año de servicio la duración vacacional será proporcional al tiempo de servicio transcurrido desde la fecha de su ingreso o reingreso hasta el 31 de Diciembre del mismo año.



► Lanean urtebete osoa egin ez dutenek proportzioan dagozkion oporrak hartuko dituzte, hain zuzen ere, lanean hasi edo itzuli direnetik abenduaren 31 arteko epeari dagozkion opor-egunak.

4. Ondorioak

► Administrazioko gaztelaniazko testuetan gehien baliatzen diren birformulatzailerik azalpenezkoak eta urruntzea adierazten dutenak dira, baina oso leku urria dute bai zuzenketak sartzeko baliatzen direnek baita laburbiltzeko erabiltzen direnek ere.

► Euskaratzerakoan aldakortasun handia dago testu batetik bestera: batzuetan, itzultzaileak baliokide jakin bat edo beste bat hautatzen duelako; baina, beste batzuetan, testu berean ere ikus daitezke aldakortasuna.

► Euskarazko testuan, batzuetan birformulatzailerik erabiltzen da, jatorrizko testuan birformulatzailerik esplizituki ez agertu arren; eta esaldi luzeak ulerterrazago izaten laguntzen duenez, komunikaziorako lagungarri gerta daitezke.



Bibliografia

- CORPAS PASTOR, Gloria (1996): *Manual de fraseología española*. Madrid: Gredos.
- ECO, Umberto (2003): *Dire presque la même chose: Expériences de traduction*. Paris: Bernard Grasset.
- MAKAZAGA, Jesus Mari (1996): "Perpauen arteko testu mailako lotura: testu zientifikoak sortzen". Zabala, Igone (koord.) (1996): *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 45-111.
- MARTÍN ZORRAQUINO, M^a Antonia & PORTOLÉS LÁZARO, José (1999): "Los marcadores del discurso". Bosque, Ignacio & Demonte, Violeta (zuz.) (1999): *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*. Madrid: Espasa Calpe. 4051-4203.
- MONTOLÍO, Estrella (1999): "Las construcciones condicionales". Bosque, Ignacio & Demonte, Violeta (zuz.) (1999): *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*. Madrid: Espasa Calpe. 3643-3737.
- ZABALA, Igone (1996): "Testuan iruzkinak sartzeko funtzioa izan dezaketen antolatzaileak: *hau da, hain zuzen ere, adibidez, batez ere*". Zabala, Igone (koord.) (1996): *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 113-130.



